

KLASIKOAK, S.A. lukro-asmorik gabeko elkarateak argitaratu du obra hau, elkaratearen sustatzaile eta partaideak honako erakunde hauek izanik:

Fundación BBVA

•

Bilbao Bizkaia Kutxa — BBK

•

Gipuzkoa Donostia Kutxa — KUTXA

•

Caja VITAL Kutxa

•

Euskal Herriko Unibertsitatea — UPV/EHU

•

Deustuko Unibertsitatea

ARRAZOIMEN
PRAKTIKOAREN KRITIKA

IMMANUEL KANT

Arrazoimen
Praktikoaren Kritika

Jatorrizko izenburua:
Kritik der praktischen Vernunft
Euskaratzailea: *Ibon Uribarri Zenakorta*
Berrikuslea: *Joxe Azurmendi*
Hitzaurregilea: *Otfried Höffe*

Lehen argitalpena: 2005eko azaroan

© Itzulpenarena: Ibon Uribarri Zenakorta
© Klasikoak, 2005

Begoñako Andra Mari, 16 • 48006 Bilbo
Tel.: 94 • 416 14 89 / Fax: 94 • 416 63 48

Erabat debekaturik dago, Copyright-titularren idatzizko baimenik gabe, legeek ezarritako zigorraren pean, zatika edo osorik obra hau birsortzea edozein bitartekoz edo prozeduraz, erreprografia eta trataera informatikoa barne direla, baita beronen aleak alokapen edo mailegutza publikoaren bidez banatzea ere.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia 2005-XI-23

ISBN: 84-96455-11-4
Lege gordailua: BI.-3152-05

Fotokonposaketa: L&A Diseinua
Begoñako Andra Mari, 10 • 48006 Bilbo

Inprimaketa: Gestingraf L. B. A.
Ibarsusi Bidea, 3 • 48004 Bilbo

Diseinua eta Maketa: A.I.C.
Infante Don Juan Etorbidea, 26 • 20008 Donostia

HITZAURREA

1. Lehen *Kritikarekiko* eta *Oinarritzapena* rekiko lotura

Europar Ilustrazioaren gorenean Immanuel Kantek garaiko ideia gidari bat, kritika, beste bi ideia gidariei aplikatzen die, arrazoimenari eta askatasunari. Horrela, Ilustrazioaren autokritika errotikoa eta zabala egiten du, bai lehen uneko garaiarena, filosofiaren eragin handia jaso zuenarena, baita geroko aldiarena ere, filosofiak indarra galdu zuen aldi horrena. Autokritika hori artean sonatu bihurtu diren hiru galderetan biltzen da: 1. Zer ezagut dezaket? 2. Zer egin behar dut? 3. Zer itxaron dezaket? Lehen galderari dagokion erantzuna, beste bi galderak ere jorratzen dituena, arrazoimenaren kritika transzendentala, hain da enziklopedikoa eta bereziki hain berria, ezen garai berri bat hasten baitu. Idazlan hori, hogei urte inguruko pentsamenduahaleginen ondorioa eta hamar urte lanik argitaratu gabe egon ondoren 1781ean agertzen dena, *Arraziomen hutsaren kritika*, Arthur Schopenhauer-en ustez «Europar inoiz idatzi den liburu garrantzitsuena» da (*Gesammelte Briefe*, arg. A. Hübscher, Nr. 157). Filosofo askok baliospen berbera egiten dutenez, Charles S. Peirce pragmatista estatubatuarrak ere Kanten lehen kritikari «filosofian edan dudan bularretako esnea» zeritzon (*My pragmatism* laneko sarreran, 1909), Kanten beste lanak ezkutuan geratzen dira sarri. Horrez gain, 1788an argitaratu zuen *Arrazoimen praktikoaren kritika* Kantek filosofia moralaren eremuan idatzi zuen lehen idazlan kritikoaren itzalpean dago (*Ohituren metafisikaren oinarritzapena*, 1785).

Gutxiespen bikoitz horren aurkako bi arrazoi ditugu. Batetik, lehen kritikarekin loturan, ezin da ukatu haren tesiak artean asko erlatibizatu direla, adibidez ikuspegi transzendentala hizkuntzaren filoso-fiak egindako biraketa dela eta («linguistic turn») eta matematikaren teoria judizio matematikoen izaera sintetikoari buruzko zalantzak dire-la eta. Aitzitik, Kanten filosofia moralaren oinarritzko osagaiek egun ere onespena lortzen dute: baliotasun mugaezina, kategorikoa, agindu moralen adigai-osagai gisa, orokorgarritasuna haren beharrezko irizpi-de gisa eta gizakiak duen izaera bere baitarako xede gisa, bere duinta-sun utziezina, bere gaitasun moralaren «ondorio» gisa. Bi mendetik gorako eztabaida sakonen ondoren bigarren kritikako oinarritzko baieztapen batzuek lehen kritikakoek baino indar gehiago erakusten dute.

Bestalde, *Oinarritzapen*arekin loturan, bigarren kritikak bete-beharraren printzipioari dagokionez «behin-behineko ezagupena» eta «formula jakin» baten aipamena baino zertxobait gehiago dauka (lanaren hitzaurrean aipatzen denez). Gainerako hori gaiaren zabalpe-netik abiatzen da. Horrela, filosofia moralaren oinarritzapenak, zen-tzu hertsian, «arrazoimen praktiko hutsaren analitikak» irakasgai berri bat jasotzen du, «arrazoimenaren egitatea». Horren bidez arrazoimen praktiko hutsak bere «errealitatea egintzaren bidez» frogatzen du (lanaren hitzaurrean). Horri «Arrazoimen praktiko hutsaren dialekti-ka» gaineratzen zaio, hirugarren galdera jorratzen duena: zer itxaron dezaket?, eta azkenik «metodoaren irakaspen» bat.

Kanten filosofia moralaren eragin historikoan *Ohituren meta - fisikaren oinarritzapenak* izan du garrantzi handiena. Baina maila filosofikoari erreparatzen bazaio, orduan *Arrazoimen praktikoaren kritika* da nagusi. Idazkiak *Oinarritzapenak* baino gai gehiago jasotzen ditu eta, gainera, argiagoa da arazoa plazaratzerakoan, zehatza-goia adigaietan eta sendagoa pentsamen-bidean.

Hala ere, Kantek ezagutzaren hizkuntza erabiltzen du, ez ape-latiboa. Inoiz ez du nagusitasun moralaren ikuspegitik gaitzespenik egiten.

2. Oinarritzko arazoa

Arrazoimen praktikoaren kritikaren ausardia ez da txikia. Izan ere, Kantek ordura arteko etikotasunaren edo moralaren oinarritzapen orori egiten dio aurre. «Taula» laburbiltzaile batean, «etikotasunaren

printzipioan dauden determinazio-oinarri material praktikoak» sailkatzen dituenean, Kantek bere printzipio formala azaltzen du filosofia moralaren tradizio osoari, oro har determinazio-oinarrien materialtasunaren menpe ezartzen duenari, zorrozki aurkakotuz. Kant aurkakotza gutxi-asko zorrotzean ezartzen da hezkuntzaren (Montaigne), konstituzio hiritarraren (Mandeville), sentimendu fisikoaren (Epikuro) edo moralaren (Hutcheson), betegintzarrearen (estoikoak, Wolf) eta jainkotiar nahimenaren printzipio etiko materialen aurrean. Taulak guztiz osoa izan nahi duen arren, harrigarriro Platon eta Aristoteles ez ditu jasotzen.

Moralaren beste oinarritzapen saiakera horiek huts egiten dutela lehen kritikan bezala frogatzen da. Izan ere, Kanten ustez bi kasuetan uzia berbera da, baliotasun zeharo orokor eta objektiboa. Han, eremu teoretikoan zientziak aurkezten du uzi hori. Hemen, eremu praktikoan, moralak, zeinak era berean lotespen mugaezina eskatzen duen: objektibitate praktikoaren maila gorena, bestela esanda, egia praktiko, ez teoretikoa.

Kantek eskuarki arrazoimenaz sentsuen eremua gainditzeko ahalmena ulertzen du eta hori egitean zorrozki objektiboak diren printzipioei jarraitzea. Arrazoimen teoretikoa da gaindipen horren ardurduna ezagumenarentzat eta hori egitean printzipio teoretikoek determinatzen dute; aitzitik, arrazoimen praktikoa ez zaio lotzen zuzenean ekiteari, baina bai horren oinarrian dagoen desiramenari eta horren printzipio praktikoei. Arrazoimenak determinatzen duen desiramenak, subjektibitate praktikoak, nahimen ere izena du, zeina Kantentzat ez den indar irrazionala, baizik eta arrazoizkoa den zerbait: arrazoimena ekintzari lotuta. Kanten lan kritiko osoaren oinarrian dagoen bereizkuntza horrek, arrazoimen praktikoaren eta teoretikoaren artekoak, oraindik guztiz ulertu ez den eragina du: arrazoimen teoretikolari zorrozki aurkakotuz arrazoimen praktikoa osagai ezagutzaile orotatik aske dago, osagai epistemikoak ia erabat suntsituta daude hor. Horrela, Kant Platonengandik urruntzen da guztiz gai honi dagokionez, hots, ongi moralak baldintza epistemikoekin duen lotura eta horatik ondorioztatzen den itxaropen bat, alegia, filosofoek eskumen berezi bat dutela moralean eta, horregatik, gaitasun berezi bat gizartea politikoki gidatzeko. Filosofoek filosofiaren bidez lortzen duten moral bati Kantek giza arrazoimen orokorraren morala aurkakotzen

dio. Morala jakintza-osagaiekiko lotura orotatik askatzen denean (Platonengan ideien sistema, bereziki ongiaren ideia), eta alderantziz giza arrazoimen orokor eta arruntarentzat irekia dagoenean, filosofoek euren pribilegio moralak galtzen dituzte eta, gainera, hortik ondorioztatzen diren pribilegio politikoak. Kantek Platonen ideia horri egiten dion kritika ezaguna, hots, filosofoak errege izan behar duela (*Betiko bakea*, bigarren eranskina), edukiaren arabera honekin hasten da: arrazoimen teoretikoaren eta praktikoaren arteko bereizketa zorrotzarekin, moralaren demokratizazio bati lotuta.

Arrazoimen praktikoak, hobeto esanda, nahimena «errepresentazioei dagozkien objektuak sortzen dituen edo horiek sortzeko (ahalmen fisikoa nahikoa izan ala ez) bere burua, hots, bere kausalitatea determinatzeko» ahalmena da.

Lau ikuspegi dira garrantzitsuak definizio horretan: 1. «Determinazio-oinarri» adierazpenaren arabera desiratze bat da, baina ez gustagarri eta gustagaitza denaren uneko sentimenduek gidatzen duena, baizik eta arrazoiek. Arrazoimen sinplea ere bai, ez soilik arrazoimen praktiko hutsa, printzipioen arabera gidatua den desiratze bat da; horren printzipioa bitarikoa izan daiteke, arrazoimen praktiko txikiena badu, agindu teknikoak izango da, horren goratzea bada, pragmatikoa. 2. «Sortze» adierazpenak indar ekoizlea adierazten du. 3. Baina, parentesiko esakune erdiak dioenez, fisikoki nahikoa ezin da izan; nahi izatearen eta ekitearen artean adigaien araberrako aldea dago, eta sarri egitatezkoa ere bai. 4. «Norbere burua hori sortzera determinatzea» dioenean horrekin erabakia adierazten da. Arrazoimen praktiko hutsa nahimenarentzako arrazoimen-oinarrietan datza, hau da, ekitearen oinarrian dagoen desiratzea sentimenezko bultzatzailetatik beregainki determinatzeko gaitasunean, hots, irrika, premia eta desioetatik, eta noski gustagarri eta gustagaitz denaren sentsaziotik beregainki. Bere printzipioak horretatik beregainak direlako, eta ondorioz, mugaezinak direlako, eta beraz, horiek kategorikoki balio dutelako, agindu kategorikoen maila dute.

Arrazoimena ea oro har praktikoa izan daitekeen galdetzeak, eta horri lotzen zaion beste galdera honek, hots, ea arrazoimen praktiko huts gisa, subjektibitate moral gisa existitzen den, filosofiaren historia osoa zeharkatzen dute oinarritzko arazo gisa. Hori horrela dela ikusita, Kanten prozedura argia bezain laburrari «geniala» deitu behar

zaio. Hasteko Kantek adigaia zehazten du eta horrela gaizki-ulertze asko gainditzen ditu, baita hainbat irtenbide faltsu ere: arrazoimen praktikoa ez da ezagutza-gaitasuna, objektu berezi bat izango lukeena, praxia. Aitzitik, hura funtsezko eran ezberdina den, ezagutzetik eratortzen ez den, baizik eta erabat beregaina den gaitasuna da, nahi izatearena. Arrazoimen praktikoa ezagutza-gaitasun gisa ulertzen den bitartean, objektu berezi bat duena, praxia, bada, arrazoimen praktikoko huts baten pentsamenduak zentzugabekeria dirudi. Izan ere, nola gidatu beharko luke ekintza ezagutza gaitasun soil batek? Bestalde, arrazoimen praktikoa ekintzaren determinazio-oinarri gisa ulertzen bada, orduan arrazoimen praktikoko hutsa pentsatzen zaila den baina pentsa daitekeen zerbait bihurtzen da, alegia, nahi izate hutsa, kanpoko eskakizunetatik beregaina.

Adigaiaren zehaztapen horri lotzen zaio zuzenean Kanten argudioaren bigarren urratsa, hots, galdera hau: nola determinatzen du bere burua nahi izate huts batek? Hirugarren urratsak ematen digu erantzuna: nahi izatearen materia nahi izatearen kanpotik datorkigunez, nahi izate hutsak baztertu egin behar du materiaren bidezko determinazio oro, halako moldez non «materia edo forma» alternatiba badugu, forma geratzen baita soilik determinazio-oinarri gisa. Bere aldetik forma huts bat, laugarren urratsak dioenez, berbera da nahi duen edonorentzat, hau da, zentzu praktikokoan arrazoidunak diren zerizan guztientzat, eta horregatik berberatasun hori, hots, lege orokorra, nahi izate hutsaren zeinu ezagugarri bihurtzen da.

Teoriaren eremuan bezala, Kantek praktikokoan ere bereizkuntza zorrotza aurkitzen du sentimenezko determinazio-oinarrien menpe dagoen ahalmen baten, hemen «patologikoki afektatuta dagoen nahimenaren», eta horretatik guztiz beregaina den nahimen huts baten artean. Patologikoki afektatuta dagoen nahimena enpirikoki afektatuta dagoena da, eta nahimen hutsa arrazoimen praktikoko hutsa. Enpirikoki baldintzatuta dagoen arrazoimenak bere determinazioaren zati bat kanpotik jasotzen du, irrika, premia, azturak eta pasioen eskutik, baina arrazoimen praktikoko hutsak bere buruari begiratzen dio guztiz, hau da, bere forma hutsari.

Lanaren sarreran baieztatzen du Kantek dagoeneko lehen liburuko lehen zatian, hau da, «arrazoimen praktikoko hutsaren analitikan», «arrazoimen praktikoko hutsaren oinarritzko legetik» eratortzen den

«ondorioztapen» erabakigarria osatzen duena, ezen «arrazoimen hutsa berez izan daitekeela praktikoa». Baieztapen horren bidez Kantek mugak erakusten dizkie enpirikoki determinatuta dagoen arrazoimen praktikoaaren uziei. Hori dela eta, eremu praktikoa frogaren helburuaren iraulketa bat gertatzen da eremu teoretikoarekin alderatuz. Bi lanen izenburuetan adierazten da hori. Ezagutzen Kantek arrazoimen hutsaren hantustea apurtzen du, eta horregatik horri dagokion lanak «Arrazoimen hutsaren kritika» izena du, edo zehazkiago, «Arrazoimen teoretiko edo espekulatibo hutsarena». Bestalde, ekin-tzari dagokionez, edo zehazkiago, nahimenaren eraketari dagokionez enpirikoki baldintzatutako arrazoimenaren hantustea apurtzen duenez, lanari «Arrazoimen praktikoaaren kritika» deitzen dio, eta ez «arrazoimen praktikoa hutsarena». Errefusatu behar dena, hain zuzen, moralaren printzipioa esperientziaren menpe dagoela dioen ikuspegia da. Hume gogoan izanik, Kantek enpirismo etikoa baztertzen du.

Horren ordezkari lehen atalaren egituran topatzen dugu filosofia moralean Kantek ordezkatzeko duen arrazionalismo zorrotza, «Arrazoimen praktikoa hutsaren oinarritzko esakuneez». Spinozaren *Ethica, Ordine Geometrico demonstrata* lanari hurbilduz, baina arrazionalismoaren metodo matematikoa eta horren aparteko lan hori guztiz onartu gabe, Kant definizioak emanez abiatzen da («Definizioa»). Eta horiei irakaspenak eta euren oinarritzapen, ondorioztapen eta oharra jarraiki zaizkie. Hala ere, behar diren adigaien definizioak baino gutxiago eta gehiago biltzen du lehen paragrafoak. Gehiago barnebiltzen du, Kantek bere burua ere argitzen duelako; bere egitasmoa edo konpondu behar den arazoa aurkezten du: nola pentsa dezake gizakiak, duen sentimena izanda (patologikoki afektatutako nahimena), arrazoimen hutsa ezaugarritzen duen baliogarritasun orokorra ekin-tzaren eremuan eta, gainera, nola egikari dezake hori? Bestalde, definizioak gutxiegi jasotzen du, behin-behineko izenezko adigai-definizioak baino ez dituelako ematen. Adigai erabakigarriaren, lege praktikoaaren definizio garatuagoa lehen atalaren amaiera aldera dator, 7. paragrafoan.

3. Egitura

Lehen *Arrazoimen hutsaren kritika* bezala, *Arrazoimen praktikoaaren kritika* ere hitzurre eta sarrera batekin hasten da. Ondoren lehen eta zabaldu den zatia dator, «arrazoimen praktikoa hutsaren osa-

gaien irakaspena». Kantek berak esaten digunez, horrek lehen kritika-ren egitura hartzen du, baina orain estetika analitikaren barne ezartzen du. Bestalde, lehen kritikan bezala analitika batetik abiatzen da, orain arrazoimen praktikoko hutsaren analitika dena egia-aren erregela gisa, eta ondoren dator dialektika «arrazoimen praktikokoaren judizioetan gerta-zen diren liluren aurkezpen eta desegite gisa».

Analitikak (ulermen berri hedatuan) lehen kritikaren analitikak bezala hiru zati ditu, baina lehen kritikarekin alderatuz atzetik aurre-ko norantzan. Lehen kritika sentimenaren teoria batekin hasten da, estetikarekin, han analitika transzendentalari aitzinatzen zaiona, eta ondoren adigaien analitika bat dator eta gero, gainera, oinarritzko esa-kuneen analitika. Bigarren kritika, aldiz, oinarritzko esakuneen anali-tika batekin hasten da, eta ondoren dator adigaiena eta gero (sentime-nezkoak ez diren) bultzagaien analitika bat dator. Ordenaren iraulketa horren arrazoiak beste nonbait topatu behar da. Ezagutzen arrazoime-nak objektuekin duen erlazioa jorratzen da, sentimenik gabe ezinez-koa dena, eta orain nahimenari dagokionez kontua oinarritzko esaku-neen nolakotasun moralak, araztasuna, argitara ekartzen duen nahime-na da.

Egitasmo horri eta froga-helburu horri jarraitzen zaien argu-dioa zazpi froga urratsetan bana daiteke: lehen urratsean, I-II tesietan (2. eta 3. paragrafoetan), Kantek enpirikoki determinatuta dagoen nahimen batek dituen maxima guztiak baztertzen ditu, horiek ezein lege praktikorik eskuratu ezin dutela erakusten du (2. paragrafoa), eta horien printzipio nagusiari norberaren maitasun edo norberaren zorion deitzen dio (3. paragrafoa). Ondoren, nahieraren heteronomia aipa-tzen du (kanpotiko determinazioa). Bigarren urratsean, Kantek *e con-trario* argudiatzen du; moralaren printzipio izan ezin duenetik abiatuz, determinazio-oinarri material orotatik, printzipio moral egokia arra-zoitzen du, nahimen huts baten determinazio-oinarri izateko balio duen forma, hobe, forma hutsa, eta hirugarren urratsean hori edukiz betetzen du: lege-emate orokorra (3. tesia, 4. paragrafoa).

Ondoren, Kantek bi arazo plazaratzen ditu, eta laugarren eta bosgarren urratsak horietaz arduratuko dira. Alde batetik, legearen formaren bidez soilik determinatzen den nahimen baten egitura bila-tzen da (5. paragrafoa, I arazoa) eta, gainera, nahimen askeari dago-kion legea (6. paragrafoa, II arazoa). Printzipio moral gorena bilatzen

da bere esanahi bikoitzean, subjektiboan eta objektiboan: batetik, subjektibitate moralaren printzipioa eta, bestetik, horri dagokion lege objektiboa, zeinak aldi berean irizpide moral gorena biltzen duen. Lehen arazoan printzipio material guztien bazterketa egin ondoren geratzen denak eduki propioa jasotzen du. Soberakin horrek, formak, nahimena determinatu ahal izan behar du, laugarren urratsaren arabera; subjektibitate moralaren printzipioa askatasun transzendentalean agertzen da.

Moralaren printzipio objektiboak, nahimen askea determinatzen duen legeak, arrazoimen praktiko hutsaren oinarritzko legeak, ohituren legea edo lege morala ere deitzen denak, honela dio: «Ekin ezazu zure nahimenaren maximak beti aldi berean lege-erate orokor baten printzipio gisa balio balezake bezala» (7. paragrafoa). Zehazki hartuta ez da ohituren legea bera, baizik eta horrek zerizan arrazoidun mugatueta, arrazoidunak soilik ez direnetan hartzen duen forma. Adierazpena bera erabili gabe Kantek (*Oinarritzapenetik* ezaguna zai-gun) agindu kategorikoa aipatzen du.

Kanten *Ohituren metafisikaren oinarritzapena* irakurtzetik datorrena harrituta egongo da ikustean hango adigai nagusiak, agindu kategorikoak, bigarren kritikan ia garrantzirik ez duela. Hori aipatzen duen lehen une garrantzitsuak (lehenago ere aipatu zuen), 7. paragrafoan, laguntzen du egoera hori argitzen: Kantek agindu kategorikoa «lege praktikoekin (ekintza betebeharrak bihurtzen dituztene-kin)» berdintzen du, halako moldez non agindu kategorikoaren gaia hor baitugu hasiera berberetik, analitikaren lehen esakunetik. Gainera, Kantek agindu kategorikoarentzat gordeta daukan adigaia, betebeharra, *Oinarritzapenean* hasiera-hasieratik agertzen da, baina bigarren kritikan askoz beranduago, «Analitikaren» hirugarren eta azken atalean.

5. eta 6. paragrafoen oharrean Kantek dagoeneko iradokitzen du «oinarritzko legeari» buruzko oharrean eta «ondorioari» buruzkoan zehazkiago azaltzen duena, hots, irakaspen zail hura, seigarren urratsa osatzen duena, arrazoimenaren egitatea.

Horri, zazpigarren urrats gisa, laugarren urratsean jorratutako tesiaren argiketa zehatza jarraitzen zaio, hots, askatasun transzendentalarena, nahimenaren autonomiarena.

4. Nahimenaren askatasuna, ohituren legea edo agindu kategorikoa eta arrazoimenaren egitatea

Zazpi atal dituen argudio horren hiru osagaiek argipen zehatzagoa merezi dute honelako sarrera batean: subjektibitate moralaren printzipioa, horren irizpidea, agindu kategorikoa, eta horren errealitatearen froga, arrazoimenaren egitatea.

1. Nahimenaren askatasuna. Subjektibitate morala determinatzeko, arrazoimen praktiko hutsarena den aldetik, Kantek materia eta formaren adigaiak erabiliz argudiatzen du. Logikan materia deitzen dio «objektuari» eta forma «objektua ezagutzeko erari». Hori bigarren kritikaren gaiari aplikatuz gero, materia nahimenaren objektuan datza, eta forma objektua nahi izateko eran (ez, noski, ezagutzeko eran). Baina materiaren barne objektu, egoera edo ekimen guztiak sartzen dira, zeinen errealitatea honexegatik desiratzen den, atsegina agintzen dutelako. Desiratzea eta atsegina hor ez zaizkio soilik sentimenezko poz baxuei lotzen (jatearen, edatearen, sexuaren, lasaitzearen pozei), baizik eta espirituzko poz garaiei ere bai, adimenduzko ekimen sortzaile edo sozialetatik sortzen direnei (3. paragrafoa, I oharra). Izan ere, bi kasuetan itxaroten den gustagarritasunak determinatzen du lehenik nahimenarentzat kanpotik datorrena, eta beraz, heteronomia dena, eta bigarrenik, esperientziaren menpe dagoena, eta beraz, beti enpirikoa dena, eta hirugarrenik, esperientziaren menpe dagoenez, onenean orokortasun zabala baimentzen du, baina inoiz ez lege praktikoei eskatzen duten orokortasun zorrotz eta erabatekoa. Horren ordeztu nahimen morala konpromisorik onartzen ez duen ulermen bati makurtzen zaio: «Betebeharraren ohoragarritasunak ez du zer ikusirik bizitzaren gozamenarekin; hark bere lege propioa dauka, eta bere epaimahai propioa ere bai».

Kantek onartzen du, bai, zerizan arrazoidun mugatu (premiadun) bakoitzak ezinbestean bere abantaila propioa bilatzen duela, eta azken finean bere zoriona, bere izate guztiarekiko asebate gisa ulertuta (3. paragrafoa, II oharra). Baina asebate hori subjektuaren (banako, gizarteko kide eta generoaren zati den heinean) berezitasunaren menpe dagoenez eta munduak eta gizarteak eskaintzen dizkion ahalgarritasunen menpe dagoenez, eta zoriona, beraz, bi ikuspegi horietan enpirikoki baldintzatuta dagoenez, arrazoimen praktiko hutsaren, legezkotasun orokorraren irizpidea ez da nahikoa.

Espirituaren interesak ere baztertzen direnez, galdera da ea determinazio-oinarri ahalgarrien eremu osoa ez ote den gainditu, eta ondorioz, etikotasunarentzat ez ote dagoen jada lekurik. Hirugarren atalean Kantek erakusten du materia oro baztertu ondoren oraindik ere forma geratzen dela, baina maximen forma besterik ez, halako moldez non horrek nahimenaren determinazio-oinarri bakarra osatzen duen. (4. paragrafoa). Baina legearen forma soila ez da sentsuen ezein objektu; agerpen guztietatik haratago dago, eta horren printzipioa kausalitatetik haratago dago. Lehen kritikan lortu zen adigaia, askatasun transzendentalarena, natura orotatik beregaintasunarena, bigarren kritikan askatasun praktikoa (moral) gisa agertzen da: determinazio arrotz orotatik eta horren kausalitatetik aske den nahimenak bere buruari ematen dio legea, eta bere burua autonomiaren bidez, norberari legea ematearen bidez ezaugarritzen du. Askatasuna negatiboki determinazio-oinarri materialetatik beregaintasuna da, positiboki norberaren buruaren determinazioa edo norberaren buruari lege-ematea (8. paragrafoa).

Ekintza desiratzetik abiatuta oinarrituz eta desiratzea autonomiatik abiatuta oinarrituz, arrazoizkotasunaren eta erantzukizunaren adigaiak zorroztasun eta errotikotasun berri bat jasotzen dute. Giza-kiak betiere premiak dituen zerizan bat izaten dirau, baina horretaz gain, Kantek hemen jorratzen ez badu ere, zerizan historikoa eta soziala da. Moralak autonomia gisa ulertuta ez ditu premiak eta gizarte menpekotasunak baztertzen; aitzitik, horiek determinazio-oinarri gisa onartzen dira. Izan ere, «zoriontsu izatea halabeharrez da zerizan arrazoidun baina mugatu ororen eskaera, eta beraz, desiramenaren ezinbesteko determinazio-oinarria da». Kanten irakurleek ere sarri ez dute ongi irakurtzen Kantek norberaren maitasunari eskubide hori onartzen diola, baldin eta «lege horrekin adosteko baldintzara murrizten den heinean», eta horrela «norberaren maitasun arrazoizko» bihurtzen da. Eta hor *arrazoizko* hitzak ez du esan nahi ongi hausnartu dena edo ongi kalkulatu dena. Kontua ez da agindu pragmatikoa, epe luze-
ra norberaren ongizate handiena sortzen duena, baizik eta aurretik betebeharrak moral ororen murriztapenei menpekotzen zaien norberaren maitasuna. Kanten arabera norberaren maitasuna arrazoizkoa da, baldin eta arrazoimen praktikoa hutsaren mugen barne badabil.

Autonomiaren printzipioak etika filosofikoa oinarri berrien gainean ezartzen du. Etikotasunaren oinarria ez datza norberaren

maitasun onberan (Rousseau), ezta sentimendu moralean ere (*moral sense*; Hutcheson, gainera Shaftesbury eta Hume). Jakina, norberaren betegintzarrearen betebeharraren testuinguruan sentimendu morala eta onberatasuna landu behar dira (*Ohituren Metafisikan* jasotzen du gero). Biak, norberaren maitasun onbera eta sentimendu morala subjektuaren egoera egitatezkoak, ausazkoak baino ez dira, eta horregatik ez dute balio orokorra zehazki. Rousseauk eta *moral sense* horren aldeko filosofoek enpirismo finago baten barnean harrapatuta diraute.

Are gutxiago oinarritzen da etikotasuna sentimendu fisiko batean (Epikurok hobesten duen moduan, nahiz eta Kanti hori ez zaion iruditzen «bere teoriaren printzipioetatik erator zitekeen bezain jaidura baxua». Gauzen betegintzarrea (estoikoak, Wolff) edo Jainkoaren nahimena (Crusius, moralista teologikoak) ere ez dira betebeharrak moralen azken iturria. Izan ere, maxima bat ez da Kantentzat arrazoizkoa Jainkoak bere botere nagusian hori agintzen duelako, baizik eta Jainkoak maxima hori agintzen ditu, hori eta Jainkoa bera arrazoizkoak direlako. Nahiz eta enpirikoki ikusita batzuetan alderantziz izan daitekeen, sistematikoki hartuta moralitasuna ez zaio erlijio-sinesmen bati jarraitzen, baizik eta horren aurretik doa.

2. Ohituren legea edo agindu kategorikoa. «Arrazoimen praktikoko hutsaren oinarritzko legearen bidez» (7. paragrafoa) edo ohituren legearen bidez Kantek moralaren juzgaketa-irizpide garaiena ezartzen du. Eta horri dagokion juzgamenak, «juzgamen praktikoko hutsak» tankera berria eta, aldi berean, ikuspegi moralean oinarritzkoagoa hartzen du, Aristotelesengandik hasita nagusi zen juzgamenarekin alderatzen badugu, *phronêsis* edo zuhertasunarekin. Aristotelesen *phronêsis*ak egitura morala auresuposatzen du bertutearen bidez, eta dagokion helburura daraman bidea determinatzearekin nahikoa du (*Etika Niko - makorentzat*, VI 13, 1144a 8). Aitzitik, Kanten juzgamen praktikoko hutsa arduratzen da egitura moralaz, maxima morala eta ez-moralen arteko bereizkuntzaz.

Judizioaren arazo horri dagokionez, ezin da alde batera utzi oinarritzko lege moralak edo agindu kategorikoak ez dutela eskaintza neutralik egiten. Kantentzat horiek neurgailu soil bat baino askoz gehiago dira, lotespen moralak zertan datzaten erakusten duen moralometro bat baino gehiago, ekilearen esku utziz eskuzabal ea horiek

berrezagutuko dituen ala agian ez. «Esakuke praktiko kategoriko» gisa oinarritzko legea baldintzarik onartzen ez duen «ekin ezazu...!» batekin hasten da. Bigarren lerroan esaten du Kantek lehenik ekimen hori zertan datzan: oinarrian datzaten maximen orokorgarritasunean.

Oinarritzapenean egin behar denari buruzko galdera gorantz mailakatuta zeuden hiru zatitan banatzen bazen, behar tekniko, pragmatiko eta moral batean, *Arrazoimen praktikoaren kritikan* lehen urratsak ez du garrantzi handirik. Lehen paragrafoari dagokion oharrean esaten da modu interesgarrian oinarritzko esakune praktiko ororen barne, eta beraz, moralen barne jasotzen diren erregelek izaera tekniko edo instrumentala dutela, «ekintza bat» agintzen dutelako «asमतan dugun eragina lortzeko bitarteko gisa».

3. Arrazoimenaren egitatea. Bi osagai teoretikoen bidez (autonomiaren printzipioa eta maximen orokorgarritasunaren irizpidea), Kantek oraindik ez du lortzen frogatu nahi duena: enpirismo eta eszeptizismo etikoaren gaindipena. Bereziki eszeptizismoa behin betirako errefusatzeko ez da nahikoa etikotasunak kontraesanik ez duela pentsatzea, baizik eta azken buruan hura lilura pertsonaletan, gizarteak edo generoak dituenetan ez oinarritzearen aurka defendatu egin behar da. Kantek susmo horri «arrazoimenaren egitatearen» pentsamenduaren bidez egiten dio aurre, edo zehazkiago, «arrazoimen (praktiko hutsaren) egitatearen» pentsamenduaren bidez (7. paragrafoa, oharrak, eta gero hainbat unetan).

Arrazoimenaren egitate ez du izendatzen Kantek lanaren kokagune erabakigarrian ohituren legea edo lege moral a bera, baizik horren kontzientzia. Kanten arabera hori eztabaidatu ezin den, enpirikoa ez den baizik eta a priori dugun eta apodiktikoki ziurra den egitatea da, baldintzatugabeko betebeharrak batez jabetzea. Eta hor arrazoimenak bere burua «jatorriz lege-emaile gisa» iragartzen du (*sic volo, sic jubeo*).

Arrazoimenaren egitatea ukaezina dela frogatzeko Kantek judizio berezi batzuk aipatzen ditu, non guk joera eta horren printzipio orotatik beregainki moralki zuzena den ekintza adierazten dugun. Kantek galdetzen du ea, norbaiti eskatzen bazaio «berehalako heriotza-zigorren mehatxupean» «gizon zintzo baten aurkako lekukotza faltsua egiteko», horrek ahalgarritzat joko duen lekukotza faltsua ukatzea. Eta galdera horren erantzunak zalantzarik gabe dio baietz. Leku-

kotza faltsua ulergarria izan badaiteke ere, baita hori itxaroten denean ere, bizitzan interesak indar izugarria izango duela espero delako, hala ere bidegabekeria moral gisa balioetsiko da. Eta baliospen horretan ohituren legea aplikatzen da erreal gisa lege-emate baldintzatugabea, norberaren ongizatearen hain mehatxu larritik beregainki balio duen lege-ematea den aldetik. Egitatean, lekukotza faltsua faltsua izateaz jabetuz gaitzesteko ekintzan Kantek ikusten du enpiria praktikoro-tatik, hots, joera orotatik beregaina den arrazoimen praktikoa frogatzen dela erreal gisa. Nahimen hutsa, moraltasuna, ez da agertzen gehiago bizitzari arrotz zaion betebeharrak gisa, baizik eta guk beti berrezagutzen dugun errealitate gisa. Etikotasuna moralisten askatasuna dela dioen susmoaren aurka Kantek arrazoimenaren egitatea aipatzen du, eta dio hori gizaki guztien zerizanean «sartuta» dagoela eta «hizki gordin eta irakurgarrienak erabiliz idatzia dagoela gizakiaren ariman» (*Hori teoriaran zuzena baina praktikan baliogabea dela dioen ohiko esamoldeari buruz idatzian dioenez*).

Arrazoimen praktikoa hutsa nahimenaren askatasunean datza-nez, arrazoimenaren egitateak hirugarren urratsa aurkeztzen du Kanten askatasunaren irakaspenetan: 1) Lehen kritikaren antinomien atalean Kantek frogatzen du askatasun transzendentalaren pentsa daitekeela; 2) bigarren kritikako autonomiaren printzipioak askatasun transzendentalaren adigai negatibo gisa frogatzen du, positiboki hartuta askatasun moralean datzana; 3) arrazoimenaren egitateak frogatzen du, azkenik, askatasun transzendental eta aldi berean morala erreala dela.

Hemen objektu bat sortzen da arrazoimenaren egitatearen aurka, hots, Kantek izate-behar akatsa egiten duela, izateari buruzko baieztapen soiletatik beharri buruzko baieztapenak eratortzen dituela. Egitan arrazoimenaren egitatean etika kantiarren egoera itxuraz paradoxala agertzen da, agian filosofia moral ororen egoera: kontzientzia moralean (edo hitzaldi moralean eta abarretan) beti hor egon den zerbait gogoetatzen da, egitate bat beraz, *da* bat, eta gogoeta horrek ohituren legera, beharriaren oinarri eta ereduraren eraman beharko gintuzke. Horren oinarria da egitatea ez dela berezko egitate arrunta, baizik eta behar moral baten kontzientzia. Gainera, egitatea da jatorrizko zentzuan, egiten dena edo hemen juzgatzen duenak egiten duena. Egoera erabakigarriak moralki juzgatzen diren heinean (ez ezinbestean horiei moralki aurre eginez), zerizan moral gisa egikari-

tzen gara. Gainera, Kantek ez du eratortzen arrazoimenaren egitatearik beharrari buruzko baieztapenik: argudioaren logika kontuan hartzen badugu ohituren legea ez zaio jarraiki arrazoimenaren egitateari, baizik eta mugagabeki orokorra den, zorrozki objektiboa den lege baten adigaiari.

5. Begirunearen sentimendua

Analitikaren lehen atalean orokorgarritasunaren apriorizko lege moral formalak jorratzen du, bigarren atalean ongia eta gaizkiaren objektuak, a priori materialak direnak. «Arrazoimen praktikoko hutsaren bultzagaiei» buruzko hirugarren atalean moralitasunaren apriorizko hirugarren osagaia argitzen du, lege moralari zaion begirunearen sentimendu moralak. Lege moralaren formak baino iratzartzen ez duena, gizakian lege moralaren aurrean erreakzionatzen duen eta subjektiboki sentimenezkoa den sentimendua funtsezko eran bereizten da atsegin empirikotik.

«Arrazoimenak eragiten duen» sentimendua da, hasieran gus-tagaitza dena, eta gogoz kontra gizaki guztietan berdin sortzen dena. Objektuen alor oso xumea ukitzen du begiruneak: sentimenaren arrazoi heteronomoei aurkakotuz ekintzen erantzukizun moralari soilik lotzen zaio, eta beraz, pertsonen, inoiz ez gauzei, inoiz ez naturari, abereei, ezta *conditio humanaren* gainerako alderdiei. Aldi berean sentimenak Kanten etikan tankera bikoitz harrigarria jasotzen du: alde batetik, sentimendu empirikoak daude, bestetik begirunearen sentimendu moralak. Lehen horiek narritadura empirikoek eragiten dituzte eta ekintzaren oinarri materialak diren aldetik lege formalaren menpe daude; azkena, bitartegabe dator lege moraletik, eta funtzioaren arabera haren menpe badago ere, harekin batera doa aldean daraman emoziozko printzipio babesle gisa.

6. «Arrazoimen praktikoko hutsaren dialektikaz»

Arrazoimen hutsak Kanten arabera beti du bere dialektika. Horrek hain zuzen baldintzen osotasuna, hau da, baldintzatugabea agerpenei aplikatzen dien heinean, berbaitango gauzak balira bezala, ezinbesteko lilura bat sortzen du. Bigarren kritikaren kasuan dialektikak ongi gorenarekin du zer ikusia, eta gainera horrekin lotuta dauden arrazoimen praktikoko hutsaren postulatu birekin, arimaren hilezkortasunarekin eta Jainkoaren izatearekin, eta azkenik, gainera, arrazoimen

praktiko hutsaren lehentasunarekin. Ohar gutxi batzuk baino ezin dira egin sarrera honetan Kanten lanean adituak direnek sarri arreta nahi-koz jorratu ez duten alor zabal horri buruz.

Arrazoimen praktiko hutsak praktikoki baldintzatua denarentzat, joeretan eta natur premietan oinarritzen den guztientzat baldintzatugabea bilatzen du osotasun absolutu baten zentzuan. Osotasun hori edo gorena dena bi eratara pentsa daiteke, menperatzaile edo barne-hartzaile gisa. Lehen zentzuan garaiena dena (*supremum*) baldintzatugabea den baldintzak osatzen du (*originarium*), bigarren zentzuan osatua denak osatzen du (*consummatum*), beste osotasun baten zati ez den osotasun orohartzaile batek. Ongi gorena lehen zentzuan bertutean datza, zoriontsu izateko duintasuna bezala ulertuta. Bigarren zentzuan hartzen badugu, falta dena da bertutetsua aldi berean zoriontsu izatea, eta gainera zoriontsu izateko duintasunaren arabera, bertutearen arabera. Sentsuen munduan lortutako egitatezko zoriona moralki (noumenoaren eremuan) merezi izan den zorionari egokitu behar zaio, zorionaren eta zoriontsu izateko duintasunaren arteko egokitasun bat sor dadin.

Bi irtenbide-proposamen garrantzitsu antzinatek datoz eta garai modernora arte eragina izan dute. Kantek biak baztertzten ditu, epikuroarren eta estoikoen proposamenak. Izan ere, biek arazoa sinpletu egiten dute: «Epikuroarren arabera bertutearen adigaia norberaren zoriona sustatzeko maximan dago jasota; zorionaren sentimendua, ordea, estoikoen arabera norberaren bertutearen kontzientzian dago jasota». Ongi gorena epikuroarrentzat norberaren zorionean, estoikoentzat bertutean datzanez, biek alderdi bakarra berrezagutzen dute eta bestearen pisua gutxiesten dute. Kant, aldiz, itxurazko ezintasun bat egiten saiatzen da: zoriona eta bertutea bakoitzak duen balioan berrezagutu nahi ditu eta, aldi berean, elkarrekin adiskidetu nahi ditu. Horretarako, ordea, bi osagai onartzen ditu, arrunki erlijio-tik datozenak, hots, erlijio judu-kristautik datozenak, eta erlijio gaie-tan eszeptikoa denari arazoak sortzen dizkietenak. Postulatuen irakaspenaren eskutik Kanten filosofia morala erlijioaren filosofiara igarotzen da; noski, ez da Jainkoaren agerkundearen filosofia bihurtzen, baizik eta ondoren idatzi zuen erlijioari buruzko liburuaren izenburuak esaten duenez erlijioaz arduratzen da *arrazoimen soilaren muga barne*.

Autonomiaren etika batek ez du lege moralari zaion begirunea ez den beste bultzagai moralik onartzen. Beste munduan justizia sariemaile edo zigortzailea espero duelako moralki jokatzen duenak moralitasunaren araztasuna apurtzen du. Baina arrazoimen bakarrak, erabilera teoretiko eta praktikoari komun zaien arrazoimenak, arrazoimenaren bi eremuen batasuna eskatzen du. Batasunaren premia hori dela eta, «Analitikaren» aldean galdera guztiz berria sortzen da, ez moralitasunaren adigaiari, irizpideari eta errealitateari buruzkoa, baizik eta moralitasunaren zentzuari buruzkoa. «Analitika» subjektu ekilearen betegintzarreaz arduratzen da, «dialektika» munduaren betegintzarreaz: nola izan daiteke bere baitan natura gisa ez ezik, gainera, moralari begira ere betegina?

Galdera berri horri dagokion erantzuna ongi gorenean datza, ez garaienean soilik, baizik eta osatuan, moralitasunaren (zoriontsu izateko duintasun gisa) eta egitatean lortzen den zorionaren arteko harmonian: moralki bizi garen neurrian zoriontsu izatea, harmonia hori Kanten arabera bi gauza onartuz baino ezin da pentsatu: Jainkoaren izatea, harmonia hori sortzen duena, eta pertsonaren deuseztasun zintasuna, arimaren hilezkortasuna, harmonia hori gozatzea ahalbidetzen duena. Bi baldintza horiei arrazoimen praktikoaren postulatu deitzen die. Horiek onartu behar ditu, hain zuzen, haren zentzu-premia, ongi gorenari lotzen zaiona, asebetegarri gisa pentsatzeko: pertsona zuzenak Jainkoa izan dadila eta bere arima hilezkorra izan dadila «nahi» du.

Egitatezko eta merezitako zorionaren arteko egokitasunak horien arteko lotura auresuposatzen du, zeina ez analitikoki ez enpirikoki ez den sortzen. Hala ere, Kanten arabera enpirian nagusitzen den printzipioaren arabera baino ezin da pentsatu, hots, kausa-ondorio erlazioaren arabera. Egoera horretatik bi legezkotasun aurkakotu ondorioztatzen dira, eta beraz, antinomia bat: batetik, zoriona eskatzea ezin da maxima moralen kausa izan. Izan ere, zoriona eskatzearen oinarrian lege moralaren egiazko aurkaria dago, norberaren maitasunaren printzipioa. Bestetik, maxima moralek ez dute balio zorionaren kausa gisa, zeren hori ez baitago jaidura moralen menpe, baizik eta natur legeen eta ahalmen fisikoen menpe.

Antinomia hori arrazoimen praktiko hutsaren bi postulatu bidez gaindi daiteke: batetik, jaidura ohituren legeari guztiz egokitzea,

santutasuna, zerizan arrazoidun mugatuen kasuan aurrerabide amai-
gabe gisa baino ezin da pentsatu, eta horrek bere aldetik zerizan arra-
zoidunaren amaigaberantz luzatzen den existentzia auresuposatzen
du, arimaren hilezkortasuna.

Parentesi artean bi galdera sortzen dira hor. Lehen galdera:
gizakia oro har zentzu hertsian, «ontologikoan», santu bihur al daite-
ke? Horretarako bere mugatasuna, hots, nahi izate ez-moralaren alde-
ra limurtu ahal izatea galdu beharko luke. Egitatean, ordea, goraka
doan araztasuna lortu arren, sentimenezko zerizan gisa zoriona eska-
tzeari eta hortik sortzen den limurgarritasunari lotuta jarraitzen du,
halako moldez non gutxienez zentzu «ontologikoan» ezin baitzaio
inolaz ere santutasunari hurbildu. Eta hurbilketa «pragmatiko» batera-
ko, jarrera irmo nahiko baterako, bertuterako, aurrerabideak agian ez
du zertan amaigabea izan behar. Bigarren galdera: ez al dago soinetik
askatu den pertsona, arima hilezkorra, norberaren buruaren maitasu-
naren tentalditik aske dagoeneko? Itxuraz, lehen, ezinezkoa dena
eskatzten da, eta bigarren, beharrezkoa ez dena.

Bestalde, zerizan bat behar da, horren adimen osatuaren bidez
(orojakintza) eta horren nahimen osatuaren bidez (orozuzentasuna eta
oroahalmena) ongi gorenaz arduratzen dena egitatean. Metodologiko-
ki hartuta bi postulatuak ez dira «dogma teoretikoak»; izan ere, eza-
gutza ez baitute asmo teoretikoan hedatzen, praktikokoan baizik. Moral-
tasunaren oinarritzko esakunetik abiatzen dira, eta hori bere aldetik ez
da ezein postulatu, baizik eta lege bat.

«Interes oro azken buruan praktikoa denez», Kantek «dialekti-
karen» hirugarren atalean arrazoimen praktikoa eman dio lehenta-
suna teoretikoari eman beharrean. Askatasunak praktikaren arloan
nabaritasun izugarria du, eta horrek lehenesten du arrazoimen teoreti-
koaren arloan duen frogaezintasunaren eta errefusaezintasunaren gai-
netik.

7. Metodoaren irakaspena: hezkuntza moralaren teoria bat

Bi zati dituen osagaien irakaspenaren ondoren, berriro, lehen
kritikak egin duen moduan, idazlanaren bigarren zati bat dator, meto-
doaren irakaspen oso laburra. Lehen kritikak egiten zuen moduan,
bigarrenak ere Descartes *Discours de la méthode* laneko egitasmoa
jasotzen du. Baina Kanti ez zaio filosofia moralaren metodoa intere-

satzen, maila batean moralari dagokionez metodo teoretiko bat, horren «ezagutza zientifikoa» interesatzen zaio.

Filosofia zehazki praktikoaren pentsamenduak Aristotelesengan du jatorria, sarri Kanten aurkaritzat jotzen den filosofo moralarengan (*Etika Nikomakorentzat*, I 1, 1095a 5). Kantek moralaren oinarrii buruz egiten duen gogoeta errotikoan interpretatzaile batzuek filosofia praktikoaren pentsamendua desagertzen dela irizten dute. Egitatean hori ez da ondoren sortzen, *Ohituren metafisikan*, lan horren zuzenbidearen irakaspenean eta bertutearen irakaspenean, baik eta bigarren kritikan ere (eta aurretik ere bai *Oinarritzapenean*, baita lehen kritikaren hitzaurrean ere) asmo praktiko, existentziala datza oinarrian. Eszeptizismo etikoaren aurka, betebeharraren irakaspenean, haren araztasun eta indarrean zalantzak dituenaren aurka, Kantek kontzientzia moral arrunta oinarri seguru baten gainean ezartzen du eta bere baldintzatugabetasunean indartzen du: lege hutsa den aldetik, atseginaren eta desatseginaren osagai guztietatik beregaina den legea den aldetik, moralak nahimenaren autonomiatik sortzen da.

Metodoaren irakaspenean Kantek bere interes praktikoa garrantzen du, orain zera aztertzeko eginkizun gisa: «arrazoimen praktikoko hutsaren legeak *giza gogamenerako* bidea egiteko eta haren maximen gainean eragina lortzeko modua, hau da, objektiboki praktikoa den arrazoimena *subjektiboki* ere praktikoko bihurtzeko modua».

Kantek metodoaren irakaspenean hezkuntza moralaren teoria bat zirriborratzen du jeinuzko hitz gutxitan, bi une dituenak, hezkuntza pragmatikoa eta zentzu hertsian moralak dena, eta bigarren unean legezkotasunerako hezkuntza eta horren hurrengo urratsa den moralitasunerako hezkuntza bereizten ditu. Egungo eskoletako «etika» ikasgaiak badu hezkuntzaren teoria horretatik zer ikasi. Alternatiba pisutsuaren proposamena aurkeztu du, moralak dilema arabera eztabaidatzeko. Garrantzitsua da adibidez hori arrazoimenaren duen aier bati lotzea, gatzetxoetan ere topatzen duguna, «sortzen diren arazo praktikoen proba sotilena ere gustura onartzea». Merezki du, gainera, «bertute hutsaren proba-irizpideak adibide baten bidez erakustea». «Gizon zintzo baten istorioa kontatzen da, zein bultzatu nahi den pertsona inozo eta gainera txiri baten iraintzaile-

ekin bat egitera. Irabaziak eskaintzen zaizkio... Baina has gaitetzen galeraren mehatxuarekin... orduan nire entzule gazteek pixkanaka onarpen soiletik miresmenera egingo dute gora eta hortik harridurara, eta azkenean ohoratze handienera eta desira bizi batera, norbera horrelako gizona izateko desirara... Beraz, etikotasunak giza bihotzean hainbat indar gehiago izan du hura aratzago aurkezten den heinean».

8. Gaurkotasuna eta zirikatze gaitasuna

Amaitzeko Kanten filosofia moralaren une gutxi batzuk azpimarra ditzagun, haren gaurkotasuna eta haren zirikatze gaitasuna erakusten dutenak. Horren arrazoi batzuk eman dira dagoeneko, adibidez, Kantek «metodoaren irakaspenean» hezkuntza moralaren teoria bat zirriborratzen duela eta egungo eskoletako «etika» ikasgaiak baduela horretatik zer ikasi, eta oro har idazlanak duen pisu existentziala.

1. Utilitarismoaren eta kontsekuentzialismoaren kritika

Egozpen sarri baten arabera Kanten etika gizaki konkretuen egitatezko ongizatearen aurrean axolagabe da eta, horrexegatik, utilitarismoa gailentzen zaio, zeinak morala ongizate orokorraren adigaien arabera definitzen duen. Badaki Kantek egiatan zerizan arrazoidun mugatu bakoitzak zoriona eskatzen duela; eta besteen ongizateaz arduratzea moralki agintzen den gauzatza jotzen du. Baina utilitarismoak bere printzipio nagusia, besteen ongizatea, ez du filosofikoki oinarritzen, eta Kant, aldiz, oinarritzapen konplexu bat egiten saiatzen da. Gainera, ohituren legearentzako irizpidea ematen du eskura maximen orokorgarritasunaren bidez.

Horrez gain, besteen ongizatea ez du jotzen dagoen betebeharrak bakartzat. Betebeharrak agintzen dituen bi xede onartzen ditu, besteen zoriontasunarekin batera norberaren betegintzarrea (*Ohituren metafisika*n jasotzen du gero). Gainera, utilitarismoak baztertu duen galdera bat egiten du, zein apriorizko baldintzatan da gai subjektua morala izateko oro har? Eta utilitaristen artean gustuko den hedonismoari aurkakotuz, nahimenaren autonomia eskaintzen du erantzun gisa. Arrazoi horiengatik Kanten ikuspegitik etika utilitarista faltsu gisa ez ezik, aldi berean moralki eta filosofikoki osatu beharreko eta zuzendu beharreko teoria gisa agertzen da. Kanten aurkako eredia

aurkeztu beharrean nahikoa oinarritua ez dagoen eta indarrrik ez duen filosofia morala aurkezten du.

Utilitarismoari ez dio mesederik egiten, gainera, ongizate orokorraren izenean justiziaren aurka egitea baimentzeak. Kantek arrazoiz horren aurkako objekzioa egiten duenean, zuzenbidearen betebeharrak hertsia lehenestuz betebeharrak etiko zabalaren aldean, hiltzeko eta iruzurtzeko debekuak ezin direlako laguntzeko aginduagatik hautsi, egitatean Kantek utilitarismoarekin alderatuz filosofikoki hobea ez ezik moralki ere hobea den aukera eskaintzen du.

Azken finean aspaldi honetan gustukoa den alternatiba, «deontologia (betebeharren etika) edo kontsekuentzialismoa (ondorioen etika)», ez da Kantentzat hertsiki bat ala bestearen arteko alternatiba. Betebeharrek ezin dira legezatu Kantaren arabera, adibidez hiltzeko eta iruzurtzeko debekua, baina ezta laguntzeko agindua ere, ondorioetatik abiatuz, eta beraz, era kontsekuentzialistan. Baina halako betebeharren eremuan, adibidez, laguntzeko agindua, noski gogoetatu behar dela ekintzen ondorioez, bereziki ea ekintza lortu nahi den xederako bitarteko eraginkorra den. Baina bigarren kritika funtsean beste bi agindu motaz arduratzen da, agindu pragmatikoez, orain norberaren maitasunaren edo norberaren zorionaren printzipio deitzen direnez, eta agindu moralez, orain kategorikoki praktikoa diren esakune deitzen direnez.

2. Morala subjektuarentzat eta maximentzat. Gaurko filosofo moral askok aski du moralaren irizpide gorena lortzearekin. Kant ere arduratzen da arazo horretaz, baina zuzen ikusten du horrela ez dela konpontzen moralari buruzko auzia. Moralean kontua gizakiaren erantzukizuna denez, gainera horrek duen maila gorenean, orduan galdere hau ere garrantzitsua da: zein subjektu da gai, bada, erantzukizun hori izateko? Hori jakiteko subjektu moralari buruz galdetu behar dugu, eta hor Kantaren maximen adigaiak bitarteko funtzio garrantzitsua du. Dagoeneko lehen kritikan maximaz ulertzen du ekintzen oinarri subjektiboa, hau da, oinarritzko esakune subjektiboa. *Arrazoiaren praktikaren kritikan* gaineratzen du halako oinarritzko esakunek nahimenaren determinazio orokorra barnebiltzen dutela eta euren baitan hainbat erregela praktikoa jasotzen dituztela (lehen paragrafoa). Oinarritzko esakune subjektiboak diren aldetik norbanako batetik bestera ezberdinak izan daitezke, baina ez halabeharrez. Nahimenaren

determinazio gisa ez dituzte ordena-eskemak izendatzen, behatzaile objektibo batek ekileari egozten dizkionak; aitzitik, printzipioak dira, ekileak bereak bezala berrezagutzen dituenak. Eta oinarritzko esakune gisa, euren baitan hainbat erregela jasotzen dituztenak, «gure bizimodu osoa» probatu behar da; maximek norberaren bizitza egiteko modua barnebiltzen dute, bizitzaren eta elkarrekin bizitzearen oinarritzko alderdi batzuei lotuta, adibidez laguntzaren beharra, bizitzaz aspertzea edo irainak edo, bigarren kritikaren adibideen arabera, mendekuaren premia (lehen paragrafoa) eta jabego-irritsa (4. paragrafoa, oharra). Maximaren barne dauden ekintzaren erregelak, aitzitik, bizitzaren baldintza aldagarriekin dute zer ikusia, eta horrenbestez ezberdinak dira. Kantek bere arrazoimen praktikoaren kritikan espresuki azpimarratzen ez badu ere, maximen etika bat erregelen edo arauen etika hedatuei gutxienez lau alderditan gailentzen zaio:

a. Nahimenaren oinarritzko esakuneek inguruabar aldagarriak kontuan hartzen ez dituztenez, horietan ekintza baten oinarritzko eredu normatiboa prestatzen da. Eta horren ondorioz ulertzen da nolatan ekintza ezberdinek nolakotasun komuna izan dezaketen, morala denaren eta morala ez denarena, kasu batean erlatibismo etikoan erori gabe eta bestean erregelen dogmatismo zurrunean erori gabe. Maximak eskuratzen du testuinguru normatiboa, eta testuinguruan ezartze horren bidez bihurtzen da lehenik ekintza konkretu, zeina juzgamen moral-praktiko batek egikaritzen duen juzgaketa prozesu produktiboen bidez.

b. Bizitzaren oinarritzko esakune komun diren aldetik maximek eragozten dute gizaki baten biografia erregelen aniztasun ulertezin batean edo ekintza konkretu zenbatezinetan sakabanatzea. Maximen bidez bizitza baten zatiak zentzu batasun batean biltzen dira, zeina ohituren legeak edo agindu kategorikoak horren nolakotasun moral edo ez-moralaren arabera juzgatzen duen.

c. Maximek pertsonaren eta gizartearen baldintza aldagarri urrunak kontuan hartzen ez dituztenez, horietan gizakiaren izaera adierazten da. Ez dira arauak, maximak baizik, nortasun moralari, osotasun moralari eta hezkuntza moralari buruzko galderen objektu egokiak.

d. Azken finean maximen etika batek baimentzen du morala moralaltasunaren zentzuan probatzea. Izan ere, azken horietan soilik,

euren kabuz ezartzen diren desiratzearen oinarritzko esakuneetan egiazta daiteke ea ekintza betebeharren arabera baino ez den, eta beraz, legezkoa, edo betebeharragatik gertatzen den eta, beraz, moralki.

Maxima bakoitzean jasota dagoen orokortasuna hasiera batean, noski, subjektiboa eta erlatiboa da, ez da orokortasun absolutu eta hertsia, zerizan arrazoidun oro lotzen duena. Horregatik, ohituren legearen bigarren ikuspegiak, orokorgarritasunak, probatzen du ea maxima baten helmen subjektiboak pertsona bakar baten helmen objektibo gisa edo pertsonen gizarte batena gisa balio dezakeen. Oinarritzko esakune subjektiboen sorta koloretsuan moralak direnak moralak ez direnetatik bereizten dira, eta ekileari eskatzen zaio moralak direnei baino ez jarraitzea.

Orain *Arrazoimen praktikoaren kritikaren* behin-behineko emaitza emango dugu: Kanti argudio guztietan jarraitzen ez zaiona ere, honetan behintzat ados egongo da harekin, filosofia moral egoki baten oinarritzapen kritikoak gutxienez lau eginkizun bete behar dituela: 1) eginkizun semantikoa: moralaren edo moralki ona denaren adigaiaren determinazioa; 2) irizpideari dagokion eginkizuna: moralaren lege gorenaren edo erregela gorenaren oinarritzapena; 3) subjektibitatearen teoriari dagokion eginkizuna: adigaiari eta legeari dagokion subjektibitate moralaren determinazioa; 4) ongi gorenaren eta postulatuaren irakaspenaren arazoari buruzko gogoetak, hau da, nola erlazionatzen den gizakiaren berezko determinazioa, zoriona eskatzea, arrazoimenaren determinazioarekin, moralarekin.

Egun nagusi diren filosofo moralen lana begiratzen bada, adibidez Rawls, diskursoaren etika eta utilitarismoa, horiek denek eklektikoak dirudite, Kantek landu zituen baina eginkizun gutxiagorekin aski duten heinean eta gutxi horrek konbentzitzen ez gaituen heinean. Eta arrazoi onak daude onartzeko horrek eginkizunak betetzeari dagokionez ere balio duela: 1) moralak esan nahi du lege guztiz objektiboa dagoela; 2) horren irizpidea maximen orokorgarritasunean datzala; 3) horren jatorri subjektiboa nahimenaren autonomian datzala; 4) eta ongi gorenaren arazoa ez bada berriro baztertzen, orduan ez dirudi konpon daitekeenik postulatuaren irakaspena edo gutxienez horren baliokide bat erabili gabe. Eta ondorioz, Jean Paul idazlearen hitz batzuk eraldatuz esan dezakegu: »eros ezazu

Jainkoaren izenean Kant, eta liburu bakarra eros badezakezu, orduan
Arrazoimen praktikoaren kritika izan dadila».

Otfried Höffe

Bibliografia

1. Jatorrizko argitar apenak

Kritik der praktischen Vernunft von Immanuel Kant, Riga 1788.

Kritik der praktischen Vernunft, in: *Kants Werke*. Akademie-Textausgabe, arg. Königlich Preußische Akademie der Wissenschaften, Berlin 1902 hh., V. liburukia (1908/13), 1-164.

Kritik der praktischen Vernunft, in: *Immanuel Kant. Werke in sechs Bänden*, arg. W. Weischedel, IV. liburukia, Darmstadt 1956, 105-302.

2. Itzulpenak ingelesera, frantsese - ra, italierara eta espainierara

Critique of practical reason, itzul. A. Reath eta arg. M. Gregor, Cambridge University Press: New York 1997.

Critique de la raison pratique, itzul. S. Picaret, Press Universite de France 1966 (coll. Quadrige 1983).

Critica della ragione pratica, itzul. F. Capra, Laterza: Roma/Bari 1997.

Crítica de la razón práctica. Edición bilingüe alemán-español, México 2005.

3. Iruzkinak

BECK, L.W. 1974, *Kants «Kritik der praktischen Vernunft» Ein Kommentar*, München; ingel. *A Commentary*

on Kant's critique of Practical Reason, London/Chicago 1960/21966.

LANDUCCI, S. 1999, *La «Critica della ragione pratica» di Kant. Introduzione alla lettura*, Rom.

5. Monografiak

ACTON, H.B. 1970, *Kant's Moral Philosophy*, London.

ALLISON, H. E. 1996, *Idealism and Freedom. Essays on Kant's Theoretical and Practical Philosophy*, Cambridge.

ALLISON, HENRY E. 1990, *Kant's Theory of Freedom*, Cambridge.

ALQUIÉ, F. 1966, *Introduction à la lecture critique de la raison pratique*, Paris.

ALQUIÉ, F. 1974, *La morale de Kant*, Paris.

AMERIKS, K. 2000, *Kant and the Fate of Autonomy*, Cambridge.

BARON, M.W. 1995, *Kantian Ethics Almost Without Apology*, Ithaca/London.

BENTON, R.J. 1977, *Kant's Second Critique and the Problem of Transcendental Arguments*, Den Haag.

- CARNOIS, B. 1973, *La Cohérence de la doctrine Kantienne de la liberté*, Seuil: Paris.
- DELBOS, V. ³1969, *La philosophie pratique de Kant*, Paris.
- FABRIS, A./BACCELLI, L. (argk.) 1989, *A partire da Kant. L'eredità della «Critica della ragion pratica»*, Mailand.
- GUYER, P. 2000, *Kant on Freedom, Law and Happiness*, Cambridge.
- Hill, Th. E. 1992, *Dignity and Practical Reason in Kant's Moral Theory*, Ithaca.
- HÖFFE, O. 1985, *Introduction à la philosophie pratique de Kant*, Albeuve.
- HÖFFE, O. (arg.) ³2000, *Grundlegung zur Metaphysik der Sitten. Ein kooperativer Kommentar*, Vittorio Klostermann: Frankfurt/Main.
- HÖFFE, O. (arg.) ⁴2004, *Kants Kritik der reinen Vernunft. Die Grundlegung der modernen Philosophie*, C. H. Beck: München.
- HÖFFE, O. ⁶2004, *Immanuel Kant*, München, 9. kap. „Die Kritik der praktischen Vernunft».
- IRIBARNE, J. V. 1981, *La libertad en Kant. Alcances éticos y connotaciones metafísicas*, Carlos Lohlé: Buenos Aires.
- INNERARITY GRAU, C. 1995, *Teoría Kantiana de la acción: La fundamentación trascendental de la moralidad*, EUNSA: Pamplona.
- CAFFARENA, J. G. 1983, *El teísmo moral de Kant*, Cristianidad: Madrid.
- Korsgaard, C. M. 1996, *The Sources of Normativity*, Cambridge.
- LANDUCCI, L. 1994, *Studi sull'etica di Kant*, Mailand.
- LOUDEN, M. B. 2000, *Kant's impure Ethics*, Oxford.
- MANGANARO, P. 1989, *La filosofia pratica di Kant*, Catania.
- O'NEILL, O. 1989, *Constructions of reason. Explorations of Kant's practical philosophy*, Cambridge.
- PHILONENKO, A. 1972, *L'œuvre de Kant, II. liburukia: Morale et politique*, Vrin: Paris.
- PIRNI, A. 2000, «Il regno dei fini» in *Kant. Morale, religione e politica in Collegamento sistematico*, Genua.
- PRAUSS, G. 1983, *Kant über Freiheit als Autonomie*, Frankfurt/Main.
- RIGOBELLO, A. (ant.) 1996, *Il «regno dei fini» di Kant*, Istituto Italiano per gli Studi Filosofici: Neapel.
- SCHMUCKER, J. 1961, *Die Ursprünge der Ethik Kants*, Meisenheim.
- SULLIVAN, R. J. 1997, *An Introduction to Kant's Ethics*, Cambridge.
- VIALATOUX, J. ⁵1968, *La morale de Kant*, Paris.
- WOOD, A.W. 1999, *Kant's Ethical Thought*, Cambridge.

EGILEAREN HITZAURREA

Saiakera honek nahikoa argibide ematen du kritika hau arrazoimen praktiko *hutsaren* kritika ez, baizik eta bereziki arrazoimen praktikoaren kritika oro har izendatzeko zergatiari buruz, nahiz eta arrazoimen espekulatiboarekiko paralelotasunak itxuraz lehenengoa eskatzen duen. Saiakera honek *arrazoimen huts praktikoa* dagoela besterik ez du azaldu behar, eta asmo horrekin bere *ahalmen praktiko* osoa kritikatzeko du. Hori lortzen badu, orduan ez du *ahalmen huts berbera* kritikatu behar, horrela ikusteko ea arrazoimenak horrekin uste soil baten modura bere burua *ez ote duen gainditzeko* (espekulatiboarekin gertatzen den modura). Izan ere, hori arrazoimen huts gisa benetan praktikoa bada, orduan egintzaren bitartez frogatzen du bere eta bere adigaiaren errealitatea, eta alferrikakoa da, beraz, hori praktikoa izatearen ahalgarritasunaren aurkakoa arrazoikeria oro.

Ahalmen horrekin batera *askatasun* transzendentalak ere finkatuta geratzen da aurrerantzean eta, gainera, arrazoimen espekulatiboak kausalitatearen adigaiaren erabileran behar zuen zentzu absolutu hartan hartuta, horrela hori kausazko loturen ilaran *baldintzatugabe dena* pentsatu nahi duenean nahitaez sortzen zaizkion antinomietatik salbatzeko; arrazoimen espekulatiboak, ordea, adigai hori problematikoki bakarrik aurkeztu ahal izan zuen pentsagarri gisa baina horren errealitate objektiboa ziurtatu gabe; hala ere, horrela ez zen behintzat bere zerizanean erasotua izango eta eszeptizismoaren amildegian ero-

riko, gutxienez pentsagarri gisa onartu behar duenaren ustezko ezintasuna dela eta.

Askatasunaren adigaiia, horren errealitatea arrazoimen praktikoaren lege apodiktiko batek frogatzen duen heinean, arrazoimenaren sistemaren eraikuntza osoaren *giltzarria* da, espekulatiboarena barne, eta hor idea soil gisa euskarririk gabe dauden beste adigai guztiak (Jainkoarena eta hilezkortasunarena) hari lotzen zaizkio orain, eta horrekin eta horren bidez lortzen dute irmotasuna eta errealitate objektiboa, hau da, askatasunaren izateak *frogatzen* du horien *ahalgarritasuna*; izan ere, ideia hori lege moralak agerrarazten du.

Hala ere, arrazoimen espekulatiboaren ideia guztien artean askatasunaz besterik ez dugu *ezagutzen* bere ahalgarritasuna a priori, hori ulertu ez arren, zeren lege moralaren baldintza¹ baita, eta hori ezagutzen dugu. *Jainkoaren* eta *hilezkortasunaren* ideiak ez dira, ordea, lege moralaren baldintzak, baizik eta lege horren bitartez determinatutako nahimenaren beharrezko objektuen baldintzak besterik ez, hau da, gure arrazoimen hutsaren erabilera praktikoa soilarenak; beraz, ezin dugu baieztatu ideia horien izatea *ezagutzen* eta *ulertzen* dugula gutxienez, horien ahalgarritasuna ere ez baitugu *ezagutzen* eta *ulertzen*. Hala ere, moralki determinatuta dagoen nahimena horri a priori ematen zaion objektuari (ongi gorenari) aplikatzeko baldintzak dira. Ondorioz, euren ahalgarritasuna *onartu* behar da harreman praktikoa horretan, hori teoretikoki ezagutzen eta ulertzen ez den arren. Azkeneko eskakizunari asmo praktikoa erantzuteko nahikoa da haiek barne ezintasunik (kontraesanik) ez jasotzea. Hemen orain egiestearen oinarri *subjektibo* soil dago arrazoimen espekulatiboan ez bezala, baina horrek balio *objektiboa* du hutsa baina praktikoa den arrazoimenarentzat, eta horrela Jainkoa eta hilezkortasunaren ideiek askatasunaren adigaiaren bitartez errealitate objektiboa eta legeztapena jasotzen dute, gainera haiek onartzeko beharrezkotasun subjektiboa ere sortzen da (arrazoimen hutsaren premia), eta horrela arrazoimena ez da hedatzen ezagutza teorikoan, baizik eta horren ahalgarritasuna sortu besterik ez da egiten, lehen *arazo* baino ez zena eta hemen *baieztapen* bihurtu dena, eta horrela arrazoimenaren erabilera praktikoa teorikoaren osagaiekin elkarlotzen da. Eta premia hori ez da premia hipotetiko bat, espekulazioaren *hautazko* asmoaren premia, hain zuzen, espekulazioan ezagutzaren erabileraren osotasunera iritsi nahi

bada zerbait onartu beharko litzatekeela, baizik eta *legezko* premia da, alegia, onartu egin beharko litzatekeela norbaitek ezinbestean bere ekimenaren asmo gisa ezarri beharrekoa ahalbidetzen duen hori.

Nolanahi ere, gure arrazoimen espekulatiboa gehiago asebeteko luke eginbehar haiek horrelako desbideraketarik gabe bere kabuz bideratzeak eta haiek erabilera praktikorako ulermen modura gorde-tzeak; baina dugun espekulazioaren ahalmena ez dago horretarako prestatuta. Horrelako goi ezagutzak izateaz harrotzen direnek ez lituzkete eurentzat gorde behar, baizik eta jendaurrean aurkeztu haiek probatzeko eta aintzat hartzeko. Haiek *frogatu* nahi dute; aurrera!, froga dezatela, bada, eta kritikak bere arma guztiak eskainiko dizkie irabazle gisa. *Quid statis? Nolunt. Atqui licet esse beatis?*² Haiek egitatean nahi ez dutenez, ustez gai ez direlako, orduan arma haiek berreskuratut behar ditugu *Jainkoaren, askatasunaren* eta *hilezkortasunaren* adigaiak arrazoimenaren erabilera moralean bilatzeko eta horretan oinarritzeko, espekulazioak horien *ahalgarritasunaren* berme nahikorik aurkitzen ez duenez.

Hemen adierazten da lehenengoz kritikaren igarkizuna: nola *uka* diezaiokegun espekulazioan *errealitate* objektiboa *kategorien* sentsuez haratagoko *erabilerari* eta, aitzitik, nola *onar* daitekeen horien *errealitatea* arrazoimen praktikoko hutsaren objektuei dagokienez; izan ere, aurretik horrek halabeharrez *ondoregabe* iruditu behar du, horrelako erabilera praktikoa izenaren arabera bakarrik ezagutzen den bitartean. Baina orain azken horren analisi oso baten bitartez ohartzen badugu ezen, errealitate pentsatu horrek ez daramala inolaz ere hemen *kategorien determinazio* teoriko batera eta sentsuez haratagoko denera iristen den ezagutzaren zabalpen batera, baizik eta horren bidez haiei harreman horretan beti *objektu* bat dagokiela besterik esan nahi ez dela; izan ere, haiek nahimenaren apriorizko determinazioan barnebilduta daudenez, edo horren objektuarekin era bereiztezinean lotuta daudenez, bada, ondoriogabetasun hura desagertzen da, adigai haietaz arrazoimen espekulatiboak behar duena ez bestelako erabilera egiten baita. Bestalde, orain kritika espekulatiboaren *ondoriozko pentsaeraren* baieztapena agertzen da, lehen apenas espero zitekeena eta oso asegarri dena, hain zuzen, kritika espekulatiboak esperientziako objektuei eta horien artean baita gure subjektuari berari ere *agerpenen* balioa bakarrik onartzen dielako, baina era berean berbaitango gauzak

ezarritz horien oinarrian, hots, sentsuez haratago dagoen guztia asma-kizuntzat eta horren adigaia edukigabekotzat jo gabe; orain arrazoimen praktikoak bere kabuz, eta espekulatiboarekin adostu gabe, errealitatea ematen dio kausalitatearen kategoriaren sentsuez haratagoko objektuari, hau da, *askatasunari* (nahiz eta adigai praktiko den aldetik erabilera praktikorako bakarrik), eta beraz, han pentsatu baino ezin zena, orain egitate baten bitartez baieztatzen da. Aldi berean orain, horrenbestez, arrazoimen praktikoaren kritikan baiespen osoa jasotzen du kritika espekulatiboaren baieztapen bitxi nahiz eztabaidaeezin honek, hots, *subjektu pentsatzaile bera ere barne begiespenean agerpen soila dela*, hain ongi gainera, ezen kritika espekulatiboak esakune hori frogatu ez balu ere berdin topatuko baikenuke³.

Horrenbestez, nik ere ulertzen dut orain arte aurkeztu zaizkidan kritikaren aurkako eragozpen behinenak zehazki bi ardatz hauen ingurukoak izatearen zergatia, hain zuzen, *alde batetik* noumenoei aplikatutako kategorien errealitate objektiboa, ezagutza teorikoan ukatzen dena eta praktikoan baieztatu, eta *bestalde*, norbera askatasunaren subjektu gisa noumeno bihurtzeko baina aldi berean naturari dagokionez bere kontzientzia enpirikoan fenomeno ere bihurtzeko eskakizun harrigarria. Izan ere, oraindik etikotasunaren eta askatasunaren adigai determinaturik lortu ez zenean, ezin zen asmatu, alde batetik, ustezko agerpenaren oinarrian zer ezarri nahi zen noumeno gisa, eta bestalde, ea horren adigai bat nolabait lortu ahal zitekeen, aurretik adimen hutsak erabilera teorikoan dituen adigai guztiak jadanik agerpen soilei bakarrik eskaini zitzaizkienean. Arrazoimen praktikoaren kritika osatuak baino ezin ditu ezabatu gaizkiulertu horiek guztiak eta bere merezimendu handiena den pentsaera ondoriozkoa argiki erakutsi.

Hau besterik ez diot lan honetan arrazoimen espekulatibo hutsaren adigaiak eta oinarritzko esakuneak, jadanik bere kritika berezia izan zutenak, hemen noizean behin berriro probatu beharraren zergatiaren legeztapenez, eratzen ari den jakintzaren bide sistematikoari ongi egokitzen ez zaion (zeren dagoeneko juzgatu diren gauzak aipatu besterik ezin baitira egin zuzenki, eta ez berriro zalantzan jarri) baina hemen zilegia, eta premiazkoa ere, badenaz: arrazoimena adigai haiez *han* egin zuen erabileratik guztiz ezberdina denerako igarobidean ikuskatzen baitugu. Horrelako igarobideak, ordea, beharrezkoa

egiten du erabilera zahar eta berriaren arteko alderaketa, bide berria aurrekotik ondo bereizteko eta, aldi berean, haien elkarlotura ohartarazteko. Beraz, era honetako ikuskapenak, tartean beste behin askatasunaren adigairantz zuzentzen direnak, arrazoimen hutsaren erabilera praktikoan bada ere, ezin dira arrazoimen espekulatiboaren sistema kritikoaren zuloak betetzeko baino balio ez duten parentesi gisa baka-rrik hartu (sistema hori osoa baita bere asmoan) eta, presazko eraiket-
tan gertatzen den modura, ondoren habeak eta zutabeak jartzeko, bai-
zik eta, sistemaren elkarlotura ohargarri bihurtzen duten benetako
kide diren aldetik, lehen problematikoki baino errepresentatu ezin
izan ziren adigaiak orain euren aurkezpen errealean ezagutarazteko.
Ohar hori batez ere askatasunaren adigaiari dagokio, harriduraz ohar-
tarazi behar baita hainbeste direla oraindik hori guztiz ulertzeaz eta
horren ahalgarritasuna azaldu ahal izateaz harrotzen direnak hori
harreman psikologiko soilean ikuskatu ondoren; horiek aurretik harre-
man transzendentalean zehazki hausnartu izan balute berriz, horren
ezinbestekotasuna berrezagutuko behar izango zuketena arrazoimen
espekulatiboaren erabilera osoan, adigai problematiko gisa, baita
horren *adiezintasun* osoa ere, eta, ondoren erabilera praktikora joango
balira, euren kabuz iritsi behar izango zuketena zuzenki azken horren
determinazio berberera bere oinarritzko esakuneei dagokienez, beste-
lakoan batere gogoko ez duten horretara. Askatasunaren adigaia ozto-
po-harria da *empirista* guztientzat, baina baita oinarritzko esakune
praktiko bikainenena giltza ere moralista *kritikoentzat*, horren bitartez
ulertzen baitute halabeharrez *arrazoimenaren arabera* jokatu behar
dutela. Horregatik eskatzen diot irakurleari ez begiratzeko gaingiroki
begi iheslariekin analitikaren amaieran adigai horri buruz esaten dena.

Ea horrelako sistema batek, arrazoimen praktiko hutsarenak,
hemen arrazoimen praktikoaren kritikatik abiatuz garatzen denak,
ahalegin asko edo gutxi sortu duen, batez ere osotasuna zuzenki zirri-
marratu ahal izateko ikuspuntu zuzena ez erratzeko, antzeko lanen
ezagutzaileek juzgatu beharko dute. *Ohituren metafisikaren oinarri -*
tzapena aintzat hartzen du, baina horrek betebeharraren printzipioaren
behin-behineko ezagutza egiten eta horren formula determinatu bat
aipatu eta legeztatzen duen neurrian soilik⁴; bestelakoan, beregaina
da. Jakintza praktiko ororen *sailkapen osatua* ez gehitzeak, arrazoi-
men espekulatiboaren kritikak egiten zuen modura, arrazoimen prak-

tikoaren ahalmenaren eraketan aurkitzen du bere oinarri balioduna. Izan ere, betebeharren determinazio berezia giza betebeharrak gisa, horiek sailkatzeko, aurretik determinazio horren subjektua (gizakia) bere benetako eraketaren arabera ezagutua izan bada bakarrik da ahalgarri, nahiz eta oro har betebeharrari dagokionez premiazkoa den neurrian bakarrik izan; hori, ordea, ez dagokio oro har arrazoimen praktikokoaren kritika bati, bere printzipioen ahalgarritasuna, hedapena eta mugak osorik eskaini behar dituenari giza izaerari bereziki lotu gabe. Beraz, sailkapena hemen jakintzaren sistemari dagokio, ez kritikaren sistemari.

Analitikaren bigarren zati nagusian erantzun asebetegarria eman diot, espero dudanez, *Ohituren Metafisikaren Oinarritzapena* lanaren kritikari egiazale eta zorrotz baina aldi berean errespetagarri jakin batek egindako eragozpen honi, hain zuzen, *ongiaren adigaia han ez zela ezarri* (bere iritzia arabera premiazkoa litzatekeen modura⁵) *printzipio moralaren aurretik*; era berean, egia ikertzeko nahimena bihotzean daramatela erakusten duten gizonen aldetik iritsi zaizkidan beste eragozpenak kontuan hartu ditut (izan ere, begien aurrean euren sistema zaharra besterik ez dutenek eta onartu edo baztertu behar dena jadanik aurretik erabakita dutenek ez dute eskatzen euren ikuspegi pribatua oztoka lezakeen argibiderik); eta horrela jakituko dut nik ere aurrerantzean.

Giza arimaren ahalmen berezi baten determinazioa jorratu behar bada bere iturrien, edukien eta mugen arabera, orduan giza eza-gutzaren arabera benetan ezin gara horien zatietatik baino abiatu, horien aurkezpen zehatz eta (dagoeneko eskuratu ditugun horien osagaien egoeraren arabera ahal den heinean) oso batetik. Baina bigarren arreta-gune bat ere badago, filosofikoagoa eta *arkitektonikoagoa* dena, hau da, *osotasunaren ideia* zuzenki ulertzea eta horretatik zati haiek guztiak arrazoimenaren ahalmenean begietan hartzea euren elkarrekiko harremanean, osotasun haren adigaitik abiatuz egindako eratorpenaren bidez. Proba eta berme hori sistemaren ezagutza barne-barnekoaren bitartez baino ezin da lortu, eta lehenengo ikerketan aspertu ziren haiek, hau da, ezagupen hori lortzeko ahalegina balioetsi ez zuten haiek ez dira iristen bigarren mailara, alegia, lehen analitikoki emana izan zenera sintetikoki itzultzea den gainbegiradara, eta ez da harrigarria horiek edonon ondoriogabetasunak aurkitzea, nahiz

eta horiek iradokitzen dituzten hutsuneak sisteman bertan ez, baizik eta euren loturagabeko pentsabidean soilik aurkitzen diren.

Saiakera hau dela eta, ez naiz batere arduratzen *hizkuntza berri bat* asmatu nahi izatearen eragozpenaz, ezaguera hemen berez hurbiltzen baitzaio herrikoitasunari. Lehenengo kritikari dagokionez hori orritzatu besterik ez, baizik eta osorik pentsatu duen inork ezingo du eragozpen hori onartu. Hitz berriak sortzea, hizkuntzak jadanik adigai jakinen adierazpenerako beharrik ez duenean, haurren ahalegina da jendetzaren artean nabarmentzeko, pentsamendu berri eta egiazkoe-kin ez bada, gutxienez jantzi zaharraren gainean zapi berri bat ezarriz. Beraz, idazki haren irakurleek pentsamenduari berdin egokitzen zaizkion adierazpen herrikoia goak ezagutuko balituzte, niri haiek egiten dutela iruditzen zaidan modura, edo pentsamendu horien ezereztasuna azaltzeko ausardia balute, aldi berean horiek izendatzen dituzten adierazpenena, orduan lehenengo kasuan asko eskertuko nieke, uler nazatela besterik ez baitut nahi, eta bigarren goan merezimendu handia lortuko lukete filosofian. Baina pentsamendu haiek irauten duten bitartean, zalantzagarrria iruditzen zait haientzat adierazpen egokiak baina arruntagoak aurkitu ahal izatea⁶.

Era honetan, beraz, aurrerantzean gogamenaren bi ahalmenen, ezagumenaren eta desiramenaren apriorizko printzipioak argitu izan zitezkeen, eta euren erabileraren baldintza, hedapena eta mugen arabera determinatu ahal izango zitezkeen, eta horren bitartez, bestalde, oinarri segurua ezar ziezaiokeen filosofia sistematikoari, teoretikoari nahiz praktikoari, jakintza gisa.

Ahalegin horiei kausi ziezaiekeen okerreana, ordea, norbaitek ezusteko aurkikuntza hau egitea izango litzateke, hain zuzen, inolaz ere apriorizko ezagutzarik ez dagoela eta ezinezkoa dela horrelakorik egotea. Baina ez dago horren arriskurik. Norbaitek arrazoimenaren bitartez arrazoimenik ez dagoela frogatu nahiko balu bezala izango litzateke. Izan ere, guk zerbait arrazoimenaren bitartez ezagutzen dugula soilik esaten dugu hori horrela esperientzian aurkeztu ez balitzaigu ere ezagutu ahal izateaz jabetzen bagara; eta beraz, arrazoimenaren ezagutza eta *apriorizko* ezagutza gauza berbera dira. Esperientzia-esakune batetik bortxaz beharrezkotasuna (*ex pumice aquam*⁷) atera nahi izatea, eta horrekin batera judizio bati benetako orokortasuna (hori gabe ez dago arrazoiketarik, ezta, beraz, analogiazko arra-

zoiketarik ere, gutxienez ustezko orokortasun eta beharrezkotasun objektiboa dena eta hori, beraz, beti ontzat jotzen duena) eman nahi izatea kontraesana da bete-betean. Ezkutuan beharrezkotasun subjektiboa, hau da, ohitura egozte, apriorizko judizioetan bakarrik sortzen den objektiboaren orde, arrazoimenari objektuari buruz juzgatzeko ahalmena ukatzea da, hau da, hori eta horri dagokiona ezagutzeko ahalmena, eta adibidez sarri eta beti aurretiko egoera jakin bati jarraitzen zaionaz ezin esatea batetik bestea *arrazoit*u daitekeela (izan ere, horrek beharrezkotasun objektiboa eta apriorizko loturaren adigaia esan nahiko luke), baizik eta antzeko kasuak itxaron daitezkeela besterik ez (animalien antzera), hau da, funtsean kausaren adigaia baztertea faltsu eta pentsamenduaren iruzur soil gisa. Baliotasun objektiboaren eta, ondorioz, orokorraren gabezia hori hau esanez zuzendu nahi izatea, hots, ez litzatekeela ikusiko oinarririk beste zerizan arrazoidunei beste errepresentazio modu bat egozteko, bada, horrek arrazoketa balioduna emango baligu, orduan gure ezjakintzak zerbitzu handiagoa egingo luke gure jakintza zabaltzeko gogoeta orok baino. Izan ere, gizakiaz gain beste zerizan arrazoidunik ezagutzen ez dugulako, besterik gabe gu geu ezagutzen garen modura osatuak daudela onartzeko eskubidea genuke, hau da, benetan ezagutuko genituzke. Hemen behin ere ez dut aipatzen ez dela egitearen orokortasuna judizioaren baliotasun objektiboa frogatzen duena (hau da, bere baliotasuna ezagutza gisa), baizik eta, baliotasun hura ausaz topatuko bage-nu ere, horrek ezingo luke objektuarekiko egokitasunaren frogarik eman; aitzitik, baliotasun objektiboak baino ez du osatzen adostasun orokor beharrezkoaren oinarria.

Hume ere oso gustura sentituko litzateke oinarrizko esakuneen *enpirismo orokorraren sistema* horretan; izan ere, Humek hau besterik ez zuen eskatzen, ezaguna denez, kausaren adigaian beharrezkotasunaren esanahi objektibo ororen orde subjektibotzat soilik hartu behar dena besterik ez onartzea, hain zuzen, ohitura, horrela arrazoimenari Jainkoari, askatasunari eta hilezkortasunari buruzko judizio oro debekatzeko; eta hark bazekien ziur, printzipioak onartuz gero, horietatik ondorioak lotura logiko osoz ondorioztatzen. Baina *Humek* berak ere ez du enpirismoa hor matematika bera ere jasotzeko bezain orokorra bihurtu. Matematikaren esakuneak analitikotzat zituen, eta horrek bere zuzentasuna balu, orduan egitatean apodiktikoak ere bali-

rateke, baina hortik ezin da ondorioz atera filosofian ere judizio apodiktikoak, hau da, sintetikoak liratekeenak (kausalitatearen esakutia, adibidez) emango lituzkeen arrazoimenaren ahalmenari buruz. Printzipioen enpirismoa *orokorrean* onartuz gero, ordea, horrek matematika ere barne hartuko luke.

Matematika, orduan, oinarritzko esakune enpiriko soilak onartzen dituen arrazoimenarekin eztabaidan gertatzen da, antinomietan ezinbestekoa denez, hor matematikak espazioaren amaigabeko zatigarritasuna kontraesan ezin den moduan frogatzen zuelako, baina enpirismoak hori ezin zuelako onartu, eta orduan demostrazioaren nabaritasun albait handiena ustezko esperientzia-printzipioetatiko ondorioekin kontraesan nabarmenean dago, eta beraz, *Cheseldengo* itsuak bezala galdetu behar da: zerk iruzurtzen nau, ikusmenak edo sentimenduak? (Izan ere, enpirismoa *sentitzen den* beharrezkotasunean oinarritzen da, eta arrazionalismoa, aldiz, *ikusitakoan*). Eta, horrela, enpirismo orokorra benetako *eszeptizismo* gisa azaltzen da, Humeri hain mugagabeko esanahian okerki itsatsi zitzaiona⁸, zeren hark gutxienez esperientziaren frogarri ziurra utzi baitzuen matematikan, eszeptizismoak inolaz ere onartzen ez duen frogarria (hori beti apriorizko printzipioetan bakarrik topa baitaiteke), nahiz eta esperientzia benetan ez den sentimendu soilez osatzen, baizik eta judizioez ere bai.

Dena den, garai filosofiko eta kritiko honetan enpirismoa nekez har daitekeenez serioki, eta ustez hori juzgamenaren ariketarako eta kontrastearen bitartez apriorizko printzipio arrazoizkoen beharrezkotasuna argi garbiago batean ezartzeko besterik ez denez hartzen, orduan esker oneko izan behar da gainerakoan irakasgarri izango ez litzatekeen lan horretan ahalegindu nahi dutenekin.

SARRERA

Arrazoimen praktikoaren kritika baten ideiaz

Arrazoimenaren erabilera teoretikoa ezagutza-ahalmen soilaren objektuez arduratzen zen, eta arrazoimenaren kritika, erabilera teoretiko horri dagokionez, ezagutza-ahalmen *hutsari* dagokio benetan, hain zuzen horrek susmo hau sortzen baitzuen, gero baieztatua izan zen susmoa, alegia, erraz bere mugez haratago objektu lortezinen edo elkar kontraesaten duten adigaien artean galduko zela. Arrazoimenaren erabilera praktikoarekin bestela gertatzen da. Horretan arrazoimena nahimenaren determinazio-oinarriez arduratzen da, nahimena izaki errepresentazioei dagozkien objektuak sortzen dituen edo horiek sortzeko (ahalmen fisikoa nahikoa izan ala ez) bere burua, hots, bere kausalitatea determinatzeko ahalmena. Izan ere, hor arrazoimena gutxienez nahimenaren determinaziora iristen da eta beti dauka errealitate objektiboa, ardura nahi izatea besterik ez den heinean. Lehenengo galdera, beraz, hau da: ea arrazoimen hutsak bere kabuz lortzen duen nahimenaren determinazioa, edo ea enpirikoki baldintzatutako arrazoimena bakarrik izan daitekeen nahimenaren determinazio-oinarria? Orain hemen arrazoimen hutsaren kritikaren bitartez legeztatutako nahiz eta ezein aurkezpen enpiriko izateko gai ez den kausalitatearen adigaia agertzen da, hau da, *askatasunarena*; eta guk orain oinarriak bilatu baditzakegu ezaugarri hori egiatan giza nahimenari dagokiola frogatzeko (eta era berean beste zerizan arrazoidun ororen nahimenari), horrela arrazoimen hutsa praktikoa izan

daitekeela ez ezik, gainera erakutsiko da hori bakarrik dela era baldintzatugabeen praktikoa, eta ez enpirikoki mugatua. Ondorioz, ez dugu arrazoimen *huts praktikoaren* kritika landu beharko, baizik eta arrazoimen *praktikoarena* bakarrik oro har. Izan ere, arrazoimen hutsak, behin horrelakorik badagoela erakutsi ondoren, ez baitauka kritikaren beharrik. Hori baita bere erabilera ororen kritikarako eredia barnebiltzen duena. Arrazoimen praktikoaren kritikak, beraz, enpirikoki baldintzatutako arrazoimenari nahimenaren determinazio-oinarria horrek berak bakarrik emateko hantustea kentzeko obligazioa dauka oro har. Arrazoimen hutsaren erabilera, horrelakorik badagoela erabakita badago, immanentea baino ez da; enpirikoki baldintzatua, ordea, nagusigoa beretzat bakarrik nahi duena, transzendentea da eta bere lurraldeaz haratago kokatzen diren eskakizun eta aginduak adierazten ditu, eta hori arrazoimen hutsaren erabilera espekulatiboari buruz esan zitekeenaren alderantzizkoa da zehazki.

Hemen, ordea, oraindik arrazoimen hutsaren ezagutza denez erabilera praktikoaren oinarrian datzana, orduan arrazoimen praktikoaren kritikaren antolamendua, bere eskema orokorrean, espekulatiboaren kritikaren arabera ordenatu beharko da. Beraz, horren *osagaien irakaspena* eta *metodoaren irakaspena* izan beharko ditugu, eta lehenengoan lehen zati gisa *analitika* egiaren erregela modura eta *dialektika* arrazoimen praktikoaren judizioetan sortzen den liluraren aurkezpene eta desegite modura. Analitikaren zatien antolamenduan, ordea, ordena arrazoimen huts espekulatiboaren kritikan genuenaren alderantzizkoa izango da. Izan ere, oraingoan *oinarrizko esakunetarik* abiatuta *adigaietara* joango gara eta horietatik azkenean ahal den heinean sentsuetara; aitzitik, arrazoimen espekulatiboan sentsuetatik abiatu ginen eta oinarritzko esakuneetan aurkitu genuen helmuga. Horren arrazoiak honetan datza, guk orain nahimenaz arduratzen garela eta arrazoimena nahimen horrekin eta bere kausalitatearekin hartu emanean neurtu behar dugula, ez objektuekin, zeren enpirikoki baldintzatugabeko kausalitatearen oinarritzko esakunea izango baita abiapuntua ondoren halako nahimenaren determinazio-oinarriez, horiek objektuetan duen aplikazioaz eta, azkenik, subjektuan eta bere sentimenean duen aplikazioaz ditugun adigaiak lehenengoz finkatzeko saiakera egiteko. Hemen abiapuntua ezinbestean kausalitate askearen legea da, hau da, edozein oinarritzko esakune huts praktikoa, eta

horrek determinatzen du oinarrizko esakune horri lotzen zaizkion objektuak.

ARRAZOIMEN
PRAKTIKOAREN KRITIKA

LEHEN ZATIA

Arrazoimen praktiko hutsaren
osagaien irakaspena

LEHEN LIBURUA

Arrazoimen praktiko hutsaren analitika

LEHEN ATALA

Arrazoimen praktikoko hutsaren oinarritzko esakuneez

§ 1

Definizioa

Oinarritzko esakune praktikokoak nahimenaren determinazio orokor bat barnebiltzen duten esakuneak dira, bere baitan hainbat errege-la praktikoko dituen determinazioa. Subjektiboak dira, edo *maximak*, subjektuak baldintza bere nahimenarentzat soilik hartzen duenean baliogarritzat; objektiboak, ordea, edo *lege* praktikokoak, baldintza objektibo gisa, hau da, zerizan arrazoidun ororen nahimenarentzat baliogarri gisa ezagutzen direnean.

Oharra

Onartzen denean arrazoimen *hutsak* bere baitan oinarri praktikoa barnebil dezakeela, hau da, nahimenaren determinaziorako nahikoa den oinarria, orduan lege praktikokoak daude; horrela ez bada gertatzen, orduan oinarritzko esakune praktikokoak denak maximak baino ez dira izango. Zerizan arrazoidun baten nahimen patologikoki afektatu batean maximen gatazka bat gerta daiteke horrek ezagutzen dituen lege praktikoen aurka. Adibidez, norbaitek honako hau bere maxima bihur dezake, alegia, ezein isekarik ez jasatea mendekurik hartu gabe, eta hala ere, aldi berean, uler dezake hori ez dela lege praktikoa, baizik eta bere maxima besterik ez, zerizan arrazoidun ororen nahimenaren erregela gisa bere buruarekin ezin ados jar daitekeena maxima bat eta bakarrean. Naturaren ezagutza gertatzen denaren printzipioak (adibidez, eraginaren eta aurkako eraginaren berdintasunaren printzi-

pioa higiduraren igorpenean) aldi berean naturaren legeak dira; izan ere, hor arrazoimenaren erabilera teoretikoa da, eta hori objektuaren ezaugarriak determinatzen du. Ezagutza praktikoa, hau da, nahimenaren determinazio-oinarriekin soilik zer ikusia duenean, norberak beretzat sortzen dituen oinarritzko esakuneak ez dira horregatik hala-beharrez menpean hartzen gaituzten legeak, zeren arrazoimenak praktikoa den horretan subjektuarekin baitu zer ikusia, hots, desiramenarekin, zeinaren izaera bereziaren arabera erregelak joera anitz izan ditzakeen. - Erregela praktikoa beti da arrazoimenaren produktua, zeren hark ekintza, eraginaren bitarteko den aldetik, asmo gisa ezartzen baitu. Baina erregela hori *agindua* da nahimenaren determinazio-oinarri gisa arrazoimena soilik ez duen zerizan batentzat, hau da, ekintzaren behartze objektiboa adierazten duen behar batek ezaugarritzen duen erregela bat, eta horrek esan nahi du arrazoimenak nahimena osoki determinatuko balu, orduan ekintza ezinbestean erregela horren arabera gertatuko litzatekeela. Aginduek, beraz, objektiboki balio dute, eta erabat bereizten dira maximetatik, horiek oinarritzko esakune subjektiboak diren aldetik. Haiek, ordea, zerizan arrazoidunaren kausalitate-baldintzak, zerizan hori kausa eragilea den aldetik, eraginari eta haren askitasunari dagozkionez soilik determinatzen dituzte, edo arrazoimena soilik determinatzen dute, eragina sortzeko aski izan ala ez izan. Lehenengoak agindu hipotetikoak lirатеke, eta trebeziaren arauak baino ez lituzkete bilduko; bigarrenak, aitzitik, kategorikoak lirатеke, eta horiek soilik lirатеke lege praktikoa. *Oinarritzko esakuneak* dira, bai, maximak, baina ez *aginduak*. Aginduak euren aldetik, ordea, baldintzatuak direnean, hau da, nahimena ez dutenean nahimen gisa bete-betean determinatzen, baizik eta desiratzten den eragin bati dagokionez soilik, hau da, agindu hipotetikoak direnean, *arau* praktikoa dira, bai, baina ez dira *legeak*. Azken horiek nahimena nahimen gisa aski determinatu behar dute, galdetu aurretik ea desiratzten dudan eragin baterako behar den ahalmena ote dudan edo hori lortzeko zer egin behar dudan, eta horrenbestez kategoriak dira, eta bestela ez dira legeak; zeren beharrezkotasuna falta baitzaie, zeinak ezin duen egon baldintza patologikoen, hots, nahimenari ausaz itsasten zaizkion baldintzen menpe, baldin eta praktikoa izan behar badu. Esaiozue norbaiti, adibidez, gaztaroan lan egin eta aurreztu behar duela zahartzaroan gosez ez hiltzeko; hori nahimenaren arau praktikoa zuzen eta aldi berean garrantzitsua da. Baina erraz ikusten da

hor nahimena *beste* zerbaiti lotzen zaiola, eta ontzat jotzen da nahimenak hori desiratzen duela, eta desiratze hori ekilearen esku utzi behar da, gerta baitaiteke hark berak lortutako jabetza ez den beste laguntza-bideak aurreikusi dituela, edo zahartzarora iristeko itxaropenik ez duela, edo pentsatzen duela inoiz premiarik baldin badu bere kabuz aurrera egiteko gai izango dela. Beharrezkotasuna biltzen duen erregela ororen jatorri den arrazoimenak bere arau horretan beharrezkotasuna ezartzen du (hori gabe ez bailitzateke agindu izango), baina beharrezkotasun hori subjektiboki baino ez dago baldintzatuta, eta ezin da pentsatu subjektu orotan maila berberean dagoela. Baina haren lege-emateak eskatzen du hark *bere burua* auresuposatzea baino ez duela behar, zeren zerizan arrazoidun bat beste batetik bereizten duten ausazko baldintza subjektiborik gabe balio duenean baita erregela objektiboa eta orokorki balioduna. Baina esaiozue norbaiti ezin duela inoiz gezur-agindurik egin behar; hori haren nahimenari soilik dago-kion erregela da; gizaki horrek izan ditzakeen asmoak lortu ahal izan ala ez; nahi izate soilak da erregela haren bidez guztiz a priori determinatu behar dena. Orain gertatzen bada erregela hori praktikoki zuzena dela, orduan hori legea da, agindu kategorikoa delako. Beraz, lege praktikoak nahimenari baino ez zaizkio lotzen, alde batera utziz horien kausalitateak lor dezakeena, eta hori bazter daiteke (sentsuen munduari dagokionez) legeak huts-hutsean izateko.

§ 2

1. tesia

Nahimenaren determinazio-oinarri gisa desiramenaren *objektu* bat (materia) auresuposatzen duten printzipio praktiko guztiak orotara enpirikoak dira eta ezin dute lege praktikorik sortu.

Desiramenaren materiaz ulertzen dut errealitatea izatea desiratzeko diogun objektua. Objektu horren desira erregela praktikoarenekin aurretik badator eta hura printzipio bihurtzeko baldintza bada, orduan diot (*lehenik*): printzipio hori enpirikoa da beti. Izan ere, nahieraren determinazio-oinarria objektu baten errepresentazioa da eta horren halako erlazioa subjektuarekin, ezen desiramena hura egikaritzera determinatzen baitu. Baina subjektuarekiko halako erlazioak objektu baten errealitatean dugun *atsegina* izena du. Beraz, hori nahieraren

determinazioaren ahalgarritasun-baldintza gisa auresuposatu behar-ko litzateke. Baina ezin da ezein objekturen errepresentazioaz a priori jakin, objektua dena dela ere, *atsegina* edo *desatsegina* sortuko duen ala horren aurrean *axolagabe* izango den. Beraz, halako kasuan nahieraren determinazio-oinarriak beti enpirikoa izan behar du, eta horrenbestez, baita hura baldintza gisa auresuposatzen duen printzipio material praktikoa ere.

Hala ere (*bigarrenik*), (beti enpirikoki baino ezagutu ezin den eta zerizan arrazoidun guztientzat era berean balio ezin duen) atsegin edo desatsegin baten harmenaren baldintza subjektiboan soilik oinarritzen den printzipioa hori duen subjektuari *maxima* gisa balio dakiokeenez, baina horri berari ezin zaionez *lege* gisa balio (a priori ezagutu behar den beharrezkotasun objektiboa falta baitzaio), orduan hala-ko printzipioak ezin du inoiz lege praktikoa bat sortu.

§ 3

2. tesia

Printzipio praktikoa material guztiak, halakoak diren aldetik, era bat eta bakarrekoak dira orotara, eta norberaren maitasunaren edo norberaren zorionaren printzipio orokorrean kokatzen dira.

Gauza baten existentziaren errepresentazioak sortzen duen atsegina, gauza horren desiraren determinazio-oinarri izan behar duen heinean, subjektuaren *harmenean* oinarritzen da, zeren objektu baten izatearen *menpe* baitago; eta horrenbestez, sentsuari dagokio (sentimenduari) eta ez adimenari, azken horrek errepresentazioaren eta *objektuaren* arteko harremana adierazten baitu adigaien arabera, eta ez errepresentazioak subjektuarekin duena sentimenduen arabera. Horrela, atsegina praktikoa da soilik subjektuak objektuaren errealtetik itxaroten duen gustagarritasunaren sentsazioak desiramena determinatzen duen heinean. Baina zerizan arrazoidun batek beti etengabe lagun duen bizitzaren gustagarritasunaz duen kontzientzia *zoriona* da, eta hori nahieraren determinazio-oinarri goren bihurtzen duen printzipioa norberaren maitasunaren printzipioa. Beraz, nahieraren determinazio-oinarria objekturen baten errealtatea dela eta sentitu behar den atsegin edo desatsegin batean ezartzen duten printzipio

material guztiak hain dira orotara *era batekoak*, ezen guztiak norberaren maitasunaren edo norberaren zorionaren printzipioari baitagozkie.

Ondorioztapena

Erregela praktiko *material* guztiek nahimenaren determinazio-oinarria *behe desiramenean* ezartzen dute, eta horrek nahimena aski determinatuko lukeen ezein lege *formalik* ez balu, orduan ezingo litzateke onartu ezein *goi desiramenik*.

1. oharra

Harrigarria da gainerakoan zorrotzak diren gizonek *behe* eta *goi desiramenaren* arteko bereizketa hemen aurkitu izana uste izatea, hots, atseginaren sentimenduarekin lotuta dauden *errepresentazioak* jatorria *sentsuetan* edo *adimenean* izatean. Izan ere, kontua ez da, desiratzearen determinazio-oinarriaz galdetzen denean eta hori zerbaitek sortutako gustagarritasunean ezartzen denean, nondik datorren objektu atsegingarri horren *errepresentazioa*, baizik eta zenbateko *atsegina* sortzen duen besterik ez. Egoitza eta jatorria adimenean izan dezakeen errepresentazio batek nahiera honen bidez baino ezin duenean determinatu, hots, subjektuan atsegin baten sentimendua auresuposatuz, bada, orduan hura nahieraren determinazio-oinarri izatea barneko sentsuaren egituraren menpe dago osoki, hots, hori gustagarritasunak afektatu ahal izatearen menpe. Objektuen errepresentazioak hain mota ezberdinekoak izan badaitezke ere, adimenaren errepresentazioak, are arrazoimenarenak ere izan badaitezke ere sentsuen errepresentazioei aurkakotuz, hala ere atseginaren sentimendua, zeinaren bidez haiek nahimenaren determinazio-oinarria osatzen duten (gustagarritasuna, horretatik espero den plazera, zeinak objektua ekoizteko ekimena sustatzen duen), ez da beti mota berberekoa enpirikoki soilik ezagutu daitekeen heinean, baizik eta desiramenean adierazten den bizi-indar bat eta bakarra afektatzen duen heinean ere bai, eta horrenbestez beste determinazio-oinarri orotatik ezertan ezin da ezberdindu, mailan baino ez bada. Nola egingo litzateke bestela errepresentazio-erari dagokionez erabat bereiziak diren bi determinazio-oinarrien artean *handieraren* alderaketa, desiramena gehien afektatzen duena lehenesteko? Gizaki ber-

berak behin bakarrik eskutan hartu duen liburu irakasgarria irakurtzeke itzul dezake, ehizari huts ez egiteagatik, hitzaldi eder baten erdian hanka egin dezake, bazkarira beranduegi ez iristeagatik, arrazoizko elkarrizketak sortzen duen olgeta, bestelakoan oso gustuko duena, utz dezake, joko-mahaian esertzeko, eta pertsona txiro bat bazter dezake, hari laguntzeak bestelakoan poza ematen badio ere, antzerkira joateko sarrerarako behar duen dirua besterik ez duelako poltsikoan. Nahimenaren determinazioa kausaren baten bidez espero duen gustagarritasun edo ez-gustagarritasunean oinarritzen bada, orduan erabat berdin dio zein errepresentazio-erak afektatzen duen. Gustagarritasun hori zein indartsua, zein luzea, zein erraz lortzen den eta errepikatzen den, hori baino ez du hartzen kontuan erabakia hartzerakoan. Ordaintzeko urrea behar duenari ere era berean berdin zaio haren ekaia, urrea, menditik erauzi den edo hondarra garbituz lortu den, hark betiere balio berbera izango badu, eta era berean ezein gizakik ez du galdetzen bizitzaren gustagarritasunaz soilik arduratzen denean, ea adimenaren edo sentsuen errepresentazioak diren, baizik eta horiek *zenbateko* plazer *handia* sortuko dioten epe luzean. Arrazoimen hutsari nahimena sentimenduren baten aurreuposiziorik gabe determinatzeko ahalmena kendu nahiko lioketenek soilik erratzen dute hainbeste haren benetako argiketan, ezen lehen printzipio bat eta bakarrean bildu dutena gero, ordea, guztiz ezberdintzat jotzen baitute. Horrela gertatzen da plazera aurki daitekeela, adibidez, *indarraren aplikazio* soilean, norberaren arimaren indarraren kontzientzian gure asmoei aurkakotzen zaizkien oztopoak gainditzen dituenean, espirituaren gaitasunen garapenean, eta abarretan, eta horri arrazoiz poztasun eta olgeta *finago* deitzen diogu, horiek gure menpe daudelako besteak baino gehiago, ez direlako agortzen, baizik eta sentimendua gozamen handiagoa izateko indartzen dutelako, eta hura poztuz aldi berean garatzen dutelako. Hala ere, horregatik haiek nahimena sentsuen bidez ez beste era batera determinatzeko modutzat jotzea, haiek behin plazer haren ahalgarritasunerako gugan ezarritako sentimendua aurreuposatzen zutelako atsegin haren lehen baldintza gisa, bada, hori ezjakinek, metafisikan muturra gustura sartuko luketenek, gaia hain modu finean, guztiz finean pentsatzea bezala litzateke, ezen zorabiatu ere egiten baitira, eta orduan uste dute era horretara zerizan *espirituzkoa* baina aldi berean hedatua pentsatu dutela. *Epikurorekin* batera bertutea horrek agin-

tzen duen plazerean ezartzen badugu, nahimena determinatzearen, horren arabera gero ezin diogu gaitzetsi hori sentsu gordinen plazerarekin parekatzea; izan ere, ez dugu arrazoirik Epikurori leporatzeko gugan sentimendu hori sortzen duten errepresentazioak gorputzaren sentsuei egotzi izana. Horietako askoren jatorria, asma daitekeen neurrian, era berean goi ezagutza-ahalmenaren erabileran bilatu du; baina horrek ez zion eragotzi eta ezin zion eragotzi gainera ezen, aipatutako printzipioaren arabera errepresentazio adimenduzkoek bermatzen diguten eta haiek nahimenaren determinazio-oinarri bihurtzen dituen plazera guztiz era berberekotzat hartzea. *Bereari atxikitzea* da filosofo baten obligazio gorena, baina oso noizean behin topatzen da. Antzinako eskola grekoek horren adibide gehiago eskaintzen dituzte egungo garai *sinkretikoak* baino, zeinean zintzotasunik gabeko eta azalakeriaz betetako oinarritzko esakune kontraesankorren *koalizio-sistema* bat asmatu den, guztiaz zerbait jakitea eta osotara ezer ez jakiteak pozten duen publiko batek hobeto onartzen duelako, horrela egoera guztiei erantzungo dielakoan. Norberaren zorionaren printzipioak, hor hainbat adimen eta arrazoimen erabiltzen bada ere, ez luke bilduko nahimenarentzat *behe* desiramenari dagokion determinazio-oinarria ez denik, eta beraz, ez dago goi⁹ desiramenik, edo *arrazoimen hutsak* bere kabuz izan behar du praktikoa, hau da, sentimenduren baten auresuposizioarik gabe, eta horrenbestez, desiramenaren materia gisa betiere printzipioen baldintza enpiriko den gustagarria edo gustagaitza denaren errepresentazioarik gabe erregela praktikoaren forma soilaren bidez determinatu ahal izan behar du nahimena. Horrela baino ez da arrazoimena egiazko *goi* desiramena, bere kabuz nahimena determinatzen duen heinean (joeren menpe ez dagoen heinean), eta haren menpe dago patologikoki determina daitekeena, hartatik benetan eta *zehazki* bereizten dena, halako moldez non behe desiramenaren bultzagileen sudur-sartze txikienak haren indarrari eta lehentasunari kalte egiten baitie, frogapen matematiko batean enpirikoa den txikikeriaren batek baldintza gisa frogapenaren ohorea eta indarra gutxitzen eta ezabatzen duen bezala. Arrazoimenak lege praktiko batean nahimena bitartegabe determinatzen du, ez tartean sortzen den atseginaren eta desatseginaren sentimendu baten bidez, ezta lege horretan ere, eta arrazoimen huts gisa praktiko izateko aukerak ahalbidetzen dio *lege-emaile* izatea.

2. oharra

Zoriontsu izatea halabeharrez da zerizan arrazoidun baina mugatu ororen eskaera, eta beraz, desiramenaren ezinbesteko determinazio-oinarria da. Izan ere, norberaren izate osoaren asebetetasuna ez da jatorrizko jabetza bat, ezta norberaren askitasun beregainaren kontzientzia aurreuposatuko lukeen santutasuna ere, baizik eta haren izaera mugatuagatik sortzen zaio arazoa, premiak dituelako, eta premia horiek haren desiramenaren materiarekin dutelako zer ikusia, hau da, subjektiboki oinarrian datzan atseginaren edo desatseginaren sentimendu bati lotzen zaion zerbaitekin, zeinaren bidez norberaren egoerarekin asebetetasuna izateko behar dena determinatzen den. Baina, hain zuzen honegatik, subjektuak determinazio-oinarri material hori enpirikoki baino ezin duelako ezagutu, ezinezkoa da arazo hori lege gisa hartzea, zeren horrek objektibo izanik kasu guztietan eta zerizan arrazoidun guztientzat nahimenaren *determinazio-oinarri berbera* bildu beharko bailuke. Izan ere, nahiz eta zorionaren adigaia *edonon objektuek* desiramenarekin duten harreman praktikoaren oinarrian datzan, hori desiramen subjektiboaren izenburu orokorra baino ez da, eta ez du ezer berezirik determinatzen, arazo praktiko horretan hori izaki autu bakarra, eta halako determinaziorik gabe arazoa ezin da inolaz ere konpondu. Bakoitzak bere zoriona non ezarri behar duen, hori haren atseginaren eta desatseginaren sentimendu bereziaren menpe dago, eta subjektu bat eta bereborean sentimendu horren eraldaketen arabera premiaren ezberdintasunaren menpe, eta *lege subjektibo beharrezko* bat (natur lege gisa), beraz, *objektiboki* printzipio praktiko erabat *ausazkoa* da, subjektu ezberdinetan oso ezberdina izan daitekeena eta izan behar duena, eta horrenbestez inoiz lege bat eman ezin duena, zeren zoriontasunaren irrikan kontua ez baita legezkotasunaren forma, baizik eta materia besterik ez, hots, ea legea betetzean plazera lortzea espero dezakedan eta zenbat plazer. Norberaren maitasunaren printzipioak bil ditzake trebeziaren erregela orokorrak (asmoetarako bitartekoak bilatzea), baina printzipio teoretiko soilak dira¹⁰ (adibidez, gustura ogia jango lukeenak errota asmatu behar du). Baina haietan oinarritzen diren arau praktikoek ezin dute inoiz orokorrak izan; izan ere, desiramenaren determinazio-oinarria atseginaren eta desatseginaren sentimenduan oinarritzen da, eta ezin da onartu hori orokor gisa objektu berberetara zuzentzen dela.

Baina demagun zerizan arrazoidun mugatuek euren plazeraren edo minaren sentimenduen objektutzat onartu beharko luketenari dagokionez, baita lehenengoak lortzeko eta besteak baztertzeko erabili behar dituzten bitartekoei dagokienez ere, erabat gauza berbera direla pentsa zezaketela, orduan *norberaren maitasunaren printzipioa*, hala ere, ezingo lukete inolaz ere *lege praktikotzat* jo; izan ere, aho-batasun hori ausazkoa baino ez litzateke izango. Determinazio-oinarriak betiere subjektiboki baino ez luke balio izango eta enpirikoa baino ez litzateke izango, eta ez luke halako legean pentsatzen den beharrezkotasunik, hots, apriorizko oinarrietatik datorren beharrezkotasun objektiborik; bada, horrela, beharrezkotasun hori ezin da praktikotzat onartu, baizik eta soilik fisikotzat, hots, ekintza gure joerak ezinbestean behartu digu, nagiak ateratzea bezala bestea nagiak ateratzen ikusten dugunean. Hobe litzateke lege praktikorik ez dagoela baizik eta gure irriken mesederako *aholkuak* besterik ez daudela baieztatzea, printzipio subjektibo soilak lege praktikoen mailara igotzea baino, hots, benetako beharrezkotasun objektiboa eta ez soilik subjektiboa duten eta arrazoimenaren bidez a priori eta ez esperientziaren bidez (hori enpirikoki hain orokorra izan badaiteke ere) ezagutu behar diren legeen mailara. Aho batez onartzen diren agerpenen erregelak ere natur lege baino ez dira deitzen (adibidez, mekanikoak), horiek benetan a priori ezagutzen direnean, edo (kimikoen kasuan bezala) onartzen da oinarri objektiboetatik abiatuz a priori ezagutuko liratekeela, gure ulermenaren sakonagoa balitz. Baina printzipio praktikoko subjektiboak baino ez direnen kasuan baldintza bat ezartzen da espresuki, ezen horien oinarrian nahieraren baldintza subjektiboak egon behar dutela, ez objektiboak; eta horrenbestez, ezin dira inoiz errepresentatu lege praktikoko gisa, baizik eta maxima soil gisa besterik ez. Azken ohar hori lehen begiratuan hitzak zorroztea baino ez da itxuraz; baina azterketa praktikotetan soilik azal daitekeen bereizketa garrantzitsuenaren definizioa da.

§ 4

3. tesia

Zerizan arrazoidun batek norberaren maximak lege praktikoko orokor gisa pentsatu behar baditu, orduan haiek nahimenaren deter-

minazio-oinarria formaren arabera jasotzen duten printzipio gisa baino ezin ditu pentsatu, ez materiaren arabera.

Printzipio praktiko baten materia nahimenaren objektua da. Hura azken horren determinazio-oinarria da, edo ez da. Haren determinazio-oinarria balitz, orduan nahimenaren erregela baldintza enpiriko baten menpe legoke (errepresentazio determinatzaileak atseginarene eta desatseginarene sentimenduarekin duen erlazioaren menpe), eta ondorioz ez litzateke ezein lege praktiko izango. Baina lege bati materia oro, hau da, nahimenaren (determinazio-oinarri gisa) objektu oro kentzen bazaio, orduan lege-emate orokor baten forma soila baino ez zaio geratzen. Beraz, zerizan arrazoidun batek bere printzipio praktikoko subjektikoak, hau da, maximak ezin ditu aldi berean lege orokor gisa pentsatu, edo onartu behar du haien *forma* hutsak, haiek *lege-emate orokor bihurtzen* dituenak baino ez dituela bihurtzen lege praktikoko bere kabuz.

Oharra

Adimen arruntenak bereiz dezake eskolara joan gabe maximaren zein forma egokitzen zaion lege-emate orokorrari eta zein ez. Nik neuretzat maxima bihurtu dut, adibidez, nire jabetza bitarteko seguru ororen bidez handitzea. Orain *gordailu* bat dut nire eskuetan, eta horren jabea hil da, eta horri buruzko idazkirik ez du utzi. Horixe da berez nire maximaren kasua. Orain hau besterik ez dut jakin nahi: ea maxima horrek lege praktiko orokor gisa balio dezakeen. Hura, beraz, kasu horretan aplikatzen dut eta galdetzen dut ea hark lege baten forma har dezakeen eta, horrenbestez, ea nik maxima haren bidez aldi berean honako legea eman dezakedan: edonork gordailu bati uko egin behar diezaiokeela, horren ezarpena inork ezin badio frogatu. Berehala ohartzen dut halako printzipio batek lege gisa bere burua ezabatu lukeela, zeren gordailurik ez egotea eragingo bailuke. Lege praktikoko batek, nik horrelakotzat berrezagutzen dudanak, lege-emate orokorrerako gai izan beharko luke; hori esakune identikoa da eta berez da argia. Orain esaten badut nire nahimena *lege* praktikoko baten menpe dagoela, orduan ezin dut nire joera (adibidez kasu horretan nire diru-irritsa) lege praktikoko orokor batentzat egokia den nahimenaren determinazio-oinarri gisa aurkeztu; izan ere, hura inolaz ere ez da gai lege-

emate orokor baterako; aitzitik, bere burua agortuko luke lege orokor baten forman.

Beraz, harritzekoa da zorionaren irrika eta, beraz, bakoitzak zoriona bere nahimenaren determinazio-oinarri bihurtzeko *maxima* orokorrak direla eta, gizon jakintsuei otu izatea horregatik hura *lege praktiko* orokortzat jotzea. Izan ere, bestelakoan natur lege orokor batek dena aho-bateratzen duenez, hemen zehazki aho-bateratasunaren guztiz aurkakoa izango genuke, maximari lege baten orokortasuna eman nahiko bagenio, eta beraz, gatazka zakarra eta maxima beraren deuseztapen osoa ondorioztatuko lirateke. Izan ere, guztion nahimenak ez du objektu bat eta berbera, baizik eta bakoitzak berea du (bere atsegin propioa), zeina ausaz besteek eurengana zuzentzen dituzten asmoekin ados daitekeen, baina inolaz ere nahikoa ez den lege izateko, zeren inoizka egin daitezkeen salbuespenak amaigabeak baitira eta inolaz ere ezin baitira zehazki erregela orokor batean jaso. Horrela, honako harmonia sortzen da, pikutara doan bikote baten arima-bateragarritasunari buruzko olerki barregarri jakin batek islatzen duenaren antzekoa dena: «*Oh, armonia miragarria, gizonak nahi duena, emakumeak ere nahi du*», eta abar, edo Frantzisko lehena erregeak Karlos bosgarrena enperadoreari egindako eskaeraz esaten dena: «Karlos nire anaiak nahi duena (Milan), nik ere eduki nahi dut». Determinazio-oinarri enpirikoek ez dute balio ezein lege-emate publiko orokorrerako, baina are gutxiago pribaturako; izan ere, bakoitzak bere subjektua eta beste batek berea ezartzen du joeraren oinarrian, eta subjektu bakoitzean orain bat gero beste hura gailentzen da. Erabat ezinezkoa da orobat baldintza hau betetzen duen legea aurkitzea, hots, alde guztien aho-bateratasunari jarraiki gobernatzea.

§ 5

1. arazoa

Baldin eta maximen forma lege-emaila soila nahimen baten determinazio-oinarri nahikoa dela jotzen badugu, horren bidez baino determinatu ezin den nahimenaren egitura aurkitzea.

Legearen forma soila arrazoimenak baino ezin duenez errepresentatu, eta sentsuen ezein objektu ez denez, eta beraz, agerpenen

artean kokatzen ez denez, orduan haren errepresentazioa nahimenaren determinazio-oinarri gisa kausalitatearen legearen arabera natur gertaeren determinazio-oinarri orotatik bereizten da, zeren azken horietan agerpenek izan behar baitute oinarri determinatzaileak. Baldin eta, ordea, nahimenaren beste determinazio-oinarrik balio ezin duenez horren lege gisa, forma lege-emaile orokor hark ez bada, orduan halako nahimena agerpenen natur legetik, hots, kausalitatearen legetik edo elkarreraginaren legetik beregain gisa pentsatu behar da. Halako beregaintasunak, baina, askatasuna izena du adiera zehatzenean, hau da, transzendentalean. Beraz, lege gisa maximaren forma lege-emaile soila besterik ezin izan duen nahimena nahimen askea da.

§ 6

2. arazoa

Nahimen bat askea dela emanenez gero, hura halabeharrez determinatzeko gai den lege bakarra aurkitzea.

Lege praktikokoaren materia, hau da, maximaren objektu bat, enpirikoki baino ezin izan dugunez, baina nahimen askeak baldintza enpirikoetatik beregain izanik (hau da, sentsuen munduan kokatu gabe) hala ere determinagarria izan behar duenez, orduan nahimen askeak determinazio-oinarri bat topatu behar du legean legearen *material* beregainki. Baina legearen materiaz gain ez dago ezer hartan, forma lege-emaile ez bada. Beraz, forma lege-emaile da, maximan barnebiltzen den heinean, nahimenaren determinazio-oinarri bat era dezakeen gauza bakarra.

Oharra

Askatasunak eta lege praktikoko baldintzatugabeak, beraz, elkar sustatzen dute. Nik hemen ez dut galdetzen ea horiek egitatean ere ezberdinak diren, eta ez, aitzitik, lege baldintzatugabe bat arrazoimen praktikoko hutsaren autokontzientzia ote den, eta hori, ordea, askatasunaren adigai positiboarekin berdintzen den; baizik eta galdetzen dut ea baldintzatugabeki praktikoa denaren gure *ezagutza* nondik *abiatzen* den, askatasunetik edo lege praktikotik. Askatasunetik ezin da abiatu;

izan ere, hartaz ezin gara jabetu bitartegabe, haren lehen adigaia negatiboa delako, eta hura ezin dugu esperientziatik abiatuta eratorri, zeren esperientziak agerpenen legea baino ez baitugu ematen ezagutzera, hau da, naturaren mekanismoa, askatasunaren aurkakoa zuzen-zuzenean. Beraz, *lege moralaz* jabetzen gara bitartegabe (nahimenaren maximak zirriborratzen ditugun bezain pronto), hori da *lehenik* aurkezten zaiguna, eta, arrazoimenak hura sentimenezko ezein baldintzak zapuzten ez duen eta haietatik erabat beregaina den determinazio-oinarri gisa aurkezten digun heinean, hark gidatzen gaitu askatasunaren adigairaino. Nola da ahalgarri, ordea, lege moral haren kontzientzia? Gu lege praktikoa hutsez jabe gaitezke, oinarritzko esakune teoretiko hutsez jabetu ahal garen bezalaxe, kontuan hartzen dugun heinean arrazoimenak haiek halabeharrez ezartzen dizkigula eta arrazoimenak baldintza enpiriko guztien bazterketa erakusten digula. Nahimen hutsaren adigaia lehen hartatik sortzen da, adimen hutsaren kontzientzia azken horretatik sortzen den bezala. Hori da gure adigaien egiazko sailkapena, eta etikotasunak azaltzen digu lehenengoz askatasunaren adigai, eta beraz, *arrazoimen praktikoa* lehenik espekulati-boari adigai horrekin arazo konponezinena ezartzen dio, hura horren bidez kinka larrienean jarritz; hori guztia honen bidez argitzen da, hots, askatasunaren adigaitik abiatuz agerpenetan ezer ezin denez argitu, baizik eta hor beti natur mekanismoa denez hari-gidaria, gainera arrazoimen hutsaren antinomiak, kausen ilaran baldintzatugaberaino igo nahi duenean, batean zein bestean ulertezintasunetan nahastenez, besteak (mekanismoak) gutxienez agerpenak argitzeko erabilgarritasuna duen bitartean, bada, inoiz ez litzatekeela askatasuna jakintzan sartzeko ausardia izango ohituren legeak eta horrekin batera arrazoimen praktikoa hori egin ez balu eta adigai hori ezarri ez baligu. Baina esperientziak ere adigaien ordena hori baiesten du gudan. Emazue norbaitek bere joera lizunaz dioela, objektu desiragarria eta horretarako abagunea izanez gero, horri ezin zaiola itzuri; ea etxearen aurrean urkamendia jarriko balitzaioke, gozatutako lizunkeriaren ondoren berehala hura han ezartzeko, hala ere joera hari ezingo ote litzaiokeen gailendu. Ez da luze pentsatu behar zer erantzungo lukeen. Baina printzeak heriotza-zigor ziurraren mehatxupearan itxurazko aitzakiak erabiliz gustura zapuztuko lukeen gizon zuzen baten aurkako lekukotza faltsua ematea eskatuko balio, galde iezaiozue hari ea bizitza hainbeste maitatu arren maitasun hori gainditzea ahalgarri-

tzat jotzen duen. Agian ez da ausartuko egingo lukeen ala ez lukeen egingo baieztatzera, baina ahalgarri zaiola, hori zalantzarik gabe onartu behar du. Beraz, juzgatzen du zerbait egin dezakeela ohartzen duelako hori egin behar duela, eta bere baitan askatasuna ezagutzen du, lege moralik gabe bestela ezezagun izango litzaiokeena.

§ 7

Arrazoimen huts praktikoaren oinarritzko legea

Ekin ezazu zure nahimenaren maximak beti aldi berean lege-
emate orokor baten printzipio gisa balio baleza bezala.

Oharra

Geometria hutsak postulatuak ditu esakune praktiko gisa, baina hau baino ez dute barnebiltzen: zerbait egin *daitekeela* onartzea, egin *behar dela* eskatuko balitz, eta horiek dira izatearekin zer ikusia duten haren esakune bakarrak. Nahimenaren baldintza problematiko baten menpe dauden erregela praktikoak dira. Hemen, ordea, erregelak dio: modu jakin batean jokatu behar da ezinbestean. Erregela praktikoa, beraz, baldintzatugabeki errepresentatzen da a priori, eta beraz, nahimena ezinbestean eta bitartegabe (hemen lege den erregela praktiko beraren bidez) objektiboki determinatzen duen esakune kategoriko praktiko gisa. Izan ere, *arrazoimen* hutsa, *bere baitan praktikoa* dena, hemen bitartegabe da lege-emailea. Nahimena baldintza enpirikoetatik beregain gisa pentsatzen da, eta beraz, nahimen huts gisa, *legearen forma soilaren bidez* determinatu gisa pentsatzen da, eta determinazio-oinarri hori maxima ororen baldintza gorentzat jotzen da. Kontua nahiko bitxia da, eta ez dago antzekorik gainerako ezagutza praktiko osoan. Izan ere, lege-emate orokor ahalgarri baten apriorizko pentsamendua, problematikoa baino ez dena, beraz, lege gisa eskaintzen da baldintzatugabeki, esperientziatik edo kanpoko nahimen batengandik ezer mailegatu gabe. Ez da, hala ere, irrikatzen den eragin bat ahalbidetzen duen ekintza gertarazten duen arau bat (izan ere, hor erregela betiere fisikoki baldintzatuta legoke), baizik eta nahimena a priori determinatzen duen erregela besterik ez bere maximen formari jarraiki, eta orduan ez da ezinezkoa, gutxienez, oinarritzko esakuneen forma

subjektiboaren mesedetarako baino balio ez duen legea pentsatzea determinazio-oinarri gisa oro harrezko lege baten forma *objektiboa -ren* bidez. Oinarritzko lege horren kontzientziari arrazoimenaren egitate dei dakioke, ezin baita arrazoimenaren aurreko datuetatik arrazoikerien bidez lortu, adibidez askatasunaren kontzientziazatik (izan ere, horrelakorik ez dugu aurretik), baizik eta hura bere kabuz ezartzen zaigulako ez begiespen hutsean ez enpirikoan oinarritzen ez den apriorizko esakune sintetiko gisa; hori esakune analitikoa litzateke nahimenaren askatasuna ontzat joko balitz, baina horretarako adimenduzko begiespena beharko litzateke, adigai positibo gisa, eta hori hemen ezin da inolaz ere onartu. Hala ere, lege hori gaizki ulertzerik gabe *onartutzat* jotzeko, ohartarazi behar da ez dela ezein egitate enpiriko, baizik eta arrazoimen hutsaren egitate bakarra, zeinak horrenbestez bere burua jatorriz lege-emaile gisa aurkezten duen (*sic volo, sic jubeo*¹¹).

Onorioztapena

Arrazoimen hutsa berez da praktikoa, eta lege orokor bat ematen du (gizakiari ematen dio), *ohituren lege* deitzen duguna.

Oharra

Lehen aipatutako egitatea ukaezina da. Gizakiek euren ekin-tzen legezkotasunari buruz duten judizioa analizatu baino ez dugu egin behar, eta beti aurkituko dugu ezen, tartean joerak agintzen duena agintzen duela ere, haien arrazoimenak hala ere erostezin eta bere burua behartuz nahimenak ekintza batean duen maxima beti nahimen hutsari lotzen diola, hau da, bere buruari, bere burua a priori praktikotzat hartzen duen heinean. Etikotasunaren printzipio horrek, beraz, hura dituen ezberdintasun subjektibo guztiak kontuan hartu gabe nahimenaren determinazio-oinarri goren formala bihurtzen duen lege-ematearen orokortasuna dela eta, arrazoimena aldi berean zerizan arrazoidun ororen legetzat jotzen du, horiek oro har nahimen bat, hau da, euren kausalitatea erregelen errepresentazioaren bidez determinatzeko ahalmen bat duten heinean, eta beraz, ekin-tzak egiteko gai diren heinean oinarritzko esakuneen arabera eta,

ondorioz, apriorizko printzipio praktikoen arabera (izan ere, horiek baino ez dute arrazoimena oinarritzko esakune bihurtzeko behar den beharrezkotasuna). Ez da, beraz, gizakietara soilik mugatzen, baizik eta arrazoimena eta nahimena duten zerizan mugatu guztientzat balio du, eta gainera, zerizan mugagabea ere barnebiltzen du adimendu goren gisa. Lehen kasuan, ordea, legeak agindu baten forma du, zeren haiek nahimen *hutsa* dutela onar badaiteke ere, zerizan arrazoidunak diren aldetik, ezin baitzaie nahimen *santua* onartu, premiez eta sentimenezko bultzagaiez jota dagoen zerizanak diren aldetik, hau da, ezin zaie onartu lege morala kontraesango lukeen ezein maxima izateko gai izango litzatekeen nahimena. Lege morala, beraz, *agindu* bat da haietan, kategorikoki agintzen du, zeren legea baldintzatugabea baita; halako nahimen batek lege horrekin duen erlazioa *mendekotasunekoa* da, lotespenaren izenpean, zeinak ekintza baterako *hertsapena* esan nahi duen arrazoimen soilaren eta horren lege objektiboaren bidez bada ere, eta horregatik ekintza horrek *betebehar* izena du, zeren patologikoki afektatua den (baina horrek determinatzen ez duen baizik eta betiere askea den) nahierak bere baitan kausa *subjektiboetatik* sortzen den nahi bat duelako, horregatik gainera sarri determinazio-oinarri objektibo hutsaren aurka egon daitekeena, eta beraz, arrazoimen praktikoen aurkakotza behar duena, barneko behartze adimenduzkoa dei daitekeena, hertsapen moral gisa. Adimendu oronahikoan nahiera arrazoiz errepresentatzen da lege objektibo izan daitekeen ezein maxima izateko ezgai bezala, eta *santutasunaren* adigaiak, hari horregatik egozten zaionak, hura ez du lege praktiko orotatik haratago ezartzen, baina bai lege praktiko-mugatzaille orotatik haratago, eta beraz, lotespenetik eta betebeharretik haratago. Nahimenaren santutasun hori ideia praktiko bat da, eta zerizan arrazoidun mugatu guztiei ezinbestean dagokien gauza bakarra horri etengabe hurbiltzea da *eredu* gisa, eta ohituren lege hutsak, horrexegatik santu deitzen denak, hura haiei iraunkorki eta zuzenki begien aurrean mantentzen die, eta arrazoimen praktiko mugatuak eragin dezakeen gorena bertutea da, hau da, bere maximen amaigabeko aurrerapenaz eta aurrerapen iraunkorrari irmo eustiaz seguru izatea da, eta hori bere aldetik ezin da inoiz osatu, gutxienez berez lortutako ahalmena den aldetik, zeren segurtasuna halako kasuetan inoiz ez baita ziurtasun apodiktiko bihurtzen, eta limurketa gisa oso arriskutsua baita.

§ 8

4. tesia

Nahimenaren *autonomia* da lege moral ororen eta horien araberako betebeharraren printzipio bakarra; nahimenaren *heteronomia* orok, aitzitik, ezein lotespen ez oinarritzeaz gain horren printzipioari eta nahimenaren etikotasunari aurre egiten dio. Etikotasunaren printzipio bakarra legearen materia orotariko (hots, irrikatzen den objektuarekiko) beregaintasunean datza eta, aldi berean, nahieraren determinazioan, maxima batek izan behar duen forma lege-emaile orokor hutsaren bidez. *Beregaintasun* hura askatasuna da adiera *negatiboan*, baina arrazoimen huts eta, halako denez, praktikoaren *lege-emate pro-pioa* askatasuna da adiera *positiboan*. Lege moralak, beraz, arrazoimen huts praktikoaren *autonomia* baino ez du adierazten, hau da, askatasunarena, eta hori bera da maxima ororen baldintza formala, maxima horiek lege praktiko gorenarekin bat egin ahal izateko baldintza. Beraz, nahi izatearen materia, legearekin lotzen den irrika baten objektu baino ezin izan dena, lege praktikoan sartzen denean *haren ahalgarritasunaren baldintza* gisa, orduan hortik nahieraren heteronomia sortzen da, alegia, naturaren legeen menpekotasuna bultzada edo joeraren bati jarraikitzeke, eta nahimenak ez dio bere buruari legea ematen, baizik eta lege patologikoak arrazoizko eran betetzeko araua besterik ez; bestalde, bere baitan forma lege-emaile orokorra barnebildu ezin duen maximak era horretara ezein lotespen ez ezartzeaz gain arrazoimen *huts* praktikoaren legeari aurre egiten dio eta, beraz, jarrera etikoari, nahiz eta hartatik sortzen den ekintza legearen araberakoa izan.

1. oharra

Ezin da inoiz lege praktikotzat hartu baldintza materiala (eta beraz, enpirikoa) biltzen duen arau praktikoa. Izan ere, nahimen hutsaren legeak, askea den nahimenarenak, hori eremu enpirikoa ez den beste eremu erabat ezberdinean ezartzen du, eta hark adierazten duen beharrezkotasuna, naturaren beharrezkotasuna ezin izan duenez, lege baten ahalgarritasun-baldintza formaletan baino ez datza oro har. Erregela praktikoen materia orok beti baldintza subjektiboetan hartzen du oin, eta horiek hari ez diote baldintzatua den orokortasuna

baino ematen zerizan arrazoidunentzat (nik hori edo hura *desiratzen* dudan kasuan, egin behar dudana hori erreal bihurtzeko), eta haiek *norberaren zorionaren* printzipioaren inguruan dabilta biraka oro har. Baina ezin da ukatu nahi izate orok ere objektu bat izan behar duela eta, beraz, materia bat; baina hori ez da horregatik maximaren determinazio-oinarri eta baldintza; izan ere, hala balitz, hura ezingo litzateke aurkeztu forma lege-emaile orokorrean, zeren objektuaren existentziaren itxaropena bailitzateke nahieraren kausa determinatzailea eta desirarena gauzaren baten existentziaren menpe egotea nahi izatearen oinarrian ezarri beharko bailitzateke, eta existentzia hori baldintza enpirikoetan baino ezin da bilatu beti eta, horregatik, inoiz ezin du eman erregela beharrezko eta orokor baten oinarria. Horrela, zerizan arrotzen zoriona zerizan arrazoidun baten nahimenaren objektu izan daiteke. Hori, ordea, maximaren determinazio-oinarria izango balitz, orduan onartu beharko litzateke besteen ongizatean berezko plazera topatu ez ezik, gainera premia bat aurkitzen dugula, gizakien sentiera sinpatetikoak adierazten duenez. Baina nik ezin dut ontzat eman zerizan arrazoidun guztiek dutela premia hori (inolaz ere ez Jainkoaren kasuan). Beraz, maximaren materiak iraun dezake, baina ezin du haren baldintza izan; izan ere, bestela hark ezingo luke lege izan. Beraz, materia mugatzen duen lege baten forma soilak aldi berean materia hori nahimenari gaineratzeko oinarri bat izan behar du, baina ez hura ontzat jotzeko. Demagun, adibidez, materia nire zoriona dela. Hori, nik edonori egozten diodanean (egitatean zerizan mugatuen kasuan egin dezakedanez), lege praktikoa *objektibo* bihur daiteke, baina hor besteen zoriona biltzen badut besterik ez. Beraz, besteen zoriona sustatzeko legea ez da edozeinen nahieraren objektu dela onartzearen ondorioa, baizik eta soilik arrazoimenak baldintza gisa norberaren zorionaren maxima bati lege baten baliotasun objektiboa emateko behar duen orokortasunaren forma nahimenaren determinazio-oinarri bihurtzearen ondorioa, eta beraz, objektua (besteen zoriona) ez zen nahimen hutsaren determinazio-oinarria, baizik eta legezko forma soila besterik ez, joeran oinarritzen zen nire maxima mugatzeko bitartekoa, hari lege baten orokortasuna emateko, eta hura horrela arrazoimen praktikoa hutsaren pareko bihurtzeko, eta horren mugapen horretatik soilik sor zitekeen norberaren zorionaren maxima besteen zorionera hedatzeko *lotespena*, eta ez kanpoko bultzagai baten gaineraketa batetik.

2. oharra

Etikotasunaren printzipioaren guztiz aurkakoa zera da: *norbe - raren* zorionaren printzipioa nahimenaren determinazio-oinarri bihurtzea, eta horrek, lehenago erakutsi dudanez, oro har lege gisa balio behar duen determinazio-oinarria maximaren forma lege-emailean ez beste nonbait ezartzen duen guztia hartzen du. Gatazka hori, ordea, ez da logikoa soilik, ezagutzaren printzipio beharrezko bihurtu nahi ziren erregela enpirikoki baldintzatuen arteko gatazka bezala, baizik eta praktikoa da, eta etikotasuna erabat deuseztatuko luke arrazoimenaren ahotsa nahimenarekin duen harremanean hain argia, hain suntsiezina, gizon arruntenarentzat hain ohargarria ez balitz; baina horrela eskolen espekulazio buru-nahasgarrietan soilik manten daiteke, zeinak aski zakarrak diren, zeruko ahots horren aurrean ezentzunarenak egiteko, horrela buruko minik sortzen ez duen teoria bati eusteko.

Zuri bestelakoan maitea zaizun ezagun batek zure aurrean lekukotza faltsu bat emateagatik honela zuritzea uste izango balu: lehenik, haren ikuspegiaren arabera, norberaren zorionaren betebeharrak santuaren aitzakia aurkeztuz, gero horrela lortutako abantaila denak aipatuz, eta izan zuen trebezia goraipatuz inor ez konturatzeko, ezta zu ere, zeinari orain sekretua argitzen dizun, hark hori edonoiz ukatu ahal izateko; eta orduan, ordea, guztiz serioki esango balu, gizonen egiazko betebeharrak aplikatu zuela, orduan zuk aurpegian barre egingo zenioke zuzenean edo nazkaz alderatuko zinateke, nahiz eta norbaitek bere oinarrizko esakunea norberaren abantailaren arabera eratzen badu, ezingo zenukeen neurri horren aurka ezein eragozpenik izan. Edo emazue gizon bat gomendatzen dizutela kontulari gisa, zuen betekizun guztiakitsu-itsuan eskutan utz diezaiokezun gizon gisa, eta emazue zuei konfiantza emateko hura goraipatzen duela gizaki azkar gisa, norberaren abantaila maisuki ezagutzen duena, eta etengabe ekinean dabilena, aukerarik ihesten utzi gabe bere abantaila hori handitzeko, eta azkenik, emazue, norberaren interes gordin horri dion atxikimenduak ardura ez sortzearen, modu finean bizitzen dakielako goraipatzen duela, bere plazera diruaren pilaketan edo aberastasun gehiegizkoan bilatu beharrean, ezagupenen zabalpenean, ongi aukeratatutako laguntza aberasgarrian bilatuz, baita txiroei laguntzean ere; baina gainerakoan bitartekoei erreparatu gabe (zeintzuek balioa edo balio eza helburutik baino ez duten jasotzen), halako moldez non bes-

teen dirua eta jabegoa, inork ohartu gabe eta oztoporik gabe egin dezala uste duen bezain pronto, berea izango balitz bezala hartzen baitu; bada, orduan zuek uste izango zenukete pertsona hori gomen-datzen dizuen hura adarra jotzen ari zaizuela, edo adimena galdu duela. - Etikotasunaren eta norberaren maitasunaren arteko muga hain argiki eta zehazki marraztua dago, non begi arruntenak ere ezin baitio zerbait batari edo besteari egokitzearen artean dagoen aldea ikusteari utzi egin. Ondorengo ohar gutxi hauek itxuraz alferrikakoak izan dai-tezke hain egia nabarmenaren aurrean, baina gutxienez giza arrazoi-men arruntaren judizioari argitasun gehiago emateko balio dute.

Zorionaren printzipioak maximak eman ditzake, baina inoiz ez nahimenaren lege izateko balioko luketenak, ezta *zorion orokorra* objektu bihurtuko bagenu ere. Izan ere, horren ezagutza esperientzia-ren datu soiletan oinarritzen denez, horri buruzko judizio oro bakoi-tzak duen iritziaren menpe dagoenez, gainera oso aldakorra dena, orduan egon daiteke bai erregela *jeneralik*, baina inoiz ez erregela *uni -bertsalik*, hau da, batez bestekoan sarrien direnak bai, baina ez beti eta halabeharrez balio behar dutenak, eta beraz, horren gainean ezin da ezein *lege* praktikorik oinarritu. Horrexegatik, hemen nahieraren objektu batek horren erregelaren oinarrian izan behar duenez, eta beraz, horren aurretik joan behar duenez, orduan hark ezin du gomen-datzen denari baino lotu, eta beraz, esperientziari, eta ezin da horretan baino oinarritu, eta hor judizioen arteko ezberdintasunak amaigabea izan behar du. Printzipio horrek ez dizkie zerizan arrazoidun guztiei erregela praktiko berberak ezartzen, nahiz eta zorionaren izenburu berdinarean barne kokatzen diren. Lege moralak objektiboki beharrez-kotzat pentsatzen da, baina soilik arrazoimena eta nahimena duen edonorentzat balio behar duelako.

Norberaren maitasunaren maximak (zuhurtasunak) *aholkatu* baino ez du egiten; etikotasunaren legeak *agindu* egiten du. Alde han-dia dago, ordea, *aholkatzen* zaigunaren eta *lotzen* gaituenaren artean.

Erraz eta arazorik gabe ulertzen du adimen arruntenak ere zer egin behar den nahieraren autonomiaren printzipioaren arabera; haren heteronomiaren aurreuposizioaren arabera egin behar dena zaila da ulertzen eta munduaren ezagutza eskatzen du; hau da, *betebeharra* berez aurkeztu zaio edonori; baina egiazko abantaila iraunkorra ekar-

tzen duen hori betiere, horrek izate osora hedatu behar badu, iluntasun zeharkaezinak inguratzen du, eta zuhurtasun asko eskatzen du, horretarako prestatutako erregela praktikoa salbuespen abilen bidez era jasangarrian bada ere bizitzaren xedeei egokitzeko. Hala ere, lege etikoak guztiei agintzen die atxikimendua, eta gainera estuena. Haren arabera egin behar dena juzgatzea ezin da hain zaila izan, non adimen arruntenak eta aritugabeenak zuhurtasunik gabe ere ez bailuke jakingo horri aurre egiten.

Etikotasunaren agindu kategorikoa betetzea edonoren esku dago beti; zorionaren arau enpirikoki baldintzatua betetzea inoizka baino ez, eta inolaz ere ezin du edonork lortu, ezta asmo bakarrari begira ere. Horren kausa da lehena egiazkoa eta hutsa izan behar duen maximaren menpe dagoela; azkena, ordea, gainera desiratzen den objektu bat egikaritzeko behar den indar eta gaitasun fisikoaren menpe. Edonor zoriontsu bihurtu beharko lukeen agindua ergela litzateke; izan ere, inori ez zaio agintzen hark bere kabuz ezinbestean nahi duena. Neurriak baino ez zaizkio agindu behar, edo are hobeto, haiek eskura eman, ezin baitu lortu nahi duen guztia. Etikotasuna agintzea, ordea, betebeharraren izenpean, erabat arrazoizkoa da; izan ere, haren araua hasiera batean ez du edonork obeditu nahi, joerekin gatazkan dagoenean, eta lege hori bete ahal izateko neurriei dagokienez, hemen horiek ezin dira irakatsi; izan ere, hark horri dagokionez nahi duena egin baitezake.

Jokoan *galdu* duena *haserre* daiteke bere buruarekin zuhurtasun eza dela eta, baina gogoan badu jokoan *iruzur* egin duela (nahiz eta horrela irabazi izan), orduan bere burua *gaitzetsi* behar du, lege etikoarekin alderatzen duen bezain pronto. Horrek, beraz, norberaren zorionaren printzipioa ez den beste zerbait izan behar du. Izan ere, norberari esan beharrak «*duintasunik ez* dut, nire poltsikoa bete dudan arren» judizioaren beste neurri bat izan behar du norberaren burua txalotu eta zera esatearen aldean: «gizaki zuhurra naiz, nire kutxa abe-rastu dudalako».

Azkenik, gure arrazoimen praktikoaren ideian beste zerbait dago, lege etikoaren zapalketarekin batera datorrena, hots, *zigorga -rritasuna*. Baina zigor baten adigaiarekin, halako gisa, ezin da inolaz ere zorionaren lorpena lotu. Izan ere, zigortzen duenak aldi berean

zigorra xede horretara zuzentzeko asmo ona izan badezake ere, aurretik zigorra zigor gisa bere kabuz legeztatu behar da, hau da, kalte soil gisa, halako moldez non zigortuak, horretan irauten badu eta gogortasun horren atzean ezkutatuta dagoen mesedea ikusteko gai ez bada, aitortu behar baitu zuzenki gertatu zaiola hori eta bere patua bere jokaerari egokitu zaiola erabat. Zigor orotan, halako gisa, lehenik zuzentasuna behar da, eta horrek osatzen du adigai haren mamia. Hari, gainera, ontasuna lotu diezaiokegu, baina zigorra jaso behar duenak izan duen jokaera izan ondoren ezin du kausa txikienik izan hori espero izateko. Beraz, zigorra kalte fisikoa da, gaizki moralarekin *berezko* ondorio gisa lotzen ez bada ere lege-emate etiko baten printzipioekin lotu behar dena ondorio gisa. Krimen oro, egilearen aldean dituen ondorio fisikoak kontuan hartu gabe ere, berez zigorgarria bada ere, hau da, zoriona zapuzten badu (alde zahar bezala), nabarmenki astakeria litzateke esatea krimena zigorra erakartzean datzala, norberaren zoriona apurtu den heinean (zeinak norberaren maitasunaren printzipioaren arabera krimen ororen egiazko adigai izan beharko zukeen). Zigorra era horretara zerbaiti krimen deitzeko oinarria litzateke, eta zuzentasuna, bestalde, zigor oro baztertzeko berezko zigorra ere oztopatzea izango litzateke; izan ere, ekintza ez legoke gaizkirik, zeren horretatik ondorioztatuko liratekeen kalteak, ekintza gaitz deitaziko luketenak, horrela ez bailitzateke gertatuko. Zigor eta sari oro, ordea, goi botere baten eskuetan legokeen makineria gisa ikustea erabat, horrela zerizan arrazoidunak horien azken asmoaren bila (zorionaren bila) ekinarazteko baino balio ez duena, hain nabarmenki da horien nahimenaren askatasun oro ezabatzen duen mekanismoa, ezen ez baita beharrezkoa hemen horretaz gehiago jardutea.

Sotilagoa da, nahiz eta era berean egiazkoa ez izan, sentsu moral berezi bat onartzen dutenen iritzia, arrazoimenaren ordeez lege moral determinatuko lukeen sentsu moral, zeinaren arabera bertutearen kontzientzia, batetik, bitartegabe poza eta plazerarekin lotuko litzatekeen, eta bizioaren kontzientzia, bestetik, arimaren ezinegonarekin eta minarekin, eta horrela dena norberaren zoriona bilatzera murriztuko litzateke. Lehenago esan zena hona berriro ekarri gabe hemen dugun iruzurra azaldu nahi dut. Bizioduna horren gaiztakeriaren kontzientziak eragindako gogamenaren ezinegonaz betea errepre-

sentatzeko, aurretik hura haren izaeraren oinarri bikainenaren arabera moralki ontzat errepresentatu behar da maila batean behintzat, eta era berean betebeharraren arabera ekintzen kontzientziak pozez betetzen duen hura aurretik bertutetsu bezala errepresentatu behar da. Beraz, moraltasunaren eta betebeharraren adigaia poz horri ematen zaion arreta oro baino lehenago dator eta horretatik inolaz ere ezin da eratorri. Beraz, orduan betebeharraren deitzen diogun horren garrantzia, lege moralaren itzala eta horri diogun atxikimenduak pertsonari bere begien aurrean ematen dion balioa aurretik balioetsi behar ditugu poz hura sentitzeko hari egokitzearen kontzientzian eta gaitzespen zakarra sentitzeko gure buruari haren zapalketa egotz diezaiokegunean. Poz hori edo arimaren ezinegon hori ezin da lotespenaren ezagutzaren aurretik sentitu eta hura azken horren oinarri bihurtu. Gutxienez erdizka bada ere gizon zintzoa izan behar da sentsazio haien errepresentazioa behintzat egin ahal izateko. Gainerakoan ez dut ukatzen inolaz ere giza nahimena horren askatasuna dela eta lege moralaren bidez bitartegabe determinatu daitekeela eta era berean ariketa sarriak determinazio-oinarri haren arabera azkenik subjektiboki poz sentimendua sor dezakeela; baina betebeharrari dagokio bestalde sentimendu hori, sentimendu morala deitzea merezi duen bakarra, oinarritzea eta lantzea; baina betebeharraren adigaia ezin da horretatik eratorri, bestela lege baten sentimendua pentsatu beharko genuke halako gisa eta hori sentsazioaren objektu bihurtu, hori arrazoimenaren bidez baino ezin denean pentsatu; eta horrek, kontraesan gordina izango ez balitz, betebeharraren adigai oro ezabatuko luke eta haren ordeztu joera finagoen (inoizka gordinagoekin gatazkan leudekeen) joeren joko mekanikoa ezarriko luke.

Baina orain arrazoimen huts praktikokoaren (nahimenaren autonomia baten gisara) oinarritzko esakune *formal* gorena etikotasunaren orain arteko printzipio *material* ororekin alderatzen badugu, orduan taula batean adieraz ditzakegu beste guztiak, halako gisa, eta horrela beste kasu guztiak agortzen dira formala den bat izan ezik, eta horrela begirada baten bidez erakusten da alferrikakoa dela hemen azaldu dena ez den beste printzipio baten bila ibiltzea. - Nahimenaren determinazio-oinarri denak, beraz, soilki *subjektiboak*, eta beraz, enpirikoak edo *objektiboak* eta arrazoizkoak dira; eta biak *barnekoak* edo *kanpokoak* dira.

Etikotasunaren printzipioaren determinazio-oinarri material praktikoak dira:

Subjektiboak				Objektiboak	
Kanpokoak		barnekoak		barnekoak	kanpokoak
Hezkuntza (Montaigne -ren arabera)	Konstituzioa (Mandeville -ren arabera)	Sentimendu fisikoa (Epikuroren arabera)	Sentimendu moral (Hutcheson- en arabera)	Betegintzarrea (Wolff eta estoikoen arabera)	Jainkoaren nahimena (Crusius eta beste moralista teologikoen arabera)

Ezkerrean dauden guztiak enpirikoak dira eta ez dute balio nabarmenki etikotasunaren printzipio orokor izateko. Baina eskuinekoak arrazoimenean oinarritzen dira (izan ere, betegintzarrea, gauzen *ezaugarri* gisa eta betegintzarre gorena, *substantzia* errepresentatzen duena, hau da, Jainkoa, biak arrazoimen-adigaien bidez baino ezin dira pentsatu). Hala ere, lehen adigaia, hots, *betegintzarrearena*, adiera *teoretikoan* har daiteke, eta orduan gauza bakoitzak bere motan duen osotasuna baino ez du esan nahi (transzendental), edo gauza batena oro har gauza gisa (metafisikoa), eta hori ezinezkoa da hemen. Betegintzarrearen adigaia adiera *praktikoan* gauza batek edozein xedetarako balio izatea edo horretarako gai izatea da. Betegintzarre hori, gizakiaren *ezaugarri* gisa, eta ondorioz, barneko gisa, *talentua* baino ez da, eta hori indartzen duena edo osatzen duena, *trebezia*. Betegintzarre garaiena *substantzian*, hau da, Jainkoan, eta ondorioz kanpokoa, (asmo praktikoan hartuta) zerizan hori xede orotarako gai izatea da oro har. Baina, orduan, guri xedeak aurretik eman behar bazaizkigu, horiekin harremanean betegintzarrearen adigaia (barnekoa gure baitan edo kanpokoa Jainkoarengan) nahimenaren determinazio-oinarri bihurtu ahal izateko, baina xede batek *objektu* gisa nahimena erregela praktiko baten bidez determinatu aurretik joan behar duenez eta halako baten ahalgarritasunaren oinarria jaso behar duenez, eta beraz, nahimenaren *materia*, haren determinazio-oinarri gisa

hartuta, beti enpirikoa denez, eta beraz, zoriontasunaren irakasbidearen printzipio *epikuroarrerako* balio duenez, baina inolaz ere ez ohi- turen irakasbidearen eta betebeharraren arrazoimen-printzipio hutse- rako (talentuak eta horien sustapenak, soilik bizitzaren abantailei mesede egiten diotelako, edo Jainkoaren nahimena, baldin eta harekin adostasuna aurretiko haren ideiaren menpe ez dagoen printzipio prak- tikorik gabe nahimenaren objektu gisa hartzen bada, horietatik espero dugun *zoriona* dela eta bihur daitezke nahimenaren bultzagai), orduan ondorioztatzen da *lehenik*, ezen hemen aurkeztu diren printzipio denak *materialak* direla, eta *bigarrenik*, ezen horiek printzipio mate- rial ahalgarri denak biltzen dituztela, eta hortik azkenik emaitza hau: printzipio materialak gai ez direnez ohituren lege gorena izateko (fro- gatu denez), arrazoimen hutsaren *printzipio praktiko formala* (zeina- ren arabera gure maximak ahalbidetzen duen lege-emate orokor baten formak nahimenaren determinazio-oinarri goren eta bitartegabekoa osatu behar duen) *baino* ezin da izan agindu kategorikoa, hau da, lege praktikoa (ekintzak betebeharrak bihurtzen dituena) eta oro har etikota- sunaren printzipioa, judizioan nahiz giza nahimenean aplikatzean hori determinatzeko.

I. Arrazoimen praktiko hutsaren oinarritzko esakuneen dedukzioaz

Analitika honek erakusten du arrazoimen hutsa praktikoa izan daitekeela, hau da, bere kabuz, enpirikoa den ororekin zer ikusirik izan gabe, nahimena determina dezakeela; eta hori egitate baten bitar- tez, non arrazoimen hutsa gudan egitatean praktiko gisa agertzen den, alegia, etikotasunaren printzipioak duen autonomiaren bitartez; horren bidez arrazoimenak nahimena ekitera determinatzen du. - Aldi berean erakusten du egitate hori nahimenaren askatasunaren kon- tziientziarekin era banaezinean dagoela lotuta, harekin bat dela ere bai; eta horren bidez zerizan arrazoidun baten nahimenak bere zerizan hori sentsuen munduko zati gisa halabeharrez kausalitatearen legeen menpe ezagutzen duen arren beste kausa eraginkorrak bezala, aldi berean eremu praktikoa, hots, berbaitango zerizana den aldetik bere buruaz jabetzen da gauzen ordena adimenduzko bateko izate determi- nagarri gisa, ez bere buruaren begiespen berezi baten arabera, baizik eta haren kausalitatea sentsuen munduan determina dezaketen lege dinamiko jakin batzuen arabera; izan ere, beste leku batean nahikoa

frogatu da askatasunak, egozten zaigunean, gauzen adimenduzko ordena batera eramaten gaituela.

Orain arrazoimen huts espekulatiboaren kritikaren zati analitiko horrekin alderatzen badugu, orduan bien arteko alde bitxia nabarmentzen da. Haren lehen datua ez zuten oinarritzko esakuneek osatzen, baizik eta sentimenezko *begiespen* hutsak (espazioak eta denborak), zeinak apriorizko ezagutza ahalbidetzen zuen eta gainera sentsuen objektuentzat soilik. - Adigai soiletatik begiespenik gabe ezinezkoa zen esakune-oinarri sintetikoak izatea, baizik eta haiek sentimenezkoa den hari lotuta baino ezin dira sortu, eta beraz, esperientzia ahalgarriko objektuei lotuta, zeren adimenaren adigaiak soilik ahalbidetzen baitu, begiespen horrekin lotuta, esperientzia deitzen diogun ezagutza hura. - Esperientziako objektuetatik haratago, beraz, gauzetatik haratago noumeno gisa, arrazoimen espekulatiboari ukatu egiten zaio arrazoi osoz *ezagutzaren* baten emaitza positibo oro. - Baina horrek hainbeste lortzen zuen, ezen noumenoen adigaia, hau da, halakoak pentsatzeko ahalgarritasuna, baita beharrezkotasuna ere, segurtatu egiten baitu, eta adibidez, askatasuna, negatiboki hartuta, onartzea, arrazoimen teoretiko hutsaren oinarritzko esakune eta mugapen haiekin erabat adostuz, eragozpen guztien aurka salbatu baitzuen, hori egitean halako objektuez determinatua eta hedatzailea den ezer ezagutzera eman gabe, hori lortzeko itxaropen oro erabat mozten duen heinean.

Aitzitik, lege moralak, ezein *itxaropenik* ematen ez badu ere, eskura ematen digu sentsuen munduko datuetatik abiatuz eta gure arrazoimenaren erabilera teoretikoaren zabalpen osotik abiatuz argiezina den egitatea, adimenaren mundu hutsaren berri ematen duena, eta gainera hori *positiboki determinatzen* duena, eta guri hartatik zerbait ematen digu ezagutzera, hots, lege bat.

Lege horrek sentsuen munduari *sentimenezko natura* den aldeitik (zerizan arrazoidunei dagokienez) adimenaren mundu baten forma, hau da, *sentimenetik haratagoko natura* baten forma sortu behar dio, baina haren mekanismoa apurtu gabe. Baina natura adiera orokorrean legeen menpe dauden gauzen existentzia da. Zerizan arrazoidunen sentimenezko natura haiek enpirikoki baldintzatuta dauden legeen menpe duten existentzia da, eta beraz, *heteronomia* da arrazoimenarentzat. Zerizan berberaren sentimenetik haratagoko

natura, aitzitik, hark baldintza enpiriko ororen menpe ez dauden, eta beraz, arrazoimen hutsaren *autonomiari* dagozkion legeen arabera duen existentzia da. Eta gauzen izatea ezagutzaren menpe jartzen duten legeak praktikoak direnez, sentimenetik haratagoko natura, guk haren adigai bat izan dezakegun neurrian, *arrazoimen praktiko hutsaren autonomiaren menpe dagoen natura* bat baino ez da. Autonomia horren legea, ordea, lege moralak da; beraz, sentimenetik haratagoko natura baten eta adimenaren mundu huts baten oinarritzko lege dena, zeinaren aurkako irudiak sentsuen munduan existitu beharko lukeen aldi berean haren legeak hautsi gabe, ordea. Hari natura *eredugarri* dei dakiogu (*natura archetypa*), arrazoimenean baino ez baitugu ezagutzen; besteari, ordea, lehenaren ideiaren eragin ahalgarria jasotzen duenez nahimenaren determinazio-oinarri gisa, natura antzeratua (*natura ectypa*). Izan ere, egitatean lege moralak ideiaren arabera natura batean ezartzen gaitu non arrazoimen hutsak, haren pareko ahalmen fisikoa izango balu aldean, ongi gorena sortuko bailuke, eta gure nahimena determinatzen du sentsuen munduari zerizan arrazoi-dunen bilkura baten forma emateko.

Norberari eskainitako arreta arruntenak baieztatzen du ideia hori egiatan gure nahimenaren determinazioen eredu dela zirriborro gisa.

Lekukotza bat emateko asmoa izanik horretarako maxima arrazoimen praktikoak probatzen badu, orduan zerari begiratzen diot beti, ea nolakoa izango litzatekeen hark natur lege orokor gisa balioko balu. Nabarmena da era horretan hark edonor zintzotasunera behartuko lukeela. Izan ere, ezinezkoa zaio natur lege baten beharrezkotasunari baieztapenak frogagarri gisa hartzea eta oso-osorik gezurrezkotzat ematea. Era berean, nire bizitzaren gainean askeki erabakitzeari buruz hartzen dudana maxima berehala determinatzen da, nire buruari galdetzen diodanean ea hark nolakoa izan beharko lukeen natura bat haren lege baten arabera mantentzeko. Nabarmenki inork ezingo luke halako natura batean bere bizitza *nahierara* amaituko; izan ere, halako eraketa ez litzateke ezein natur ordena iraunkor izango, eta berdin gertatzen da gainerako kasu guztietan. Baina natura errealean, esperientziaren objektu denez, nahimen askea ez da bere kabuz adosten euren kabuz lege orokorren arabera natura bat oinarri dezaketen halako maximekin, edo haien arabera antolatuta legokeen natura batekin;

aitzitik, joera pribatuak dira, lege patologikoen (fisikoen) arabera naturaren osotasun bat osatzen dutenak, baina ez gure nahimen soilak lege praktiko hutsen arabera ahalbide lezakeen natura. Hala eta guztiz, lege batez jabetzen gara gure arrazoimenaren bidez, zeinari gure maxima guztiak menpekotzen zaizkion, gure nahimenaren bidez aldi berean natur ordena sortuko balitz bezala. Orduan hori enpirikoki sortzen ez den eta hala ere askatasunaren bidez ahalgarri den, eta beraz, sentimenetik haratagoko natura baten ideia da, zeinari guk errealitate objektiboa ematen diogun, gutxienez harreman praktikoan, zeren gure nahimenaren objektutzat hartzen baitugu, zerizan arrazoidun huts garen aldetik.

Nahimena menpekotzen duen natura baten legeen eta nahimen bati (haren ekintza askeekin duen harremanari dagokionez) *menpeko - tua dagoen* natura baten legeen arteko bereizketak honetan hartzen du oin, ezen hartan objektuek nahimena determinatzen duten errepresentazioen kausak izan behar dutela, baina horretan nahimenak objektuen kausa izan behar duela, halako moldez non haren kausalitateak bere determinazio-oinarria arrazoimen hutsean baino ez baitu, zeina horregatik arrazoimen praktiko huts dei daitekeen.

Bi arazoak, beraz, oso ezberdinak dira: nola ezagut ditzakeen arrazoimen hutsak a priori objektuak eta nola izan daitekeen bitartegabe nahimenaren, hau da, zerizan arrazoidunaren kausalitatearen determinazio-oinarria objektuen errealitateari dagokionez (bere maxima propioen baliotasun orokorren pentsamenduaren bidez soilik, legeak diren aldetik).

Lehenak eskatzen du, arrazoimen espekulatibo hutsaren kritika zati izaki, aurretik argitzea begiespenak nola diren a priori ahalgarri, horiek gabe oro har objekturik ezin baitugu izan, eta beraz, ezein objektu ezin baitugu sintetikoki ezagutu, eta horren irtenbidea honetan datza, hots, haiek orobat sentimenezkoak baino ez direla, eta beraz, ez dutela esperientzia ahalgarriaren irismena gainditzen duen ezein ezagutza espekulatiborik ahalbidetzen, eta beraz, arrazoimen espekulatibo¹² huts haren oinarritzko esakune guztiek ezin dutela esperientzia ahalbidetu baino egin, eskura ditugun objektu batzuen esperientzia edo inoiz osoki eskura izan gabe amaigabea izango ei ditugunen esperientzia.

Bigarrenak, arrazoimen praktikoen kritikaren zati denak, ez du eskatzen argitzeko desiramenaren objektuak nola diren ahalgarri; izan ere, hori arrazoimen espekulatiboaren esku uzten da natur ezagutza teoretikoaren eginkizun gisa; baizik eta besterik gabe eskatzen du argitzeko nola determina dezakeen arrazoimenak nahimenaren maxima, ea determinazio-oinarri gisa errepresentazio enpirikoak izanik gertatzen den edo ea arrazoimen hutsa ere praktikoa izan daitekeen eta enpirikoki ezagutu ezin den natur ordena ahalgarri baten lege izan daitekeen. Halako sentimenetik haratagoko natura baten ahalgarritasunak, zeinaren adigaia aldi berean haren errealtatearen oinarria izan daitekeen gure nahimen askearen bidez, ez du behar apriorizko begiespenik (adimenduzko mundu batena), zeinak kasu horretan, sentimenetik haratagoko gisa, guretzat ezinezkoa izan beharko lukeen. Izan ere, nahi izatearen determinazio-oinarria baino ez da autua haren maximetan, ea hura enpirikoa den edo arrazoimen hutsaren adigai bat (haren legezkotasunarena oro har), eta azken hori nola izan daitekeen. Nahimenaren kausalitatea objektuen errealtaterako nahikoa den edo ez juzgatzea arrazoimenaren printzipio teoretikoen esku geratzen da, nahi izatearen objektuen ahalgarritasunaren azterketa gisa, zeinen begiespenak, beraz, arazo praktikoa haien ezein une osatzen ez duen. Hemen kontua nahimenaren determinazioa eta haren maximaren determinazio-oinarria baino ez da, nahimen aske batenaren gisara, ez arrakasta. Izan ere, nahimena arrazoimen hutsarentzat soilik bada legezkoa, horren *ahalmenarekin* gertatzen dena gertatzen dela ere eraginkortasunari dagokionez, natura ahalgarri baten lege-ematearen maxima horien arabera halakoa benetan hartatik sortu ala ez, kritika ez da inolaz ere arduratzen horretaz, horrek aztertzen baitu ea eta nola izan daitekeen arrazoimen hutsa praktikoa, hau da, ea eta nola determina dezakeen nahimena bitartegabe.

Eginkizun horretan has daiteke gaitzespenik gabe, eta lege praktikoa hutsetatik eta euren errealtatetik abiatu behar du. Begiespenaren ordeaz, baina, haiei adimenduzko munduan duten izatearen adigaia ezartzen die oinarrian, hots, askatasuna. Izan ere, horrek ez du besterik esan nahi, eta lege haiek nahimenaren askatasunari lotuta baino ez dira ahalgarri, baina hura auresuposatuz gero beharrezkoa da, edo, alderantziz, hori da beharrezkoa, lege haiek postulatu praktikoa gisa beharrezkoak direlako. Baina ezin da gehiago argitu lege

moralaren kontzientzia hori, edo, gauza bera dena, askatasunarena, nola izan dezakegun, horren onargarritasuna defendatu baino ezin da egin kritika teoretikoan.

Arrazoimen praktikoaren oinarritzko esakune gorenaren *aur-kezpena* egin dugu, hau da, erakutsi da, lehenik, zer biltzen duen, berez irauten duela erabat a priori eta printzipio enpirikoetatik beregainki, eta ondoren, zertan bereizten den beste oinarritzko esakune praktiko guztietatik. Ezin da itxaron haren *dedukzioan*, hau da, haren baliotasun objektiboaren eta orokorraren legezapenean eta halako apriorizko esakune sintetikoaren ahalgarritasunaren ulermenean adimen teoretiko hutsaren oinarritzko esakuneetan egiten genuen maila berean aurreratu daitekeenik. Izan ere, horiek esperientzia ahalgarriaren objektuei lotzen zitzaizkien, hots, agerpenei, eta froga zitekeen ezen agerpen horiek lege haien arabera kategorien menpe jarritz baino ezin zirela agerpen horiek esperientziako objektu gisa *ezagutu*, eta ondorioz, esperientzia ahalgarri oro lege haiei egokitu behar zaiela. Nik ezin dut, ordea, halako bidea egin lege moralaren dedukzioaren kasuan. Izan ere, ez da arduratzen nonbait eta nolabait arrazoimenari eman ahal zaizkion objektuen izaeraren ezagutzaz, baizik eta objektu horiexen existentziaren oinarri izan daitekeen eta arrazoimenak kausalitate horren beraren bitartez zerizan arrazoidun batean duen ezagutzaz, hau da, arrazoimen hutsa nahimena bitartegabe determinatzen duen ahalmentzat jo daitekeen heinean.

Dena den, giza ulermen oro azkenekotan dago, oinarritzko indar eta ahalmenetara iristen garen bezain pronto; izan ere, horien ahalgarritasuna ezin da ezeren bidez aditu, are gutxiago nahierara asmatu eta onartu. Horregatik, arrazoimenaren erabilera teoretikoan esperientziak baino ez digu legezatzten hura onartzea. Ordezko hori, hots, apriorizko ezagutza-iturrietatik abiatuz dedukzio bat eratu beharrean froga enpirikoak aurkeztea, hemen kendu egin zaigu arrazoimen praktiko hutsari dagokionez. Izan ere, bere errealitatearen frogaren oinarria esperientziatik hartu behar duenak esperientziako printzipioen menpeko izan behar du haren ahalgarritasunaren oinarriei dagokienez, baina ezinezkoa da arrazoimen huts eta hala ere praktikoa horren adigaia dela eta halakotzat hartzea. Lege morala ere, era berean, arrazoimen hutsaren egitate gisa ematen zaigu, zeinaz a priori jabetzen garen eta zeina apodiktikoki ziurra den, esperientzian hari

zaion atxikimendu zehatzaren ezein adibide aurkitu ezin bada ere. Beraz, lege moralaren errealtate objektiboa ezin da frogatu ezein dedukzioen bidez, arrazoimen teoretikoaren, espekulatiboaren edo enpirikoki sustatutakoaren ahalegin guztiekin ere ez, eta beraz, ziurtasun apodiktikoa baztertu nahiko balitz ere, hori ezin da esperientziaren bidez baieztatu eta horrela a posteriori frogatu, eta hala ere berez dirau irmo.

Alferrik bilatzen den printzipio moralaren dedukzio horren ordeztelakorik agertzen da, eta gainera zentzugabekoa, hain zuzen, hark ahalmen aztertezin baten dedukzioaren printzipiotzat balio duela, zeina esperientziak ez duen frogatzen, baina arrazoimen espekulatiboak (haren ideia kosmologikoen artean baldintzatugabe dena haren kausalitatearen arabera aurkitzeko, horrela hark bere burua kontraesan ez dezan) gutxienez ahalgarritzat onartu behar duen, hots, askatasunarena, eta oinarri legeztatzailerik behar ez duen lege moralak horren ahalgarritasuna ez ezik errealtatea ere frogatzen du lege hori eurentzat baliodun gisa ezagutzen duten zerizanetan. Lege moralaren egitatean kausalitate askearen, eta beraz, sentimenetik haratagoko natura baten ahalgarritasunaren lege bat da, sentsuen munduko gertaeren lege metafisikoa sentimenezko naturaren kausalitatearen lege bat zen bezala, eta hark determinatzen du filosofia espekulatiboak determinatugabe utzi behar zuena, hots, azken horretan negatiboa baino ez zen adigaia zuen kausalitate batentzako legea, eta beraz, horri lehenik eta behin errealtate objektiboa ematen dio.

Lege moralaren sinesgarritasun mota hori erabat asebetegarria da apriorizko legeztapen ororen ordeztel, hura bera askatasunaren dedukzioaren printzipio gisa aurkezten baita arrazoimen hutsaren kausalitate gisa, zeren arrazoimen teoretikoa gutxienez askatasun baten ahalgarritasuna *onartzera* behartuta baitzegoen haren premia baten osaketarako. Izan ere, lege moralak bere errealtatea arrazoimen espekulatiboaren kritikarentzat ere honela frogatzen du askiro, ezen soilik negatiboki pentsatzen den kausalitateari (zeinaren ahalgarritasuna hari ulertezin zitzaion eta hala ere onartzera behartuta zegoen) determinazio positiboa ematen diola, hots, nahimena bitartegabe (haren maximen legezko forma orokorraren baldintza baten bitartez) determinatzen duen arrazoimen baten adigaia, eta horrela gai da haren ideiekin espekulatiboki jokatu nahi zuenean beti zorabiatzen zen arra-

zoimenari lehenengoz errealitate objektiboa emateko, errealitate praktikoa baino ez bada ere, eta haren erabilera *transzendentea immanente* bihurtzen du (esperientziaren eremuan ideien bidez ekiten duten kausak izatea).

Sentsuen munduko zerizanen kausalitatearen determinazioak horiek halakoak diren aldetik ezingo luke inoiz baldintzatugabea izan, eta hala ere baldintzen ilara ororentzat halabeharrez baldintzatugabea den zerbait dago, eta beraz, baita bere burua osorik bere kabuz determinatzen duen kausalitatea ere. Horregatik, askatasunaren ideia berezkotasun absolutuaren ahalmen gisa ez zen premia bat, baizik eta *haren ahalgarritasunari dagokionez* arrazoimen espekulatibo hutsaren oinarritzko esakune analitiko bat. Baina erabat ezinezkoa denez hari dagokion adibide bat ematea esperientziaren batean, zeren gauzen kausen artean agerpen gisa erabat baldintzatugabea litzatekeen kausalitatearen ezein determinazio topa ezin baitaiteke, orduan askeki ekiten duen kausa baten *pentsamendua* soilik *defenda* dezakegu, guk hori sentsuen munduko zerizan bati aplikatzen diogunean bestalde noumenotzat hartzen den neurrian, azalduz ez dela kontraesankorra haren ekintza guztiak fisikoki baldintzatutzat jotzea, agerpenak diren heinean, eta aldi berean haren kausalitatea fisikoki baldintzatugabetzat jotzea, zerizan ekilea adimen-zerizan bat den heinean, eta horrela askatasunaren adigaia arrazoimenaren printzipio erregulatzailer bihurtzea, zeinaren bitartez nik, noski, ez dudan ezagutzen halako kausalitatea egozten zaion objektua zer den, baina oztupo bi ezabatzen ditut: batetik, munduko gertaeran argiketan, eta beraz, zerizan arrazoidunen ekintzetan ere bai, natur beharrezkotasunaren mekanismoari zilegiztatzten diot baldintzatua denetik baldintzara amaigaberaino itzultzea; eta, bestetik, horrentzat hutsik geratzen den lekua irekita gordetzen diot arrazoimen espekulatiboari, hots, adimenduzkoa denaren maila, baldintzatugabea dena hor ezartzeko. Nik, ordea, ezin nituen *pentsamendu* horiek *egikaritu*, hau da, ezin nituen bihurtu horrela ekiten duen zerizan baten *ezagutzan*, ezta haren ahalgarritasunaren arabera ere. Leku huts hori orain arrazoimen praktikoko hutsak betetzen du kausalitatearen lege determinatu baten bidez adimenduzko mundu batean (askatasunaren bidez), hots, lege moralaren bidez. Horrela, arrazoimen espekulatiboak ez du ezer lortzen bere ulermenari dagokionez, baina bai, noski, askatasunaren adigai problematikoaren *segurtapena* -

ri dagokionez, zeinari horrela *errealitate objektiboa* ematen zaion, praktikoa baino ez bada ere zalantzaezina den errealitatea. Horrek ez du hedatzen kausalitatearen adigaia, zeinaren aplikazioa, eta beraz, esanahia benetan agerpenei lotuta baino ez den gertatzen, horiek esperientzian elkarlotzeko (arrazoimen hutsaren kritikak frogatzen due-
nez), eta beraz, ez du haren erabilera aipatutako mugez haraindi heda-
tzen. Izan ere, egiten saiatuko balitz, orduan azaldu nahi izan beharko
luke nola erabil daitekeen oinarriaren eta ondorioaren erlazio logikoa
sentimenezkoa ez den beste begiespen mota batean, hau da, nola diren
ahalgari *causa noumenonak*; inolaz ere lortu ezin duena, baina
horrek arrazoimen praktiko den aldetik ez dio ezertxo ere arduratzen,
gizakiaren kausalitatearen *determinazio-oinarria* sentsuzko zerizana
den aldetik (jada hor duguna) ezartzen baitu soilik *arrazoimen hutse -*
an (horregatik deitzen dena praktikoa), eta beraz, ez du behar kausa-
ren adigaia objektuak ezagutzeko, hemen hori ezagutza teoretikoaren
mesedetan objektuei aplikatzea erabat bazter dezake (zeren adigai
hori beti adimenean baitago a priori, begiespen orotatik beregainki),
baizik eta kausalitatea haiei dagokienez determinatzeko oro har, eta
beraz, asmo praktikorako baino ez du behar adigai hura, eta horrega-
tik nahimenaren determinazio-oinarria gauzen adimenduzko ordenan
ezar dezake, aldi berean gustura aitortzen duen heinean ez duela ino-
laz ere ulertzen zein determinazio izan dezakeen kausaren adigaiak
gauza horien ezagutzarako. Nahimenak sentsuen munduan egiten
dituen ekintzei dagokien kausalitatea, hala ere, modu determinatu
baten ezagutu behar du, bestela arrazoimen praktikoak ezingo bailuke
benetan ezein ekimen sortu. Baina noumeno gisa duen kausalitate
propioaz sortzen duen adigaia ez du zertan teoretikoki determinatu
behar bere sentimenetik haratagoko existentziaren ezagutzaren mese-
detan, eta beraz, ez du behar hari horrenbestez esanahirik ematea. Izan
ere, esanahia bestela ere lortzen du, nahiz eta erabilera praktikorako
soilik izan, hots, lege moralaren bitartez. Teoretikoki hartuta ere adi-
menaren adigai hutsa izaten irauten du, a priori sortutakoa, objektuei
aplikatu ahal zaiena, horiek sentimenaren bidez jaso ala ez jaso arren;
nahiz eta azken kasu horretan ez izan esanahi eta aplikazio determi-
naturik, baizik eta formala baino ez dena, adimenak oro harrezko
objektu batez duen funtsezko pentsamendua den arren. Arrazoimenak
lege moralaren bitartez ematen dion esanahia praktikoa baino ez da,
hain zuzen kausalitate baten (nahimenaren kausalitatearen) legearen

ideiak berak kausalitatea baitu, edo haren determinazio-oinarri baita.

II. Arrazoimen hutsak erabilera praktikoa hedatzeko duen eskumenaz, erabilera espekulatiboan ezinezkoa zaiona

Printzipio moralaren bidez kausalitatearen lege bat aurkeztu dugu, azken horren determinazio-oinarria sentsuen munduaren baldintza oroz gain ezartzen duena, eta nahimena, adimenduzko mundu bati egokituz determina daitekeen moduan, eta beraz, nahimen horren subjektua (gizakia) ez da *pentsatzen* adimenaren mundu huts bati dagokiola, nahiz eta harreman horretan guretzat ezezaguna izan (arrazoimen espekulatibo hutsaren kritikaren arabera gerta zitekeen moduan), baizik eta hura haren kausalitateari dagokionez ere *determinatzen* du, sentsuen munduko ezein natur legetzat hartu ezin den lege baten bitartez, eta beraz, gure ezagutza *zabaltzen* du azken horren mugez haraindi, asmo hori arrazoimen hutsaren kritikak ezinezkotzat adierazi zuen arren espekulazio orotan. Nola batera daiteke hemen arrazoimen hutsaren erabilera praktikoa haren erabilera teorikoarekin, haren ahalmenaren mugak ezartzeari dagokionez?

Esan daiteke *David Humek* abiarazi zituela benetan arrazoimen huts baten eskubideen aurkako eragozpenak, haren azterketa oso bat eskatzen zutenak, eta hark honela arrazoitu zuen. *Kausaren* adigaia ezberdina denaren (eta gainera ezberdin den heinean) existentziaren elkarloturaren *beharrezkotasuna* jasotzen duen adigaia da, halako moldez non A ezartzen bada, nik ezagutzen baitut gainera horretatik erabat ezberdina den B-k ere halabeharrez existitu behar duela. Baina elkarlotura bati a priori ezagutzen bada baino ezin zaio egotzi beharrezkotasuna; izan ere, esperientziak lotura batez ezagutarazten du badela, baina ez halabeharrez dela. Baina ezinezkoa da, esaten du Humek, gauza baten eta *beste* gauza baten (edo determinazio baten eta erabat ezberdina den beste batenaren) arteko lotura, hautemapenean ematen ez badira, a priori eta beharrezko gisa ezagutzea. Beraz, kausa baten adigaia gezurrezkoa eta iruzurtia da, eta oso leunki hitz eginez barka daitekeen lilura bezala hartzen da gauza jakin batzuk, edo euren determinazioak, sarri bata bestearen aldean edo ondoren hautemateko *ohitura* (beharrezkotasun *subjektiboa*), haien existentziaren arabera elkartu diren moduan, halako elkarlotura ohartugabe objektuetan beraietan ezartzea beharrezkotasun *objektibotzat* hartzen delako, eta

horrela kausaren adigaia atzeko atetik sartzen da eta ez da lortzen legezko eran, eta gainera inoiz ezin da horrela lortu edo baietsi, zeren bere baitan ezezkoa, kimerikoa, ezein arrazoimenek sustatu ezin duen elkarlotura eskatzen duelako, zeinari inoiz ezingo zaion ezein objektu egokitu. - Horrela, lehenengoz gauzen existentziari dagokion (matematika salbuespen gisa geratu zen) ezagutza ororen kasuan *empiris-moa* ezarri zen printzipioen iturri bakar gisa, eta horrekin batera aldi berean *eszeptizismo* gogorrena natur zientzia osoari dagokionez (filosofia gisa). Izan ere, inoiz ezin dugu halako oinarritzko esakuneen arabera gauzen determinazio jakinetatik abiatuta euren existentziaren arabera ondorio bat *arrazoitu* (izan ere, horretarako kausa baten adigaia beharko litzateke, halako elkarlotura baten beharrezkotasuna biltzen duen adigaia), baizik eta irudimenaren erregelaren arabera aurrekoen antzeko kasuak itxaron besterik ez, itxaropen hori inoiz segurua izan gabe, hainbat aldiz egikaritu bada ere. Gainera, ezein gertaeraren aurrean ezingo litzateke esan aurretik zerbaitek *izan behar* zuela, zeinari *halabeharrez* jarraitzen zaion, hau da, *kausa* bat izan behar zuela, eta beraz, hori gertatzen den hainbat kasu ezagutu arren, non horietatik erregela da erator baitaiteke, hala ere, ezingo litzateke onartu horregatik era horretara beti eta halabeharrez gertatzen dela, eta horrela ausa itsuari, non arrazoimenaren erabilera oro geratzen den, bere eskubidea onartu behar zaio, eta horrek orduan eraginetatik kausetara gora egiten duten arrazoiketei dagokien eszeptizismoa irmoki oinarritu eta errefusaezin bihurtzen du.

Matematika ordura arte salbatu zen horretatik, Humek uste baitzuen haren esakune guztiak analitikoak direla, hau da, determinazio batetik bestera identitatearen eskutik, eta beraz, kontraesanaren esakunearen arabera aurrera egiten dutela (hori, ordea, faltsua da, haiek guztiak sintetikoak baitira, eta, adibidez, geometriak ez gauzen existentziarekin baizik eta haiek begiespen ahalgarri batean duten apriorizko determinazioekin soilik izan arren zer ikusia, hala ere kausak adigaian bidez bezain ongi igarotzen dira A determinazio batetik guztiz ezberdina den B batera, harekin halabeharrez elkarlotuta egon arren). Baina, azkenik, duen ziurtasun apodiktikoagatik hain goraipatua den zientzia hark ere enpirismoari men egin behar dio oinarritzko esakuneetan, Humek kausaren adigaian beharrezkotasun objektiboaren ordeztura ezartzeko izan zuen arrazoi berberagatik, eta onartu

behar du harrotasun guztia alde batera utziz haren uzi ausartak, a priori onespena eskatzen dutenak, gutxitzea eta bere esakuneen baliotasun orokorraren onarpena behatzaileen mesede gisa itxarotea, zeintzuek lekuko gisa ez lioketen uko egingo aitortzeari ezen, horiek geometriariak oinarritzko esakune gisa aurkezten duena beti horrela hauteman zutela eta ondorioz ontzat emango luketela, nahiz eta beharrezkoa ez izan aurrerantzean ere horrela gertatzea itxaron beharra. Horrela, Humek *oinarritzko esakuneetan duen enpirismoak* ezinbestean eszeptizismora bidaltzen gaitu, baita matematikari dagokionez ere, eta ondorioz, arrazoimenaren erabilera teoretiko *zientifiko* orotan (izan ere, erabilera hori filosofiari edo matematikari dagokio). Eta bakoitzak juzga dezala ea arrazoimenaren erabilera arruntak (ezagutzaren ardatzei gertatzen zaien halako hondamendi izugarri batean) emaitza hobeagoak izango dituen, edo ea ez den nahastuko era berreskuraez-nagoan jakintza ororen deuseztapen horretan, eta beraz, ea oinarritzko esakune horietatik ez ote den eszeptizismo *orokor* bat ondorioztatzen (zeinak, ordea, jende ikasia soilik ukituko duen).

Bada, nik arrazoimen hutsaren kritikan jorratutako lanean, hots, Humeren irakaspen zalantzarri hark suspertu zuen baina askoz ere urrunago iritsi zenean eta arrazoimen teoretiko hutsak erabilera sintetikotan duen eremu osoa jasotzen zuenean, eta beraz, oro har metafisika deitzen denean ere bai, honela jokatu nuen kausalitatearen adigaia ukitzen duen filosofo eskoziarraren zalantzari dagokionez. Humek oso zuzenki jokutzen zuen kausaren adigaia iruzurtitzat eta lilura faltsutzat jotzen zuenean, hark (ia edonon gertatzen den moduan) esperientziaren objektuak *berbaitango gauzatzat* hartzen zituen; izan ere, berbaitango gauzei eta horien determinazioei halakoak diren aldetik dagokienez ezin da ikusi A ezarri delako B ere halabeharrez ezarri behar denik, eta beraz, hark ezin zuen inolaz ere berbaitango gauzez halako apriorizko ezagutzarik onartu. Adigai haren jatorri enpirikoa are gutxiago onar zezakeen gizon zorrotz hark, zeren horrek zuzen-zuzenean kontraesaten baitu elkarloturaren beharrezkotasuna, kausalitatearen adigaiaren funtsa osatzen duena; eta beraz, adigaia baztertu zen eta horren ordeztasunaren ibileraren behaketan sortzen den ohitura jarri zen.

Baina nire azterketek ondorioztatu zuten esperientzian jorratzen ditugun objektuak ez direla inolaz ere berbaitango gauzak, baizik

eta agerpenak besterik ez, eta beraz, berbaitango gauzetan ikusi ezin den arren, ezinezkoa baita, A ezartzen denean nola izan behar duen *kontraesankorra* A-tik guztiz ezberdina den B ez ezartzea (A kausa gisaren eta B eragin gisaren arteko elkarloturaren beharrezkotasuna), hala ere oso ongi pentsa daiteke agerpen gisa *esperientzia* batean era jakin batean (adibidez, denborazko erlazioei dagokienez) halabeharrez lotuta egon daitezkeela eta ezin direla bereizi lotura hori *kontra-esan* gabe, zeinak esperientzia hori ahalbidetzen duen, horretan soilik izaki ezagugarriak objektuak eta gu geu. Eta, horrela, aurkitu zen ezen, egitatean nik kausaren adigaia bere errealitate objektiboaren arabera esperientziako objektuei dagokienez frogatu ez ezik, gainera, apriorizko adigai gisa bere baitan daraman elkarloturaren beharrezkotasunagatik *erator* nezakeela, hau da, haren ahalgarritasuna azal nezakeela adimen hutsetik abiatuta, iturri enpirikorik erabili gabe, eta horrela, haren jatorriaren enpirismoa baztertu ondoren, horren ezinbesteko ondorioa, hots, eszeptizismoa ezaba nezakeen, lehenik natur zientziari dagokionez eta ondoren, erabat oinarri berberetik ondorioztatzen denez, matematikari dagokionez ere bai, hots, esperientzia ahalgarriaren objektuei lotzen zaizkien bi zientziei dagokienez, eta horrela arrazoimen teoretikoak ulertzen duela dioen orori buruzko zalantza osoa ezaba nezakeen.

Baina zer gertatzen da kausalitatearen kategoria hori (eta berdin gainerakoekin; izan ere, horiek gabe ezin da osatu existitzen denaren ezein ezagutzarik) ez esperientzia ahalgarriaren objektuetan baizik eta horren mugetatik haratago datzaten gauzetan aplikatzerakoan? Izan ere, adigai horien errealitate objektiboa *esperientzia ahalgarriaren objektuei* dagokienez soilik eratorri ahal izan dut. Baina horixe da, kasu horretan soilik salbatu izana, a priori determinatu ezin badira ere horrela objektuak *pentsa* daitezkeela erakutsi izana, haiei adimen hutsean lekua ematen diena, zeinaren bidez haiek oro harrezko objektuei (sentimenezkoei, edo sentimenezkoak ez direnei) lotzen zaizkien. Zerbait falta bada, hori kategoria horien eta, hain zuzen, kausalitatearenaren objektuekiko aplikazioaren baldintza da, hots, begiespena, zeinak falta denean ezinezkoa bihurtzen duen haren aplikazioa objektuen *ezagutza teoretikoaren* mesedetan, noumeno gisa, eta norbait hori egitera ausartzen bada (arrazoimen hutsaren kritikan gertatu zen moduan) erabat eragozten zaio; bestalde, adigaiaren errealitate objek-

tiboak irauten du eta hori noumenoez ere erabil daiteke, baina adigai hori teoretikoki gutxienean ere ezin du determinatu eta horren bidez ezin du ezagutzarik sortu. Izan ere, honela frogatu zen adigai horrek objektu bati dagokionez ere ezinezkoa den ezer ez duela barnebiltzen: adimen hutsean duen egoitza sentsuen objektuen aplikazio orotan segurtatua zegoen, eta berehala ondoren berbaitango gauzei lotuta (esperientziako objektuak izan ezin direnak) ezein determinazio sortzeko gai ez izan arren *objektu determinatu baten* errepresentaziorako ezagutza teoretiko baten alde, hala ere beste zerbaiten mesederako (agian erabilera praktikorako) determinazio bat izateko gai izan daiteke horren aplikaziorako, eta hori ezinezkoa litzateke Humeren arabera kausalitatearen adigai horrek edonon pentsatzea ezinezkoa egiten duen zerbait barnebilduko balu.

Eta orain aipatutako objektua noumenoei aplikatu ahal izateko baldintza aurkitzeko, atzera begiratu besterik ez dugu egin behar ikus- teko *zergatik ez gauden pozik horiek esperientziako objektuetan apli- katzearekin*, baizik eta hura gainera gustura berbaitango gauzetan ere erabili nahiko genukeen. Izan ere, hor azkar erakusten da hori beha- rrezko bihurtzen diguna ez dela asmo teoretikoa, baizik eta praktikoa. Espekulaziorako ez guke ezein egiazko erabaki egingo, hori egitea lortuko bagenu ere, naturaren ezagupenean eta oro har eman dakizki- gun objektuei dagokienez, baizik eta egitekotan sentimenak baldin- tzatzen duenetik (hor geratzea eta kausen katea zehazki zeharkatzea guretzat nahiko lana izaki) sentimenetik haratago doan urrats luzea egingo guke, oinarriez dugun ezagutza osatzeko eta mugatzeko, baina beti muga haien eta guk ezagutzen dugunaren artean leize amai- gabe bat bete gabe geratuko litzateke, horrela oinarritzko jakin-nahi bati baino galdetzeko joera alferrari erantzunez.

Baina *adimenak* objektuekin (ezagutza teoretikoan) duen erla- zioaz gain desiramenarekin ere badu beste bat, eta horrek horregatik nahimen izena du, eta nahimen hutsa, adimen hutsa (kasu horietan arrazoimen izena duena) lege baten errepresentazio soilaren bidez praktikoa den heinean. Nahimen huts baten errealitate objektiboa, edo, gauza bera dena, arrazoimen praktiko hutsarena, lege moralean dugu a priori hain zuzen egitate baten bidez; izan ere, horrela dei dakioke printzipio enpirikoetan oinarritzen ez bada ere ezinbestekoa den nahimenaren determinazio bati. Baina kausalitatearen adigaia

dagoeneko jasota dago nahimen baten adigaian, eta beraz, nahimen huts baten adigaian askatasunez jokatzeko duen kausalitatearen adigaia, hau da, natur legeen bidez determinagarria ez dena eta, ondorioz, ezein begiespen enpiriko izateko gai ez dena, haren errealitatearen froga gisa, baina hala ere apriorizko lege praktikoko hutsean bere errealitate objektiboa bermatzen duena erabat, ez (erraz ulertzen denez) arrazoimenaren erabilera teoretikoaren mesedetan, baizik eta soilik praktikokoaren mesedetan. Baina nahimen askea duen zerizan baten adigaia *causa noumenon* baten adigaia da, eta adigai horrek bere burua ez kontraesatea dagoeneko segurtatua dugu kausaren adigaia osorik adimen hutsetik sortu delako, eta aldi berean haren errealitate objektiboa ere dedukzioaren bidez segurtatua dugu oro harrezko objektuei dagokionez, eta horrela jatorriz sentimenezko baldintza guztietatik beregain, eta berez, fenomenoetara mugatuta egon gabe (horren erabilera teoretiko zehatz bat egin nahi ez bada behintzat) gauzetan aplikatu daiteke adimen-zerizan huts gisa. Baina aplikazio horri ezein begiespen, beti sentimenezkoa baino izan ez daitekeena, eskaini ezin zaionez, orduan *causa noumenon* arrazoimenaren erabilera teoretikoari dagokionez adigai ahalgarria, pentsagarria da, baina hala ere hutsala. Baina horren bidez nik ez dut eskatzen zerizan bat, horrek *nahimen huts* bat duen *heinean*, *teoretikoki ezagutzea*; nahikoa zait halako gisa izendatzea, eta beraz, kausalitatearen adigaia askatasunarekin lotzea (eta horretatik bereiztezina den lege moraletik haien determinazio-oinarri gisa); eta badaukat eskumen hori, kausaren adigaiaren jatorria hutsa delako eta ez enpirikoa, haren errealitatea determinatzen duen lege moralarekin harremana duen haren erabilera, hau da, erabilera praktikoa soilik egiteko eskubidea dudala uste dudanean.

Humerekin batera kausalitatearen adigaiari errealitate objektiboa kendu banio erabilera teoretikoan, berbaitango gauzei dagokionez (sentimenetik haratagoa denari dagokionez) ez ezik gainera sentsuen objektuei dagokionez, orduan adigai horrek esanahi oro galdu izango luke eta teoretikoki ezinezkoa den adigai gisa erabat erabilteaz adierazi beharko litzateke; eta, ezertaz ezein erabilera egin ezin denez, *teoretikoki ezer ez* den adigai baten erabilera praktikoa erabat zentzugabea litzateke. Baina kausalitate enpirikoki baldintzatugabe baten adigaia teoretikoki hutsala izan daiteke (horri dagokion begiespenik

gabe), baina betiere ahalgarri da eta objektu determinatugabe bati lotzen zaio, baina horren ordeztu lege moralean esanahia ematen bazaio, hau da, harreman praktikoa, orduan nik ez dut begiespenik hari errealitate teoretiko objektiboa determinatzeko, baina hala ere aplikazio erreala du, intentzioetan edo maximetan *in concreto* aurkeztu daitekeena, hau da, azal daitekeen errealitate praktikoa du; eta hori, beraz, haren legeztatpenerako nahikoa da noumenoei dagokienez.

Baina sentimenetik haratagoko eremuan adimenaren adigai huts baten behin onartutako errealitate objektibo horrek gainerako kategoriei, nahimen hutsaren determinazio-oinarriarekin (lege moralarekin) *beharrezko* loturan dauden heinean, errealitate objektiboa ematen die, praktikoki aplikatu daitekeena baino ez bada ere, eta bestalde objektu horien ezagutza teoretikoan, horien izaeraren ulermen gisa arrazoimen hutsaren bidez, ez du inolako eraginik hura hedatzeko. Jarraian ere aurkituko dugun bezala, haiek beti zerizanean baino ez dute harremana *adimenduak* diren aldetik, eta horietan *arrazoimenaren eta nahimenaren* arteko erlazioan, eta beraz, *praktikoa denaren* baino ez dute harremana eta horretaz gain ez dute haien ezein ezagutza izateko asmorik; baina haiekin loturan aipa daitezkeen beste ezaugarriak, errepresentazio mota teoretikoari dagozkion sentimenetik haratagoko halako gauzei dagozkienak, hala ere ezin dira guztiak jakintza gisa hartu, baizik eta haiek onartzeko eta aurresuposatze eskubide gisa (asmo praktikoa halabeharrezkoa dena) besterik ez, baita analogia baten arabera, hau da, sentimenezkoa denari dagokionez praktikoki erabiltzen dugun arrazoimen-erlazio hutsaren arabera sentimenez haratagoko zerizanak onartzen direnean ere (Jainkoa, esaterako), eta horrela arrazoimen teoretiko hutsari ez zaio bultzada txikiarik ematen sentimenetik haratago denari aplikatzearen bidez, asmo praktikoarekin soilik bada ere, horrela muga guztiak gaindituz berobero jartzeko.

BIGARREN ATALA

Arrazoimen praktiko hutsaren objektu baten adig aiaz

Arrazoimen praktikoaren adigaiatz ulertzen dut objektu baten errepresentazioa askatasunaren eragin ahalgarri batena den aldetik. Ezagutza praktikoaren objektu bat izateak, halako gisa, esan nahi du nahimenak hura edo haren aurkakoa erreal bihurtuko lukeenarekin harremana duela, eta zerbait arrazoimen praktiko hutsaren objektu ote den edo ez den juzgatzeko ekintza hura *nahi izateko* ahalgarritasunaren eta ezintasunaren arteko bereizkuntza da, zeinaren bidez, horretarako ahalmena izango bagenu (hori esperientziak esan behar-ko du), objektu jakin bat erreal bihurtuko litzatekeen. Objektua gure desiramenaren determinazio-oinarri gisa onartzen bada, orduan gure indarren erabilera askeak dakarren haren *ahalgarritasun fisikoak* judizio honen aurretik joan behar du, ea arrazoimen praktikoaren objektua den ala ez den. Aitzitik, apriorizko legea ekintzaren determinazio-oinarri gisa har badaiteke, eta beraz, hori arrazoimen praktiko hutsak determinatuko balu bezala, orduan zerbait arrazoimen praktiko hutsaren objektua den ala ez den juzgatzea gure ahalmen fisikoarekin egiten den alderaketatik guztiz beregaina da, eta auzia hau besterik ez da, hots, objektu baten existentziari dagokion ekintza bat nahi ote dezakegun, hori gure esku balego, eta beraz, *ahalgarri-tasun moralak* ekintzaren aurretik joan behar duen; izan ere, hor ez da objektua haren determinazio-oinarria, baizik eta nahimenaren legea.

Arrazoimen praktiko huts baten objektu bakarrak, beraz, *ongia* eta *gaizkia* dira. Izan ere, lehenaren bidez desiramenaren beharrezko objektu bat ulertzen da, bigarrenaren bidez gaitzesmenarena, biak baina arrazoimenaren printzipio baten arabera.

Ongiaren adigaia ez bada eratortzen aurretik doan lege praktiko batetik, baizik eta horren oinarri izan behar badu, orduan atsegina agintzen duen gauza baten adigaia baino ezin du izan, eta horrela subjektuaren kausalitatea, hau da, desiramena determinatzen du hura sortzeko. Baina ezinezkoa denez a priori jakitea zein errepresentaziok daraman *atsegina* aldean eta zeinek daraman *desatsegina*, orduan esperientziaren ardura bakarra da erabakitzea zer den bitartegabe ona eta zer gaitza. Esperientzia hori subjektuaren ezaugarri batekin harremanean baino ezin da egin, hain zuzen, atseginaren eta desatseginaren *sentimenduekin*, barneko sentsuari dagokion harmen gisa, eta horrela bitartegabe ona denaren adigaia *plazeraren* sentsazioa bitartegabe lotua duen horri doakio, eta orobat gaitza denaren adigaia bitartegabe *mina* sortzen duenari lotzen zaio. Baina hizkuntzaren erabileraren aurka doanez, *gustagarria ongitik*, *gustagaitza dena gaitzetik* bereizteko, eta eskatzen duenez ongia eta gaitza beti arrazoimenaren bidez, eta beraz, orokorki bana daitezkeen adigaien bidez juzgatu behar direla eta ez subjektu bana-koetara eta haien harmenera mugatzen den sentsazio soilaren bidez, eta hala ere berez ezin denez a priori ezein objekturen errepresentazioarekin atsegin edo desatsegin bat bitartegabe lotu, orduan juzgaketak praktikoen oinarrian atseginaren sentimendua ezartzera behartuta zegoela uste zuen filosofoak *on* deituko lioke gustagarri denaren *bitartekoari*, eta *gaitz* gustagaiztasunaren eta minaren kausa denari; izan ere, bitartekoen eta xedeen arteko erlazioaren juzgaketak arrazoimenari dagokio. Baina, nahiz eta arrazoimena baino ez den gai bitartekoaren eta asmoen arteko elkarlotura ulertzeko (halako moldez non nahimena ere xedeen ahalmenaren bidez defini baitzitekeen, horiek beti desiramenaren determinazio-oinarriak diren heinean printzipioen arabera), maxima praktikoei, ongiaren aurreko adigaitik soilik bitarteko gisa ondorioztatzen direnek, ez lukete inoiz barnebilduko nahimenaren objektu gisa berez ona den ezer, baizik eta betiere *zerbaitetarako* ona dena: ongia beti baliagarria izango litzateke, eta nahimenetik at geratzen da betiere, sentsazio-

an, zertarako balio duen. Baldin eta hori, sentsazio gustagarri gisa, ongiaren adigaitik ezberdindu beharko balitzateke, orduan inon ez legoke bitartegabe ona litzatekeenik, baizik eta ongia betiere beste zer baitetarako bitartekoetan bilatu beharko litzateke, hots, gustagarritasun batean.

Eskoletako formula zaharra dugu hau: *nihil appetimus, nisi sub ratione boni; nihil aversamus, nisi sub ratione mali*¹³; eta hori sarri zuzenki erabiltzen da, baina askotan filosofiaren kalterako ere bai, zeren *boni* eta *mali* adierazpenek zentzu-bikoiztasun bat barnebiltzen baitute, zeinaren erruduna hizkuntzaren mugatasuna den, horren arabera haiek zentzu bikoitza izan baitezakete eta, horregatik, horrek lege praktikoak ezinbestean bihurtu egiten ditu, eta filosofia, ongi konturatzen dena haien erabileran adigaiaren ezberdintasunez hitz bakarra izanda ere, baina horrentzat ezein adierazpen berezi aurkitzeko gai ez dena, bereizkuntza sotilak egitera behartzen du, ondoren horien gain bateratasunik lortu ezin dela, bereizketa hori ezein adierazpen egokiren bidez bitartegabe izendatu ezin den heinean¹⁴.

Hizkuntza alemanak zorionez ezberdintasun hori ikusarazten duten adierazpenak ditu. Latindarrek hitz bakarrarekin *bonum* deitzen dutenarentzat bi adigai oso ezberdin ditu eta, era berean, bi adierazpen oso ezberdin. *Bonumentzat ongia* eta *ongizatea*, *malumentzat gaitza* eta *ondoeza* (edo mina), halako moldez non oso juzgaketa ezberdinak egiten baitira, ekintza batean horren ongia eta gaitza, edo gure *ongi-zatea* eta *ondoeza* (mina) aintzat hartzen ditugunean. Hortik ondorioztatzen da aurreko esakune psikologikoa oraindik oso badaezpada-koa dela, horrela itzultzen denean: ez dugu ezer desiratzen gure *ongi-zaterako* edo *minerako* ez bada; aitzitik, honela adierazten bada zalan-tzarik gabe ziurra eta aldi berean erabat argi adierazten da: guk ez dugu ezer nahi, arrazoimenari jarraiki ontzat edo gaiztzat hartzen ez badugu.

Ongizateak edo *ondoezak* beti adierazten du gure *gustagarritasun* edo *gustagaietasunaren*, plazer eta minaren egoerarekin harreman bat, eta, horrela objektu bat desiratzen edo gaitzesten badugu, hori gertatzen da hori eragiten duen sentimenari eta atseginaren eta desatseginaren sentimenduari lotzen zaion heinean. *Ongia* edo *gaitzak*, ordea, beti adierazten du *nahimenarekin* harremana, hori *arrazoime* -

naren lege baten bidez determinatzen den heinean, zerbait norberaren objektu bihurtzeko; nahimena inoiz ez da bitartegabe objektuaren bidez eta horren errepresentazioaren bidez determinatzen, baizik eta bere ekintzaren (zeinaren bidez objektu bat erreal bihurtuko den) jokatzeko kausa arrazoimenaren erregela bat bihurtzeko ahalmena da. Ongia eta gaitza, beraz, benetan ekintzei lotzen zaizkie, ez pertsonaren sentsazio-egoerari, eta zerbait erabat on edo gaitz balitz, edo hala-kotzat hartuko balitz, orduan ekintza mota, nahimenaren maxima eta, beraz, ekiten duen pertsona bera dei zitekeen horrela, gizaki on edo gaizto gisa, ez gauza bat, ordea.

Hezueriak sortutako min handiengan honela oihu egiten duen estoikoari barre egin nahiko litzaioke: «Mina, tortura nazakezu, baina inoiz ez dut aitortuko gaitza (*kakow, malum*) zarenik!». Baina arrazoi izango luke. Ondoeza zen, hori sentitzen zuen, eta hori adierazten zuten haren oihuek; baina horren bidez gaitz bat zuela, hori onartzeko ez zuen bat ere arrazoirik; izan ere, minak ez du pertsonaren balioa ezertan ere gutxitzen, baizik eta haren egoeraren balioa besterik ez. Gezur bakar batek, hartaz jabetuko balitz, haren adorea apurtu beharko luke; baina mina norbera suspertzeko abagunea baino ez zen, ohar-tzean hura ezein ekintza ez-zuzenengatik ez duela erakarri eta horren bidez zigorra ez duela merezi.

On deitu beharko genukeenak edozein gizaki arrazoidunen judizioan desiramenaren objektua izan behar du, eta gaitza edozeinen begien aurrean gaitzespenaren objektua da; eta beraz, juzgaketan hori egiteko sentsuez gain arrazoimena ere behar da. Horrela gertatzen da egiazkotasunarekin, gezurrari aurkakotuz, eta zuzentasunarekin, bortxakeriari aurkakotuz, eta abar. Baina zerbaiti ondoez dei dakiogu, edonork aldi berean on gisa adierazi behar badu ere, dela bitarteko baten bidez dela bitartegabe. Operazio kirurgikoa eskatzen duenak zalantzarik gabe hori ondoez bezala sentitzen du; baina arrazoimenaren bidez adierazten du, eta hark bezala edonork, beretzat ona dela. Norbaitek, ordea, bakean bizi den jendea aspertu eta aztoratzen badu, eta, azkenik, jendea nazkatzen bada eta kolpe sorta ederra ematen bazaio, hori ondoeza izango da, baina guztiek onesten dute eta bere baitan ontzat hartzen dute, hortik beste ondoriorik sortzen ez bada ere; eta kolpeak jaso dituenak berak bere arrazoimenean berrezagutu behar du zuzenki gertatu zaiola hori, zeren

arrazoimenak ezinbestean erakusten dion ongi sentitzearen eta ongi jokatzearen arteko proportzioa hemen zehazki aplikatzen dela ikusten baitu.

Asko dago gure ongizatearen eta ondoezaren menpe arrazoimen praktikoaren juzgaketetan, eta, gure izaerari dagokionez sentimenezko zerizan garen aldetik, *dena* dago gure *zorionaren* menpe, hori gure arrazoimenak lehentasunez eskatzen duenez ez bada juzgatzeko behin-behineko sentsazioaren arabera, baizik eta ausazkotasun horrek gure existentzia osoan eta horren bidez dugun askitasunean duen eraginaren arabera; baina *dena* ez dago horren menpe *oro har*. Gizakia premiak dituen zerizana da, sentsuen munduan kokatzen den heinean eta haren arrazoimenak agindu ukaezina daukan heinean, hots, sentimenaren aldetik horren interesaz arduratzea eta maxima praktikoak sortzea bizitza honetako zoriona eta, ahal bada, beste bizitzako zoriona lortzeko. Baina ez da hain aberea, ezen arrazoimenak berez esaten duen guztiaren aurrean axolagabe izan baitaiteke eta hori sentsuen zerizan gisa dituen premiak asetzeko tresna gisa erabiltzen baitu. Izan ere, balioan ez du aberetasunetik ezertxo ere goratzen arrazoimena izateak, gero hori abereek senaren bidez egiten dutena egiteko erabiltzen badu; hori naturak erabiliko lukeen modua baino ez litzateke izango gizakiak abereei esleitu zaien xede berbererako hornitzeko, gizakiari xede garaiago bat esleitu gabe. Eta beraz, noski, bere baitan topatzen duen natur eraketa horrez gain arrazoimena behar da bere ongizatea eta ondoeza beti kontuan hartzeko, eta gainera helburu garaiago baterako ditu, hots, bere baitan ona edo gaitza dena, arrazoimen hutsak, sentimenaz ezer interesatzen ez denak, soilik juzga dezakeena, hausnarketa gai gisa hartu ez ezik gainera juzgaketa hori beste hartatik erabat bereiztea eta hori haren baldintza goren bihurtzea.

Bere baitan ona eta gaitza den horren juzgaketan, ongizatea edo ondoezari dagokionaren aldean, honako puntuak dira erabakigarri. Edo arrazoimenaren printzipio bat dagoeneko bere baitan pentsatzen da nahimenaren determinazio-oinarri gisa, desirameneren objektu ahalgarriak kontuan hartu gabe (beraz, maximaren legezko formaren arabera besterik ez), eta horrela printzipio hura apriorizko lege praktikoa da, eta arrazoimen hutsa berez praktikoa dela onartzen da; legeak horrela *bitartegabe* determinatzen du nahi-

mena, horri dagokion ekintza *bere baitan ona* da, nahimena asmo orotarako ona da *erabat*, bere maxima beti lege horren arabera bada, eta *ona den guztiaren baldintza gorena* da; edo desiramenaren determinazio-oinarri bat nahimenaren maximaren aurretik doa, zeinak atseginaren eta desatseginaren objektu bat auresuposatzen duen, eta beraz, *atsegin* edo *min* egiten duen zerbait, eta arrazoimenaren maximak, haiek sustatzeko, horiek eragozteko, ekintzak determinatzen ditu gure joerarentzat on diren gisara, eta beraz, bitarteko baten bidez (beste xede urrun bati begira, haren bitarteko gisa) on diren gisara, eta maximek ezin dute horrela inoiz lege izena izan, baina bai arau arrazoizko, praktiko. Xedea bera, bilatzen dugun plazera, azken kasuan ez da *ongia*, baizik eta *ongizatea*, ez da arrazoimenaren adigaia, baizik eta sentsazioaren objektu baten adigai enpirikoa; baina horretarako erabiltzen den bitartekoa, hau da, ekintza (horretarako arrazoizko hausnarketa behar delako) hala ere ona deitzen da, baina ez oro har, baizik eta gure sentimenari lotuta soilik, haren atseginaren eta desatseginaren sentimendua dela eta; nahimena, ordea, bere maxima horrela afektatua duena, ez da nahimen hutsa, arrazoimen hutsa berez praktiko bihurtzen duena soilik bilatzen duena.

Hauxe da leku egokia arrazoimen praktikoaren kritika batean metodoaren paradoxa argitzeko, hots, *ongiaren eta gaizkiaren adi-gaiak ezin direla lege moralaren aurretik determinatu (hura itxuraz oinarrian ezarri beharko bailitzateke), baizik eta soilik haren ondoren (hemen gertatu denez) eta haren bitartez*. Izan ere, jakingo ez bagenu etikotasunaren printzipioa legea a priori determinatzen duen lege hutsa dela, hala ere oinarritzko esakuneak alferrik (doan) ez onartzekotan, hasiera batean gutxienez *erabaki gabe* utzi beharko genuke ea nahimenak enpirikoak baino ez diren edo hutsak diren determinazio-oinarriak ote dituen a priori; izan ere, prozedura filosofikoaren oinarritzko erregela guztien aurka doa erabaki behar den hori aurretik erabakitzat hartzea. Emango bagenu ongiaren adigaitik abiatu nahiko genukeela hortik nahimenaren legeak eratortzeko, orduan objektu baten (ona den aldetik) adigai horrek aldi berean hori eskainiko luke nahimenaren determinazio-oinarri bakar gisa. Baina adigai horrek apriorizko ezein lege praktiko ez zuenez bere eredu gisa, orduan ongiaren edo gaitzaren frogaharria ezin da

objektuaren eta atseginaren edo desatseginaren gure sentimenduen arteko adostasuna ez den beste ezertan ezarri, eta arrazoimenaren erabilera hau besterik ez litzateke izango, hots, alde atsegin edo desatsegin hori determinatzea nire izatearen sentsazio guztiekin lotura osoan, alde haren objektua lortzeko bitartekoa determinatzea. Hala ere, atseginaren sentimenduaren arabera dena esperientziak soilik erabakitzen duenez, baina lege praktikoak esan denaren arabera horren gainean oinarritu behar duenez baldintza gisa, orduan apriorizko lege praktikoen ahalgarritasuna ia baztertzen da, zeren lehen beharrezko zela uste baitzen nahimenarentzat objektu bat aurkitzea, horren adigaiak ongi batena den aldetik nahimenaren determinazio orokor baina enpirikoa osatzearen. Baina beharrezkoa zen aurretik aztertzea ea ez dagoen nahimenaren apriorizko determinazio-oinarria (zeina ez litzatekeen inon aurkituko, ez bada lege praktiko huts batean, eta gainera horrek maximei legezko forma soila egozten dien heinean objektu bat kontuan hartu gabe). Hala ere, ordurako ongiaren eta gaitzaren adigaien arabera objektu bat lege praktiko ororen oinarrian zetzanez, baina hura aurretiko legerik gabe adigai enpirikoen arabera baino pentsatu ezin zenez, orduan lege praktiko hutsa pentsatu besterik ez egiteko ahalgarritasuna ere aurretik hartu zen; azken hori aurretik analitikoki aztertu izan balitz, aitzitik, aurkituko litzateke ezen ez duela ongiaren adigaiak objektu gisa lege morala determinatzen eta ahalbidetzen, baizik eta alderantziz lege morala dela lehenik eta behin ongiaren adigai determinatzen eta ahalbidetzen duena, horrek izen hori oro har merezi duen heinean.

Ohar hori, azterketa moral gorenaren metodoa baino ukitzen ez duena, garrantzi handikoa da. Arnas batean argitzen du filosofoek printzipio moral gorenari dagokionez dituzten nahasketa guztien oinarria. Izan ere, nahimenaren objektu bat bilatzen zuten, hori lege baten materia eta oinarri bihurtzeko (zeinak ez zuen bitartegabe izan behar nahimenaren determinazio-oinarri, baizik eta atseginaren edo desatseginaren sentimendura eramandako objektuaren bitartez), aurretik lege bat bilatu behar izango luketenean, nahimena a priori eta bitartegabe determinatzen duena eta soilik ondoren horren arabera objektua. Baina atseginaren objektu hori, ongiaren adigai gorenaren eman behar zuen hori, zorionean, betegintzarrean, sentimendu¹⁵

morealean, edo Jainkoaren nahimenean ezarri nahiko balitz, orduan haren oinarritzko esakunea betiere heteronomia bat izango litzateke, ezinbestean baldintza enpirikoekin topatuko lirateke lege morealean, zeren haiek haren objektua, nahimenaren bitartegabeko determinazio-oinarri gisa, on edo gaitz dei zezaketelako soilik, hark betiere enpirikoa den sentimenduarekin duen bitartegabeko jokaeraren arabera. Lege formal bat baino ezin da izan a priori arrazoimen praktikoaren determinazio-oinarri, hau da, arrazoimenari bere lege-emate orokorraren forma baino ezartzen ez dion legea maximen baldintza goren gisa. Antzinakoek errakuntza hori honela erakusten zuten nabarmenki, hots, euren azterketa morala orobat *ongi gorenaren* adigaiaren determinazioan jartzen zutela, zeina ondoren nahimenaren determinazio-oinarri bihurtzea pentsatzen zuten lege morealean; baina objektu hori askoz beranduago aurkeztu ahal zaio bere formaren arabera a priori determinatu den nahimenari, lege morala lehenik berez baietsi eta nahimenaren determinazio-oinarri bitartegabeko gisa legeztatu denean; horretaz arduratuko gara arrazoimen praktikoko hutsaren dialektikan. Ongi gorenaren auzia baztertu eta itxuraz bigarren maila batean utzi duten modernoek lehenagoko akats hori (beste hainbat gauza bezala) hitz determinatugabeen atzean ezkutatzen dute, baina aldi berean euren sistemetan akats hori ageri da, hark arrazoimen praktikoko heteronomia salatzen baitu edonon, eta hortik inoiz ezin da sortu a priori orokorki agintzen duen lege moralik.

Ongiaren eta gaizkiaren adigaiek, nahimenaren apriorizko determinazioaren ondorio gisa, printzipio praktikoko huts bat, eta horrenbestez, arrazoimen hutsaren kausalitate bat auresuposatu behar dutenez, orduan jatorriz ez zaizkie lotzen objektuei (adibidez kontzientzia batean dauden begiespen jakinen anizkunkiaren batasun sintetikoaren determinazio gisa), adimenaren adigai hutsak bezala, edo teoretikoki erabiltzen den arrazoimenaren kategoriak bezala, baizik eta haiek aurretik ditugula auresuposatzen dute; aitzitik, kategoria bakar baten motak dira, hots, kausalitatearenak, haien determinazio-oinarria haien legearen arrazoimen-errepresentazioan datzan heinean, askatasunaren lege gisa arrazoimenak bere buruari ematen dion eta horrela a priori bere burua praktikoko gisa erakusten duen legea. Hala ere, ekintzak *alde batetik* ez naturaren legearen bai-

zik eta askatasunaren lege den lege baten menpe daudenez, hau da, zerizan adimenduen jokaerari dagokienez, baina *bestetik* sentsuen munduko gertaera gisa agerpenen artean kokatzen direnez, orduan arrazoimen praktikoko baten determinazioa azken horiekin harremanean soilik gerta daiteke, eta ondorioz, adimenaren kategorien arabera bai, baina ez horien erabilera teoretikoa egiteko asmoz, (sentimenezko) *begiespenaren* aniztasuna apriorizko kontzientzia baten menpe ezartzeko, baizik eta *desiren* aniztasuna lege moralean agintzen duen arrazoimen praktikoko baten edo nahimen huts baten kontzientziaren batasunari menpekozteko.

Askatasunaren kategoriek, horrela deitu nahi baititugu naturaren kategoria deitzen genituen adigai teoretikoen aldean, lehenetsun nabarmen hau dute azken horien aldean, hots, horiek adigai orokorren bidez guretzat ahalgarri den begiespen orotarako objektuak determinatugabe izendatzen dituzten pentsamenduaren forma baino ez direla, eta askatasunaren kategoriek, aitzitik, *nahiera aske* baten determinazioa bilatzen dutela (zeinari osoki dagokion ezein begiespenik ezin zaion eman, baina oinarrian apriorizko lege praktikoko hutsa duen, gure ezagumenaren erabilera teoretikoaren ezein adigaitan gertatzen ez dena), eta adigai-osagai praktikoko diren aldetik euren oinarria ez dute begiespenaren forman (espazioan eta denboran), arrazoimenean ez datzanean, beste nonbaitetik, hots, sentimenetik hartu behar dutenean, baizik eta haren *nahimen hutsaren forman*, eta beraz, pentsamenean bertan jadanik hor dagoen aldetik; eta horren bitartez gertatzen da ezen, arrazoimen praktikoko hutsaren arau guztietan kontua *nahimenaren determinazioa* denez, ez haren *asmoaren aplikazioaren* natur baldintzak (ahalmen praktikokoarenak), apriorizko adigai praktikokoak askatasunaren printzipio gorenarekin harremanean berehala ezagupen bihurtzen direla eta ez dutela zertan begiespenen zain geratu behar esanahia lortzeko, eta zehazki arrazoi bitxi honegatik, hots, lotzen zaizkion horren (nahimenaren jaidura) errealtatea sortu egiten dutela, inolaz ere ez dena adigai teoretikoen kontua. Baina ohartu behar da kategoria horiek arrazoimen praktikokoaren ardura direla soilik, eta horrela, euren ordenan moralki oraindik determinatugabea eta sentsuek baldintzatua denetik sentsuen arabera baldintzatugabea izanik soilik lege moralaren bidez determinatua denera igarotzen dira.

Askatasunaren kategorien taula
Ongiaren eta gaizkiaren adigaiak da gokienez

<p style="text-align: center;">1. Kantitatearenak</p> <p style="text-align: center;">Subjektiboki, maximen arabera (Norbanakoaren nahimen-irritziak)</p> <p style="text-align: center;">Objektiboki, printzipioen arabera (Arauek)</p> <p style="text-align: center;">A priori objektiboak nahiz subjektiboak diren askatasunaren printzipioak (Legeak)</p>	
<p style="text-align: center;">2. Nolakotasunarenak</p> <p style="text-align: center;">Jokatzearen erregela praktikoak <i>(praeceptivae)</i></p> <p style="text-align: center;">Ez-jokatzearen erregela praktikoak <i>(prohibitivae)</i></p> <p style="text-align: center;">Salbuestearen erregela praktikoak <i>(exceptivae)</i></p>	<p style="text-align: center;">3. Erlazioarenak</p> <p style="text-align: center;">Nortasunarekin</p> <p style="text-align: center;">Pertsonaren egoerarekin</p> <p style="text-align: center;">Pertsonen elkarrekin dutena</p> <p style="text-align: center;">bestearen egoerarekin</p>
<p style="text-align: center;">4. Modalitatearenak</p> <p style="text-align: center;">Zilegi dena eta zilegi ez dena</p> <p style="text-align: center;">Betebeharra eta betebeharraren aurkakoa</p> <p style="text-align: center;">Betebehar osatua eta ez-osoa</p>	

Berehala oihartzun dugu taula horretan askatasuna, kausalitate era den aldetik, baina determinazio-oinarri enpirikoen menpe ez dagoena, hark ahalbidetzen dituen ekintzen arabera aztertzen dela, sentzuen munduko agerpen gisa, haren natur ahalgarritasunaren kategoriei lotzen zaion kategoria bakoitza hain orokorki hartuz, non onar baitaiteke kausalitate haren determinazio-oinarria sentzuen mundutik

at dagoela askatasunean zerizan adimendun baten ezaugarri gisa, harik eta modalitatearen kategoriek oro har printzipio praktikoetatik etikotasunaren printzipioetara doan igarobidea dakarten arte, *problematikoki* baino ez bada ere; horiek ondoren aurkeztu ahal izango dira lehenengoz *dogmatikoki* lege moralaren bidez.

Ez dut besterik gaineratzen taula hori azaltzeko, zeren berez aski ulergarria baita. Jakintza orori zaio oso onuragarria printzipioen arabera egindako halako sailkaketa, oinarritzotasunagatik eta ulerritasunagatik. Beraz, badakigu, adibidez, taula horretatik abiatuz eta lehen zenbakitik, hausnarketa praktikoa nondik abiatu behar dugun: edonork bere joeretan oinarritzen dituen maximetatik, zerizan arrazoidunen genero batentzat balio duten arauetatik, zerizan horiek joera jakin batzuetan bat egiten duten heinean, eta azkenik, joerak alde batera utzita denontzat balio duen legetik, eta abar. Era horretara egitasmo osoa ikuskatzen da, emaitza guztiak emango dituen, are filosofia praktikoa erantzun beharreko arazo denak eta, aldi berean, jarraitu beharreko ordena emango duen egitasmoa.

Juzgamen praktikoa hutsaren tipikaz

Ongiaren eta gaizkiaren adigaiek, hasteko, nahimenari objektu bat determinatzen diote. Haiek, orde, arrazoimenaren erregela praktikoa baten menpe daude, arrazoimen hutsa baldin bada nahimena a priori determinatzen duena bere objektuaren arabera. Ea gure sentimenean ahalgarri zaigun ekintza erregelaren menpe dagoen ala ez, horretarako juzgamen praktikoa behar da, horren arabera erregelaren orokorki (*in abstracto*) esan dena ekintza bati *in concreto* aplikatzeko. Baina arrazoimen hutsaren erregela *praktiko* bat, *lehenik*, objektu baten existentziari dagokionez, eta *bigarrenik*, arrazoimen hutsaren *erregela praktiko* gisa, berekin beharrezkotasuna dakarrenez ekintzaren izateari dagokionez, eta beraz, lege praktikoa denez eta ez noski natur legea determinazio-oinarri enpirikoen bidez, baizik eta askatasunaren legea denez, zeinaren arabera horrek nahimena enpirikoa den orotatik beregainki determinagarri izan beharko lukeen; baina ekintza ahalgarrien kasu denek enpirikoak baino ezin dute izan, hau da, esperientziari eta naturari dagozkie, eta beraz, itxuraz zentzugabea da sentsuen munduan kasu bat topatu nahi izatea non, hori natur legearen menpe dagoen heinean soilik, askatasunaren legea beregain aplikatzea baimentzen baita, non

aplika baitaiteke etikoki ona denaren sentimenetik haratagoko ideia, hor *in concreto* aurkeztu behar dena. Beraz, arrazoimen praktiko hutsaren juzgamena arrazoimen teoretiko hutsaren arazo berberen menpe dago, baina azken horrek, hala ere, arazoa gainditzeko bitarteko bat zuen eskura, hots, erabilera teoretikoari dagokionez begiespenak behar ziren horien gain adimenaren adigai hutsak aplikatu ahal izateko, eta halako begiespenak (sentsuen objektuenak soilik izan arren) a priori sor daitezke, eta beraz, apriorizko adimenaren adigai hutsen arabera (*eske - ma gisa*) horietan dugun aniztasunaren elkarloturari dagokionez. Aitzitik, etikoki ona dena sentimenetik haratagokoa da objektuaren arabera, eta horrentzat ezin da dagokion ezein sentimenezko begiespen aurkitu, eta arrazoimen praktiko hutsaren legeen menpeko juzgamena, beraz, arazo berezien menpe dago itxuraz: askatasunaren legea ekintzetan aplikatu behar dela sentsuen munduan gertatzen diren eta, beraz, naturan kokatzen diren gertaerak diren aldetik.

Baina hemen juzgamen praktiko hutsak berriro ikuspegi ona lortzen du. Sentsuen munduan ahalgarri zaidan ekintza bat *lege praktiko huts* bati menperatzeak ez du zer ikusirik *ekintzaren* ahalgarritasunarekin sentsuen munduko gertaera den aldetik; izan ere, hori arrazoimenaren erabilera teoretikoak kausalitatearen legearen arabera egiten duen juzgaketari dagokio, adimenaren adigai huts dena, eta arrazoimenak horren *eskema* dauka sentimenezko begiespenean. Kausalitate fisikoa, edo hura gertarazten duen baldintza, natur adigaiei artean kokatzen da, eta horien eskemak irudimen transzendentalak zirriborratzen ditu. Hemen, ordea, kontua ez da legeen araberrako kasu baten eskema, baizik eta legearen beraren eskema (hitz hori hemen egokia bada), zeren *nahimenaren determinazioak* (ez ekintzak bere arrakastarekin harremanean) legearen bidez soilik lotzen baitu kausalitatearen legea, beste determinazio-oinarririk gabe, guztiz bestelako baldintzekin, horrelakoa izanik naturaren elkarlotura osatzen dutenak.

Natur legeari, sentimenezko begiespenaren objektuak halako gisa menperatzen zaizkion lege den aldetik, eskema bat dagokio, hau da, irudimenaren prozedura orokor bat (sentsuei a priori aurkeztea legeak determinatzen duen adimenaren adigai hutsa). Baina askatasunaren legeari (inolaz ere sentsuen arabera baldintzatua ez den kausalitate gisa), eta beraz, baldintzatugabeki ona denaren adigaiari ezin zaio oinarrian ezein begiespenik ezarri, eta beraz, ezta ezein eskemarik ere hura

in concreto aplikatzeko. Ondorioz, ohituren legeak ez du hura naturako objektuetan aplikatzea bitartekotzen duen ezagumenik, adimena salbu (ez irudimena), zeinak arrazoimenaren ideia bati ez dion oinarrian sentimenaren *eskema* ezartzen juzgamenerako lege gisa, baizik eta lege bat, baina halako legea non sentsuen objektuetan *in concreto* aurkez baitaiteke, eta beraz, natur legea baita, baina soilik bere formaren arabera, eta horri ondorioz ohituren legearen tipoa dei dakiogu.

Arrazoimen praktiko hutsaren legeen menpeko juzgamenaren erregela honako hau da: galde iezaiozu zeure buruari ea egiteko asmo duzun ekintza, baldin eta horrek zu ere zati zaituen naturaren lege baten arabera gertatu beharko balu, zuk hura zure nahimenaren bidez ahalgarritzat joko zenukeen. Egitatean *edonork* juzgatzen ditu ekintzak erregela horren arabera, etikoki onak edo gaitzak izanda ere. Honela esaten da: norbaitek bere abantailaren alde ari dela uste duenean bere buruari baimenduko balio iruzurtzea, edo eskubidea duela usteko balu bizitza mozteko, horretaz erabat aspertzen den bezain pronto, edo besteen premia erabateko axolagabetasunez begiratuko balu, eta zu gauzen halako ordenaren zati izango bazina, zu hor zure nahimenaren adostasunez izango al zinateke? Baina edonork daki ezen, isilpean iruzurra baimentzen badu, guztiek ez dutela horregatik gauza berbera egingo, edo, oharkabea maitagarri ez bada, guztiak ez direla berehala bere aurka izango; beraz, bere ekintzen maxima natur lege orokor batekin alderatzea ez da izango bere nahimenaren determinazio-oinarria. Baina azken hori bada lehenaren juzgaketaren *tipoa* printzipio etikoen arabera. Ekintzaren maxima honela eratua ez bada, ezen oro har natur lege baten forman proba duela, orduan etikoki ezinezkoa da. Horrela juzgatzen du adimen arruntak ere; izan ere, natur legea bere judizio arruntenen oinarrian datza, baita esperientziako judizioen oinarrian ere. Eskura du beti, beraz, baina kausalitate askea juzgatu behar den kasuetan, *natur lege* hura *askatasunaren lege* baten tipo bihurtzen du, zeren zerbait eskura ez badu esperientziaren kasuan adibide gisa erabili ahal izateko, ezingo bailioke arrazoimen praktiko huts baten legeari erabilera eman aplikazioan.

Zilegi da, gainera, *sentsuen munduko natura adimenduzko natura* baten *tipo* gisa erabiltzea, horri begiespenak eta horren menpe dagoena egotzen ez diodan bitartean, baizik eta soilik horri oro harrezko *legezkotasunaren forma* (horren adigaia arrazoimenaren era-

bilera arruntenean sortzen da, baina ezin da ezagutu a priori arrazoimenaren erabilera praktikoko hutsaren asmorako determinatua ez bada) lotzen diodan bitartean. Izan ere, legeak lege diren aldetik beti berberak dira euren determinazio-oinarriak edonondik lortu arren.

Bestalde, adimenduzko den guztitik askatasunak (lege moralaren bidez) baino ez duenez errealitatea, eta horrek gainera hartatik bereiztezina den auresuposizioa den heinean soilik, eta horretaz gain arrazoimenak lege haren gidari jarraiki aurkeztu nahiko lizkigukeen beste objektu adimenduzko guztiek guretzat ezein errealitatek ez dutenez, lege horren beraren mesedetan eta arrazoimen praktikoko hutsaren erabileraren mesedetan ez bada, eta horrek natura juzgamenaren tipo gisa erabiltzeko baimena eta beharra duenez, orduan ohar honek honetarako balio du, ezen adigaiei eurei ez egozteko adigaiei tipikari baino ez dagokiona. Horrek, beraz, juzgamenaren tipika den aldetik, arrazoimen praktikokoaren *empirismotik* gordetzen gaitu, zeinak ongiaren eta gaitzaren adigai praktikokoak esperientziako emaitzetan baino ez dituen ezartzen (zoriona esaten zaion horretan), nahiz eta horiek eta norberaren maitasunaren bidez determinatutako nahimenaren ondorio baliagarri amaigabeak, horrek bere burua aldi berean natur lege orokor bihurtuko balu, oso tipo egokiak liratekeen etikoki ona denarentzat, horrekin berdintzen ez bada ere. *Tipika* berberak arrazoimen praktikokoaren *mistizismotik* ere gordetzen du, zeinak *sin-bolo* izateko balio duena *eskema* bihurtzen duen, hau da, adigai moralen aplikazioaren oinarrian begiespen erreal baina sentimenezkoak ez direnak ezartzen dituen (Jainkoaren erresuma ikusezina), eta horrela muga orotatik haratagoko eremura doa. Juzgamenaren *arrazionalismoa* baino ez da egokia adigai moralen erabilerako, sentimenezko naturatik arrazoimen hutsak berez pentsa dezakeena baino gehiago hartzen ez duena, hau da, legezkotasuna, eta sentimenetik haratagoko denean ez du ezer sartzen ekintzen bidez sentsuen munduan oro harrezko natur lege baten erregela formalaren arabera benetan aurkez daitekeena baino. Beraz, arrazoimen praktikokoaren enpirismotik gordetzea askoz ere garrantzitsuagoa eta aholkagarriagoa da, zeren *mistizismoa* lege moralaren araztasunarekin eta bikaintasunarekin batera baitaiteke eta, gainera, ez delako berezkoa eta pentsaera arruntari egokia norberaren irudimena sentimenetik haratagoko begiespenetara zabaltzea, eta beraz, alde horretatik arriskua ere ez da hain orokorra;

aitzitik, enpirismoak jaiduraren etikotasuna (hor baitatza eta ez soilik ekintzetan gizatasunak haren bidez lor dezakeen eta lortu behar duen balio gorena) errotik usteltzen duenez eta betebeharra egotzi beharrean erabat bestelakoa dena egozten dionez, hots, interes enpiriko bat, horrekin joerek oro har ezkutuan harremanak dituztela, eta gainera horregatik printzipio praktiko goren baten duintasunera igoko balira, gizatasuna behehituko luketen joera ororekin (berdin dio zein motatakoak), eta hala ere horiek guztien sentierarentzat hain aproposak direnez, horregatik hori inoiz gizaki askoren egoera iraunkorra osatu ezin duen gogo-berotasun oro baino arriskutsuagoa da.

HIRUGARREN ATALA

Arrazoimen praktiko hutsaren b ultzagaiez

Ekintzen balio etiko osoaren funtsezko kontua *lege moralak nahimena bitartegabe determinatzean* datza. Nahimenaren determinazioa lege moralaren arabera gertatzen bada, baina sentimenduren baten bitartez, den modukoa dela ere, auresuposatu egin behar dena hura nahimenaren determinazio-oinarri nahikoa izateko, hau da, ez bada *legearen bidez* gertatzen, orduan ekintzak *legezkotasuna* barnebiltzen du, bai, baina ez *moraltasuna*. *Bultzagai (elater animi*¹⁶) gisa ulertzen bada arrazoimena bere izaeraren bidez halabeharrez lege objektiboaren araberakoa ez den zerizan baten nahimenaren determinazio-oinarria, orduan hortik ondorioztatzen da lehenik ezen, ezin zaiola ezein bultzagairik egotzi jainkotiar nahimenari, baina giza nahimenaren (eta sortua izan den zerizan arrazoidun edonoren) bultzagaia inoiz ezin dela izan lege moralak ez den beste ezer, eta beraz, determinazio-oinarri objektiboak beti eta aldi berean ekintzaren subjektiboki askigarria den determinazio-oinarria baino ezin du izan, horrek legearen *hitzak* bete baino egin behar ez badu, haren *espiritua* jaso gabe¹⁷.

Lege moralaren mesedetan, beraz, eta horri nahimenaren gain eragina ematearren, ez denez lege moralaren bultzagaia bazterraraziko ligukeen beste bultzagairik bilatu behar, horrek mamirik gabeko zurikeria baino ez bailuke sortuko, eta gainera, *arriskutsua* denez lege moralaren *aldean* beste bultzagaiek (abantailarenak bezala) batera

eragin dezaten onartzea, orduan ezin da arretaz determinatu baino egin zein erataraz bihurtzen den lege moralak bultzagai, eta zer gertatzen zaion giza desiramenari determinazio-oinarri hark horren gainean duen eragina den aldetik. Izan ere, lege bat bere kabuz eta bitartegabe nola izan daitekeen nahimenaren determinazio-oinarri, hori giza arrazoimenak konpondu ezin duen arazoa da, eta beste honen berbera, hots, nola den ahalgarri nahimen aske bat. Beraz, ez dugu a priori erakutsi beharko lege moralak bere baitan bultzagai bat sortzearen arrazoa, baizik eta halakoa den aldetik zer eragiten duen (hobe esanda, eragin behar duen) gogameneari.

Nahimenaren lege etikoaren bidezko determinazio ororen kontu funtsezkoena da nahimen aske gisa soilik legearen bidez determinatzen dela, eta beraz, ez soilik sentimenezko bultzatzaileen eragirik gabe, baizik eta horietako guztiak baztertuz eta joera guztiak bertan behera utziz, horiek lege haren aurka joan daitezkeen heinean. Honaino, lege moralaren eragina bultzagai gisa negatiboa baino ez da, eta bere horretan bultzagai hori a priori ezagut daiteke. Izan ere, joera oro eta sentimenezko bultzatzaile oro sentimenduan oinarritzen da, eta sentimenduan duen eragin negatiboa bera (joerei gertatzen zaien bertan behera etortzea) sentimendua da. Ondorioz, a priori uler dezakegu lege moralak nahimenaren determinazio-oinarri gisa gure joera guztiak oztopatuz sentimendu bat eragin behar duela, mina dei dakiokeena, eta hor lehen kasua dugu, agian bakarra ere bai, non guk apriorizko adigaietatik abiatuta ezagupen batek (hemen arrazoimen praktikoko hutsarena) atseginaren edo desatseginaren sentimenduarekin duen erlazioa determinatu dezakegun. Joera guztiek elkarrekin batera *bere-koikeria* (sistema onargarri batera eramanez daitezkeenak eta zeinen asebetetasunak horrela norberaren zoriona izena duen) osatzen dute (*solipsismus*). Hori *norberaren maitasunarena* da, neurritz gain norberaren buruarekin *bihozbera* izatea (*philautia*), edo *norberaren burua atsegin* izatea (*arrogantia*). Hark bereziki *norberaren maitasun* izena du, horrek *norberaren hantustea*. Arrazoimen praktikoko hutsak norberaren maitasuna *oztopatzen* du, hark hori, berezko gisa eta lege moralaren aurretik ere guregan ekinean dagoena, lege horrekin adosteko baldintzara murrizten duen heinean; horrela, bada, *norberaren maitasun arrazoizkoa* deituko da. Baina hantustea suntsitu egiten du, lege etikoaren bateratasunaren aurreko norberaren estimuaren uzi

guztiak baliogabeak eta eskumenik gabekoak diren heinean, lege horrekin bateratzen den jaidura baten ziurtasuna pertsonaren balio ororen lehen baldintza den heinean (berehala argiago azalduko duguna) eta horren aurreko handigura oro faltsua eta legearen aurkakoa den heinean. Beraz, norberaren estimurako aiherra lege moralak oztopatzen dituen joeren artean kokatzen da, hura sentimenean¹⁸ baino oinarritzen ez den heinean. Beraz, lege moralak hantustea suntsitzen du. Lege hori, ordean, bere baitan positiboa den zerbait denez, hots, adimenduzko kausalitate baten forma, hau da, askatasunarena, orduan aurkako subjektiboaren aldean, hots, gudan dauden joeren aldean hantustea ahultzen duen heinean, aldi berean *begirunearen* objektua da, eta hori *suntsitu* ere egiten duenez, hau da, behekitzen duen heinean, *begirune* handienaren objektua, eta beraz, sentimendu positibo baten oinarria ere bai, jatorri enpirikoa ez duena eta a priori ezagutzen dena. Beraz, lege moralaren begirunea sentimendu bat da, adimenduzko oinarri batek sortzen duena, eta sentimendu hori da erabat a priori ezagut dezakegun bakarra, eta horren beharrezkotasuna baino ezin dugu ulertu.

Aurreko atalean ikusi dugu nahimenaren objektu gisa eskaintzen dena lege moralaren aurretik nahimenaren determinazio-oinarri izatetik baztertzen dela baldintzatugabeki ona denaren izenpean lege horren beraren bidez arrazoimen praktikoaren baldintza gorena gisa, eta forma praktiko soilak, maximak lege-emate orokor baterako balio-garri izatean datzana determinatzen duela lehenik bere baitan, eta oro har ona dena eta asmo orotarako ona den nahimen baten maxima oinarritzen duela. Baina gure izaera sentimenezko zerizanak garen aldetik honela dago eratua, ezen desiramenaren materia (joeraren objektuak, itxaropenarenak edo beldurrarenak) lehenik agertzen baitzaigu, eta patologikoki determinagarria den gure norbera, bere maximen bidez lege-emate orokor izateko erabat ezgai bada ere, gure norbera osoa osatuko balu bezala, bere uziak aurretik eta lehenak eta jatorrizkoak bezala ezartzen saiatzen da. Norberaren burua norberaren nahieraren determinazio-oinarri subjektiboaren arabera oro har nahimenaren determinazio-oinarri objektibo bihurtzeko aiherrorri *norberaren maitasun* dei dakioke, zeinak bere burua lege-emaille eta printzipio praktiko baldintzatugabe bihurtzen badu, *hantuste* dei daitekeen. Baina lege moralak, egiazki objektiboa den bakarrak

(hots, asmo orotan), norberaren maitasunak printzipio praktiko gorenaren gainean eragitea erabat baztertzen du, eta lehenaren baldintza subjektiboak lege gisa ezartzen dituen hantustea amaigabe oztopatzen du. Baina gure hantustea geure judizio propioan oztopatzen duen horrek behekitzen du. Eta, beraz, lege moralak ezinbestean gizaki oro behekitzen du, horrek hura bere izaeraren sentimenezko aiherrarekin alderatzen duen heinean. Zerbaiten errepresentazioak gure *nahimenaren determinazio-oinarri* gisa gu geure kontzientzian behekitzen bagaitu, horrek bere kabuz *begirunea* eragiten du, positiboa eta determinazio-oinarri den heinean. Beraz, lege moralak subjektiboki ere begirunearen oinarri da. Baina norberaren maitasunean topatzen den oro joeran kokatzen denez, eta joera oro sentimenduetan oinarritzen denez, eta beraz, joera oro osotara norberaren maitasunean oztopatzen duenak horregatik hain zuzen sentimenduan eragiten duenez, orduan ulertzen dugu nola den ahalgarri a priori ulertzea lege moralak, horrek joerak eta horiek baldintza praktiko goren bihurtzeko aiherra, hau da, norberaren maitasuna lege-emate goren orotan sartzetik baztertzen duen heinean, sentimenduan eragina izan dezakeela, zeina batetik soilik *negatiboa* den, baina bestetik *positiboa* arrazoimen praktiko hutsaren oinarri murrizgarria dela eta, eta horretarako ez da onartu behar sentimendu mota berezirik sentimendu praktiko edo moralaren izenpean, lege moralaren aurrekoa litza-tekeena eta horren oinarrian legokeena.

Sentimenduaren gaineko eragin negatiboa (gustagaiztasuna) *patologikoa* da, horren gaineko eragin oro eta oro har sentimendu oro bezala. Baina lege moralaren kontzientziaren eragin gisa, eta ondorioz, adimenduzko kausa batekin harremanean, hots, arrazoimen praktiko hutsaren subjektuarekin lege-emaila goren gisa, joerek jotzen duten subjektu arrazoidun baten sentimendu horrek behekitze izena du (adimenduzko mespretxu), baina haren oinarri positiboarekin harremanean, legearekin harremanean, aldi berean haren begirune izena du, zeinaren ezein sentimendurik ez den sortzen, ez bada arrazoimenaren judizioan, horrek oztopo bat gainditzea kasualitatearen sustapen positibo batekin parekatzearen aurkako jarrera baztertzen duen heinean. Horregatik, sentimendu horri ere lege moralaren begirunearen sentimendu dei dakioke, baina bi arrazoiak elkar hartuta *lege moral* dei dakioke.

Lege moralala, beraz, ekintzaren determinazio-oinarri formala denez, arrazoimen huts praktikoaren bidez ekintzaren objektuaren determinazio-oinarri materiala ere badenez, objektiboa soilik bada ere, ongiaren eta gaitzaren izenpean, orduan ekintza horren determinazio-oinarri subjektiboa ere bada, hau da, bultzagaia, subjektuaren sentimenean eragiten duen heinean eta legeak nahimenean eragina izateko behar den sentimendua eragiten duen heinean. Hor ez dago subjektuan *aurretik* moraltasunari lotzen zaion ezein sentimendurik. Izan ere, hori ezinezkoa da, zeren sentimendu oro sentimenezkoa baita; baina jaidura etikoaren bultzagaiak sentimenezko baldintza orotatik aske izan behar du. Aitzitik, gure joera guztien oinarrian datzan sentimenezko sentimendua bada, bai, guk begirune deitzen dugun sentsazio haren baldintza, baina haren determinazioaren kausa arrazoimen praktiko hutsean datza, eta sentsazio hori horregatik, duen jatorriagatik, ezin da deitu patologiko, baizik eta *praktikoki eragina* deitu behar da, lege moralaren errepresentazioak norberaren maitasunari eragina eta hantusteari erokeria kenduz arrazoimen praktiko hutsaren oztopoa gutxitzen duen heinean eta haren lege objektiboak sentimenaren bultzatzaileen aldean duen abantailaren errepresentazioa, eta beraz, lehenaren pisua erlatiboki (azkenak afektatzen duen nahimen bati begira) arrazoimenaren judizioan sortzen duen heinean aurkako pisua ezabatuz. Eta, horrela, legearen alderako begirunea ez da etikotasunaren bultzagaia, baizik eta etikotasuna bera da, subjektiboki bultzagaitzat hartzen dena, arrazoimen praktiko hutsak, sentimenari legearen aldean uzi oro kenduz, azken horri, orain eragina duen bakarrari, itzala eskaintzen dion heinean. Horri buruz esan behar da ezen, begirunea sentimenduaren gaineko eragina, eta beraz, zerizan arrazoidun baten sentimenaren gaineko eragina denez, horrek sentimen hori, eta beraz, lege moralak begirunea ezartzen dien zerizanen mugatutasuna auresuposatzen duela, eta ezen, zerizan goren bati, edo sentimen orotatik aske den zerizan bati (zeinarentzat sentimena arrazoimen praktikoaren ezein oztopo ezin den izan) ezin zaiola egotzi *legearen* alderako begirunerik.

Sentimendu hori (sentimendu moralaren izenpean) arrazoimenak soilik eragiten du. Ez du balio ekintzen juzgaketarako, ezta ohituraren lege objektiboaren oinarritzapenerako ere, baizik eta bultzagai gisa besterik ez, lege hori bere baitan maxima bihurtzeko. Zein izen eman diezaiokegu egokiago sentimendu bitxi horri, ezein sentimendu

patologikorekin alderatu ezin den horri ? Hain da berezia non itxuraz arrazoimenaren esku baino ez baitago, eta hain zuzen arrazoimen huts praktikoaren esku.

Begirunea beti pertsoneri lotzen zaie, inoiz ez gauzei. Azken horiek gudan *joerak* iratzar ditzakete, eta animaliak badira (adibidez, zaldiak, zakurrak, eta abar) *maitasuna* ere bai, edo *beldurra*, itsasoak, sumendi batek, harrapari batek bezala, baina inoiz ez *begirunea*. Sentimendu horri gehiago hurbiltzen zaion zerbait *miresmena* da, eta hori afektu gisa, harridura, hain zuzen, gauzei ere lot dakioke, adibidez, zeruraino heltzen diren mendiei, zeruko izarren neurriari, kopuruari eta urrunerari, zenbait animalia-aren indarrari eta abiadurari, eta abarri. Baina hori guztia ez da *begirunea*. Gizaki bat niretzat maitasunaren, beldurraren edo miresmenaren objektu bat izan daiteke, harridura sortzeko mailan ere bai, baina horregatik ez da *begirunearen* objektu. Haren aldarte jostagarriak, haren adoreak eta indarrak, hark besteen artean duen mailaren arabera duen botereak halako sentsazioak sor ditzake nigan, baina haren aurrean dudan *begirunea* falta da, dena den. Fontenellek dio: «*pertsona bikain baten aurrean burua makurtzen dut, baina nire espiritua ez da makurtzen*». Nik gainera dezaket: behe mailako hiritar arrunt baten aurrean, zeinari neuk neure baitan ohar-tzen ez dudan izaeraren zuzentasun bat hautematen diodan, nire *espirituak burua makurtzen* du, nahi ala ez, eta burua goian izan arren, hari nire gorentasuna ikusarazteko. Zergatik, bada? Haren adibideak nire hantustea suntsitzen duen legea erakusten dit, nire jokaerarekin alderatzen dudanean, eta hura betetzea, eta beraz, haren *egingarritasuna* nire aurrean frogatuta ikusten dudanean ekintzaren bidez. Baina ni zuzentasunaren maila berberaz ohar naiteke, eta hala ere *begiruneak* irauten du. Izan ere, gizakiengan ongia beti akastuna denez, legeak beti nire harrotasuna hondoratzen du adibide baten bidez begiesgarri bihurtuta, zeinaren eredia nire aurrean dagoen pertsonak ematen duen, zeinaren zitalkeriak, direnak direla ere, ez ditudan ezagutzen nireak bezain ongi eta, beraz, niri argiago agertzen zaizkidan. Meretzimendua ukatu ezin diogun *ordaina* da *begirunea*, nahi izan ala ez; kanpoan ezkutuan mantentzeko agian, baina ezin dugu eragotzi hura barnean sentitzea.

Begirunea hain *urrun* dago *atseginaren* sentimendua izatetik, ezen gogoz kontra baino ez baitugu onartzen gizaki bati dagokionez.

Zerbait bilatzen saiatzen gara, haren zama arindu ahal izango diguna, akatsen bat, halako adibideak sortzen digun behekitzea orekatzearren. Hildakoak ere, bereziki haien adibideak errepikaezina dirudienean, ez daude kritika horren aurrean seguru. Lege moralak ere bere *bikainta - sun puztuan* haren begiruneaz defendatzeko ahaleginaren arriskupean dago. Pentsa ote daiteke beste kausa bati egotzi ahal zaiola hura gus-tura gure barneko joerara behekitzea, eta beste kausei guztiz ahale-gintzen dela hura gure ongi ulertutako abantailaren arau maiteen bihurtzeko, eta ez gure duintasun eza zorrozki erakusten digun begi-rune eragozgarriari ihes egiten? Hala ere, bestalde, han *desatsegin* hain *gutxi* dago ezen, behin hantustea baztertzen bada eta begirune hari eragin praktikoa onartzen bazaio, berriro ezin baita inoiz aski ikusi lege haren loria, eta arimak uste du hain maila handian goratzen zaiola, non lege santua bere gainean eta bere izaera hauskorren gainean goratuta ikusten baitu. Talentu handiko pertsonak eta horri ego-kitzen zaion ekimen batek begirunea edo horren antzekoa den senti-mendua eragin dezakete, noski, eta oso zuzena da haiei hori eskain-tzea, eta horrela itxuraz miresmena sentsazio harekin berdintzen da. Baina zehazkiago begiratzen bada, orduan ohartuko da ezen, inoiz ziurra ez denez zenbateraino den jatorrizko talentua eta zenbateraino den norberaren ahaleginaz lortutako kultura trebezia sortzen duena, orduan arrazoimenak azkena kulturaren fruitu gisa aurkezten digula ziurrenik, eta beraz, merezimendu gisa, zeinak gure hantustea era ohargarrian behekitzen duen eta guri horri buruzko gaitzespenak egi-ten dizkigun edo halako adibidearen jarraipena ezartzen digun gure-tzat egokia den eran. Begirune hori, beraz, halako pertsonari (egiatan haren adibideak erakusten digun legeari) erakusten dioguna, ez da miresmen soila; eta hori gainera baieztatzen da miresleen multzo han-diak halako gizon baten (adibidez Voltairen) izaeraren alde gaitza itu-rriren batetik zein den asmatu duela uste duenean, hari zion begirune oro bertan behera uzten duelako, baina egiazko pertsona ikasiak hura gutxienez hark dituen talentuen ikuspegitik sentitzen duelako, zeren hori bera haren imitazioa neurri batean lege bihurtzen dion zeregin eta eginkizun batean ari baita.

Lege moralaren alderako begirunea, beraz, bultzagai moral bakarra eta aldi berean zalantzaezina da, eta sentimendu hori ez da zuzentzen haren oinarria ez den beste ezein objektutara. Lehenik lege

moralak nahimena determinatzen du objektiboki eta bitartegabe arrazoimenaren judizioan ; askatasuna, zeinaren kausalitatea legearen bidez baino ez den determinagarri, hain zuzen honetan datza, hots, hark joera oro eta, beraz, pertsona beraren estimazioa haren lege hutsa betetzearen baldintzara murrizten duela. Murriztapen horrek, baina, sentimenduan eragiten du eta desatseginaren sentsazioa sortzen du, lege moralak a priori ezagut dezakeena. Baina hura oraingoz eragin *negatiboa* denez, arrazoimen praktiko huts baten eraginean jatorria izanik, bereziki subjektuaren ekimenari egiten diona oztopo, haren determinazio-oinarria joerak diren heinean, eta beraz, haren balio pertsonalaren iritzia oztopatzen duela (hori lege moralarekin adostu gabe ezerezeroa behekitzen baita), orduan lege horrek sentimenduan duen eragina umiliatzea da, zeina guk noski a priori ulertzen dugun, baina hartan ezin dugu ezagutu lege praktiko hutsaren indarra bultzagai gisa, baizik eta sentimenaren bultzagaien aurkako erresistentzia besterik ez. Baina lege horixe bera objektiboki, hau da, arrazoimen hutsaren erre-presentazioan nahimenaren determinazio-oinarri bitartegabea denez, eta ondorioz, umiliatze hori legearen araztasunari dagokionez baino ez den gertatzen, orduan norberaren estimazio moralaren uzien behekitzea, hau da, umiliatzea sentimenaren aldetik, legearen beraren estimazio moralaren, hau da, praktikoaren goratzea da adimenduaren aldetik, hitz batean legearen alderako begirunea, eta beraz, bere adimenduzko kausaren arabera sentimendu positiboa da, a priori ezagutzen dena. Izan ere, ekimen baten oztopoen gutxitze bakoitza ekimen horren beraren sustapena da. Lege moralaren berrezagupena, ordea, arrazoimen praktikoak oinarri objektiboen arabera duen ekimenaren kontzientzia da, zeinak bere eragina ez duen ekintzetan adierazten, kausa subjektiboek (patologikoek) hori egitera eragozten diotelako. Beraz, lege moralaren alderako begirunea horren eragin positibo gisa ikusi behar da, baina zeharkako gisa sentimenduaren gain, hark joeren eragin eragozgarria norberaren hantustearen umiliatzearen bidez ahultzen duen heinean, eta beraz, ekimenaren oinarri subjektibo gisa, hau da, hura betetzeko *bultzagai* gisa, eta hari dagokion bizimodu baten maximetarako oinarri gisa. *Bultzagai* baten adigaitik *interes* batena sortzen da, zeina inoiz ez zaion egozten arrazoimena duen zerizan bati, eta zeinak nahimenaren bultzagai bat esan nahi duen, hura *arrazoime-naren bidez erre-presentatzen* den heinean. Legeak berak nahimen moralki onean bultzagaia izan behar duenez, orduan *interes morala*

arrazoimen praktiko soilaren sentimenaz aske dagoen interes hutsa baino ez da. Interes baten adigaiaren gainean oinarritzen da gainera *maxima* batena. Hori moralki zuzena da, baina soilik legea betetzean ezartzen den interes soilean oin hartzen duenean. Hiru adigaiok, ordea, *bultzagaiarena*, *interesarena* eta *maximarena*, zerizan mugatuetan besterik ezin dira aplikatu. Izan ere, orobat zerizan baten izaeraren murriztasun bat aurreuposatzen dute, zeren horien nahieraren eraketa arrazoimen praktiko baten lege objektiboarekin ez baita berez adosten; zerbaitek ekimenera bultzatzeko premia bat, horren oztopo bat dugu-lako aurrean. Ezin dira aplikatu, beraz, jainkotiar nahimenean.

Hain berezia den zerbait dago abantaila oro kendu zaion lege moral hutsaren goraipamen mugagabea, arrazoimen praktikoak hura betetzeko aurkeztu digun moduan (horren ahotsak gaizkile ausartena izutzen eta behartzen du haren begiradatik ezkutatzeraz), non ezin baitugu harritu aurkitzen badugu arrazoimen espekulatiboak ezin duela oinarritu adimenduzko ideia baino ez denak sentimenduan duen eragin hori, eta geure burua asebate behar badugu a priori honenbeste ulertzearekin, hots, halako sentimendua bereiztezin dagoela lotuta lege moralaren errepresentazioarekin zerizan arrazoidun mugatu orotan. Begirunearen sentimendu hori patologikoa balitz eta, beraz, barneko sentsuan oinarritutako atseginaren sentimendua balitz, orduan alferrikakoa litzateke horrek apriorizko ideiarekin batekin lukeen lotura bilatzea. Baina praktikoa denari baino lotzen ez zaion sentimendua da eta, gainera, lege baten errepresentazioari lotzen zaio haren formaren arabera soilik, ez haren objektu batengatik, eta beraz, ezin zaio egotzi ez plazerari ez minari, eta, hala ere, legea betetzean *interesa* sortzen du, guk sentimendu *moral*a deitzen duguna; izan ere, era berean legean halako interesa hartzeko gaitasuna (edo lege moralari berari diogun begirunea) benetan *sentimendu moral*a da.

Nahimena legeari *askeki* azpiratzearen kontzientzia, joera guztiei arrazoimen propioaren bidez soilik eragindako ezinbesteko heretsapenarekin lotuta, legearen alderako begirunea da. Begirune hori bultzatzen duen eta eragiten duena ez da, ikusten denez, lege moral baino (izan ere, beste ezeinek ez ditu joera guztiak baztertzen hark nahimenean duen eraginaren bitartegabekotasunetik). Lege horren arabera joerengatiko determinazio-oinarri oro baztertuz objektiboki praktikoa den ekintzak *betebehar* izena du, zeinak bazterketa horri

esker bere adigaian gogoz kontra barnebiltzen duen *behartze* praktikoa, hau da, ekintzetarako determinazioa, horiek edonola gertatzen direla ere. Behartze horren kontzientziatik sortzen den sentimendua ez da patologikoa, sentsuen objektu batek eragingo lukeena bezalakoa, baizik eta praktikoki besterik ez da ahalgarri, hau da, aurreko nahimenaren determinazio (objektibo) baten eta arrazoimenaren kausalitate baten bidez. Ez du biltzen, beraz, lege baten menpeko *azpira-tze* gisa, hau da, agindu gisa (sentimenak afektatzen duen subjektuari hertsapena iragartzen diona), atseginik, baizik eta desatsegina ekin-tzan. Baina, bestalde, hertsapen hori *norberaren* arrazoimenaren lege-ematearen bidez aplikatu denez, hark *goratze* bat ere biltzen du, eta sentimenduaren gaineko eragin subjektiboa, horren kausa bakarra arrazoimen praktikoa hutsa den heinean, azken horri begira dugun *nor-beraren onespena* dei daiteke, norberaren burua horretarako determinatua ezagutzen dugun heinean, interesik gabe, soilik legearengatik eta, beraz, subjektiboki sortu den beste interes batez, huts-hutsean praktikoa eta *askea* denaz jabetzen garen heinean, eta interes hori hartzea betebeharrizko ekintza batean ez da joera baten aholkua, baizik eta arrazoimenak agintzen du oro har lege praktikoarene bidez eta, gainera, benetan ekoizten du, eta horregatik izen erabat berezia dauka, hots, begirunearena.

Betebeharraren adigaiak ekintzari eskatzen dio *objektiboki* legearekin bateratzea; horren maximari, ordea, subjektiboki legearen alderako begirunea, haren nahimenaren determinazio-era bakar gisa. Eta horretan oinarritzen da *betebeharraren arabera* jokatu izanaren kontzientzia eta *betebeharragatik*, hau da, legeari diogun begiruneagatik jokatu izanaren kontzientziaren arteko aldea; horietako lehena (legezkotasuna) gerta daiteke joerak izan zirenean nahimenaren determinazio-oinarri; bigarrena (*moralitasuna*), berriz, balio morala, ekintza betebeharragatik gertatzen denean soilik ezarri behar da, hau da, legeagatik baino gertatzen ez denean¹⁹.

Garrantzi erabatekoa du juzgaketa moral orotan maxima ororen printzipio subjektiboa kontuan hartzeak zehaztasun handienarekin, horrela ekintzen moralitasun osoa horiek *betebeharragatik* eta legearen alderako begiruneagatik duten beharrezkotasunean ezartze-ko, ez ekintzek sortu beharko lituzketen maitasunean eta zaletasunean. Gizakientzat eta sorkari arrazoidun guztientzat beharrezkotasun

morala behartze bat da, hau da, lotespen bat, eta horretan oinarritzen den ekintza oro betebeharrak gisa errepresentatu behar da; ez, ordea, guk geure kabuz maite dugun edo maite ahal izango dugun prozedura gisa. Guk inoiz lortu ahal izango bagenu bezala ezen, legearen alderako begirunerik izan gabe, beldurrarekin lotzen dena edo gutxienez hura hausteko ardurarekin, guk geure kabuz, menpekotasun oro gainditzen duen Jainkoa bezala, inoiz nahimenaren *santutasun* baten jabegora iristea, gure izaera bihurtu zaigun eta inoiz bihurritu ezin den nahimenaren eta ohituren lege hutsaren arteko adostasunaren bidez (zeinak, beraz, gu inoiz tentazioan erori ezingo ginatekeenez, azkenik utzi egingo liokeen guretzat agindu izateari).

Lege morala, hain zuzen, zerizan erabat betegin baten nahimenarentzat *santutasunaren* lege bat da, baina zerizan arrazoidun mugatu ororen nahimenarentzat *betebeharraren* legea, behartze moralarena, eta haren ekintzen determinazioarena lege horri zaion *begiruneagatik* eta haren betebeharrari zaion itzalagatik. Ezin da beste printzipio subjektiborik onartu bultzagai gisa, zeren orduan ekintza legeak ezartzen dion moduan gerta daiteke, baina betebeharraren arabera denez eta aldi berean betebeharragatik gertatzen ez denez, orduan hori egiteko jaidura ez da morala, hori izaki lege-imate horren mamia.

Polita da gizakiei zaien maitasunagatik eta haiei zaien errukia-gatik haiekin ongi jokatzea, edo ordenari zaion maitasunagatik zuzen jokatzea, baina hori ez da gure jokabidearen egiazko maxima morala, zerizan arrazoidunen artean *gizaki* gisa dugun kokapenari dagokiona, baldin eta geuri egozten diogunean boluntarioek bezala betebeharraren pentsamenduari ihes egitea asmamen harroz eta, aginduaren menpe egon gabe, norberaren atseginari jarraiki egin nahi badugu egiteko ezein agindu beharko ez genukeen hori. Gu arrazoimenaren *dizi-plina* baten menpe gaude eta gure maxima orotan ezin dugu ahaztu haren menpe gaudela, ezin diogu hari ezer kendu, edo legearen itzala (geure arrazoimenak ematen badu ere) zertxobait murriztea geure ilusio nahierazkoa dela eta, gure nahimenaren determinazio-oinarria, legearen arabera bada ere, legea ez den eta legearen alderako begirunea ez den beste nonbaiten ezarritik. Betebeharra eta obligazioa dira lege moralarekin dugun jokaerari eman behar dizkiogun izendapenak. Askatasunak ahalbidetzen duen eta arrazoimen praktikoak begirune-

rako errepresentatzen duen ohituren erresuma bateko kide lege-emai-leak gara, baina aldi berean menekoak gara, ez haren nagusiak, eta gure beheko maila ez ezagutzea sorkari gisa eta hantustearen ukazioa lege santuaren itzalaren aurrean hari egindako traizioa da espirituaren arabera, nahiz eta hitzaren arabera hura bete.

Horrekin, ordea, oso ongi adosten da honako agindua : *maite ezazu Jainkoa guztiaren gainetik eta lagun hurkoa zeure burua beza-la*²⁰. Izan ere, horrek agindu gisa begirunea eskatzen du *maitasuna agintzen* duen legearentzat, eta ez du uzten nahierazko aukera baten esku hura norberaren printzipio bihurtzea. Baina Jainkoarenganako maitasuna joera gisa (maitasun patologikoa) ezinezkoa da; izan ere, ez da sentsuen objektua. Baina gizakienganako maitasuna ahalgarria da, baina ezin da agindu; izan ere, ez dago ezein gizakiren esku norbait aginduz maitatzea. Beraz, *maitasun praktikoa* baino ez da lege ororen mami hartan ulertzen dena. Adiera horretan Jainkoa maitatzeak esan nahi du haren aginduak gogo onez egitea; lagun hurkoa maitatzeak esan nahi du haren aurrean dugun betebeharrak oro gogo onez betetzea. Hori erregela bihurtzen duen aginduak, ordea, ezin du agindu betebeharraren araberrako ekintzetan jaidura hori *izatea*, baizik eta hori lortzen *ahalegintzea* besterik ez. Izan ere, zerbait *gogo onez* egin beharra aginduko lukeen agindua bere baitan kontraesankorra da, zeren baldin eta guk gure kabuz jakingo bagenu zer egin behar dugun, eta gainera jabetuko bagina hori gogo onez egiteaz, horri buruzko agindua erabat alferrikakoa litzateke, eta egingo bagenu baina ez gogo onez baizik eta soilik legeari begirunea diogulako, orduan begirune hori maximaren bultzagai bihurtzen duen agindu horrek agindutako jaiduraren aurka ekingo luke. Lege ororen lege hark, beraz, Berri Onaren arau moral orok bezala, jaidura etikoa aurkeztzen du horren betegintzarre osoan, eta hori santutasunaren ideal gisa ezein sorkarik lortu ezin badu ere, gero eta hurbilago izaten eta horrekin etengabe baina amai-gabe aurrerapen batean bat egiten ahalegindu beharko genukeen eredu bat da. Hain zuzen, sorkari arrazoidun batek inoiz lortuko balu lege moral oro guztiz gogo onez betetzea, horrek esan nahiko luke horrengan ez legokeela irrika baten ahalgarritasuna ere, haietatik baztertze-ra bultzatuko lukeena; izan ere, halakoaren gairak subjektuari sakrifizio bat eskatzen dio beti eta, beraz, norberaren hertsapena eskatzen du, hau da, barneko behartzea guztiz gogo onez egiten ez dena.

Baina ezein sorkari ez da inoiz heltzen jaidura moralaren maila horretara. Izan ere, sorkari bat denez eta, beraz, bere egoerarekin erabat asebetetzeko eskatzen denari dagokionez beti menpekoka denez, orduan inoiz ezin da izan irrikatik eta joeretatik erabat aske, zeinak oso bestelako iturria duen lege moralarekin ezin diren euren kabuz adostu, kausa fisikoetan oin hartzen dutelako, eta beraz, beti beharrezkoa duten euren maximen jaidura behartze moralean oinarritzea, ez laguntza prestu batean, baizik eta legea betetzea, gogoz kontra gertatuta ere, *agintzen* duen begirunean, ez legearen aurrean nahimenaren barne ukazioa eskaintzen duen maitasunean, nahiz eta azken hori, legeari zaion maitasun soila (horrenbestez utzi egingo bailioke *agin - du* izateari, eta moralitasunak, orain subjektiboki santutasun bihurtuko litzatekeenak, utzi egingo lioke *bertute* izateari) bere ahaleginen helburu iraunkor baina lortezina bihurtzen duen. Izan ere, asko estimatzen dugun baina (gure ahuleziaz jabetzen garelako) beldur diogun horren kasuan, horri erantzuteko erraztasun gehigarriaren bidez begirunez betetako izua zaletasun eta begirunea maitasun bihurtzen zaizkigu; gutxienez hori legeari guztiz emandako jaidura baten betegin-tzarrea litzateke, inoiz sorkari batek hori lortu ahal izango balu.

Pentsaera horren helburua ez da hemen aipatutako Berri Onaren agindua adigai argien bidez adieraztea, horrela *erlijiozko gogo-berota - suna* Jainkoaren maitasunari dagokionez determinatzeko, baizik eta jaidura etikoa bitartegabe gizakien aurrean ditugun betebeharrak dagokionez ere determinatzeko, eta gogo-berotasun *moral soila* denera bideratzea, edo ahal bada hura oztopatzea. Gizakiak (guk dakigunez baita sorkari arrazoidun orok ere) orain duen maila etikoa lege moralaren alderako begirunea da. Hori betetzea behartzen dion jaidura hori betebeharragatik betetzea da, ez aukerazko zaletasun eta agintzen ez zaion eta norberaren kabuz gogo onez egindako ahaleginagatik, eta haren egoera morala, non hura beti izan daitekeen, *bertutea* da, hau da, jaidura morala *borrokan*, eta ez nahimenaren jaiduraren *araztasun* osoaren ustezko jabegoan dagoen *santutasuna*. Gogoberotasun morala eta hantustearen areagotzea besterik ez da gogamenei ezartzen zaiena ekintzetara animatuz noble, bikain eta eskuzabal gisa, eta haiek horren bidez ilusio honetara ekartzen dira, hots, betebeharra ez dela, hau da, legearen alderako begirunea, horren zama (arrazoimenak berak ezartzen digulako leuna bada ere) eraman *behar* dutela gogoz kontra bada ere,

haien ekintzen determinazio-oinarria osatzen duena, eta haiek umiliatzen dituen, hura betetzen duten heinean (hari *men* egiten dioten heinean), baizik eta ekintza haiek ez betebeharragatik, baizik eta eurenagatik espero zitezkeela merezimendu soil gisa. Izan ere, ez da gertatzen soilik halako ekintzen imitazioaren bidez, hots, halako printzipiotik abiatuta, legearen espiritua gutxienean ere asebetetzen ez dutela, zeina legeari menpekotzen zaion jaiduran datzan, ez ekintzaren legezkotasunean (printzipioa edozein izanda ere), baizik eta, gainera, bultzagaia *patologikoki* (sinpatian edo baita norberaren maitasunean ere), ez moralki (legean), ezartzen dutenez, horrela pentsaera aldakorra, noraezean dabilena, asmakeriazkoa sortzen dutela, euren buruak ez akuilu ez bridarik behar ez duen euren gogamenaren onberatasun borondatezko batekin limurtuz, horretarako agindu bat ere behar izan gabe, eta horrela euren errutasuna ahazten dute, horretan pentsatu behar zutenean irabazian pentsatu beharrean. Badaude, noski, besteen ekintzak, lan handiak hartuz eta betebeharra betetzeagatik soilik egin direnak, ekintza *noble* eta *bikainaren* izenpean goraipatu daitezkeenak, baina soilik bere betebeharrari dagokion begiruneagatik eta ez halako bihozkada baten ondorioz egin direla sumarazten diguten aztarnak dauden heinean besterik ez. Baina norbaitek ekintzok ondorengoei adibide gisa aurkeztu nahi badizkie, orduan beti betebeharraren alderako begirunea (sentimendu moral egiazko bakar gisa) bultzagai gisa erabili beharko du, hots, arau serio, santu hori, norberari diogun maitasunari uzten ez diona bultzatzaile patologikoekin (moraltasunarekin antza duten heinean) jostatzea eta *merazitako* balioa ontzat jotzea. Ongi bilatzen badugu, gorai-pagarriak diren ekintza guztietan aurkituko dugu betebeharraren lege bat, agindu egiten duena eta uzten ez duena gure nahieraren esku gure aiherrari gustukoa litzaiokeena. Hori da arima moralki eratzen duen aurkezpen modu bakarra, hori bakarrik baita oinarritzko esakune irmoagoak eta zehazkiago determinatuak izateko gai.

Gogo-berotasuna adiera arruntenean oinarritzko esakuneen araberaren egin den giza arrazoimenaren mugen gaindipena bada, orduan *gogo-berotasun moral*a arrazoimen huts praktikoa gizateriari ezartzen dizkion muga horien gaindipena da, zeinen bidez hark debekatzen baitu betebeharraren araberako ekintzen determinazio-oinarri subjektiboa, hau da, haren bultzagai moral, hots, legea bera eta horren bidez maximetara eramaten den jaidura, legearen alderako

begirunea ez den beste nonbait ezartzea, eta beraz, agintzen baita *harrokeria* oro eta *norberaren maitasun* ustel oro apurtzen dituen betebeharraren pentsamendua gizakiengan moraltasun ororen *bizitza-printzipio* goren bihurtzea.

Hori horrela bada, orduan eleberri idazleek edo hezitzaile sentiberak ez ezik (nahiz eta sentiberatasunaren aurka egiten hainbat saiatzen diren), gainera filosofoek, horien arteko zorrotzenek ere bai, estoikoek, *gogo-berotasun moral*a onartu dute ohituren diziiplina zuhur baina jakintsuaren ordeztu, azkenekoen gogo-berotasuna heroikogoa eta lehenengoena hutsala eta funsgabea bazen ere, eta beraz, zurikeriarik gabe egia osoz esan daiteke Berri Onaren irakaspen moralari buruz ezen, lehenik printzipio moralaren araztasunaren bidez, baina berehala horrek zerizana mugatuena murriztapenekin duen egokitasunagatik, gizakien jokaera on oro begien aurrean jarri zaien betebeharraren diziplinari menperatzen diola, osotasun moral amestuen artean berotzen uzten ez duen betebeharra, eta euren mugak gustura ez-ikusten dituzten hantusteari eta norberaren maitasunari umiltasunaren (hau da, norberaren ezagutzaren) murriztapena ezartzen die

Betebeharra! Izen bikain, handi hori, bere baitan limurkeriarik jasotzen duen ausazko ezer barnebiltzen ez duzuna, baizik eta menpekotzea eskatzen duzuna, baina mehatxatu gabe, nahimena higitzeko gogamenean berezko nazka sortuz eta beldurtuz, baizik eta lege bat azaldu baino egiten ez duzuna, zeinak berez aurkitzen duen gogamenerako bidea, eta hala ere gogoz kontra lortzen duen ohoratua izatea (beti atxikimendua lortu ez arren), zeinaren aurrean joera guztiak mututzen diren, nahiz eta ezkutuan haren aurka ekin; zein da zuretzat duin litzatekeen jatorria eta non aurkitzen dira joerekiko senitartetasun oro baztertzeko duen zure jatorri noblearen sustraia, jatorria sustrai horretan izatea gizakiek euren buruei eman diezaieketen balio haren baldintza ezinbestekoa izaki?

Ezin da gizakia bere gainetik (sentsuen munduko zati gisa) goratzen duena baino gutxiago izan, hura adimenak baino pentsa ezin duen gauzen ordena bati lotzen diona eta, aldi berean, sentsuen mundu osoa eta horrekin batera gizakiaren enpirikoki determinagarria den izatea eta xede guztien osotasuna (lege praktikoko baldintzatugabe halakoei dagokiena, lege moralari esaterako) bere menpe dituenen. *Nortasuna* baino ez da, hau da, natura osoaren mekanismotik askatasuna eta

beregaintasuna, baina aldi berean zerizan baten ahalmen gisa hartuta, zeina lege berezien menpe dagoen, hau da, arrazoimenak berak eman-dako lege praktiko hutsen menpe, eta pertsona, beraz, sentsuen munduko zati gisa bere nortasun propioaren menpe dago, aldi berean adimenduzko munduaren zati den heinean; orduan ez da harritzekoa gizaki hark, bi munduen zati izanik, bere zerizan propioa ezin begiratu izatea ohorez beteta baino bere bigarren determinazio gorenari dagokionez, eta haren legea begirune gorenarekin.

Jatorri horretan oinarritzen dira objektuen balioa ideia moralen arabera ezaugarritzen dituzten zenbait adierazpen. Lege moralak *santua* da (bortxaezina). Gizakia nahikoa ez-santua da, baina *gizatasuna* haren pertsona santua izan behar zaio. Sorkuntza osoan nahi den guztia eta gure esku dugun guztia *bitarteko soil* gisa erabil dezakegu; soilik gizakia eta horrekin batera sorkari arrazoidun oro dira *xedeak euren baitan*. Hain zuzen, lege moralaren subjektua da, santu dena, haren askatasunaren *autonomiari* esker. Horri esker, hain zuzen, nahimen bakoitza, baita pertsona bakoitzarentzat berea ere, norberari begiratzeko diona zerizan arrazoidunaren autonomiarekin duen adostasunaren baldintzara murrizten da, hain zuzen, subjektu jasailearen nahimenetik sortu ahal izango litzatekeen lege baten arabera ahalgarri ez den ezein asmotara ez azpiratzea; beraz, hori inoiz ez erabiltzea bitarteko gisa, baizik eta beti xede gisa. Baldintza hori jainkotiar nahimenari ere egozten dio arrazoiz munduko zerizan arrazoidunei dagokionez haren sorkari gisa, baldintza horrek haien *nortasunean* hartzen duelako oin, horren bidez izaki haiek xedeak euren baitan.

Begirunea sortzen duen nortasunaren ideia hori, gure izaeraren bikaintasunak (horren determinazioaren arabera) begien aurrean ezartzen diguna, hark aldi berean gure jokaeraren egokitasunaren gabezia ohartarazten digun heinean eta horren bidez hantustea apurtzen duen heinean, giza arrazoimen arruntenari ere berezkoa zaio eta erraz ohartzen du. Ez al du erdizka zintzoa den gizon orok aurkitu ezen, horrek bestela kaltegabea litzatekeen gezurra, zeinaren bidez tratatu txar bati izkina egin dion edo lagun maitatu eta merezimenduzkoari onura ekarri dion, bertan behera uzten duela, ezkutuan bere begien aurrean mespretxatu behar ez izateko? Gizon zuzen bat ez al du mantentzen zuzen betebeharra alde batera utziz ekidingo lukeen bere bizitzako zoritxar okerrean gizatasuna bere baitan duintasunez mantendu izateaz eta

ohoratu izateaz jabetzeak, bere buruaren aurrean ezertaz ez lotsatzeko kausarik eta barne begirada norbera probatzetik ihes egiteko kausarik ez izateaz jabetzeak? Kontsolamendu hori ez da zoriona, ezta horren zatitxo bat ere. Izan ere, inork ez du bere buruarentzat abagune hori desiratzen, ezta bizitzarik ere horrelako inguruabarretan. Baina bizi da eta ezin du jasan bere begien aurrean bizitzeko duin ez izatea. Barne lasaitze hori negatiboa baino ez da bizitza gustagarri bihur dezakeen guztia kontuan hartuta; hain zuzen, balio pertsonala galtzeko arriskua gainditzea da, horrek bere egoeraren balioaz erabat etsi ondoren. Bizitza ez den guztiz bestelako zerbaiti zaion begirunearen eragina da, horrekin alderatuz eta aurkakotuz bizitzak bere gustagarritasun guztiekin ere ez baitu baliorik. Betebeharragatik bizi da, ez bizitzan gustu txikienik ere aurkitzen duelako.

Horrela eratzen da arrazoimen praktiko hutsaren benetako bultzagaia; lege moral hutsa bera da, horrek gure sentimenetik haratagoko existentziaren bikaintasuna sumatzea ahalbidetzen digun heinean, eta subjektiboki aldi berean euren sentimenezko izateaz eta horri lotzen zaion euren oso patologikoki afektatua den izaeraren menpekotasunaz jabetzen diren gizakiengan euren determinazio garaiago bati begirunea eragiten duelako. Baina bultzagai horri bizitzaren hainbat erakargarritasun eta gustagarritasun lotu ahal zaizkio, eta horiengatik soilik bada ere *epikuroar* arrazoidun eta bizitzaren on handienari buruz hausnartzen duenaren aukera zuhurrenak jokaera etiko zuzenaren alde egingo luke, eta aholkagarria ere bada bizitzaren gozamen pozgarriaren itxaropen hori kausa eragile goren eta bere kabuz soilik askitasunez determinatzailea den harekin lotzea; baina soilik bizioak beste aldean erruz erakusten dituen erakargarritasunak orekatzeko, ez horretan ezartzeko benetako indar higitzailea, ezta zati txikienean ere, auzia betebeharra denean. Izan ere, hori jaidura morala bere jatorrian zikindu nahi izatea adina bailitzateke. Betebeharraren ohoragarritasunak ez du zer ikusirik bizitzaren gozamenarekin; hark bere lege propioa dauka, baita bere epaimahai propioa ere, eta biak elkarrekin hainbat astindu arren, nahastuta sendagai gisa arima gaixoari emateko, hala ere berehala banantzen dira berez, eta ez badute egiten, lehenak ez du eraginik, baina bizitza fisikoak hor indar pixka bat lortuko balu, orduan bizitza morala desagertuko litzateke salbaziorik gabe.

Arrazoimen praktiko hutsaren analitikaren argipen kritikoa

Berez sistema bat osatzen duen jakintza baten edo horren zati baten argipen kritikoaz ulertzen dut horrek forma sistematiko hori eta ez beste edozein izan beharraren azterketa eta legeztatena, hura oinarrian antzeko ezagumena duen beste sistema batekin alderatzen denean. Baina arrazoimen praktikoak oinarrian espekulatiboak duen ezagumen berbera du, biak *arrazoimen huts* diren heinean. Orduan bien arteko forma sistematikoaren arteko bereizketa bien arteko alderaketaren bidez determinatu beharko da eta horren arrazoia eman beharko da.

Arrazoimen teoretiko hutsaren analitikak adimenari eman ahal zaizkion objektuen ezagutzarekin zuen zer ikusia, eta beraz, *begies-penetik* abiatu behar zuen, hau da, (hura beti sentimenezkoa denez) sentimenetik, baina horretatik adigaietara egin behar zuen aurrera, eta, bi aurrebaldintzei jarraiki, *oinarrizko esakuneetara* iritsi zitekeen. Aitzitik, arrazoimen praktikoak ez duenez zer ikusia objektuekin, haiek *ezagutzeko*, baizik eta horiek *egikaritzeko* duen ahalmenarekin (haien ezagutzari jarraiki), hau da, *nahimen* batekin duenez zer ikusia, zeina kausalitate bat den, arrazoimenak horren determinazio-oinarria barnebiltzen duen heinean, eta hori begiespenaren ezein objektu ez denez, baizik eta (kausalitatearen adigaiak beti lege batekiko harremana barnebiltzen duelako, zeinak anizkunkiaren existentzia determinatzen duen elkarrekiko erlazioan) arrazoimen praktiko gisa haren *lege* bat aipatzea besterik ez duenez egin behar, horrela haren analitikaren kritika batek, hark arrazoimen praktiko bat izan behar duen heinean (benetako betekizuna dena) *oinarrizko esakune praktikoen ahalgarritasunetik* abiatu behar du. Hortik abiatuta egin dezake aurrera arrazoimen praktiko baten objektuen *adigaietara*, hots, erabat ona eta gaitza denaren adigaietara, horiek oinarritzko esakune haien arabera lehen-lehenik emateko (izan ere, ezinezkoa da ezein ezagumenek haiek ematea printzipio haien aurretik ona eta gaitza gisa), eta horrela besterik ezingo luke bukatu zati hau azken atalak, hots, arrazoimen praktiko hutsak sentimenarekin duen erlazioarenak eta hark sentimenean duen eragin beharrezko eta a priori ezagutu behar denarenak, hau da, *sentimendu moralarenak*. Horrela antolatu zuen arrazoimen huts praktikokoaren analitikak haren erabileraren baldintza ororen hedadura osoa, arrazoimen teoretikoak egin zuen bezala baina aurkako

ordenan. Arrazoimen huts teoretikoaren analitika estetika transzendentalean eta logika transzendentalean banatu zen, eta arrazoimen praktikoarena, aitzitik, arrazoimen praktiko hutsaren logikan eta estetikian (zilegi bekit bestela desegokiak diren izendapenak hemen analitikoki erabiltzea), eta ondoren logika, berriz, han adigaien eta oinarrizko esakuneen analitikan eta hemen oinarrizko esakune eta adigaietan. Estetikak han bi zati zituen sentimenezko begiespenak bi mota dituelako; hemen, ordea, sentimena ez da ulertzen begiesteko ahalmen gisa, baizik eta sentimendu gisa besterik ez (irrikaren oinarri subjektibo izan daitekeena), eta horri dagokionez arrazoimen praktiko hutsak ez du beste sailkapenik onartzen.

Hemen argi ikus daiteke bi zatiko sailkapena eta horien azpi-sailkapenak benetan ez egiteko arrazoia (hasieran lehenaren adibideak hori saiatzeko bide okerrera eraman baikintuzke). Izan ere, hemen *arrazoimen hutsa* bere erabilera praktikoan eta, beraz, oinarrizko esakune apriorizkoetatik abiatuz ulertzen denez, eta ez determinazio-oinarri enpirikoetatik, orduan arrazoimen praktiko hutsaren analitika-ren sailkapenak arrazoiketa baten antzekoa izan beharko du, hots, *lehen premisan* orokorra denetik abiatuz (printzipio morala), *bigarren premisan* ekintza ahalgarrien menpekotzetik igaroz (on edo gaitz gisa) eta *ondoriora* iritsiz, hots, nahimenaren determinazio subjektibora (praktikoki ahalgarri den ongian interesa eta horretan oinarritzen den maxima). Analitikan agertzen diren esakuneez konbentzitu ahal izan denari halako alderaketek plazera ekarriko diote; izan ere, arrazoiz itxaropena pizten baitute agian inoiz arrazoimen (teoretiko zein praktiko) huts osoaren batasunaren ulermena lortu ahal izateko eta dena printzipio batetik eratorri ahal izateko; hori giza arrazoimenaren ezinbesteko premia da, zeinak bere ezagupenen batasun sistematiko osatu batean baino ez duen lortzen asebetea.

Orain arrazoimen praktiko huts baten eta horren bidez lor dezakegun ezagupenaren edukia aztertzen badugu, haren analitikak aurkeztu duen moduan, orduan aurkitzen dugu teoretikoarekin dituen analogia bitxien aldamenean horiek bezain bitxiak diren ezberdintasunak daudela. Alde teoretikoari dagokionez, *apriorizko arrazoimen-ezagupen huts baten ahalmena* zientzietatik hartutako adibideen bidez (horietan euren printzipioak era ezberdinetan erabilerara metodikoaren bidez probatzen direnez, ez dute ezagutza arrun-

tean bezain erraz arduratu behar ezagupen-oinarri enpirikoen nahasketak sekretuez) frogatu daiteke erraz eta nabarmenki. Baina *arrazoimenaren erabilera praktikoko arruntenetik* abiatuz azaldu beharko litzateke arrazoimen hutsa determinazio-oinarri enpirikoren baten nahasketarik gabe bere kabuz gainera praktikoa dela, oinarritzko esakune praktikoko gorenaren baieztatzen den heinean berezko giza arrazoimen orok erabat a priori sentimenezko ezein daturen menpe egon gabe bere nahimenaren lege goren gisa ezagutzen duen esakune gisa. Bere jatorriaren araztasunaren arabera *arrazoimen arrunt horren judizioan* gorde eta legeztatu beharko litzateke lehenik, zientziak hori eskuetan hartu aurretik hori erabili ahal izateko, bere ahalgarritasunaren arrazoikeria ororen aurretiko eta horretatik erator zitekeen ondorioztapen ororen aurretiko egitate gisa. Baina inguruar bar hori oraintsu aipatutakotik ere ongi argi daiteke, zeren arrazoimen huts praktikoa halaber beharrez zientzia orori lehen datu gisa oinarrian ezarri behar zaizkion oinarritzko esakuneetatik abiatu behar baitu, eta ez handik ondoriozta daitezkeenetatik. Baina printzipio moralen legeztapen hori, arrazoimen huts baten oinarritzko esakune gisa, ongi eta segurtasun nahikoz egin zitekeen giza adimen arruntaren judiziora joz, zeren nahimenaren determinazio-oinarri gisa gure maximetan ezkutuan sartuko litzatekeen eduki enpiriko oro berehala *ezagutarazten* baitu plazeraren eta minaren sentimenduaren bidez, zeintzuek irrika sortzen duten heinean hari itsasten zaizkion, baina arrazoimen praktikoko huts hark *aurre egiten* diola hura bere printzipioan baldintza gisa onartzeari. Determinazio-oinarrien ezberdintasuna (enpirikoaren eta arrazoizkoaren artean) hainbeste ezagutarazten da eta goratzen eta muturreraino eramaten da praktikoki legeak ematen dituen arrazoimenak nahastuko litzatekeen joera ororen aurka duen aurkakotze horren bidez eta *sentsazioaren* modu berezi baten bidez, arrazoimen praktikokoaren lege-ematearen aurretik joan beharrean haren ondorioz hertsapen gisa ondorioztatzen dena, hots, ezein gizakik joerei ez, horiek edozein modukoak direla ere, baina legeari bai dion begirunearen sentimenduaren bidez, ezen ezein giza adimenek, ezta arruntak ere, ezin baitio utzi konturatzeari erakusten zaion adibide batean nahi izatearen oinarri enpirikoen bidez aholkatuko zaiola, bai, haren erakargarritasunari jarraitzea, baina inoiz ez zaiola eskatuko arrazoimen praktikoko hutsaren legeak ez direnei *men egitea*.

Zorionaren irakaspenaren eta ohituren irakaspenaren arteko bereizkuntza, non lehenaren oinarri osoa printzipio enpirikoek ematen duten eta bigarrenean horiek esakunetxo txikienik ez duten osatzen, orain arrazoimen praktiko hutsaren analitikan horrek jorratu behar duen lehen betekizun garrantzitsuena da, non hark geometrialariak bere lanean bezain zehazki, *penagarri izateraino bezain zehazki* ere jokatu behar duen. Filosofoari, ordea, hemen (beti gertatzen denez adigai soilen bidezko arrazoimen-ezagutzan, horien eraiketakik gabe) zailtasun handiagoekin borrokatu behar duenean, oinarrian ezein begiespen ezarri ezin duenez (noumeno hutsari), laguntza hau dator-kio, alegia, kimikariak bezala beti gizaki bakoitzaren arrazoimen praktikoarekin esperimentu bat egin dezakeela, determinazio-oinarri moralak (hutsa) enpirikotik ezberdintzeko; hark, hain zuzen, enpiriko-ki afektatua den nahimenari (adibidez, gustura gezurretan arituko litzakeenari, horren bidez zerbait lor dezakeelako) lege moralak gaineratzen dionean. Karezo soluzio bati analizatzaileak azido hidroklori-koan alkalia gaineratzea bezala litzateke; azidoak berehala karea uzten du eta alkaliarekin batzen da, eta hura hondoa geratzen da. Era berean, gainerakoan gizon zintzoa denari (edo kasu honetan pentsa-menduaren bidez gizon zintzo baten tokian ezartzen denari) lege moralak aurkeztean, horren bidez hark gezurti baten duintasun eza eza-gutzen duela, haren arrazoimen praktikoak (egin beharko litzateke- nari buruzko judizioan) berehala abantaila baztertzen du, bere pertso- naren alderako begirunea ematen dionarekin batzen da (zintzotasuna- rekin), eta abantaila orain edonork estima dezake, (guztiz betebeha- rraren aldean dagoen) arrazoimenaren zatitxo oroz bakartu eta araztu den ondoren, beste kasuetan agian arrazoimenarekin lotzeko, salbu lege moralaren aurka legokeenean, arrazoimenak inoiz uzten ez duen baizik eta barne-barnean daraman horren aurka.

Baina zorionaren printzipioaren eta etikotasunaren printzipio-aren arteko *bereizkuntza* ez da horregatik berehala euren arteko *aur- kakotza*, eta arrazoimen praktiko hutsak ez du nahi zorionaren uzia uztea, baizik eta soilik hari *arretarik ez* eskaintzea, autua betebeharra denean. Ikuspunturen batean betebehara ere izan daiteke norberaren zorionaz arduratzea; aldeaz, bere betebeharraren bitartekoak biltzen dituelako (horren parte izanik trebezia, osasuna, aberastasuna), aldeaz haren faltak (adibidez, txirotasunak) bere betebeharra hausteko tenta-

zioak barnebiltzen dituelako. Baina norberaren zoriontasuna bultzatzeak ezin du bitartegabe inoiz betebeharrak izan, are gutxiago betebeharrak ororen printzipio izan. Nahimenaren determinazio-oinarriak denak, salbu arrazoimen-lege praktikoko huts bakarra (moralak), orotara enpirikoak direnez, halakoak diren aldetik, beraz, zoriontasunaren printzipioan kokatzen direnak, orduan horiek denak oinarritzko esakune etiko gorenetik baztertu behar dira, eta hartan ezin dira onartu baldintza gisa, zerengatik horrek balio etiko oro ezabatuko bailuke, nahasketan enpirikoak oinarritzko esakune geometrikoei nabaritasun matematiko oro ezabatuko liekeen bezala, matematikak bere baitan duen gauza bikainena (Platonen arabera), eta haren erabilgarritasun ororen aurretik doana.

Arrazoimen praktikoko hutsaren printzipio gorenaren dedukzioaren ordean, hau da, aprioritzko ezagutza halakoaren ahalgarritasunaren argipenaren ordean, ezingo litzateke hau baino adierazi ezen, kausa eragile baten askatasunaren ahalgarritasuna ulertuko balitz, lege moralaren ahalgarritasuna ez ezik haren beharrezkotasuna ere ulertuko litzatekeela euren nahimenaren kausalitatearen askatasuna egozten diegun zerengan arrazoidunen lege praktikoko goren gisa, bi adigaiak hain modu bereizteazinean daudelako lotuta, non askatasun praktikoa nahimenaren lege moralak ez beste guztitik duen beregaintasun gisa definitu ahal izango baikenu. Baina kausa eragile baten askatasuna, bereziki sentzuen munduan, ezin da ulertu inolaz ere bere ahalgarritasunari dago-kionez; zoriontsu ginateke nahikotasunez segurtatu ahal izango balitzagu haren ezintasunaren frogarik ez dagoela, eta gero hori postulatzeko duen lege moralaren bidez behartuak izango bagina eta horren bidez, gainera, legeztatuak izango bagina hura onartzeko. Askok direnez uste dutenak askatasun hori printzipio enpirikoen arabera argitu ahal izango dutela beste natur ahalmen bakoitza bezala, eta hura *arimaren izaeraren* eta nahimenaren bultzagaiaren azterketa zehatzagoak argituko duen ezaugarri psikologikotzat eta ez sentzuen munduan kokatzen den zerengan baten kausalitatearen predikatu *transzendental-tzat* (hori izanik hemen kontua) hartzen dutenak, eta horrela arrazoimen praktikoko hutsaren bidez lege moralaren eskutik datorkigun iriekiera ederra ezabatzen dutenak, hots, adimenduzko mundu baten iriekiera bestelakoan transzendentea den askatasunaren adigaiaren egikaritzearen bidez, eta horrela inolaz ere determinazio-oinarri enpirikorik

onartzen ez duen lege morala bera ezabatzen dutenak, bada, orduan beharrezkoa izango da hemen zerbait aipatzea ilusio horren aurkako defentsa moduan eta enpirismoa bere azalkeria gordin osoan aurkezteko.

Kausalitatearen adigaia, *natur beharrezkotasun gisa, askatasun gisa* ez bezala, gauzen existentziari baino ez dagokio, hori *denboran determina daitekeen* heinean, eta ondorioz, agerpen gisa, berbaitango gauza gisa duten kausalitateari aurkakotuz. Denboran dauden gauzen existentziaren determinazioak berbaitango gauzen determinaziotzat hartzen badira (errepresentazio era ohikoena dena), orduan ezin da kausazko erlazioetako beharrezkotasuna askatasunarekin inolaz ere bateratu; baizik eta biak kontraesankorki aurkakotzen dira. Izan ere, lehenengotik ondorioztatzen da une batean sortzen den gertaera oro eta, ondorioz, ekintza oro beharrezkoa dela aurreko unean zegoenaren baldintzapean. Eta lehenaldia nire menpe ez dagoenez, nik egiten dudak ekintza orok beharrezkoa izan behar du *nire menpe ez dauden* oinarri determinatzaileen bidez, hau da, ekiten dudak unean ez naiz inoiz askea. Gainera, nire izate osoa kausa arrotz orotatik (adibidez Jainkoarengandik) beregain gisa onartuko banu, halako moldez non nire kausalitatearen determinazio-oinarriak, nire existentzia osoa barne, ez bailirateke nigandik at izango, bada, orduan horrek natur beharrezkotasun hura ez luke gutxienean ere askatasun bihurtuko. Izan ere, beti ekintzara determinatuta egoteko beharrezkotasunaren menpe nago *nire esku ez dagoenaren bidez*, eta *a parte priori* amaigabea den gertaeren ilara, nik beti aurretik determinatutako ordena baten arabera jarraituko nukeena, inoiz ez litzatekeena berez abiatuko, naturaren kate jarraikorra litzateke eta, beraz, nire kausalitatea inoiz ez litzateke askatasun izango.

Izatea denboran determinatua duen zerizanari askatasuna egotzi nahi badiogu, orduan hori ezin da salbuetsi gutxienez bere existentziako gertaera ororen natur beharrezkotasunaren legetik eta, beraz, bere ekintzetatik; izan ere, hori ausa itsuaren eskuetan uztea bezainbat litzateke. Baina lege horrek ezinbestean gauzen kausalitate oro ukitzen duenez, horien *izatea denboran* determinagarri den heinean, orduan askatasuna adigai hutsal eta ezinezko gisa baztertu beharko litzateke, hori izango balitz *gauza horien euren baitango izatea* errepresentatzeko modua. Ondorioz, haiek salbatu nahi badira, ez dago

beste biderik gauza baten izatea, denboran determinagarria den heinean, eta ondorioz, *natur beharrezkotasunaren* legearen arabera duen kausalitatea agerpenari egoztea baino, eta *askatasuna zerizan horiei beraiei* egoztea *berbaitango gauza* gisa. Horrela da ezinbestean, bi adigai aurkakoak aldi berean mantendu nahi badira; baina aplikazioan, biak ekintza bat eta bereborean batuta eta, beraz, bateratasun hori argitu nahi bada, zailtasun handiak sortzen dira, itxuraz halako bateratasuna ezinezko bihurtzen dutenak.

Lapurreta bat egin duen gizaki batez esaten badut ezen, ekintza hori kausalitatearen natur legearen arabera aurreko garaiko determinazio-oinarrietatik sortzen den ondorio beharrezkoa dela eta, beraz, ezinezkoa zela hura egin gabe geratzea; nola sor dezake aldaketa bat hemen lege moralaren araberrako juzgaketak eta auresuposatu ezen, hura egin gabe gera zitekeela, legeak esaten duelako hura egin gabe utzi behar zela, hau da, nola dei daiteke aske norbait aldi berean ekintza berberari dagokionez, une horretan eta asmo berberari dagokionez ezinbestean natur beharrezkotasunaren menpe badago? Ihesbide bat bilatzea esanez ezen, natur legeari jarraiki zaion bere kausalitatearen determinazio-oinarriaren moduak askatasunaren adigai *konparatibo* bati egokitzen zaizkiola (horren arabera noizbehinka eragin askea deitzen dena, horren natur oinarri determinatzailea *barnean* zerizan eragilean datzala, adibidez, jaurtitzen den gorputz batek egiten duena higidura askean dagoenean, hor askatasuna hitza erabili behar denez, zeren hegan dagoenean ez baitu ezerk kanpotik bultzatzen, edo erloju baten higidura ere higidura aske deitzen dugu, zeren horrek bere orratzak bere kabuz bultzatzen baititu, eta beraz, ezin dira kanpotik bultzatu, eta era berean gizakiaren ekintzak, nahiz eta denboran aurretik doazen euren determinazio-oinarrien arabera beharrezkoak diren, hala ere aske deitzen dira, zeren geure indar propioez sortutako barne errepresentazioak baitira, inguruabar aproposetan horien bidez sortutako irrikak eta, beraz, geure apetaz sortutako ekintzak baitira), bada, hori oso laguntza txiroa da, zeinari batzuek oraindik ere eusten dioten, horrela arazo larri hura hitz joko txiki baten bidez konponduko dutela uste izanik, gizakia horren konponketan milaka urtetan aritu den arren eta, beraz, nekez izan daitekeenean guztion begi-bistan. Lege moral ororen eta horien araberrako egozpenen oinarrian ezarri behar den askatasun hari buruzko arazoan kontua ez da inolaz ere ea natur lege baten ara-

bera determinatutako kausalitatea beharrezkoa den subjektuan dauden edo bertatik at dauden determinazio-oinarrien bidez, eta lehen kasuan, ea senaren bidez edo arrazoimenak pentsatutako determinazio-oinarrien bidez den beharrezkoa; errepresentazio determinatzaile horiek gizon horien aitortpenen arabera euren existentziaren oinarria denboran baldin badute eta, gainera, *aurreko egoeran*, eta hori aurreragoko beste batean, eta abar, orduan determinazio horiek beti barnekoak izan daitezke, kausalitate psikologikoa eta ez mekanikoa izan dezakete, hau da, ekintzak errepresentazioen bidez sor ditzakete eta ez gorputzaren higiduren bidez, baina hala ere zerizan baten kausalitatearen *determinazio-oinarri* diraute beti, horien izatea denboran determinagarria den heinean, eta beraz, beharrezko bihurtzen duten lehenaldiko baldintzen menpe, zeintzuk, beraz, subjektuak ekin behar duenean, *ez dauden haren esku*, zeintzuek askatasun psikologikoa dakarten, bai (hitz hori arimaren errepresentazioen barne kateatzea aipatzeko erabili nahi bada), baina natur beharrezkotasuna ere bai, eta beraz, ez dute enpirikoa den orotatik eta, beraz, oro har naturatik beregain gisa pentsatu behar den *askatasun transzendentalerako* aukerarik uzten, hori barne sentsuaren objektu gisa ikusi denboran edo kanpoko sentsuarena bezala ere bai espazioan eta denboran aldi berean, eta a priori praktikoa bakarrik den askatasun hori gabe (benetako azken adieran) ezein lege moral, horren arabera egiten den ezein egozpen ez da ahalgarri. Horrexegatik, kausalitatearen natur legeen arabera denboran topatzen ditugun gertaeren beharrezkotasun orori *naturaren mekanismo* dei dakioke, nahiz eta horren bidez ez ulertu horren menpe dauden gauzek egiazko *makina* materialak izan behar dutela. Hemen denboraren ilaran dauden gertaeren elkarloturaren beharrezkotasuna soilik hartzen da kontuan, natur legearen arabera garatzen den moduan, garapen horren euskarri den subjektuari *automaton materiale* deitu, makina zerizana materiak higitzen duelako, edo *Leibnizekin* batera *spirituale* deitu arren, errepresentazioek higitzen dutelako, eta gure nahimenaren askatasuna azken hori baino izango ez balitz (psikologikoa eta konparatiboa den askatasuna, ez transzendentala, hau da, aldi berean absolutua), orduan funtsean ez litzateke eltze-burdina baten askatasuna baino hobeagoa, behin goratzen denean bere kabuz higitzen dena.

Aurkeztutako kasuan ekintza bat eta berberean dugun naturaren mekanismoaren eta askatasunaren arteko itxurazko kontraesana

gainditzeko arrazoimen hutsaren kritikan esan zena edo hartatik ondorioztatzen dena ekarri behar dugu gogora, ezen subjektuaren askatasunarekin batera iraun ezin duen natur beharrezkotasuna denboraren baldintzapean dagoen gauzaren determinazioei baino ez zaiola itsas-ten, eta ondorioz, subjektu ekileak agerpen den aldetik dituen, eta beraz, haren ekintza bakoitzaren determinazio-oinarriak lehenaldiari dagozkion eta *bere esku ez dauden* heinean (eta hor kokatu behar dira gainera egindako ekintzak eta horren bidez bere begien aurrean duen izaera determinagarria fenomeno gisa). Baina subjektu horrek berak, bestalde, bere buruaz berbaitango gauza gisa jabetuz, bere izatea begiratzan du, *denboraren baldintzapean ez dagoen heinean*, horrek bere buruari emandako legeen bidez determinagarri bezala, eta bere izate horretan ez dago ezer bere nahimenaren determinazioaren aurretik, baizik eta ekintza oro eta barneko sentsuaren arabera aldatzen den haren izatearen determinazio oro, baita hark sentsuen zerizan gisa duen existentziaren ilara osoa ere, ez da begiratzan haren adimenduzko existentziaren kontzientzia ilara gisa, inoiz ez hark *noumeno* gisa duen kausalitatearen determinazio-oinarri gisa. Ikuspegi horren arabera zerizan arrazoidunak arrazoiz esan dezake egiten duen lege-kontrako ekintza edozeinez ezen, agerpen gisa lehenaldian nahikoa determinatuta egon arren eta, horrenbestez, ezinbestean beharrezkoa den arren, hura egin gabe utz zezakeela; izan ere, hori horrek determinatzen duen lehenaldiko guztiarekin batera bere izaeraren fenomeno bakarrari dagokio, hark bere kabuz sortzen duena eta zeinaren arabera hark bere buruari egozten dion agerpen haien kausalitatea sentimen orotatik beregaina den kausa gisa.

Horrekin ados daude erabat kontzientzia deitzen diogun gure ahalmen harrigarri haren epaiak. Gizaki batek nahi bezain trikimailu asko erabil ditzake legearen aurkako jokaera bat, gogoan duena, xalokeria nahigabekoa, axolagabekeria gisa marrazteko bere begien aurrean, inoiz erabat ekidin ezin dena eta, ondorioz, naturaren beharrezkotasunaren indarrak hori egitera bultzatu duena, eta horri buruz bere burua errugabe adieraz dezake, baina aurkitzen du bere abantailarako hitz egiten duen legelariak bere baitan dagoen akusatzailea inolaz ere ezin duela isilarazi, ohartzen duenean oker hura egin zuen garaian bere onean zegoela eta bere askatasuna erabili zuela, eta hala ere bere jokaera gaiztoa ohitura gaizto jakin bati, pixkanaka hazten joan den

arretaren axolagabekeriagatik eskuratu duenari, *egozten* dio halako mailan ezen haren berezko ondorio gisa ikus baitezake, nahiz eta horrek hura ezin duen segurtatu bere buruari egozten dion kulparen eta gaitzespenaren aurka. Horretan oinarritzen da aspaldi egindako ekintza batek sortzen dion ausikia, hori gogora ekartzen duenero; sentsazio mingarria hori, jaidura moralak sortzen duena, praktikoki hutsala dena, gertatutakoa gertatu ez izana eragin ezin duen heinean, eta zentzugabekoa litzateke gainera (*Priestleyk* adierazten duen moduan, egiazko *fatalista* kontsekuentea den aldetik, eta duen zintzotasunagatik onespena merezi du, beste hauek baino gehiago dena den, egitatean nahimenaren mekanismoa baina hitzetan haren askatasuna egiaztatuz, hala ere askatasuna euren sistema orobiltzailean jaso nahi dutenak, halako egozpenaren ahalgarritasuna ulergarri bihurtzen ez duten arren), baina min gisa erabat zuzena da, zeren arrazoimenak gure existentzia adimenduzkoari (moralari) dagokionean ez baitu denbora-alderik ezagutzen eta soilik galdetzen baitu ea gertaera nirea den ekintza gisa, eta orduan sentsazio hori harekin moralki elkarlotzen du, orain gertatu edo aspaldi gertatu bada ere. Izan ere, *sentsuen bizitzak* bere izatearen (askatasunaren) kontzientzia *adimenduzkoari* dagokionez fenomeno baten batasun absolutua du, eta lege moralaren arabera jaiduraren (izaeraren) agerpenak baino barnebiltzen ez dituen heinean, ez da juzgatu behar hari agerpen gisa dagokion natur beharrezkotasunaren arabera, baizik eta askatasunaren berezkotasun absolutuaren arabera. Gainera, onar daiteke ezen, gure esku balego gizaki baten pentsaeran, barneko zein kanpoko ekintzen arabera erakusten den moduan, hain ulermen sakona izatea non horren bultzagai oro, txikiena ere, ezaguna izango baitzaigu, baita horretan eragiten duten kanpoko egoerak ere, orduan gizaki batek etorkizunean izango duen jokaera ziurtasunez kalkula liteke, ilargia edo eguzkiaren estalketa bezala, eta hala ere baieztatuko genuke gizakia askea dela. Gai izango bagina gai berberaren beste ikuspegi bat izateko (hala ere, noski, esleitu ez zaiguna; horren ordeztarrazoimen-adigaia baino ez dugu), hots, begiespen adimenduzkoa bagenu, orduan konturatuko ginateke beti lege moralaren kontu baino izan ezin denari dagokion agerpenen kate oso hori subjektuaren berezkotasunaren menpe dagoela berbaitango gauza den aldetik, eta ezin da ezein argibide fisikorik eman horren determinazioaz. Begiespen horren faltan lege moralak segurtatzen digu gure ekintzek agerpen gisa gure subjektuaren sentimenezko zeri-

zanarekin duten harremana eta sentimenezko zerizan horrek berak gugan dagoen eustazpi adimenduzko horrekin duen harremanaren arteko aldea. Gure arrazoimenari berezkoa zaion ikuspegi horretatik, argiezina bada ere, zuzentasun osoz egin diren arren lehen begiratuan neurritasun orenen aurka dauden juzgaketak ere legezta daitezke. Badaude kasuak non gizakiek, haurtzarotik besteentzat emankorra zen hezkuntza bat izan arren, berehala gaiztotasuna erakusten duten eta heldutasunerako bidean hainbeste okertzen diren, ezen haiek izatezko deabruzat eta, pentsaerari dagokionez, erabat hobetu ezinezkotzat hartzen baitira, eta hala ere egiten dutenaren eta egiten ez dutenaren arabera epaitzen dira, ekintza gaiztoak hoben gisa egotzen zaizkie, eta haurrak berak dira egozpen horiek guztiz oinarrituta aurkitzen dituztenak, euren gogamenari itsatsi zaion natur eraketa etsitua alde batera utziz beste edozein gizaki bezain erantzule balira bezala. Horrek ezin go luke gertatu, ez bagenu auresuposatu ezen, euren nahieratik sortzen den orok (nahita egin duten ekintza oro bezala zalantzarik gabe) kausalitate aske bat duela oinarrian, lehen gaztarotik euren izaeran adierazten dena euren agerpenetan (ekintzetan), jokaeraren erabatekotasunarengatik natur lotura bat erakusten duten agerpenetan, hain zuzen, baina horrek nahimenaren eraketa gaiztoa ez du beharrezko bihurtzen, baizik eta askeki onartu diren oinarritzko esakune gaizto eta aldaezinen ondorioa da, eta horiek hura are gaitzesgarriago eta zigorgarriago bihurtzen dute.

Baina oraindik ere beste zailtasun bat aurkitzen du askatasunak bidean, sentsuen munduko zerizan batean natur mekanismoarekin bateratu behar bada; zailtasun horrek, aurreko guztia onartu arren, askatasunari bere hondamen osoarekin egiten dio mehatxu. Baina arrisku horretan inguruabar batek aldi berean askatasunaren baieztapenerako irtenbide zoriontsu izango dena lortzeko itxaropena ematen du, hots, zailtasun horrek berak askoz ere era indartsuagoan estutzen duela (egitatean berehala ikusiko dugunez hori soilik) denboran eta espazioan determinagarri den existentzia berbaitango gauzen existentziatzat hartzen duen sistema, eta beraz, ez gaitu behartzen denboraren idealtasunaren auresuposizio bikainena baztertzeraz begiespenaren sentimenezko forma soil gisa, eta ondorioz, subjektuari sentsuen munduan kokatzen den heinean dagokion errepresentazio-modu soil gisa, eta beraz, hura ideia horrekin bateratzea baino ez du eskatzen.

Onartzen bazaigu, hain zuzen, adimenduzko subjektua ekintza jakin bati dagokionez askea izan daitekeela, nahiz eta sentsuen munduan kokatzen den subjektu gisa ekintza horri dagokionez mekaniko ki baldintzatua dagoen, itxuraz hala ere onartu behar da ezen, *Jainkoa* jatorrizko zerizan orokor gisa *substantziaren existentziaren kausa* dela onartzen den bezain pronto (inoiz utzi ezin den esakunea aldi berean Jainkoaren adigaia utzi gabe zerizan ororen zerizan gisa eta, beraz, haren oroaskitasuna utzi gabe, hori izaki teologiaren mamia), gizakien ekintzek hartan dutela euren oinarri determinatzailea, *erabat haien esku ez dagoena*, hots, haietatik ezberdintzen den zerizan goren baten kausalitatean, zeinaren menpe dagoen lehenaren izatea eta horren kausalitatearen determinazio osoa. Egitatean, gizakiaren ekintzak, denboran dituzten determinazioei dagokien bezala, haren determinazio soilak ez balira agerpen gisa, baizik eta berbaitango gauzak balira, orduan askatasuna ezingo litzateke salbatu. Gizakia txotxongiloa litzateke, edo Vaucanson-en automata²¹, antzezlan guztien maisu gorenak osatua eta zutik ezarria, eta autokontzientziak automata pentsatzaile bihurtuko luke, baina horren berezkotasunaren kontzientzia askatasuntzat hartuko balitz, hori ilusio soil a baino ez litzateke, konparatiboki baino ez duelako merezi horrela deitua izatea, zeren bere higiduraren kausa determinatzaile hurbilenak eta bere kausa determinatzailearen ilara luzea barnekoak badira ere, azkena eta gorena, ordea, beste esku batetan baitago. Horregatik, ez dut ulertzen nolatan saihestu nahi duten hemen ekintzen halabeharra oraindik ere denbora eta espazioa berbaitango gauzan izateari dagozkion determinazio gisa ikusten dutenek, edo nolatan legeztatu nahi duten (bestela zorrotza den Mendelsshonek egiten duen moduan) honako bereizketa egiteko eskumena, alegia, biak zerizan mugatu eta eratorrien existentziari halabeharrez dagokien baldintzak direla baina ez jatorrizko zerizan amaigabeari, edo nolatan ekidin nahi duten sortzen duten kontraesana, hain zuzen, denboran izatea berbaitango gauza mugatuei halabeharrez itsasten zaien determinazio gisa ikusten dutenean, Jainkoa izate horren kausa denez, baina denboraren (edo espazioaren) kausa izan ezin duenez (hori beharrezko baldintza gisa a priori gauzen izateari auresuposatu behar zaiolako), ondorioz horren kausalitateak gauza horien existentziari dagokionez denboraren arabera ere baldintzatua izan behar duela, baina orduan haren amaigabetasunaren eta beregaintasunaren adigaien aurkako kontraesan guztiak ezinbestean ager-

tuko direla. Aitzitik, guri oso erraza zaigu, jainkotiar existentziaren determinazioa denbora-baldintza guztietatik beregain gisa sentsuen munduko zerizan batetik bereiztea, *berbaitango zerizan baten* eta *agerpenean den* gauza baten arteko bereizketa gisa. Horregatik, denboraren eta espazioaren idealtasun hura onartzen ez bada, *espinozis - moa* baino ez zaigu geratzen, non espazioa eta denbora jatorrizko zerizanaren funtsezko determinazioak diren, baina horretatik beregain diren gauzak (geu ere bai) ez diren substantziak, baizik eta hari itsasten zaizkion akzidenteak besterik ez, zeren eta, gauza horiek hark *denboran* dituen eragin gisa baino ez badira existitzen, hori izaki haien existentziaren baldintza, orduan zerizan horien ekintzek ere haren ekintzak izan beharko bailukete, hark nonbait eta noizbait egin zituenak. Horregatik, espinozismoak, oinarritzko ideia- zentzugabekeria alde batera utziz, sorkuntzaren teoriaren arabera baino hobeto arazoitzen du, non substantzia gisa onartzen diren eta bere baitan *denboran existitzen diren zerizanak* kausa goren baten eragin gisa ikusten diren, eta aldi berean, ordea, ez diren ikusten hari eta haren ekintzari lotuta, baizik eta bere kabuz diren substantzia gisa.

Lehenago aipatu dugun arazoaren konponbidea honela lortzen da laburki eta argiki: *denboran den* existentzia munduko zerizan pentsatzailearen errepresentazio- era sentimenezko soila bada, eta ondorioz, zerizan horiekin zer ikusirik ez badu berbaitango gauzak bezala, orduan zerizan horien sorkuntza berbaitango gauzen sorkuntza da; zeren sorkuntzaren adigaia ezin baitzaio lotu existentziaren errepresentazio- era sentimenezkoari eta kausalitateari, baizik eta noumenoei besterik ez. Ondorioz, sentsuen munduko zerizanei buruz esaten badut sortuak direla, orduan noumeno gisa hartzen ditut. Jainkoa agerpenen sortzaile dela esatea kontraesana zen, eta era berean da kontraesana sentsuen munduko ekintzen kausa dela esatea sortzaile gisa, eta beraz, agerpenen kausa, nahiz eta zerizan ekilearen (noumeno gisa) izatearen kausa izan. Askatasuna ekintzek agerpen gisa duten natur mekani- smoa ukitu gabe baieztatu badaiteke (denboran izatea agerpenei soilik dagokien, ez berbaitango gauzei dagokien zera bezala onartzen bada), orduan zerizan ekileak sorkariak izateak ez du hor alde txikienik sortzen, zeren sorkuntzak haien adimenduzko existentzia ukitzen baitu, ez sentimenezkoa, eta beraz, ezin baita ikusi agerpenen determinazio- oinarri gisa; oso bestela gertatuko litzateke munduko zerizanak ber-

baitango gauza gisa *denboran* existituko balira, zeren substantziaren sortzailea aldi berean substantzia horren makinazko zerizan osoaren egilea bailitzateke.

Hain da garrantzitsua arrazoimen espekulatiboaren kritikan denbora (nahiz espazioa) berbaitango gauzen existentziatik erauzi izana.

Esango da hemen azaldu dugun arazoaren konponbideak zailtasun handiagoak barnebiltzen dituela eta ia ezinezkoa dela horren aurkezpen argi bat egitea. Baina egiten saiatu garen edo saiaturik garen beste konponbide errazago eta ulergarriagorik ba al dago? Horren ordeztasun nahiko litzateke metafisikaren irakasle dogmatikoei hor euren azerikeria erakutsi dutela zintzotasuna baino, kontu zail hori begietatik al bait urrun uztean zera itxaroten baitzuten, hots, horri buruz hitz egiten ez bazuten inork ez zuela erraz pentsatuko horretan. Jakintza bati lagundu behar bazaio, orduan zailtasun guztiak *aurkitu* behar dira eta bereziki ezkutuan bidean dituenak *bilatu* behar dira; izan ere, horietako bakoitzak lagungarri bat eskatzen du, zeina ezin den aurkitu jakintzari hedaduran edo determinatutasunean handitze bat sortu gabe, eta beraz, oztopoak jakintzaren oinarritzotasunaren bultzatzaile bihurtu daitezke. Aitzitik, zailtasunak nahita ezkututzen badira, edo aringarrien bidez kentzen badira, horiek motzean edo luzean gaitz sendaezin bat sortzen dute, jakintza eszeptizismo oso batean hondoratzen duen gaitza.

* * *

Egiatan askatasunaren adigaiak denez, arrazoimen espekulatibo hutsaren ideia guztien artean, sentimenterik haratagoko eremuan hain zabalpen handia sortzen duena, ezagutza praktikoa baino ez dagoen arren, orduan galdetzen dut *nondik datorkion hari bakarrik hain emankortasun handia*, besteek berriz adimenaren zerizan ahalgarriek bete ditzaketan kokaleku hutsak izendatzen dituzten baina horien adigaiak inolaz ere determinatu ezin duten bitartean. Nik berehala aditzen dut ezen, kategoriarik gabe ezer pentsatu ezin dudanez, hemen jorrazten dudana askatasunarena ere arrazoimenaren ideian bilatu behar dela lehenik, hemen *kausaltatearen* kategoria dena, eta, askatasunaren *arrazoimen-adigaiari* adigai transzendentea den aldetik ezin zaio la begiespen egokiturik menpekotu, baina *adimenaren adigaiari* (kausaltatearenari), horren sintesirako hark baldintzatugabea eskatzen

duenez, aurretik sentimenezko begiespena eskuratu behar zaiola, horrela hari lehenik errealitate objektiboa segurtatzeko. Baina kategoria guztiak bi taldetan sailkatzen dira, *matematikoak*, objektuen errepresentazioan gertatzen den sintesiaren batasuna jorratzen dutenak, eta *dinamikoak*, objektuen existentziaren errepresentazioa jorratzen dutenak. Lehenek (handiera eta nolakotasunarenak) beti *erabatekoa* -ren sintesia jasotzen dute, non sentimenezko begiespenean dugun baldintzatuaren baldintzatugabea espazioan eta denboren ezin den aurkitu, zeren horiek euren aldetik espazioan eta denboran kokatzen baitira eta, beraz, beti baldintzatuak izan behar baitute; horregatik, arrazoimen teoretiko hutsaren dialektikan bi modu aurkakotuak, baldintzatugabea bilatzea eta horrentzat baldintzen osotasuna bilatzea, faltsuak ziren. Bigarren motako kategoriek (gauza baten kausalitatearenak eta beharrezkotasunarenak) ez dute eskatzen erabatekotasun hori inolaz ere (baldintzatua dena eta baldintzarena sintesian), zeren hemen ez baita begiespena errepresentatu behar, anitza denetik nola osatzen den erakutsiz, baizik eta hari dagokion objektu baldintzatuaren existentzia nola gaineratzen zaion baldintzaren existentziari (adimenean harekin elkarlotuta), eta han baimendua zegoen sentsuen munduan erabat baldintzatua denari (bai kausalitateari dagokionez baita gauzen ausazko izateari dagokionez ere) baldintzatugabea ezartzea mundu adimenduzkoan, modu determinatugabean bada ere, eta horrela sintesia transzendente bihurtzea; horregatik, bada, arrazoimen espekulatibo hutsaren dialektikan ere aurkitzen genuen ezen, itxuraz baldintzatuarentzat baldintzatugabea bilatzeko bi mota aurkakotuak egitatean ez direla kontraesaten, adibidez, kausalitatearen sintesian baldintzatuarentzat sentsuen munduko kausen eta eraginen ilarari sentimenak baldintzatzen ez duen kausalitatea pentsatzea, eta ekintza berberak, sentsuen mundukoa denean sentimenak baldintzatzen duenak, hau da, mekanikoki beharrezkoa denak, aldi berean zerizan ekilearen kausalitaterari dagokionez, adimenduzko mundukoa den heinean, sentimenak baldintzatzen ez duen kausalitatea duela oinarrian, eta beraz, aske gisa pentsa daitezkeela. Baina kontua zen *ahal* hori *izate* bat bihurtzea, hau da, benetako kasu batean egitate baten bidez froga daitezkeela ezen, ekintza jakin batzuek halako kausalitatea aurresuposatzen dutela (adimenduzkoa, sentimenak baldintzatzen ez duena), horiek errealak izan edo agindutakoak soilik izan, hau da, objektiboki praktikoki beharrezkoak izan. Esperientzian benetan izan diren gerta-

eretan, sentsuen munduko gertaera gisa, ezin genuen itxaron elkarke-
ta hori topatzea, zeren kausalitate askea beti sentsuen mundutik at adi-
menduaren eremuan bilatu behar baita. Baina sentsuen mundutik at
dauden beste gauzarik ez dugu hautemapenean eta behaketan. Beraz,
kausalitatearen oinarritzko esakune errefusaezina eta, gainera, objekti-
boa bilatu baino ezin zen egin, zeinak bere determinaziotik sentime-
nezko baldintza oro bazterten duen, hau da, oinarritzko esakune bat
non arrazoimenak ez duen *beste* ezer eskatzen determinazio-oinarri
gisa kausalitateari dagokionez, baizik eta hark oinarritzko esakune
horri esker barnebiltzen duena besterik ez, eta non *arrazoimen huts*
gisa hori bere kabuz praktikoa den. Baina oinarritzko esakune horrek
ez du behar bilaketarik eta asmaziorik; aspalditik dago gorpuztuta
gizaki guztien arrazoimenean eta euren zerizanean, eta *etikotasunaren*
oinarritzko esakunea da. Beraz, kausalitate baldintzatugabe hura eta
haren ahalmena, askatasuna, eta horrekin batera zerizan bat (neu),
sentsuen munduan dagoena eta aldi berean adimenduzko munduan, ez
da determinatugabeki eta problematikoki *pentsatzen* (hori arrazoimen
espekulatiboak jo zuen egingarritzat), baizik eta haren kausalitatearen
legeari dagokionez ere determinatuki eta asertorikoki *ezagutzen* da,
eta horrela, adimenduzko munduaren errealtatea ematen zaigu, eta
gainera, ikuspegi praktikoan determinatua, eta determinazio hori,
asmo teoretikoan *transzendentea* izango litzatekeena (mundu honeta-
tik haratagokoa), asmo praktikoan *immanentea* da. Baina halako urra-
tsa ezin genuen egin bigarren ideia dinamikoari dagokionez, hots,
zerizan beharrezko batenari dagokionez. Sentsuen mundutik ezingo
genuke harengana iritsi lehen ideia dinamikoaren bitartekaritzarik
gabe. Izan ere, saiatu nahiko bagenu, orduan eman zaigun guztia uzte-
ko jautzia egin beharko genuke eta adimenduzko zerizan horrek sen-
tsuen munduarekin duen elkarketa bideratzeko bitartekorik ez dugun
gunera jo (zeren zerizan beharrezkoa *gugandik at* balitz bezala ezagu-
tu beharko bailitzateke); hori, aitzitik, *geure* subjektu *propioari* dago-
kionez bada ahalgarri, hori lege moralaren bidez *alde batetik* zerizan
adimenduzko gisa (askatasunari esker) determinatzen den heinean, eta
bestalde, determinazio horren arabera bere burua sentsuen munduan
ekile gisa ezagutzen duen heinean, orain begi-bistan dugun moduan.
Askatasunaren adigaiak soilik ahalbidetzen digu gugandik at irteteko
beharrak ez izatea baldintzatua eta sentimenezkoa denarentzat baldin-
tzatugabea eta adimenduzkoa aurkitzeko. Izan ere, geure arrazoimena

bera da lege goren eta baldintzatugabeki praktikoari esker bere burua eta lege horretaz jabetzen den zerizana (geu) ezagutzen duena adimenaren mundu hutsekoa bezala, eta gainera, halakoa izanik hori ekile izateko modua determinatuz. Horrela adi daiteke arrazoimen osoan *praktikoa* baino ezin dela izan sentsuen mundutik haratago iristen laguntzen diguna eta sentimenetik haratagoko ordena eta elkarketa baten ezagutzak eskuratzen dizkiguna, hain zuzen horregatik asmo praktikoarentzat beharrezkoa denera baino ezin hedatu direnak.

Zilegi bekit ohar bakar bat egitea kontu horri buruz, hots, arrazoimen hutsarekin egiten den urrats bakoitza, baita eremu praktikoan ere, espekulazio sotalari arretarik eskaintzen ez dion horretan, oso zehazki eta, gainera, berez arrazoimen teoretikoaren kritikaren une orori lotzen zaiola, urrats bakoitza ongi pentsatutako arduraz hari baieztapena lortzeko asmatua izango balitz bezala. Inolaz ere bilatu ez den (norberak lor dezake konbentzimendua, azterketa moralak euren printzipioetaraino jarraitu besterik ez du egin behar), baizik eta berez gertatzen den bateratze zehatzak, arrazoimen praktikoaren esakune garrantzitsuenaren eta arrazoimen espekulatiboaren kritikaren sarri sotilegi eta alferrikako diruditen oharren artekoak, harritu egiten du eta miresten du eta indartzen du besteek ezagutu duten eta goraipatu duten maxima, hots, azterketa zientifiko orotan zehaztasun eta irekitasun al bait handienarekin egitea bidea lasai-lasai, bere eremutik at legokeen eragozpenari arretarik eskaini gabe, baizik eta azterketa bere kabuz ahal duen neurrian egiaz eta osorik osatuz. Behaketa sarriak konbentzitu nau honetaz, hots, eginkizun hori osatzen bada, hura betetzen nengoenean zalantzarri zirudiena beste irakaspenen aldean, baldin eta zalantza horiek azterketa osatu artean baztertzen banitu eta nire lanari soilik arreta eskainiko banio, bada, azkenean, itxaron ezin zen moduan, hura erabat ados legokeela irakaspen haiei arretarik eskaini gabe, haien zaletasunik gabe eta haiei lehentasunik eman gabe berez aurkituko litzatekeenarekin. Idazleek zenbait errakuntza, zenbait alferrikako ahalegin aurreztuko lituzkete (ahaleginok ilusio bati eusten ziotelako), erabaki ahal izango balute jarrera irekiago batekin jardutea.

BIGARREN LIBURUA

Arrazoimen praktiko hutsaren dialektika

LEHEN ATALA

Arrazoimen praktikoaren dialektikaz, oro har

Arrazoimen hutsak beti dauka dialektika bat, bai horren erabilerera espekulatiboa aztertzen denean baita praktikoa aztertzen denean ere; izan ere, hark baldintzen osotasun absolutua eskatzen du baldintzatu jakin batentzat, eta hori berbaitango gauzetan baino ezin da aurkitu. Baina gauzen adigai oro begiespenei lotu behar zaienez, giza-kiongan sentimenezkoak baino izan ezin dutenei, eta beraz, objektuak ezin direnez ezagutu berbaitango gauzak bezala, baizik eta soilik agerpen gisa, zeinen baldintzatuaren eta baldintzen ilaran inoiz ezin den topatu baldintzatugabea, orduan ezinbesteko lilura bat sortzen da baldintzen osotasunaren (eta beraz, baldintzatugabearen) arrazoimen-ideia hori agerpenei aplikatzean berbaitango gauzak balira bezala (izan ere, horrelakotzat hartzen dira beti hori ohartarazten duen kritika baten faltan), baina lilura hori inoiz ez litzateke iruzurtitzat hartuko, horrek bere burua salatuko ez balu arrazoimenak bere buruarekin duen *gatazka* baten eskutik agerpenei bere oinarrizko esakunea aplikatzen dienean, alegia, baldintzatu orori baldintzatugabea auresuposatzea. Horren bidez, ordea, arrazoimena behartuta dago lilura hori aztertzeraz, nondik datorren eta nola gaindi daitekeen, eta hori arrazoimen huts osoaren kritika osatu baten bidez baino ezin da gertatu; hala-ko moldez non arrazoimen hutsaren antinomia, dialektikan azaltzen dena, egitatean giza arrazoimenak inoiz egin duen akats ongileena baita, azkenik bultzatzen gaituelako labirinto horretatik ateratzeko gil-

tza bilatzera, eta horrek, aurkitzen denean, gainera bilatzen ez zena baina behar zena topatzen du, hots, gauzen ordena garaiago, aldaezin baten ikuspegia, non gu dagoeneko bizi garen, eta gure izateak hor aurrera egin ahal izango du arrazoimenaren determinazio gorenaren arabera arau determinatuen bidez.

Arrazoimen hutsaren kritikan ikus daiteke bete-betean nola konpontzen den arrazoimen hutsaren erabilera espekulatiboan berezko dialektika hura eta nola ekidin daitekeen berezko lilura batetik sortzen den errakuntza. Baina arrazoimena ez dabil ezertxo ere hobeto erabilera praktikoa. Arrazoimen praktikoko huts gisa praktikoki baldintzatua denarentzat baldintzatugabea bilatzen du era berean, eta gainera, ez nahimenaren determinazio-oinarri gisa, baizik eta, hori eman da dagoenean ere (lege moralean), arrazoimen praktikoko hutsaren *objektuaren* osotasuna bilatzen du, *ongi gorenaren* izenpean.

Idea hori praktikoki, hau da, gure arrazoizko jokaeraren maximarentzat nahikoa determinatzea da *jakituriaren irakaspena*, eta hori bere aldetik *jakintza* gisa *filosofia* da antzinakoek hitzari ematen dioten adieran, zeinentzat hura ongi gorena zein adigaitan jarri behar zen eta zein jokaeraren bidez lortzen zen irakastean zetzan. Ona litzateke hitz hori bere adiera zaharrean mantenduko bagenu, *ongi gorenaren irakaspén* gisa, arrazoimenak saiatzen duen heinean hori *jakintza* bihurtzea. Izan ere, alde batetik itsatsitako baldintza murriztailea adierazpen grekoari (jakituriari maitasuna esan nahi baitu) egokituko litzaioke eta aldi berean, hala ere, nahikoa litzateke *jakintzari*, eta beraz, arrazoimenaren ezagutza espekulatibo orori zaion maitasuna, adigai harentzat nahiz determinazio-oinarri praktikoaarentzat erabilgarri den heinean, filosofiaren izenpean elkar biltzeko, eta hori dena jakituriaren irakaspena izena eman ahal dion xede nagusia begietatik galdu gabe. Bestalde, ez litzateke txarra bere buruari filosofoaren titulua emateko ausardia izango lukeen haren hantustea zapuztea hari bere uziak asko behekituko lituzkeen norberaren estimuaren neurria definizioan bertan erakutsiz; izan ere, *jakituriaren irakasle* izateak ikasle bat izatea baino zerbait gehiago esan nahi beharko luke, azken horrek ez baitu lortu bere burua, are gutxiago besteena, hain xede garaira gidatzea itxaropen seguruz; hark adierazi beharko luke *jakituraren ezagutzan maisu* dena, eta horrek gizon umil batek bere burua-arentzat eskatuko lukeena baino gehiago esan nahi du, eta horrela filo-

sofiak nahiz jakituriak ideal bat izaten iraungo lukete, zeina objektiboki arrazoimenean baino ez den errepresentatzen osoki, baina subjektiboki, pertsonarentzat, bere ahalegin etengabeen helburua baino ez den, eta filosofo baten izen puztua jasoz haren jabegoa hartu ahal izateko horrek norberarengan duen eragin ezinbestekoa erakutsi behar du adibide gisa (norberaren buruaren nagusi izatean, eta bereziki ongi orokorrean duen interes zalantzaezinean), hori eskatzen baitzuten antzinakoek ere ohorezko izen hura merezi ahal izateko.

Arrazoimen praktiko hutsaren dialektikari dagokionez, aurretik beste ohar bat egin behar dugu, *ongi gorenaren* adigaiaren determinazioa dela eta (horren konponketa arrakastatsua baldin bada, eragin ongileena itxaron daiteke alde teoretikoan gertatzen den moduan, arrazoimen praktiko hutsak bere buruarekin dituen kontraesanen aurkezpen zuzen eta argiak bere ahalmen propioaren kritika oso bat egi-tera behartzen baitu).

Lege moralak da nahimen hutsaren determinazio-oinarri bakarra. Baina hori formala baino ez denez (hots, maximaren forma baino ez du sustatzen orokorki lege-emaile gisa), orduan determinazio-oinarri gisa materia oro baztertzen du, eta beraz, nahi izatearen objektu oro. Eta beraz, ongi gorenaren arrazoimen praktiko huts baten *objektu* osoa izan daiteke, hau da, nahimen huts batena, baina ezin da horregatik haren *determinazio-oinarritzat* jo, eta lege moralak baino ez da hura eta haren eragina edo sustapena norberaren objektu bihurtzeko oinarria. Ohar horrek garrantzi izugarria du hain kasu labairnean, printzipio etikoen determinazioa den moduan, non gaizki-ulertze txikiak ere jaidurak faltsutzen dituen. Izan ere, analitikari esker ikusiko zen lege moralaren aurretik objekturen bat objektu onaren izenpean nahimenaren determinazio-oinarri gisa onartzen bada eta horretatik, orduan, printzipio praktiko garaiena eratortzen bada, horrek beti heteronomia sortuko lukeela eta printzipio moralak baztertuko lukeela.

Baina berez ulertzen da ezen, ongi gorenaren adigaian lege moralak baldintza goren gisa jasotzen bada, orduan ongi gorenaren ez dela *objektu* soilak, baizik eta haren adigaia, eta gure arrazoimen praktikoa ahalbidetzen duen haren existentziaren errepresentazioa aldi berean nahimen hutsaren *determinazio-oinarria* da, zeren egitatean adigai horretan dagoeneko jasota dagoen eta aldi berean pentsatzen den lege moralak determinatzen baitu nahimena autonomiaren printzipioaren

arabera, ez beste ezein objektuk. Nahimenaren determinazioaren adigaien ordena hori ezin da begietatik galdu, zeren bestela norberaren burua gaizki ulertzen baita eta norberaren burua kontraesaten dela uste baita, dena elkarrekin harmonia beteginean dagoenean.

BIGARREN ATALA

Arrazoimen praktikoaren dialektikaz ongi gorenaren adigaiaren determinazioan

Gorenaren adigaiak bi zentzu barnebiltzen ditu eta horrek behargabeko gatazkak sor ditzake arretarik eskaintzen ez bazaio. Gorenak garaiena (*supremum*) esan nahi dezake edo osatua (*consummatum*) esan nahi dezake. Lehena baldintzatugabea den baldintza da, beste baldintza bati menpekotzen ez zaiona (*originarium*); bigarrena era berbereko osotasun handiago baten zati ez den osotasuna (*perfectissimum*). Analitikan frogatu dugu *bertutea* (zoriontsu izateko duintasun gisa) desiragarria iruditzen zaigun guztiaren eta zoriona lortzeko egiten dugun ahalegin guztiaren *baldintza garaiena* dela, eta beraz, ongi *garaiena* dela. Horrenbestez, ez da oraindik ongi oso eta osatua, ordea, zerizan mugatu arrazoidunen desiramenaren objektu gisa; izan ere, hori izateko *zoriona* ere eskatzen da eta ez bere burua xede bihurtzen duen pertsonaren begi alderdikoieta, baizik eta alderdirik ez duen arrazoimen baten judizioan, hura oro har munduan bere horretan ikusten duena. Izan ere, zorionaren premia izatea, hura izateko duin izatea, baina hura ez izatea ezin da bateratu aldi berean botere osoa lukeen zerizan arrazoidun baten nahi izate beteginarekin, horrelakorik saiatzeko besterik gabe pentsatuko bagenu ere. Bertuteak eta zorionak elkarrekin pertsona batean ongi gorenaren jabegoa osatzen duten heinean, eta hor zorionak zehatz-mehatz etikotasunaren proportzioan banatuta (pertsonaren balio gisa eta haren zoriontsu izateko duintasun-

narena) mundu ahalgarri baten *ongi gorena* osatzen duenez, orduan horrek osotasuna, ongi osatua esan nahi du, non bertutea beti baldintza gisa ongi garaiena den, horrek bere gainean beste baldintzarik ez duelako, baina zoriona hura duenarentzat beti gustagarri da, ez bere kabuz eta oro har eta ikuspegi orotan ona, ordea, baizik eta beti legezko jokaera morala auresuposatzen du baldintza gisa.

Adigai batean *halabeharrez* lotzen diren bi determinazio oinarri eta ondorio gisa elkarlotzen dira, eta gainera halako moldez non *batasun* hori *analitiko* bezala (elkarlotura logikoa) ikusten baita edo *sintetiko* bezala (lotura erreala), hura identitatearen legearen arabera, beste hori kausalitatearen legearen arabera. Bertutea eta zorionaren arteko elkarlotura bi eratara uler daiteke: bertutetsu izateko ahalegina eta zoriona lortzeko arrazoizko ahalegina ekintza berbera balira bezala, ez bi ekintza ezberdin, lehenaren oinarrian azkenaren oinarrian ezarri beharreko maxima ez den beste bat ezartzeko beharrik ez dagoenez, edo elkarlotura hura honetan datza, hots, bertuteak zoriona sortzen duela lehenaren kontzientziatik ezberdintzen den zerbait bezala, kausa ondoriotik bezala.

Antzinako eskola grekoen artean benetan bi besterik ez ziren ongi gorenaren adigaiaren determinazioan metodo berbera jarraitzen zutenak, bertutea eta zoriona ongi gorenaren bi osagai ezberdin bihurtu gabe, eta beraz, printzipioaren batasuna bilatuz identitatearen erregelaren arabera, baina honetan ezberdintzen ziren, hots, bien artean oinarritzko adigai ezberdina aukeratu zutela. *Epikuroarrak* zioen zorionera daraman norberaren maximaz jabetzea zela bertutea; *estoiakoak* zioen norberaren bertuteaz jabetzea dela zoriona. Lehenarentzat *zuhurtasuna* zen etikotasuna; bigarrenarentzat, bertutearentzat izendapen garaiaigo bat aukeratu zuenarentzat, *etikotasuna* soilik zen egiazko jakituria.

Penagarri da gizon horien zorroztasuna (nahiz eta aldi berean harrigarria izan haiek antzinako garai haietan lorpen filosofikoetara iristeko pentsa zitezkeen bide guztiak probatu izana) zorigaiztoko eran aplikatu izana guztiz ezberdinak diren adigaien artean, zorionaren eta bertutearen artean, identitatea asmatzeko. Haien garaiko espiritu dialektikoari ongi zegokion orain ere buru sotilak batzuetan nahasten dituen hau, hots, printzipioetan dauden bereizketa funtsezko eta inoiz batera ezin direnak honela gainditzea, alegia, haiek hitzeko gatazka

bihurtzen saiatuz eta horrela itxuraren arabera izendapen ezberdinen azpian adigaiaren batasuna asmatuz, eta horrek arrunki honako kasuak ukitzen ditu, oinarri ezberdinen bateraketa hain sakonean edo hain goian datzanean, edo sistema filosofikoan bestelakoan onartzen diren irakaspenen eraldaketa hain osoa eskatuko lukeenean, non bel-dur baikara bereizketa errealean sakontzeko eta nahiago baita hori alderdi formalen bateratasun eza gisa jorratzea.

Bi eskolak bertutearen eta zorionaren printzipio praktikoen berberatasuna asmatzen saiatzen ziren arren, ez zeuden ados identitate hori hertsatzeko moduari zegokionez, baizik eta izugarri ezberdintzen ziren euren artean, bata printzipioa alde estetikoan, besteak alde logikoan ezarriz, bata sentimenezko premiaren kontzientzian, besteak arrazoimen praktikoak sentimenezko determinazio-oinarri orotatik duen beregaintasunean. *Epikuroarren* arabera bertutearen adigaia norberaren zoriona sustatzeko maximan dago jasota; zorionaren sentimendua, ordea, *estoikoen* arabera norberaren bertutearen kontzientzian dago jasota. Baina beste adigai batean jasota dagoena jasotzen duenaren zati batekin berdintzen da, baina ez haren osotasunarekin, eta bi osotasun gainera zehazki ezberdinak izan daitezke, eduki berbera izan arren, hain zuzen, horien zatiak osotasunarekin modu erabat ezberdinetan lotzen direnean. Estoikoak baieztatzen zuen bertutea zela *ongi goren osoa* eta zoriona haren jabegoaren kontzientzia soilak subjektuaren egoerari dagokion heinean. Epikuroarrak baieztatzen zuen zoriona zela *ongi goren osoa*, eta bertutea hura lortzeko maximaren forma besterik ez zela, hots, hura lortzeko bitarteko arrazoizkoena.

Baina analitikak argitu du bertutearen maxima eta norberaren zorionaren maxima oso ezberdinak direla euren printzipio praktikotara garaienari dagokionez, eta inolaz ere ez dira berbera baizik eta subjektu berberean elkar murrizten eta oztopatzen dira, nahiz eta ongi goren bati dagozkion, azken hori ahalbidetzeko. Beraz, galdera honek, hau da, *nola da praktikoki ahalgarri ongi gorena?*, erantzunik gabeko eginkizun izaten irauten du orain arte egin diren *bateratze-saiakuntza* guztiak gorabehera. Baina analitikan aipatu da zerk bihurtzen duen hori betetzeko eginkizun zaila, hots, zoriona eta etikotasuna ongi gorenaren bi osagai erabat *ezberdinak* direla, eta euren lotura *ezin* dela *analitikoki* ezagutu (adibidez, norberaren zoriona bilatzen duenak

bere jokaera horretan bere adigaien analisi soilaren bidez bertutea aurkituko balu bezala, edo bertuteari jarraiki zaionak jokaera horretaz jabetuz dagoeneko *ipso facto* zoriona aurkituko balu bezala), baizik eta adigaien *sintesi* bat dela. Baina lotura hori a priori eta, beraz, praktikoki beharrezko gisa eta, ondorioz, esperientziaz eratorri ez den lotura gisa ezagutzen denez, eta ongi gorenaren ahalgarritasuna ezein printzipio enpirikotan oinarritzen ez denez, orduan adigai horren *dedukzioak transzendentala* izan beharko du. A priori (moralki) beharrezkoa da *ongi gorena lortzea nahimenaren askatasunaren bidez*; eta, beraz, horren ahalgarritasun-baldintzak apriorizko ezagutza-oinarrietan hartu behar du oin.

I. Arrazoimen praktikoaren antinomia

Guretzat praktikoa den, hau da, gure nahimenaren bidez egin daitekeen ongi gorenean bertutea eta zoriona halabeharrez lotuta pentsatzen dira, halako moldez non bata arrazoimen praktiko hutsak ezin baitu onartu hark bestea ere eduki gabe. Baina lotura hori (beste edozein bezala) *analitikoa* edo *sinetikoa* da. Aipatutakoa, ordea, analitikoa izan ezin denez, oraintsu erakutsi dugunez, orduan horrek sintetikoa izan behar du eta, gainera, kausa eta ondorioaren arteko elkarlotura gisa pentsatu behar da, zeren ongi praktiko batekin, hau da, ekin tzak ahalbidetzen duenarekin baitu zer ikusia. Beraz, zoriona lortzeko irrikak izan behar du bertutearen maximak onartzeko bultzatzailea, edo bertutearen maximak izan behar du zorionaren kausa arazlea. Lehena *gutziz* ezinezkoa da, zeren (analitikan frogatu denez) nahimenaren determinazio-oinarria zoriona eskatzean ezartzen duten maximak ez baitira inolaz ere moralak eta ezin baitute ezein bertuterik oinarritu. Bigarrena ere *ezinezkoa* da, zeren kausen eta ondorioen elkarlotura praktiko oro, munduan nahimenaren determinazioaren ondorio gisa, ez baitaio jarraiki nahimenaren intentzio moralari, baizik eta natur legeen ezagutzari eta hori bere asmoetarako erabiltzeko ahalmen fisikoari, eta ondorioz, munduan ezin da itxaron zorionaren eta bertutearen elkarlotura beharrezkorik eta ongi gorena lortzeko nahikoa izango denik lege moralaren betetze zehatzenaren eskutik. Ongi gorenaren sustapena, elkarlotura hori bere adigaian jasotzen duena, a priori gure nahimenaren objektu beharrezkoa denez, eta lege moralarekin modu bereiztezinean lotuta dagoenez, orduan lehenaren ezintasunak bigarrenaren faltsutasuna frogatu behar du. Ongi gorena,

beraz, erregela praktikoen arabera ezinezkoa baldin bada, orduan lege moralak, hura sustatzeko agintzen duenak, asmakeria eta xede huts irudikatueta emana eta, beraz, bere baitan faltsua izan behar du.

II. Arrazoimen praktikoen antinomiaren gaindipen kritikoa

Arrazoimen espekulatibo hutsaren antinomian munduko gertaeren kausalitatea ukitzen duen antzeko gatazka dago natur beharrezkotasunaren eta askatasunaren artean. Gatazka hori gainditu zen egiazko gatazka ez zela frogatuz, gertaerak eta horien kokalekua den mundua bera ere *agerpen* gisa (egin behar den bezala) ikusten direnean; zerizan ekile bat eta berberak *agerpen* gisa (bere barne sentsuaren aurrean ere) sentsuen munduan beti natur mekanismoaren arabera den kausalitatea daukanez, baina gertaera berberari dagokionez, pertsona ekilea aldi berean *noumeno* gisa ikusten den heinean (adimendu huts gisa, denboraren arabera determinagarri ez den izatean), horrek natur legeen arabera kausalitate haren determinazio-oinarri bat barnebil dezake, bere aldetik natur lege orotatik aske izanik.

Hemen aurrean dugun arrazoimen praktikoa hutsaren antinomiarekin ere gauza berbera gertatzen da. Bi esakuneen artean lehena, zoriona lortzeko ahaleginak jaidura bertutetsuaren oinarria sortzen duela, *erabat faltsua* da; bigarrena, ordean, jaidura bertutetsuak hala-beharrez zoriona sortzen duela, *ez da erabat faltsua*, baizik eta sentsuen munduko kausalitatearen forma gisa ikusten den heinean besterik ez, eta beraz, nik bertan izatea zerizan arrazoidunaren existentzia-modu bakartzat hartzen badut, orduan *era baldintzatuan* baino ez da *faltsua*. Baina nire izatea adimenaren munduko noumeno gisa pentsatzeko eskumena ez ezik lege moralean nik (sentsuen munduan) dudakausalitatearen determinazio-oinarri adimenduzkoa ere badudanez, orduan ez da ezinezkoa jaiduraren etikotasunak lotura bitartegabekoa ez bada gutxienez bitartekotua (naturaren egile adimenduzko baten bitartez) eta, gainera, beharrezkoa izatea, kausa den aldetik, zorionarekin, sentsuen munduko ondorio den aldetik, baina lotura hori sentsuen objektu baino ez den natura batean ausazkoa baino ez da izango beti, eta ezingo du lortu ongi goren.

Arrazoimen praktikoa batek bere buruarekin duen itxurazko gatazka hori alde batera utzita, ongi goren moralki determinatuta dagoen nahimen baten xede goren eta beharrezkoa da, haren egiazko

objektua; izan ere, praktikoki ahalgarri da, eta azken horren maximek, horrekin euren materiaren arabera harremantzen direnek, errealitate objektiboa dute, hasiera batean etikotasunaren eta zorionaren loturan gertatzen den antinomia haren bidez topatu zena lege orokor baten arabera, baina gaizki-ulertze batengatik besterik ez, zeren agerpenen arteko erlazioa berbaitango gauzek agerpen horiekin zuten erlaziotzat hartzen baitzen.

Behartuta baldin bagaude ongi gorenaren ahalgarritasuna, zeri-zan arrazoidun guztiei arrazoimenak euren desira moral orean helburu gisa ezartzen dien hori, hain urrun bilatzera, hots, adimenduzko mundu batekiko elkarloturan, orduan bitxia izan behar zaigu antzinarako eta egungo filosofoek zoriona eta bertutea oso proportzio egokian lotuta aurkitu izana dagoeneko *bizitza honetan* (sentsuen munduan), edo euren buruak limurtu izatea horretaz jabetu izateaz. Izan ere, Epikurok nahiz estoikoek zoriona, bizitzan bertutearen kontzientziatik sortzen dena, guztiaren gainetik ezarri zuten, eta lehenak ez zuen bere arau praktiko hutsetan bere teoriaren printzipioetatik ondorioztatuko litzatekeen jaidura baxua, argibideak emateko behar zuena eta ez ekintzarako, edo askok ulertu zuten moduan, gozamina adierazpena gustagarritasunaren zentzuan hartzean nahastuta, baizik eta ongiaren aplikazio interesgabea poz barnekoena gozatzeko moduen artean kokatzen zuen, eta plazeraren egitasmoan (beti kontent dagoen bihotza) kokatzen zituen joeren neurritasuna eta hertsapena, betiere filosofo moral zorrotzenak eska dezakeen moduan; baina estoikoetatik honetan aldentzen zen, hots, oinarri bultzatzailea plazer horretan ezartzen zuela, estoikoek ukatzen zutena, arrazoiz gainera. Izan ere, alde batetik Epikuro bertutetsuak akats bat egin zuen, orain ere jaidura moral ona izanik euren printzipioei buruz nahiko hausnarketa sakona egin ez duten gizonek bezala, hots, *jaidura* bertutetsua auresuposatzen dute bertuterako bultzagaia lehenik eman nahi dien pertsonengan (eta egitatean pertsona zuzena ezin da zoriontsu sentitu, aurretik bere zuzentasunaz jabetzen ez bada, zeren jaidura hura urratzean bere pentsaerak egitera behartuko lukeen gaitzespenek eta norberaren buruaren madarikazio moralak bestela bere egoerak bilduko lukeen gustagarritasunaren gozo oro ostuko bailioke). Baina auzia hau da: zerk ahalbidetzen du lehenik halako jaidura eta pentsaera, horren izatearen balioa estimatzekoa, horren aurretik subjektuan ezin topatu ahal izan-

go litzatekeenez oro har balio moral baten sentimendurik? Gizakia, bertutetsua denean, noski, ezin da pozik egon bizitzarekin ekintza bakoitzean bere zuzentasunaz jabetzen ez bada, egoera fisikoaren zoriona hain abantailatsua bazaio ere; baina hura lehenik bertutetsu bihurtzeko, eta beraz, hark bere existentziaren balio moralak hain garai ezarri aurretik, goraipatu al zaio arimaren lasaitasun hori, zuzentasunaz jabetzetik sortzen dena, horretaz ohartu ez bada?

Bestalde, hemen beti ezkutuan sartzen den akats bat egiteko oinarria dago (*vitium subreptionis*) eta, era berean, ilusio optiko batean, egiten denaren autokontzientzian *sentitzen* denaren aldean, aritue-nak ere guztiz ekidin ezin duen ilusioa. Jaidura moralak nahimenaren determinazioaren kontzientziarekin lotuta dago *bitartegabe lege baten arabera* halaberharrez. Baina desiramenaren determinazioaren kontzientzia beti horren bidez sortzen den ekintzan gustua hartzearen oinarri da; baina atsegin hori, gustu hori bere baitan, ez da ekintzaren determinazio-oinarria, baizik eta arrazoimenak egiten duen nahimenaren determinazio bitartegabekoa da atseginaren sentimenduaren oinarria, eta hark desiramenaren determinazio praktikoko hutsa, ez estetikoa, izaten irauten du. Determinazio horrek barnean ekintzarako bultzada baten eragin berbera egiten duenez, desiratzen den ekintzatik espero den gustagarritasun sentimenduak egingo lukeen bezala, orduan erraz ikusten dugu geuk egiten duguna jasanorki baino sentitzen ez duguna bezala, eta bultzagai moralak sentimenezko bultzatzailatzat hartzen dugu, betiere sentsuen (hemen barnekoaren) ilusio deitzen den horretan gertatzen ohi dena. Giza izaeran oso bikaina da bitartegabe arrazoimenaren lege huts baten bidez ekintzetara determinatua izatea, baita nahimenaren adimenduzko determinagarritasun horren alde subjektiboa zerbait estetikotzat hartzea eta sentimenezko sentimendu berezi baten eragintzat hartzea ere (izan ere, adimenduzko sentimendua kontraesan bat litzateke). Garrantzitsua da oso gure nortasunaren ezaugarri horri arreta eskaintzea eta arrazoimenak sentimendu horretan duen eragina albait hoberen lantzea. Baina, gainera, kontuan hartu behar da determinazio-oinarri moral horren bultzagai den aldetik goraipamen ez egiazkoen bidez, horri poz berezien sentimenduak oinarri gisa ezarritik (benetan ondorioak baino ez direnak), bultzagai benetakoa, egiazkoa, legea bera, erokeria faltsu baten bidez behegaitu eta desitxura dezakegula. Begirunearentzat, ez zorionaren

plazer edo gozamenarentzat, ezinezkoa da arrazoimenak oinarrian ezartzen duen eta *aurretik doan* sentimendurik izatea (zeren hori betiere estetikoa eta patologikoa izango bailitzateke), eta nahimena kontzientzia legearen bidez bitartegabe behartzea ez da atseginaren sentimenduaren analogoa, desiramenarekin erlazioan gauza berbera egiten duen heinean, beste iturrietatik abiatuta bada ere; baina errepresentatzeko era horren bidez baino ezin da lortu bilatzen den hori, hots, ekintza betebeharraren arabera ez ezik betebeharragatik gertatzea, zeinak hezkuntza moral orekin egiazko xedea izan behar duen.

Ez al dugu, bada, hitz bat, zeinak zorionak ez bezala gozamen bat izendatu gabe haren existentzian gustua erakusten duena, bertutearen kontzientziak halabeharrez aldean duen zorionaren analogoa? Jakina! Hitz hori *norbere buruaren asebetea* da, zeinak bere benetako adieran beti norberaren existentzian dugun gustu negatiboa adierazten duen, ezeren premia ez izateaz jabetzen garenean. Askatasuna eta horren kontzientzia jaidura indartsuz lege moralari jarraitzeko ahalmen gisa, *joeretatik beregain izatea* da, gutxienez gure irrikatzearen bultzatzaile determinatzaile gisa (*afektatzaile* gisa ez bada ere), eta, nire maxima morala betetzean horretaz jabetzen naizen heinean, horrekin halabeharrez lotuta dagoen, ezein sentimendu berezitan oinarritzen ez den poztasun aldaezin baten iturri bakarra da, eta horrek adimenduzko izena har dezake. Poztasun estetikoa (okerki horrela deitzen dena), joeren asebetetzean oinarritzen dena, horiek betiere hain fin irudikatzen diren arren, ezin zaio inoiz horri buruz pentsatzen denari egokitu. Izan ere, joerak aldatzen dira, hazi egiten dira haiei eskaintzen zaien sustapenaren bidez, eta betiere betetzea pentsatzen zena baino zulo handiagoa uzten dute. Horregatik, betiere *zama* bat dira zerizan arrazoidun batentzat, eta haiek berehala baztertzeko gai ez bada ere, ezarri egiten diote haietatik askatzeko desira. Betebeharraren arabera den joerak berak (adibidez, ongiletasunak) maxima *moralen* eraginkortasuna erraz dezake, bai, baina ez du halakorik sortzen. Izan ere, hor dena legearen errepresentazioaren menpe dago determinazio-oinarri gisa, baldin eta ekintzak *legezkotasun* soila ez ezik, gainera, *moralitasuna* barnebildu behar badu. Joera itsua eta jopua da, mota onekoa izan ala ez, eta arrazoimenak, kontua etikotasuna denean, ez du haren zaintzailearen ordezkotza jokatu behar, baizik eta hari arretarik eskaini gabe arrazoimen praktikotik huts gisa

bere interes propioaz arduratu behar du. Errukiaren eta gupida bihozberaren sentimendua bera, betebeharrari buruzko hausnarketaren aurretik doanean eta determinazio-oinarri bihurtzen denean, zuzen pentsatzen duten pertsonentzat ere zama bat da, haien maximo gogotatsuak nahasten ditu eta haietatik askatzeko eta arrazoimen lege-mailari soilik menpekotzeko desira eragiten du.

Hori dela eta uler daiteke nola sor dezakeen arrazoimen praktikoko huts baten ahalmen horren kontzientziak ekintzaren bidez (bertutearen bidez) bere joeren gaineko nagusitasunaren kontzientzia, eta horren bidez haietatik beregain izateko kontzientzia, eta ondorioz, horrek beti aldean daraman poztasun eza, eta beraz, gustu negatiboa bere egoeraz, hau da, poztasuna, bere jatorrian norberarekiko *pozta-suna* dena. Askatasuna bera era horretara (hots, zeharka) gozamen baten gai bihurtzen da, zorion deitu ezin dena, sentimendu baten parte hartze positiboaren menpe ez baitago, ezta *santutasuna* ere zehazki hitz egiten badugu, joeretatiko eta premietatik beregaintasun osoa ez baitu barnebiltzen, baina azken horren antzekoa dena, hain zuzen gutxienez bere nahimenaren determinazioa haien eraginetik aske mantentzen duen heinean, eta, gutxienez bere jatorriari dagokionez, zerizan gorenari soilik egotz diezaiokegun buruaskitasunaren antzekoa dena.

Arrazoimen huts praktikokoaren antinomiaren konponbide horretatik ondorioztatzen da oinarritzko esakune praktikotik gutxienez pentsa daitekeela ahalgarri gisa etikotasunaren kontzientziaren eta horren araberrako zoriona (haren ondorio gisa) baten itxaropenaren arteko berezko lotura beharrezko bat (baina horregatik hori ez da oraindik ezagutzen eta ulertzen); eta, aitzitik, ondorioztatzen da zorionna lortzeko oinarritzko esakuneek inolaz ere ezin dutela etikotasuna sortu; eta, beraz, ongi *garaiena* etikotasuna dela (ongi gorenaren lehen baldintza gisa), baina zoriona haren bigarren osagaia dela, halako moldean non hori lehenaren beharrezko ondorioa baita, moralki baldintzatutako ondorioa. Menpekotasun horren araberrari soilik da *ongi gorenari* arrazoimen praktikoko hutsaren objektu osoa, horrek halaberrez ahalgarri gisa errepresentatu behar duena, haren agindua baita hori egikaritzeko ahal den guztia egitea. Baina baldintzatuak bere baldintzarekin duen lotura halakoaren ahalgarritasuna erabat gauzen sentimenetik haratagoko egoerari dagokionez eta sentsuen munduko

legeen arabera ezin gerta daitekeenez, nahiz eta ideia horren ondorio praktikoak, hots, xedetzat ongi gorena egikaritzea duten ekintzak sentuen munduan kokatzen diren, bada, orduan saiaturako gara ahalgarritasun haren oinarriak aurkezten lehenik bitartegabe gure esku dagoenari dagokionez eta bigarrenik ongi gorenaren (printzipio praktikoaren arabera beharrezkoa den) ahalgarritasuna dela eta arrazoimenak gure ahalmen eza osatzeko eskaintzen digunari eta gure esku ez dagoenari dagokionez.

III. Arrazoimen praktiko hutsaren lehentasunaz espekulatiboarekin duen loturan

Arrazoimenak lotzen dituen bi edo gauza gehiagoren arteko lehentasunaz zera ulertzen dut, hots, bata lehenestea beste guztiekin duen loturan determinazio-oinarri izateko. Adiera hertsia goan, praktikoan, bataren *interesa* lehenestea esan nahi du, horri (beste inoren atzean jarri ezin dena) bestearen interesa menpekotzen zaion heinean. Gogamenaren edozein ahalmeni interes bat egotz dakioke, hau da, interes haren sustapena aplikarazten duen baldintza barnebiltzen duen printzipioa. Arrazoimenak printzipioen ahalmen gisa gogamenaren gaitasun ororen interesak determinatzen ditu, eta bere interesa ere bai. Bere erabilera espekulatiboaren interesa objektuen *ezagutzan* datza, apriorizko printzipio gorenatara heldu arte, eta erabilera praktikoarena *nahimenaren* determinazioan datza azken xede osatuari dagokionez. Arrazoimenaren erabileraren ahalgarritasunerako oro har behar dena, hots, haren printzipioak eta baieztapenak euren artean ezin kontraesatea ez da haren interesaren ezein zatirik, baizik eta baldintza da oro har arrazoimena izateko; hedapena baino ez da kontuan hartzen haren interes gisa, ez bere buruarekin ados egote soila.

Arrazoimen praktikoak ezin badu onartu eta ezin badu pentsatu dagoeneko hor dugula arrazoimen *espekulatiboak* bere kabuz hari bere ikuspuntutik eskura eman diezaiokeena baino, orduan horrek dauka lehentasuna. Jotzen bada, ordea, hark jatorrizko printzipio apriorizkoak lituzkeela berez, horiekin jarrera teoretiko jakin batzuk era bereiztezinean lotzen direla, baina hala ere arrazoimen espekulatiboaren ulermen ahalgarri orori ihes egiten diotenak (nahiz eta hura ez luketen kontraesan behar), orduan galdera da zein den interes garaiaena (ez zeinek egin behar duen atzera, bata bestea ez baitu ukatzen halaberharrez), ea arrazoimen espekulatiboak, praktikoak onartzeko

eskaintzen dionaz ezer ez dakienak, esakune horiek onartu behar dituen eta horiek, harentzat transzendentek badira ere, ezarri zaion jabego arrotz gisa bere adigaiekin bateratzen saiatu behar duen, edo ea baimena duen bere interes propio eta bakartuari burugogor eusteko eta, Epikuroren kanonikaren arabera, arrazoikeria hutsal gisa baztertu behar duen errealtate objektiboa esperientzian azaltzen diren adibide begi-bistakoen bidez egiazta ezin duen guztia, nahiz eta erabilera praktiko (hutsaren) interesarekin hain lotuta egon, bere baitan erabilera teoretikoa kontraesango ez balu ere, zeren eta benetan arrazoimen espekulatiboaren interesari oztopo egiten baitio bere buruari ezartzen dizkion mugak gaindiaraziz eta irudimenaren zentzugabekeria edo ameskeria ororen aurrean amore emanaraziz.

Egitatean, arrazoimen praktikoa oinarrian ezartzen den heinean, patologikoki baldintzatuta dagoen aldetik, hau da, joeren interesa zorianaren sentimenezko printzipioaren menpe kudeatu baino egiten ez duen heinean, hori ezin zaio inolaz ere eskatu arrazoimen espekulatiboari. *Mahomaren* paradisuak edo *teosofoek* eta *mistikoek* irudikatzen duten Jainkoarekiko bateraketa barne-barnekoak, arrazoimenari euren izugarrikeria ezarriko liokete horietako bakoitzaren ideiarekin arabera, eta hobe litzateke arrazoimenik ez izatea era horretara ameskeria horien guztien aurrean amore ematea baino. Baina arrazoimen hutsa bere kabuz praktikoa izan badaiteke, eta bada benetan, lege moralaren kontzientzian erakusten duenez, orduan arrazoimen bat eta berbera da, dela asmo teoretikoan dela praktikoan, apriorizko printzipioen arabera juzgatzen duena, eta beraz, argi dago ezen, haren ahalmenak lehen asmoaren arabera ezin baditu esakune jakin batzuk baieztatuz finkatu, nahiz eta hura ez duten kontraesaten, bada, hala ere, esakune horiek *modu bereiztezinean* arrazoimen hutsaren *interes praktikoari* dagozkion bezain pronto, horiek bere soroan hazi ez diren eskakizun arrotz gisa onartu behar ditu, nahikoa bermatuta baitaude, eta horiek arrazoimen espekulatibo gisa bere esku duen guztiarekin alderatzen eta elkarlotzen saiatu behar du; baina onartuz horiek ez direla bere ikuspegiak, baizik eta bere erabileraren hedapenak beste asmo baterako, hots, asmo praktikorako, zeina ez doan inolaz ere haren interesaren aurka, gehiegikeria espekulatiboaren murriztapena izaki hori.

Beraz, arrazoimen espekulatibo hutsa eta arrazoimen praktikoko hutsa ezagupen batean lotzen direnean lehenak du *lehentasuna*, aurre-

tik onartuz, hain zuzen, lotura hori ez dela *ausazkoa* eta nahierazkoa, baizik eta a priori arrazoimenean oinarritua eta, beraz, *beharrezkoa*. Izan ere, menpekotasun hori gabe arrazoimenak bere buruarekin duen gatazka bat sortuko litzateke, zeren biak bata bestearen aldamenean baino ez balira egongo (koordinatuta), lehenak bere kabuz bere mugak estuki itxi eta bere eremuan bigarrengoari dagokion ezer ez bailuke onartuko, eta bigarren horrek bere mugak guztiaren gainetik zabalduko lituzkeelako eta bere premiak horretara bultzatuz gero haiek bere mugen barne jasoko lituzkeelako. Baina arrazoimen praktiko hutsari inolaz ere ezin zaio eskatu arrazoimen espekulatiboari menpekotua izatea, eta beraz, ordena iraultzea, zeren interes praktiko oro azken burua praktikoa baita, eta arrazoimen espekulatiboarena ere baldintzatua baino ez baita eta erabilera praktikoan osatzen baita.

IV. Arimaren hilezkortasuna, arrazoimen praktiko hutsaren postulatu gisa

Ongi gorena munduan egikaritzea da lege moralaren bidez determina daitekeen nahimenaren beharrezko objektua. Horretan, ordea, jaidurek lege moralarekin duten *egokitasun osoa* da ongi gorenaren baldintza garaiena. Orduan, horrek bere objektua bezain ahalgarri izan behar du, zeren hori sustatzea eskatzen duen agindu berberean barnebiltzen baita. Nahimena, ordea, lege moralari osoki egokitzea *santutasuna* da, sentsuen munduko ezein zerizan arrazoidunek bere izatearen ezein unetan lortu ezin duen betegintzarrea. Baina, hala ere, praktikoki beharrezko gisa eskatzen denez, orduan hori egokitasun oso hartara *amaigaberantz hurbiltzen doan aurrerapen* batean soilik topa daiteke, eta beharrezkoa da halako aurrerabide praktikoa gure nahimenaren objektu erreal gisa onartzea, arrazoimen praktiko hutsaren printzipioen arabera.

Baina aurrerapen amaigabe hori zerizan arrazoidun horren *amaigabeki* irauten duen *existentzia* eta nortasuna aurreuposatuz baino ez da ahalgarri (horri arimaren hilezkortasuna deitzen zaio). Beraz, ongi gorena praktikoki arimaren hilezkortasuna aurreuposatuz baino ez da ahalgarri, eta beraz, hori, lege moralarekin era bereiztezi-nean lotuta, arrazoimen praktiko hutsaren *postulatu* bat da (horrekin esan nahi dut esakune *teoretikoa* baina frogatu ezin dena, a priori baldintzagabe balio duen lege *praktiko* baten menpe dagoen heinean modu bereiztezinean).

Gure izaeraren determinazio moralaren esakunea, hots, amaigaberantz doan aurrerapen batean baino ezin dela lortu ohituren legearekiko adostasun bete, oso erabilgarria da, orain arrazoimen espekulatiboaren ahalmen eza osatzeko ez ezik, erlijioari dagokionez ere bai. Horren gabezia lege moralak bere *santutasuna* galtzen du erabat, *bihozbera* (nagi) eta gure erosotasunera egokitua bihurtzen den heinean, edo determinazio helezin baterako deia eta aldi berean itxaropena, hots, nahimenaren santutasunaren lorpen bete itxarongarria tinkatzen da, eta amets *teosofiko* bero-bero eta norberaren ezagutza kontraesaten dutenetan galtzen da, eta bi aukera horietan arrazoimenaren agindu zorrotz, jarraikor, baina ez ideala, baizik eta egiazkoa zehazki eta etengabe betetzeko *ahalegin* etengabea oztopatzen da. Zerizan arrazoidun baina mugatu bati amaigaberantz doan aurrerapena baino ez zaio ahalgarri, betegintzarre moralaren lehen mailatik maila garaienetaraino doan aurrerapena. Zerizan *amaigabeak*, denboraren baldintza ezagutzen ez duenak, guretzat ilara amaigabea den horretan lege moralarekiko adostasunaren osotasuna ikusten du, eta haren aginduak etengabe eskatzen duen santutasuna, hark ongi gorenean bakoitzari ematen dion parte hartzean haren zuzentasunari erantzuteko, zerizan arrazoidunen izatearen begiespen adimenduzko bakarrean topatzen da guztiz. Sorkariari egokitzen zaiona parte hartze horren itxaropenari dagokionez bere jaidura saiatuaren kontzientzia litzateke, horrela orain arteko gaitzagoa denetik moralki hobeagorantz egin duen aurrerapenetik eta horren bidez ezagun bihurtu zaion asmo aldaezinetik abiatuta horren jarraipen luzeago eta etengabea itxaroteko²² haren existentziak hainbeste irauten badu ere, baita bizitza honen ondoren ere, eta horrela ez noski hemen ezta haren izatearen etorkizuneko une iragarri batean ere, baizik eta soilik haren jarraipenaren amaigabetsunean (Jainkoak soilik azter dezakeenean) haren nahimenari guztiz egokitzea (bihozberatasun edo aitzakiarik gabe, hori zuzentasunarekin ez baitago bateratzerik).

V. Jainkoaren izatea, arrazoimen praktiko hutsaren postulatu gisa

Lege moralak aurreko analisi horretan betekizun praktiko batera gidatu zuen, sentimenezko bultzagaien esku hartzerik gabe arrazoimen hutsak soilik ezartzen duena, hots, ongi gorenaren lehen zati bikainenaren, *etikotasunaren*, beharrezko osotasunarena, eta hori betikotasunean soilik konpon daitekeenez, *hilezkortasunaren* postulatura.

Era berean, lege horrek ongi gorenaren bigarren osagaiaren ahalgarritasunera gidatu behar du lehen bezala interesik gabe, hots, etikotasun hari egokitzen zaion *zoriontasunera*, alderdirik ez duen arrazoimenetik abiatuta, hots, ondorio horretarako egokia den kausa baten izatearen auresuposiziora gidatu behar du, hau da, *Jainkoaren existentzia* postulatu behar du, ongi gorenaren ahalgarritasunari halabeharrez dagokionez (gure nahimenaren objektu hori arrazoimen hutsaren lege-emate moralarekin lotuta dago halabeharrez). Lotura hori modu konbentzigarrian aurkeztu nahi dugu.

Zoriona zerizan arrazoidun batek munduan duen egoera bat da, non bere existentziaren osotasunean *nahi duen guztia duen*, eta beraz, naturak bere xede osoarekin eta era berean bere nahimenaren funtsezko determinazio-oinarriarekin duen adostasunean oinarritzen da. Baina lege moralak askatasunaren lege den aldetik naturatik eta horrek gure desiramenarekin (bultzagai gisa) duen adostasunetik erabat beregainak izan beharko luketen determinazio-oinarrien bidez agintzen du; munduan bizi den zerizan arrazoidun ekilea ez da aldi berean munduaren eta naturaren kausa. Beraz, lege moralean ez dago oinarri txikienik etikotasuna eta horri dagokion zorionaren arteko lotura beharrezkoarentzat munduaren zati den eta, beraz, haren menpe dagoen zerizan baten kasuan, zeinak bere nahimenaren bidez ezin duen izan izaera horren kausa eta hori bere zorionari dagokionez ezin duen bere kabuz erabat adostu bere oinarrizko esakune praktikoeekin. Hala ere, arrazoimen hutsaren eginkizun praktikoa, hau da, ongi gorena lortzeko beharrezko lanean, halako lotura beharrezkotzat postulatzen da: ongi gorena (beraz, ahalgarri izan behar duena) sustatzen saiatu *behar* dugu. Eta beraz, naturatik bereizten den natura osoaren kausa *postulatzen* da, zeinak lotura horren oinarria barnebiltzen duen, hots, zorionaren adostasun zehatza etikotasunarekin. Kausa garaien horrek, ordea, naturak zerizan arrazoidunaren nahimenaren *legearekin* duen adostasuna ez ezik, gainera, lege horren errepresentazioaren oinarria barnebildu beharko luke, horrek *nahimenaren determinazio-oinarri garaiena* ezartzen duen heinean, eta beraz, ohiturekin formaren arabera ez ezik, gainera, haren etikotasunarekin haren bultzatzaile gisa, hau da, haren jaidura moralarekin. Eta, beraz, ongi gorena ahalgarri da munduan, baldin eta naturaren kausa garaiena onartzen bada, zeinak jaidura moralari egokitzen zaion kausalitatea duen. Baina lege-

en errepresentazioen arabera ekintzak egiteko gai den zerizana *adimendu* bat da (zerizan arrazoiduna) eta halako zerizanak legeen erre-presentazioari jarraiki duen kausalitatea haren *nahimena* da. Eta, beraz, naturaren kausa garaiena, ongi gorena dela eta ontzat jo behar den heinean, *adimenaren* eta *nahimenaren* bidez *naturaren* kausa den (eta ondorioz, egilea den) zerizana da, hau da, *Jainkoa*. Eta ondorioz, *ongi goren eratorriaren* (mundu onenaren) ahalgarritasunaren postulatu aldian berean *jatorrizko ongi goren* baten errealitatearen postulatu da, hots, Jainkoaren existentziarena. Baina guretzat betebeharrak ongi gorena sustatzea, eta beraz, eskumena ez ezik, gainera, betebeharrarekin premia gisa lotuta dagoen beharrezkotasuna da ongi goren hori aurreuposatzea, eta horrek, Jainkoaren izatearen baldintzapean baino gertatzen ez denez, haren aurreuposizioa betebeharrarekin lotzen du era bereiztezinean, hau da, moralki beharrezkoa da Jainkoaren izatea onartzea.

Hemen ohartarazi behar da beharrezkotasun moral hori *subjektiboa* dela, hau da, premia, eta ez *objektiboa*, hau da, betebeharra; izan ere, ezin da betebeharririk egon gauza baten existentzia onartzeko (zeren hori arrazoimenaren erabilera teoretikoari soilik baitagokio). Hemen ez da esan nahi Jainkoaren izatearen onarpena beharrezkoa denik, *lotesten ororen oinarri gisa oro har* (izan ere, hori arrazoimenaren autonomian baino ez da oinarritzen, nahikoa frogatu zen bezalaxe). Betebeharrari hemen munduan ongi gorena sortzeko eta sustatzeko behar den lana baino ez dagokio, zeinaren ahalgarritasuna beraz postula daitekeen, baina gure arrazoimenak ez duen pentsagarri aurkitzen, adimendu goren bat onartuz ez bada, zeinaren izatea onartzea, beraz, gure betebeharraren kontzientziarekin lotzen den, nahiz eta onarpen hori arrazoimen teoretikoari dagokion, eta horri dagokionez hura argibide-oinarri gisa hartuta *hipotesia* den, baina guri lege moralaren bidez ezarri zaigun objektu baten ulergarritasunarekin harremanean (ongi gorenarekin), eta beraz, asmo praktikoa duen premia batekin, hura sinesmen eta gainera *arrazoimen-sinesmen* hutsa dei daiteke, zeren arrazoimen hutsa baino ez baita haren iturria (erabilera teoretikoan nahiz praktikoan).

Dedukzio horrek ulergarri bihurtzen du zergatik ezin zuten lortu eskola *grekoek* ongi gorenaren ahalgarritasun praktikokoaren arazoa gainditu, hain zuzen, gizakiaren nahimenak bere askatasunaz egi-

ten duen erabileraren erregela beti haren oinarri bakar eta bere kabuz nahikoa bihurtzen zutelako, Jainkoaren izatea behar gabe, haien hausnarketaren arabera. Zuzen jokatu zuten ohituren printzipioa postulatu horretatik beregainki bere kabuz arrazoimenak nahimenarekin duen erlazio soiletik abiatuta finkatzean eta, beraz, ongi gorenaren baldintza praktikoko *garaien* bihurtzen zutenean; baina horrekin ez zuten oraindik haren ahalgarritasunaren baldintza *osoa*. *Epikuroarrek* ohituren printzipio erabat faltsua onartu zuten printzipio *garaien* gisa, hots, zorionarena, eta bakoitzak bere joeraren arabera nahierara aukeratzeko maxima lege gisa sartu nahi zuten azpitik, baina hori egitean nahikoa *kontsekuenteki* jokatu zuten, halako moldez non haiek euren ongi gorenaren, hain zuzen, euren oinarritzko esakunearen baxutasunaren proportzioan behehitu baitzuten eta giza zuhurtasunaren bidez lor daitekeena baino zoriontasun handiagorik ez baitzuten itxaroten (horretarako mehe egitea eta joeren neurritasuna ere behar dira), dakigunez aski eskasa dena eta inguruabarren arabera oso ezberdina gerta daitekeena; euren maximek etengabe onartu behar zituzten eta horiei lege izateko aukera kentzen zieten salbuespenak kontuan hartu gabe. *Estoikoek*, aitzitik, euren printzipio praktikoko *garaiena*, hots, bertutea, zuzenki aukeratu zuten ongi gorenaren baldintza gisa, baina haren lege hutsak eskatzen duen maila bizitza honetan guztiz lorgarri gisa errepresentatzen zutenez, orduan *gizakien* ahalmen moralak *jakintsuaren* izenpean bere izaeraren murriztapen oroz gaindi tinkatu zuten eta giza ezagutza oro kontraesaten duen zerbait onartzeaz gain bereziki ongi gorenaren bigarren *osagaia*, hots, zoriona, ez zuten nahi onartu giza desiramenaren objektu berezi gisa, baizik eta *jakintsua*, bere pertsonaren berezitasunaren kontzientzian Jainko batekin parekatuz, naturatik erabat beregain bihurtu zuten (haren poztasunari dagokionez), hark bizitzako alde txarrak jasaten zituen baina haien menpe ez zegoen heinean (aldi berean gaitzetik aske gisa aurkezten zuten), eta horrela benetan ongi gorenaren bigarren *osagaia*, norberaren zoriona, baztertu zuten, ekintzan eta norbere balio pertsonalekiko poztasunean ezartzen zuten heinean eta, beraz, pentsaera etikoaren kontzientzian jasotzen zuten heinean, horri dagokionez nahikoa errefusatuak izan zitezkeen arren euren izaeraren ahotsaren bidez.

Kristautasunaren irakaspenak²³, hura oraindik erlijio irakaspen-tzat hartzen ez bada ere, puntu honetan ongi gorenaren adigai bat

eskaintzen du (Jainkoaren erresuma), arrazoimen praktikoaren eskaera zehatza asebetetzen duen bakarra. Lege moralak santua da (ezinbestekoa), eta ohituren santutasuna eskatzen du, nahiz eta gizakiak lor dezakeen betegintzarre moral guztia betiere bertutea izan, hau da, legearen alderako *begirunea* izatetik sortzen den legezko jaidura, eta ondorioz, hausturarako aihar jarraikor baten kontzientzia, gutxienez legea betetzerakoan araztasun eza, hau da, bultzatzaile ez egiazko (ez moral) askoren nahasketa, eta ondorioz, umiltasunari lotuta dagoen norberaren buruaren estimazioa, eta beraz, lege kristauak eskatzen duen santutasunari dagokionez, sorkariari ez dio amaigaberantzko aurrerabidea baino uzten, eta era berean hura amaigaberantz doan iraupena itxaroteko legeztatzen du. Lege moralari *erabat* dagokion jaidura baten balioa amaigabea da, zeren zoriontasun ahalgarri orok ez baitu zerizan arrazoidunek betebeharrarekin duten adostasun gabeziaren murriztapena baino banatzaile jakintsu eta oroahaltsu baten judizioan. Baina lege moralak berez ez du *agintzen* ezein zorionik; izan ere, hori natur ordena baten adigaien arabera oro har ez zaio halabeharrez lotzen legea betetzeari. Ohituren irakaspen kristauak gabezia hori osatzen du (ongi gorenaren ezinbesteko bigarren osagaiarena) mundu baten aurkezpenarekin, non zerizan arrazoidunak lege etikoaz arduratzen diren betebetean, *Jainkoaren erresuma* bat balitz bezala, non naturak eta ohiturak horietako bakoitzari bere kabuz arrotza zaion harmonia lortzen duten egile santu baten eskutik, horrela ongi goren eratorria ahalbidetuz. Ohituren *santutasuna* bizitza honetan irakasten zaie eredu gisa, baina horri dagokion ongizatea, *santutasuna*, betikotasun batean lor daitekeen zerbait bezala errepresentatzen da, zeren *hark* euren jokaeraren ereduia izan behar baitu edozein egoeratan, eta *hori* lortzeko aurrerabidea bizitza honetan ahalgarri eta beharrezko da, baina mundu honetan zorionaren izenpean ezin da inoiz lortu (gure ahalmenari dagokionez) eta, horregatik, itxaropenaren objektu bihurtzen da. Hori alde batera utziz, *moralaren* printzipio kristaua ez da teologikoa (eta, beraz, heteronomia), baizik eta berez da arrazoimen praktiko hutsaren autonomia, zeren horrek Jainkoaren eta horren nahimenaren ezagutza ez baitu lege horren oinarri bihurtzen, baizik eta soilik ongi gorenaren lorpenaren oinarri hura betetzearen baldintzapean, eta lehena betetzearen benetako *bultzagaia* ez du ezartzen haren ondorio desiragarrietan, baizik eta betebeharraren errepresentazioan besterik ez, horren atxikimendu leialean baitatza zoriona lortzeko duintasuna.

Era horretara, lege morala ongi gorenaren adigaiaren bidez, arrazoimen praktiko hutsaren objektu eta azken xede gisa, *erlijioa* doa, hau da, *betebehar guztien ezagutzara jainkotiar agindu gisa*, eta ez *zigor gisa*, hau da, *nahimen arrotz baten ausazko ebazpen nahierazko gisa*, baizik eta nahimen aske orok norberarentzat dituen funtsezko *lege gisa*, zeinak, hala ere, ongi gorenaren agindu gisa hartu behar diren, zeren guk nahimen moralki bete (santu eta on) eta aldi berean oroahaldun baten eskutik soilik itxaron baitezakegu ongi gorenari, hori gure ahaleginen objektu gisa ezartzea lege moralak betebehar bihurtzen digunez, eta beraz, nahimen horrekin adostuz itxaron deza-kegu hori lortzea. Hemen, beraz, dena interesgabea da eta betebeharraren soilik oinarritzen da; beldurra edo itxaropena ezin dira bultzagai gisa ezarri oinarrian, horiek printzipio bihurtzen badira, ekintzen balio moral osoa ezabatzen baitute. Lege moralak agintzen du mundu bateko ongi al bait gorenari niretzat jokaera ororen azken objektu bihurtzeko. Hori lortzea, ordea, ezin dut itxaron, ez bada nire nahimena munduaren egile santu eta on batenarekin adostuz; eta ongi gorenaren adigaiari *neure zoriona* barnebiltzen den arren, osotasun baten antzerara, non zorion handiena (sorkariek lortu ahal duten) betegintzarre etikoaren kopuru handienarekin proportzio zehatzean lotuta errepresentatzen den, bada, hala ere, hura ez da ongi gorenari sustatu behar duen nahimenaren determinazio-oinarria, baizik eta lege morala (zeinak haren eskakizun mugagabea baldintza zorrotzpean ezartzen duen).

Horregatik, morala ez da gu zorientsu bihurtzeko moduaren irakaspena, baizik eta zorionaren duin bihurtzeko erarena. Erlijioa gaineratzen denean sortzen da, ez lehenago, zorionean parte hartzeko itxaropena, horren ez-duin ez izateko ardura izan dugun heinean.

Norbait gauza edo egoera baten jabegoa izateko *duin* da, horren jabe denean ongi gorenarekin adosten bada. Orain erraz uler daiteke duintasun guztia jokaera etikoari dagokiola, zeren horrek ongi gorenaren adigaiari beste guztiaren (egoerari dagokionaren) baldintza osatzen baitu, hots, zorionean parte hartzearen baldintza. Baina hortik ondorioztatzen da *moralari* bere baitan inoiz ezin dela hartu *zorionaren irakaspena* balitz bezala, hau da, zorionean parte hartzeko irakaskuntza gisa; izan ere, azken horren arrazoimen-baldintzarekin (*condition sine qua non*) baino ez du zer ikusirik, ez hura lortzeko bitarteko batekin. Baina morala osoki azaldu denean (horrek betebeharrak baino ez

ditu ezartzen, ez desira berekoiak lortzeko erregela eskura eman), orduan dei daiteke eta ez lehenago ohituren irakaspen hori gainera zorionaren irakaspen, ongi gorena sustatzeko (Jainkoaren erresuma guregana ekartzeko) lege batean oinarritzen den desira morala iratzarri ondoren, lehenago ezein arima berekoitan agertu ezin zena, eta desira horren mesedetan erlijioranzko urratsa eman ondoren, zeren horren *itxaropena* erlijioarekin batera hasten baita.

Gainera, hortik abiatuta ikus daiteke ezen, *Jainkoak* munduaren sorkuntzan zuen *azken xedeaz* galdetzen denean, ez dela aipatu behar zerizan arrazoidunaren *zoriona*, baizik eta *ongi gorena*, zeinak zerizan horren desira hari beste baldintza bat gaineratzen dion, hots, zorionaren duin izatea, hau da, zerizan arrazoidun horren beraren *eti-kotasuna*, horrek baino ez baitu barnebiltzen egile jakintsu baten eskutik zorionean parte hartzeko itxaropena eman ahal izango dion neurria. Izan ere, *jakituriak*, teoretikoki hartuta, *ongi gorenaren eza-gutza* esan nahi duenez, eta praktikoki hartuta, *nahimenaren adostasuna ongi gorenarekin*, orduan jakituria goren beregain bati ezin zaio egotzi *onberatasunean* soilik oinarritzen den xedea. Izan ere, horren eragina (zerizan arrazoidunaren zorionari dagokionez) ezin dugu pentsatu jatorrizko ongi gorenari egokia gisa, haren nahimenaren *santutasunarekiko*²⁴ adostasunaren baldintza murriztailepean ez bada. Horregatik, sorkuntzaren xedea Jainkoa ohoratzean ezartzen dutenek (ontzat joz hori ez dela antropomorfikoki pentsatzen, goraipatua izateko joera gisa) ziurrenik adierazpen onena aurkitu dute. Izan ere, ezerk ez du Jainkoa gehiago ohoratzen munduan estimagarriena denak baino, haren aginduaren alderako begiruneak baino, betebeharrak santuari zaion atxikimenduak, guri haren legea ezartzen diguna, haren eraiketa bikainak halako ordena ederra horri dagokion zorionarekin koroatzen duenean. Azken horrek hura maitagarri bihurtzen badu (gizakien modura hitz eginez), orduan lehenaren bidez gurtzaren objektu bihurtzen da (jaurespen). Gizakiek ere maitasuna lor dezakete ekintza onen bidez, baina inoiz ez begirunea horren bidez soilik, halako moldez non ongiletasun handienak haiek ohoratzen dituen, baldin eta duintasunari jarraiki egiten bada.

Xedeen ordenan gizakia *berbaitango xede* izatea (eta horrekin batera zerizan arrazoidun oro), hau da, inork ezin duela bitarteko soil gisa erabili (ezta Jainkoak ere), hor aldi berean xede izan gabe, eta

beraz, *gizatasuna* gure pertsonan geuri santua izan behar zaigula, berez ondorioztatzen da, zeren hura *lege moralaren subjektua* baita eta, beraz, bere baitan santua denarena, eta horregatik eta horrekin adostuz dei daiteke oro har zerbait santu. Izan ere, lege moral hori bere nahimenaren autonomian oinarritzen da, nahimen aske baten autonomia den aldetik, hots, aldi berean bere lege orokorren arabera halaber beharrez *menperatzen* zaion horrekin *adostu* ahal izan behar duen nahimena.

VI. Arrazoimen praktiko hutsaren postulatu ez oro har

Horiek denak moralitasunaren oinarritzko esakunetik abiatzen dira, postulatu ez dena, baizik eta lege bat, zeinaren bidez arrazoimenak bitartegabe nahimena determinatzen duen, eta nahimen horrek, horrela determinatuta dagoelako, nahimen huts gisa, bere araua betetzearen baldintza beharrezko hori sustatzen du. Postulatu horiek ez dira dogma teoretikoak, baizik eta *auresuposizioak* praktikoki beharrezkoa den ikuspegian, eta beraz, ez²⁵ dute hedatzen ezagutza espekulatiboa, nahiz eta arrazoimen espekulatiboaren ideiei *orokorrean* errealitate objektiboa ematen dieten (praktikoa denarekin duten harremanaren bidez) eta bestela euren ahalgarritasuna baieztatzea ere ausartuko ez lirakeen adigaiak izateko baimena ematen dieten.

Postulatu horiek *hilezkortasunarena*, *askatasunarena* (positiboki hartuta, zerizan baten kausalitatearena gisa, adimenduzko munduan kokatzen den heinean), eta *Jainkoaren izatearena* dira. *Lehena*, iraupena lege moralaren betetzearen osotasunarekin adostearen beharrezko baldintza praktikotik isurtzen da; *bigarrena*, sentsuen mundutiko beregaintasunaren beharrezko auresuposiziotik eta bere nahimena adimenduzko mundu baten adigaien arabera determinatzeko ahalmenaren auresuposiziotik, hau da, askatasunarenatik; *hirugarrena*, adimenduzko mundu halako baterako baldintzaren beharrezkotasunetik, ongi gorena izateko, ongi goren beregainaren, hau da, Jainkoaren izatearen auresuposizioaren bidez.

Lege moralari diogun begiruneagatik beharrezkoa den ongi gorena lortzeko asmoak eta horretatik jariatzen den haren errealitate objektiboaren auresuposizioak gidatzen gaitu arrazoimen praktikoa-ren postulatuaren bidez arrazoimen espekulatiboak arazo gisa azaldu zituen baina konpon ezin zituen adigaietara. Eta beraz, 1) arrazoimen

espekulatiboak bete nahi zuenean *paralogismoak* baino egin ezin zituen horretara (hots, hilezkortasunera), zeren hari iraunkortasunaren ezaugarria falta baitzitzaion, azken subjektu baten adigai psikologikoa, zeina halabeharrez egozten zaion arimari autokontzientzia, substantzia baten errepresentazio errealeraino osatzeko, eta hori arrazoimen praktikoak ongi gorenean, arrazoimen praktikoaren xede oso gisa, lege moralarekin adosteko behar den iraupenaren postulatuaren bidez egiten du. Eta gainera, 2) arrazoimen espekulatiboari *antino-miak* baino eskuratzen ez zionera gidatzen gaitu, eta horren konponbidea problematikoki pentsa daitekeen baina bere errealtate objektiboaren arabera harentzat frogaezina eta determinaezina den adigaian soilik oinarri zezakeen, hots, adimenduzko mundu baten ideia *kosmologikoan* eta horretan izateko dugun kontzientzia, askatasunaren postulatuaren bidez (horren errealtatea lege moralaren bidez aurkezten du eta horrekin batera adimenduzko mundu baten legea, zeina arrazoimen espekulatiboak erakutsi erakusten duen baina haren adigaia determinatu ahal izan gabe). 3) Arrazoimen espekulatiboak pentsatu behar zuen baina *ideal* transzendental soil gisa determinatugabe utzi behar izan zuenari esanahia ematen dio, oinarritzko zerizanaren adigai *teologikoari* (asmo praktikoan, hau da, lege haren bidez determinatutako nahimenaren objektuaren ahalgarritasunaren baldintza gisa) adimenduzko mundu bateko ongi gorenaren printzipio garaian gisa lege-emate moral boteretsuaren bidez.

Gure ezagutza, ordea, era horretara arrazoimen praktiko hutsaren bidez benetan zabaltzen al da eta espekulatiboarentzat *transzendentea* zena praktikoarentzat *immanentea* al da? Bai, noski, baina *asmo praktikoan* besterik ez. Izan ere, horren bidez ez dugu ezagutzen gure arimaren izaera, ezta adimenduzko mundua ere, ezta zerizan garaiena ere, euren baitan direnaren arabera, baizik eta horien adigaiak *ongi gorenaren* adigai *praktikoan* bateratu ditugu, gure nahimenaren objektu gisa, eta guztiz a priori egin ere arrazoimen hutsaren bidez, baina lege moralaren bidez baino ez, eta gainera harekin harremanean besterik ez, hark agintzen duen objektuari dagokionez. Askatasuna, ordea, nola den ahalgarri, eta nola errepresentatu behar den kausalitate mota hori teoretikoki eta positiboki, hori ez da horren bidez ulertzen, baizik eta hori lege moralaren bidez eta horren mesederako postulatzan dela besterik ez. Berdin gertatzen da ezein giza

adimenek euren ahalgarritasunari dagokionez inoiz oinarritu ezin dituen baina aldi berean ezein sofistikeriak gizaki arruntenari ere egiazko adigaiak direla dioen konbentzimendua inoiz kenduko ez dion ideiekin.

VII. Nola pentsa daitekeen arrazoimen hutsaren hedapen bat asmo praktikoa aldi berean hark espekulatiboa den aldetik duen ezagutza hedatu gabe?

Galdera hori berehala erantzun nahi dugu kasu honetan aplikatuz, horrela abstraktuegi ez bihurtzearren. - Ezagutza huts bat praktikoki zabaltzeko, apriorizko *asmo* bat izan behar dugu, hau da, xede bat (nahimenaren) objektu gisa, zeina oinarritzko esakune teoretiko²⁶ orotatik beregainki errepresentatzen den praktikoki beharrezko gisa nahimena bitartegabe determinatzen duen agindu (kategoriko) baten bidez, eta hori da hemen *ongi gorena*. Hori, baina, ez da ahalgarri, hiru adigai teoretiko aurreuposatu gabe (ezin da aurkitu horiei dagozkion begiespenik eta, beraz, bide teoretikoan ez dute errealitate objektiborik, zeren haiek arrazoimen-adigai huts soilak baitira), hots, askatasuna, hilezkortasuna eta Jainkoa. Beraz, mundu batean ahalgarri den ongi gorenaren existentzia agintzen duen lege praktikoa bidez, arrazoimen espekulatibo hutsaren objektu haien ahalgarritasuna, arrazoimen horrek haiei segurtatu ezin zien errealitate objektiboa postulatzeko; eta horren bidez arrazoimen hutsaren ezagutza teoretikoak handitze bat jasotzen du, baina honetan baino ez datza, hots, berez bestelakoan problematikoak (pentsagarriak baino ez) diren adigai haiek orain asertorikoki benetan objektuak dituzten adigai gisa adieraz daitezkeela, zeren arrazoimen praktikoa haien existentzia ezinbestean behar baitu bere objektuaren eta gainera praktikoki erabat beharrezko den objektuaren, ongi gorenaren, ahalgarritasunerako, eta horregatik arrazoimen teoretikoa legeztatuta dago haiek ontzat jotzeko. Arrazoimen teoretikoaren zabalpen hori, ordea, ez da espekulazioaren zabalpena, hau da, *asmo teoretikoan* horren erabilera positiboa egiteko. Izan ere, hemen arrazoimen praktikoa bidez lortu den gauza bakarra adigai haiek errealak izatea eta benetan euren objektuak (ahalgarriak) izatea denez, baina guri horien begiespenik eskuratu gabe (eskatu ere ezin dena), orduan horien errealitatearen onarpenaren bidez ezein esakune sintetiko ez da ahalgarri izango. Ondorioz, irekiera horrek ez gaitu laguntzen gutxienean ere asmo espekulatibo-

an, bai ordea arrazoimen hutsaren erabilera praktikoari dagokionez gure ezagutza hori hedatzeko. Lehenago aipatu diren arrazoimen espekulatiboaren hiru ideioek euren baitan ez dira oraindik ezein ezagutzarik, baina *pentsamenduak* dira (transzendenteak), non ezer ez den ezinezkoa. Baina horiek lege praktiko apodiktiko baten eskutik, horrek bere *objektu bihurtzeko* agintzen duen horren ahalgarritasunaren beharrezko baldintza gisa, errealtate objektiboa eskuratzen dute, hau da, haiek erakusten digute *objektuak dituztela*, euren adigaia objektu batekin nola harremantzen den erakutsi ezin badute ere, eta hori ez da oraindik *objektu* horien ezagutza; izan ere, horrela ezin da ezer ere juzgatu sintetikoki horiei buruz, ezta horien aplikazioa teoretikoki determinatu ere, eta beraz, arrazoimenaren erabilera teoretikorik ezin da egin horiekin, hori izaki benetan ezagutza espekulatibo ororen eginkizuna. Hala ere, ezagutza teoretikoa hedatu zen, *ez objektu horiena*, baizik eta arrazoimenarena oro har, postulatu praktikoen bidez ideia haiei egiantan *objektuak eskuratu* zaizkien heinean, pentsamendu problematiko soila zenak horren bidez lehen-lehenik errealtate objektiboa lortu zuen neurrian. Beraz, ez zen *sentimenetik harata* - *goko objektu jakinen* ezagutzaren ezein hedapenik, baina bai arrazoimen teoretikoaren eta horren ezagutzen hedapena sentimenetik haratago denari dagokionez oro har, hura behartua izan zen neurrian onartzeraz *halako objektuak badaudela*, haiek zehazkiago determinatu gabe, eta beraz, objektuen ezagutza hori (hari, dena den, arrazoi praktikoenegatik eta erabilera praktikorako soilik eskuratu zaiona) hedatu ahal izatera, eta handitze hori, beraz, ideia haiek guztiak transzendente eta objekturik gabekotzat jotzen dituen arrazoimen teoretiko hutsak bere ahalmen praktiko hutsari baino ez dio eskertu behar. Hor *immanenteak* eta *eratzailleak* bihurtzen dira, arrazoimen praktiko hutsaren *objektu beharrezkoa* (ongi gorena) *erreal bihurtzeko* ahalgarritasunaren oinarri diren heinean, hori gabe arrazoimen espekulatiboaren printzipio *erregulatzaille* soil eta *transzendenteak* direnez, zeinek arrazoimen horri ez dioten ezartzen esperientziatik at dagoen objektua onartzea, baizik eta horien erabilera esperientzian osotasunari hurbiltzea besterik ez. Arrazoimena, ordea, behin handitze horren jabe baldin bada, orduan arrazoimen espekulatibo gisa (benetan bere erabilera praktikoa segurtatzeko soilik) negatiboki jokatu du ideia haiekin, hau da, haiek hedatu beharrean argituz, horrela alde batetik *antropomorfismoa* oztopatzeko *sineskeriaren* iturri gisa, edo adigai haien

itxurazko hedakuntza ustezko esperientziaren bidez, eta bestalde, *fanatismoa* oztopatzeke, hura sentimenetik haratagoko begiespenaren bidez edo antzeko sentimenduen bidez agintzen duena; eta hori dena arrazoimen hutsaren erabilera praktikoaren oztopoak dira, eta beraz, horien bazterketak gure ezagutzaren hedakuntza dakar asmo praktikoan, aldi berean honakoa, ordea, aitortzea kontraesan gabe²⁷, hots, arrazoimenak asmo espekulatiboan horren bidez ezertxo ere ez duela irabazten.

Arrazoimenaren erabilera bakoitzak objektu bati dagokionez adimenaren adigai hutsak (*kategoriak*) eskatzen ditu, horiek gabe ezin baita ezein objektu pentsatu. Horiek arrazoimenaren erabilera teoretikoan aplika daitezke, hau da, ezagutza teoretikoan, haiei aldi berean begiespena (betiere sentimenezkoa dena) eskuratzen zaien heinean soilik, eta beraz, horien bidez esperientzia ahalgarriaren objektu bat errepresentatzeko. Baina kategorien bidez pentsatu beharko nukeena ezagutu ahal izateko arrazoimenaren *ideiak* behar dira, ezein esperientzian eskuratu ezin ditugunak. Baina hemen kontua ez da ideia horien objektuen ezagutza teoretikoa, baizik eta horiek oro har objektuak izatea besterik ez. Errealitate hori arrazoimen praktiko hutsak eskuratzen du, eta gai horretan arrazoimen teoretikoak ez du zer esanik, ez bada objektu haiek kategorien bidez *pentsatzea*, eta hori argi erakutsi dugunez begiespenen premiarik gabe (sentimenezkoak nahiz sentimenetik haratagokoak) egin daiteke, zeren kategoriek euren egoitza eta jatorria adimen hutsean baitute begiespen orotatik beregain eta begiespen oro izan aurretik, pentsatzeko ahalmen gisa, eta horiek betiere oro harrezko objektua baino ez dute adierazten, *edonola jasotzen dugula ere*. Ezin zaie kategoriei ezein objektu eman begiespenean, horiek ideia haietan aplikatu beharko liratekeen heinean; baina haiei nahikoa segurtatzen zaie *halako objektua erreala dela*, eta beraz, kategoria pentsamenduaren forma soil gisa hemen ez dela kaskala, baizik eta esanahia duela, arrazoimen praktikoak zalantzarik gabe ongi gorenaren adigaiari eskaintzen duen objektu baten bidez, hots, ongi gorenaren ahalgarritasunari dagozkion *adigaien errealitatearen* bidez, hala ere handitze horren bidez ezagutzaren hedapen txikienik ere eragin gabe oinarritzko esakune teoretikoen arabera.

* * *

Ondoren Jainkoaren, adimenduzko munduaren (Jainkoaren erresumaren) eta hilezkortasunaren ideiak geure izaeratik jasotako predikatuen bidez determinatzen badira, determinazio hori ezin da arrazoimen-ideia huts haien *sentimentze* gisa hartu (antropomorfismoa), ezta *sentimenetik haratagoko* objektuen ezagutza transzendente gisa hartu ere; izan ere, predikatu horiek ez dira adimena eta nahimena baino, eta gainera euren arteko erlazioan hartuta, lege moralean pentsatu behar diren moduan, eta beraz, horien erabilera praktikoko hutsa egiten den neurrian besterik ez. Adigai horiei psikologikoki itsasten zaien beste guztia baztertzen da, hau da, gure ahalmen hori bere *aplikazioan* enpirikoki begiratzen dugun heinean (adibidez, giza-kien adimena diskurtsiboa dela, haren errepresentazioak pentsamenduak direla, ez begiespenak, eta horiek denboran elkarren ondoan lerratzen direla, bere nahimenaren poza beti objektu baten existentziaren menpe dagoela, eta abar, hori guztia zerizan gorenean ezin izaki horrela), eta beraz, guk adimen-zerizan bat pentsatzeko erabiltzen ditugun adigaietatik ez da ezer geratzen, salbu lege moralak pentsatzeko ahalgarritasunerako behar dena, eta beraz, Jainkoaren ezagutza, baina soilik harreman praktikokoan, eta saiatzen bagara hori ezagutza teoretikora hedatzen, orduan haren adimena lortzen dugu, pentsatzen ez duena baizik eta *begiesten* duena, eta nahimen bat lortzen dugu, bere askitasunerako gutxienean ere behar ez dituen objektuen existentziara zuzentzen dena (ez ditut predikatu transzendentalak aipatu ere egin nahi, esaterako, denboran ez dagoen existentziaren neurria, hau da, iraupena, hori izaki guk izatea neurri gisa errepresentatzeko dugun bitarteko ahalgarri bakarra); eta, beraz, ezaugarri horien guztien adigairik ezin dugu izan, objektuen *ezagutzarako* balioa lukeen ezein adigairik, eta horrek irakasten digu haiek inoiz ezin go direla erabili sentimenetik haratagoko zerizanen *teoria* baterako, eta beraz, alde horretatik ezin dutela ezagutza espekulatiborik oinarritu, baizik eta horren erabilera lege moralaren aplikaziora murriztu besterik ez.

Azken hori hain begi-bistakoa da eta hain argiki froga daiteke egitateen bidez ezen *berezko teologian* ustez *ikasiak* diren guztiei (izen harrigarria²⁸) konfiantzaz eska baitiezaiekegu euren objektu hori determinatzen duen ezaugarri bakarra izendatzeko, agian adimena edo nahimena, non modu kontraezinean argitu ahal izango litzate-

keen ezen, horri antropomorfikoa den oro kentzen bazaio, hitz soila besterik ez bailitzaiguke geratuko, horri ezein adigai lotu ahal izan gabe, horren bidez ezagutza teoretikoaren hedapen bat itxaron ahal izateko. Alderdi praktikoari dagokionez, ordea, adimen baten eta nahimen baten ezaugarrietatik oraindik geratzen zaigu erlazio baten adigaia, zeinari lege praktikoak (hain zuzen adimenak nahimenarekin duen erlazio hori a priori determinatzen duenak) errealitate objektiboa eskuratzen dion. Hori gertatu bada, orduan moralki determinatutako nahimen baten objektuaren adigaiari (ongi gorenarenari) eta horrekin batera horren ahalgarritasunaren baldintzei, Jainkoaren, askatasunaren eta hilezkortasunaren ideiei, errealitatea eskuratuko zaie, baina betiere lege moralaren aplikazioarekin harremanean (ezein asmo espekulatibotarako).

Ohar horiek egin ondoren erraz aurki daiteke orain galdera garrantzitsuenari erantzuna, ea *Jainkoaren adigaia fisikari* (eta beraz, metasifikari, horren apriorizko printzipio hutsak euren esanahi orokorrean barnebiltzen dituen heinean) edo *moralari dagokion adigaia* den. Naturaren antolamenduak edo haren aldaketak *argitzea* Jainkoarenaganako ihesbidea hartuz gauza guztien egile gisa, gutxienez ez da argibide fisikoa, eta filosofiarekin azkenekotan egotearen aitorpena da oro har, zeren behartuta baikaude zerbait onartzera, berez horren ezein adigai izan gabe, horrela begien aurrean ikusten denaren ahalgarritasunaren adigai bat osatu ahal izateko. Metafisikaren bidez, ordea, mundu honen ezagutzatik abiatuta Jainkoaren adigaira eta horren existentziaren frogara *arrazoiketa seguruen* bidez iristea honegatik da ezinezkoa, hots, guk mundu hau osotasun albait beteginen gisa, eta beraz, horretarako mundu ahalgarri guztiak ezagutu beharko genituzkeelako (hura horiekin alderatzeko), eta beraz, orojakile izan beharko genukeelako, horrela esan ahal izateko hura *Jainko* baten bidez baino ez zela ahalgarri (adigai hori edonola pentsatzen dugula ere). Baina erabat ezinezkoa da zerizan horren existentzia adigai soiletatik abiatuta ezagutzea, zeren halako existentzia-esakune oro, hau da, zerizan batez esaten duena existitzen dela nik horren adigaia dudalako, esakune sintetikoa da, hau da, horren bidez adigai hartatik irte ten naiz eta hartaz bere adigaian pentsatzen zena baino gehiago esaten dut, hots, *adimenean* dagoen adigai horri *adimenetik at* berari egokitzen zaion objektua ezartzen zaiola, ezinezkoa dena nabarmenki arra-

zoiketaren baten bidez argitzea. Beraz, ezagutza horiek lortzeko arrazoimenari prozedura bakarra geratzen zaio, hark hain zuzen arrazoimen huts gisa, bere erabilera praktiko hutsaren printzipio garaienetik abiatuz (hori, dena den, zerbaiten *existentziara* zuzentzen den heinean, arrazoimenaren ondorio gisa) bere objektua determinatzen duenez. Eta hor nabarmentzen da bere ezinbesteko eginkizunean, hots, nahimena halabeharrez ongi gorenera zuzentzea, munduko ongi horren ahalgarritasunarekin harremanean halako oinarritzko zerizana onartzeko beharrezkotasuna eta, gainera, harrigarriena dena, arrazoimenaren ibilbideari naturaren bidean guztiz falta zitzaiona, hots, *oinarritzko zerizan horren zehazki determinatutako adigaia*. Guk mundu honen zati txiki bat baino ezagutzen ez dugunez, eta mundu ahalgarri guztiekin are gutxiago aldera dezakegunez, orduan horren ordena, xedetasuna eta tamainatik abiatuta egile *jakintsu, onbera, boteretsu* bat, eta abar arrazoitu dezakegu, baina ez horren *orojakintasuna, ontasun osoa, eta oroahalmena*, eta abar. Onar daiteke, gainera, ezinbesteko gabezia hori hipotesi baimendu, guztiz arrazoizko baten bidez osatzeko eskubidea dugula, hots, gure ezagutze hurbilagoari eskaintzen zaion moduan hainbat alderditan jakituria, onberatasunak, eta abarrek dirdiratzten badute, gainera beste alderdietan antzerakoa gertatuko dela, eta beraz, arrazoizkoa dela munduaren egileari betegintzarre ahalgarri denak egozte; baina horiek ez dira gure ulermenaz harrotzeko moduko *arrazoiketak*, baizik eta onartu ahal zaizkigun eskumenak baina beste nonbaitetik datorren gomendioa behar dutenak, horien erabilera egiteko. Jainkoaren adigaiak, beraz, (fisikaren) bide enpirikoan lehen zerizanaren betegintzarrearen *zehazki determinatugabeko adigaia* izaten dirau, horri jainkotasunaren adigaiarentzat egoki irizteko (metafisikaren bidez ezin da ezer lortu bere alderdi transzendentalean).

Orain adigai hori arrazoimen praktikoaren objektuan probatzen saiatzen naiz, eta orduan aurkitzen dut oinarritzko esakune moralak ahalgarritzat onartzen duela *betegintzarre gorena* duen munduaren egile baten auresuposiziopean. *Orojakilea* izan behar du, nire jokarrera ezagutzeko nire jaiduraren barne-barneraino kasu guztietan eta etorkizun osoan; *oroahalduna*, horri ondorio egokiak esleitzeko; era berean *beti presentea, betikoa*, eta abar. Eta beraz, lege moralak ongi gorenaren adigaiaren bidez, arrazoimen praktiko huts baten objektu

gisa, oinarritzko zerizanaren adigaia determinatzen du *zerizan goren* gisa, eta arrazoimenaren ibilbide fisikoak (eta hori gorago jarraituz metafisikoak) eta, beraz, ibilbide espekulatibo osoak ezin zuen hori lortu. Beraz, Jainkoaren adigaia jatorriz ez fisikari, hau da, arrazoimen espekulatiboari, baizik eta moralari dagokion adigaia da, eta horixe bera esan daiteke gainerako arrazoimen-adigaiei buruz, arrazoimenaren postulatu gisa horren erabilera praktikoan lehenago jorratu ditugunei buruz.

Filosofia grekoaren historian *Anaxagorasengan* salbu arrazoimenaren teologia huts baten aztarna argiak topatzen ez badira, horren arrazoa ez da antzinako filosofoei adimena eta ulermena falta zitzaie-lar hori lortzeko espekulazioaren bidetik gutxienez hipotesi erabat arrazoizko baten laguntzarekin; zer litzateke errazago, berezkoago, berez edonori aurkezten zaion pentsamendua, hots, munduaren hainbat kausaren betegintzarre maila determinatugabeak onartu beharrean *betegintzarre* osoa duen arrazoizko kausa bakarra onartzea baino? Baina munduko alderdi txarrak pisu gehiegiko objektzio ziren haien-tzat, halako hipotesia onartzea zilegi izateko. Eta beraz, honela erakutsi zuten adimena eta ulermena, hots, hura ez zuten baimendu eta natur kausen artean bilatu zuten han-hemenka ea ez zuten topatzen horien artean oinarritzko zerizanarentzat behar diren eraketa eta ahalmena. Baina herri zorrotz hura euren ikerketetan hain aurreratua zegoenean, objektu etikoak filosofikoki jorratzerainoko mailan, beste herriek horretaz berriketa baino egiten ez zutenean, bada, orduan premia berri bat aurkitu zuten, hots, premia praktikoa, zeinak ez zuen kale egin haiei oinarritzko zerizanaren adigaia era determinatuan eskuratzekoan, eta hor arrazoimen espekulatiboak begiratu baino ez zuen egin, gehienez ere bere soroan hazi ez zen adigaia edertzeko merezimendua zuen, eta orain lehenengoz agertu ziren naturaren behaketatik zetozen baiespenen ilara baten bidez ez zuen haren errespetua sustatu (hori oinarrituta baitzegoen), baizik eta edergailuak gehitu besterik ez zuen egin ustezko arrazoimenaren ulermen teoretikoaren bidez.

* * *

Ohar horietatik abiatuta *Arrazoimen espekulatibo hutsaren kritika*ren irakurlea erabat konbentzituko da honetaz: zein beharrezkoa, zein ezinbestekoa zen teologia eta moralarentzat kategorien *dedukzio*

lantsu hura. Izan ere, horren bidez baino ezin da eragotzi haiek, arrazoimen hutsean ezartzen direnean, *Platonekin* batera jaiotzetikotzat hartzea eta horren gainean handigura transzendenteak oinarritzea sentimenetik haratago denari buruzko teoriekin, horren amaierarik aurreikusi ezin delarik, baina horren bidez teologia mamuen linterna magikoa bihurtuz; haiek, ordea, eskuratutakotzat hartzen badira, dedukzio horrek eragozten du *Epikurorekin* batera haien erabilera guztiak, baita asmo praktikoan ere, sentsuen objektu eta determinazio oinarrietara murriztea. Baina kritikak dedukzio hartan frogatu zuenez *lehenik* haiek ez dutela jatorri enpirikorik, baizik eta a priori adimen hutsean dutela euren egoitza eta iturria; *bigarrenik*, *objektuei oro har* lotzen zaizkenez, haien begiespenetik beregain, haiek noski objektu enpirikoei aplikatzean baino ez dutela sortzen *ezagutza teoretikoa*, baina, hala ere, arrazoimen praktiko hutsaren bidez ematen zaigun objektu bati aplikatuta, *sentimenetik haratagokoa era determinatuan* pentsatzeko balio dutela, baina soilik hori halabeharrez a priori dugun *asmo praktiko* hutsari eta horren ahalgarritasunari dagokien predikatuen bidez determinatzen den heinean. Arrazoimen hutsaren murriztapen espekulatiboak eta horren zabalpen praktikoak arrazoimena *berdintasun erlazio* batera ekartzen dute, non arrazoimena oro har bere xedeari begira erabil daitekeen, eta adibide horrek frogatzen du beste edozeinek baino hobeto *jakituriarako* bideak, segurua bihurtuko bada eta ez ibiltezina edo nahasgarria, gizakiongan ezinbestean jakintza zeharkatu behar duela, baina horrek helburu hartara eramango gaituela, nahiz eta horretaz bideaosatzean baino ezingo garen konbentzitu.

VIII. Arrazoimen hutsaren premiak eskatutako egiestea

Arrazoimen hutsaren *premia* batek horren erabilera espekulatiboan *hipotesiak* baino ez ditu sortzen, arrazoimen praktiko hutsaren premiek, ordea, *postulatuak*; izan ere, lehen kasuan eratorria denetik nahi bezain gora igotzen naiz oinarrien ilaran, eta jatorrizko oinarria behar dut, ez eratorria den hari (adibidez, munduko gauza eta aldaketan kausazko loturari) errealtate objektiboa emateko, baizik eta nire arrazoimen ikertzailea horri dagokionez asebetetzeko besterik ez. Horrela, naturan nire aurrean ordena eta xedetasuna ikusten ditut, eta ez dut behar horren *errealtateaz* ziur izateko espekulaziora jotzea, baizik eta *Jainkotasun* bat horren kausa gisa *aurreuposatzea* besterik

ez, hori *argitze*ko; bada, ondorio batetik abiatuta kausa determinatu bat arrazoitzea, bereziki hain zehazki eta osoki determinatua, Jainkoan pentsatzen dugun moduan, betiere badaezpadakoa eta zalantzagarria denez, halako auresuposizioa ezin da guretzat iritzi arrazoizkoena dena baina maila handiagora eraman²⁹. Aitzitik, arrazoimen *praktiko* hutsaren premia zerbait (ongi gorena) nire nahimenaren objektu bihurtzeko *betebehar* batean oinarritzen da, hori nire indar guztiz sustatzeko; nahiz eta horren ahalgarritasuna, eta beraz, horretarako baldintzak auresuposatu behar dituen, hots, Jainkoa, askatasuna eta hilezkortasuna, nik horiek arrazoimen espekulatiboaren bidez ezin ditudalako frogatu, errefusatu ere ezin ditudan arren. Betebehar hori auresuposizio horietatik erabat beregaina den, berez apodiktikoki ziurra den legean, hots, lege moralean oinarritzean da, eta horrenbestez ez du iritzi teoretikoen laguntzaren premiarik gauzen barne eraketari buruz, munduaren ordenaren ezkutuko xedeari buruz edo horren buru den gobernari bati buruz, horrela gu era beteginenean baldintzatugabeki legezkoak diren ekintzetara lotzeko. Baina lege horren eragin subjektiboak, hots, horri dagokion *jaidurak* eta horren bidez gainera beharrezkoak diren *jaidurak*, praktikoki *ahalgarri* den ongi gorena sustatzekoak, gutxienez auresuposatzen du azken hori ahalgarri dela, bestela praktikoki ezinezkoa bailitzateke funtsean kaskala eta objekturik gabea den adigai baten objektua lortzen ahalegintzea. Baina aipatutako postulatuak ongi gorenaren *ahalgarritasunaren* baldintza fisikoekin edo metafisikoekin baino ez dute zer ikusia, hitz batean gauzen izaeran datzaten baldintzekin, baina ez asmo espekulatibo nahierazko baten mesedetan, baizik eta arrazoimen-nahimen huts baten praktikoki beharrezkoa den xede baten mesedetan, nahiz eta horrek hemen ez *aukeratu*, baizik eta arrazoimenaren agindu ezinbestekoari *men egiten* dion, bere oinarria *objektiboki* gauzen eraketan duen aginduari, arrazoimen hutsak orokorki juzgatu behar duen bezala, eta ez da *joeran* oinarritzen, horrek ez baitu baimenik inolaz ere guk oinarri *subjektiboengatik* desiratzen dugunaren mesedetan berehala horretarako bitartekoak ahalgarri gisa edo objektu erreal gisa onartzeko. Beraz, hori *premia* bat da *guztiz beharrezkoa den ikuspegian*, eta bere auresuposizioa legeztatzen du ez soilik hipotesi onartu gisa, baizik postulatu gisa asmo praktikoa; eta onartzen bada lege moral hutsak agindu den aldetik (ez zuhurtasun erregela gisa) edonor ezinbestean lotzen duela, orduan pertsona zuzenak esan dezake: Jain-

koa izan dadila nahi dut, mundu honetan dudan izatea naturaren elkarloturatik at adimenaren mundu bateko izatea izan dadila nahi dut, eta azkenik, nire iraupena amaigabea izan dadila nahi dut, horretan tematzten naiz eta ez dut onartuko sinesmen hori inork kentzea; izan ere, hor baino ez baita gertatzen nire interesak, ezertan indargetu *behar* ez dudana, nire judizioa ezinbestean determinatzen duela, arrazoikeriei arretarik eskaini gabe, hain ezgai banaiz ere horiei erantzuteko edo horiei itxurazkoagoak direnak aurkakotzeko³⁰.

* * *

Adigai hain bitxiaren erabileran, arrazoimen-sinesmen praktikoko huts baten kasuan bezala, gaizki-ulertzeak ekiditeko, zilegi bekik are ohar bat gehiago gaineratzea. Badirudi ia arrazoimen-sinesmen horrek hemen *agindu* gisa iragarriko lukeela, hain zuzen, ongi goren ahalgarri gisa onartzea. Baina agintzen den sinesmen bat zentzugabekeria da. Hala ere, gogora ekartzen badugu lehenago aipatutako eztabaida, ongi gorenaren adigaian zer onartu behar denari buruzkoa, ohartuko dugu ahalgarritasun hori onartzea ezin dela agindu inolaz ere, eta ez dela ezein jaidura praktikorik eskatzen hura *onartzeko*, baizik eta arrazoimen espekulatiboak hura eskakizunik jaso gabe ere onartzen duela; izan ere, inork ezin du baieztatu bere baitan ezinezkoa dela lege moralari egokitzen zaion zerizan arrazoidunaren duintasuna munduan zoriontsu izateko eta aldi berean horri lotuta zorion horren jabegoa izatea. Baina ongi gorenaren lehen osagaiari dagokionez, hots, etikotasunari dagokionez, lege moralak agindu bat baino ez digu ematen, eta osagai horren ahalgarritasuna zalantzan jartzea, lege moralak bera zalantzan jartzea bezainbat litzateke. Baina objektu haren bigarren osagaiari dagokionez, hots, duintasun hari guztiz egokitzen zaion zorionari dagokionez, haren ahalgarritasuna oro har onartzeko ez dago agindu baten premiarik, arrazoimen teoretikoak berak ez baitu ezer horren aurka, baina natur legeak askatasunarekin harmonian pentsatzeko *eran* soilik sortzen zaigu *aukera* bat, zeren arrazoimen teoretikoak ez baitu ezer erabakitzen ziurtasun apodiktikoz, eta horri dagokionez azken erabakia hartzen duen interes moral bat izan daiteke.

Lehenago esan dut naturaren ibilera soilaren arabera munduan balio etikoari zehazki dagokion zoriona ezin dela itxaron eta ezinezkotzat hartu behar dela, eta ongi gorenaren ahalgarritasuna ere alde

horretatik munduaren egile moralaren auresuposiziopean soilik onar daitekeela. Zuhurtasunez judizio hori murriztu nuen gure arrazoimenaren baldintza subjektiboetara, horrela haren egiestea zehazkiago determinatua izan ondoren hura erabiltzeko. Egitatean, aipatutako *ezintasuna subjektiboa* baino ez da, hau da, gure arrazoimenak ezinezkoa aurkitzen du hain lotura zehazki egokitua eta guztiz xedearen araberkoa ulergarri bihurtzea hain lege ezberdinen arabera diharduten munduko gertaera bien artean naturaren ibilbide soilaren arabera, nahiz eta horren ezintasuna natur lege orokorren arabera ezin duen frogatu, hau da, oinarri objektiboetatik abiatuta nahikoa azaldu, naturan xedeen araberkoa den guztiarekin gertatzen denez.

Baina orain beste motako erabaki-oinarria sartzen da jokoan, arrazoimen espekulatiboaren kulunka horretan azken erabakia hartzeko. Ongi gorena sustatzeko agindua objektiboki oinarrituta dago (arrazoimen praktikoa), eta horren ahalgarritasuna oro har ere bai (arrazoimen teoretikoa, ez baitauka ezer horren aurka). Baina ahalgarritasun hori errepresentatzeko modua da arrazoimenak objektiboki erabaki ezin duena, ea natur lege orokorren arabera egin behar den naturaren buru den egile jakintsurik gabe, edo hori auresuposatuz egin behar den. Hemen arrazoimenaren baldintza *subjektiboa* sortzen da: harentzat teoretikoki ahalgarri den modu bakarra, aldi berean moralitateak (arrazoimenaren lege *objektibo* baten menpe dagoenak) onar dezakeen modua naturaren erresuma eta ohituren erresumaren arteko bateratasuna pentsatzeko ongi gorenaren ahalgarritasunaren baldintza gisa. Horren sustapena eta, beraz, horren ahalgarritasunaren auresuposizioa *objektiboki* (baina soilik arrazoimen praktikoa irraiki) beharrezkoa denez, aldi berean ordean hori ahalgarri gisa pentsatzeko modua gure esku dagoenez, hor arrazoimen praktikoa hutsaren interes aske batek munduaren egile jakintzu baten onarpenaren alde erabakiz, orduan gure judizioak hemen determinatzen duen printzipioa, *subjektiboki* bada ere premia gisa, baina aldi berean *objektiboki* (praktikoki) beharrezkoa dena sustatzeko bitarteko gisa, egiazkotzat hartzeko *maxima* baten oinarria da asmo moralean, hau da, *arrazoimen sinesmen praktikoa hutsa*. Hori, beraz, ez da agintzen, baizik eta berez sortu da jaidura moraletik existentzia hori onartzeko eta arrazoimenaren erabileran oinarrian ezartzeko gure judizioaren determinazio aske gisa, asmo moralarekin (agindutakoarekin) erka daite-

keena, eta gainera arrazoimen-premia teoretikoarekin ados daitekeena; beraz, sarri gerta daitezke kulunkak jaidura oneko pertsonetan, baina hori inoiz ezin da erori sinesmen ezan.

IX. Gizakiaren ezagumenen proportzioaz, bere determinazio praktikoari zuhurki egokitzen zaion heinean

Giza izaera ongi gorenaren lortzen saiatzera determinatuta bada, orduan pentsatu behar da bere ezagumenen neurria ere, bereziki euren arteko erlazioa, xede horretara zuzentzen dela. Baina arrazoimen *espekulatibo* hutsaren kritikak frogatzen du haren ahultasun handiena ezarri zaizkion eginkizun garrantzitsuenei dagokienez helburua egokiro lortzeko, nahiz eta ez dituen alde batera uzten arrazoimen horrek berak egiten dizkion keinu argiak eta hark egin ditzakeen urrats handiak, ezarri zaion xede handi horretara hurbiltzeko, baizik bere kabuz inoiz lortu gabe, naturaren ezagupen handienaren laguntzarekin ere ez. Beraz, itxuraz naturak hemen gure xederako behar den ahalmenari dagokionez *amaorde* batek bezala hornitu gaitu.

Demagun, bada, naturak gai horretan gure desireri erantzun ziola eta guk izan nahiko genukeen ulermen edo argitzapen hura eskuratu zigula, edo batzuek horren jabe izatea benetan *amesten* dutela, zein izango litzateke itxura guztien arabera horren ondorioa? Aldi berean gure izaera osoa aldatuko ez balitz, gure *joerek*, betiere lehen hitza dutenek, lehenik euren asebetea eskatuko lukete eta, arrazoizko hausnarketari lotuta, euren asebate albait handien eta iraunkorrena *zorionaren* izenpean; lege moralak ondoren hitz egingo luke haiek euren muga egokietan mantentzeko eta, gainera, haiek orobat xede garaiago bati, ezein joerari arretarik eskaintzen ez dion xede bati menpekotzeko. Baina orain jaidura moralak joerekin izan behar duen gatazkaren orde, non galera batzuen ondoren pixkanaka arimaren indar morala irabazten den, *Jainkoa* eta *betikotasuna begien aurrean* izango genituzke ezinbestean *euren bikaintasun izugarrian* (izan ere, guztiz froga dezakeguna, ziurtasunari dagokionez, begiek eskaintzen diguten ziurtasunak bezainbat balio digu). Legearen haustura saihestuko litzateke, noski; agindutakoa egingo litzateke; baina *jaidura*, ekintzen jatorria dena, ezein aginduren bidez hornitu ezin denez, hemen ordea ekintzarako akuilua eskura dagoenez eta *kanpotik* datorrenez, arrazoimenak ez du ahalegindu behar joeren aurkako erresistentziarako indarra biltzen legearen duintasunaren errepresentazio

biziaren bidez, eta beraz, ekintza legezko gehientsuenak izuagatik ger-
tatuko lirateke, gutxi batzuk besterik ez itxaropenagatik, eta bat ere ez
betebeharragatik, baina ekintzen balio moralik ez litzateke existituko,
pertsonaren balioa eta mundua berarena horren menpe egonik jakitu-
ria gorenaren begietan. Gizakien jokaera, euren izaerak orain dena
izaten irauten badu, mekanismo soil bat bihurtuko litzateke, non txo-
txongilo antzerkian bezala *keinua*k ongi egingo liratekeen baina per-
tsonaietan *bizitzarik ezingo* litzatekeen topatu. Baina gure izaera guz-
tiz bestelakoa denean, gure ahalegin guztien ordainetan gure arrazoi-
menak etorkizunaren ikuspegi ilun eta zentzubikoa lortzen duenean,
munduaren gobernariak bere izatea eta bere bikaintasuna sumatzen
baino ez digunean uzten, baina ez ikusten, edo argiki frogatzen, baina
bestalde lege moralak gudan, guri ziurtasunez ezer agindu gabe, edo
mehatxatu gabe, begirune eskuzabala eskatzen digunean, baina beste-
lakoan begirune hori ekinean dagoenean eta nagusitu denean lehenik
eta horren bidez soilik sentimenetik haratagokoaren erresumaren
ikuspegia baimentzen digunean, orduan izan dezakegu egiazko jaidu-
ra etikoa, legeari bitartegabe ematen zaion jaidura eta sorkari arrazoi-
duna bere pertsonaren balio moralari, ez soilik bere ekintzei, dagokion
ongi gorenean parte hartzeko duin bihur daiteke. Hemen ere zuzena
izan daiteke, beraz, naturaren eta gizakiaren azterketak beste nonbait
nahikoa irakasten diguna, hots, eskura eman digunagatik bezain oho-
ragarria dela ukatu digunagatik existiarazten gaituen jakituria ulerte-
zina.

ARRAZOIMEN
PRAKTIKOAREN KRITIKA
BIGARREN ZATIA

Arrazoimen praktiko hutsaren
metodoaren irakaspena

METODOAREN IRAKASPENA

Arrazoimen praktiko hutsaren *metodoaren irakaspenak* ez du adierazten oinarritzko esakune *praktiko* hutsekin haren ezagutza *zientifiko* bat lortzeko asmotan jokatzeke era (gogoetan eta hitzaldian), bestelakoan filosofia *teoretikoan* benetan metodo baino deitzen ez dena (izan ere, ezagutza herrikoiak *moduak* behar ditu, zientziak, ordea, *metodo* bat, hau da, arrazoimenaren *printzipioen arabera* jokatzen duen prozedura bat, horren bidez baino ezin baita ezagutza baten aniztasuna *sistema* bihurtu). Aitzitik, irakaspenaren metodo horrek adierazten du arrazoimen praktiko hutsaren legeak giza gogamenerako *bidea egiteko* eta haren maximen gainean *eragina* lortzeko modua, hau da, objektiboki praktikoa den arrazoimena *subjektiboki* ere praktikoki bihur ahal izateko modua.

Argi dago, noski, maximak benetan moral bihurtzen dituzten eta horiei balio etikoa esleitzen dien nahimenaren determinazio-oinarriek ekintzen benetako bultzagai bezala errepresentatu behar dituzte-la legearen bitartegabeko errepresentazioa eta horren objektiboki beharrezkoa den betetzea betebeharrak gisa, zeren bestela ekintzen *legez-kotasuna* bai, baina jaiduren *moraltasunik* ez bailitzateke eragingo. Baina edonori ezin zaio hain argi izan, aitzitik lehen begiratuan guztiz nekez sinestekoa irudituko zaio ezen, subjektiboki ere bertute hutsaren aurkezpen hark *botere* gehiago izatea giza gogamenaren gain eta bultzagai askoz ere indartsuagoa eman ahal izatea, berez ekintzen

legezkotasun hura eragiteko eta erabaki indartsuagoak hartzeko, legea berari zaion begiruneagatik beste ikuspegi orori lehenesteko, plazeren eta zorionaren osagai izan daitekeen beste edozeren antzezpenetik sortutako erakargarriek baino, edo baita mina eta ongiezaren mehatxu guztiek inoiz eragin dezaketena baino. Baina benetan horrela dira gauzak, eta giza izaera horrela eratuta ez balego, legearen ezein erre-presentazio motak ez luke inoiz lortuko jaiduraren moralitasuna zeharbideen bidez eta zeharkako gomendioen bidez. Guztia zurikeria baino ez litzateke izango, legea gorrotatu egingo litzateke, edo mespretxatu ere bai, nahiz eta norberaren abantailagatik beteko den. Legearen idazkera (legezkotasuna) topatuko litzateke gure ekintzetan, baina ez litzateke haren espiriturik aurkituko gure jaiduretan (moralitasuna), eta guk ahalegin guztiak egin arren, gure judizioan arrazoimena baztertu ezin dugunez, ezinbestean gure begien aurrean gizaki ezduin, alferrik galdutakoa izatea iruditu beharko litzauguke, nahiz eta barne epaimahaiaren aurrean egozpen hori dela eta kalterik gabe mantentzen saiatu, guk onartutako naturaren edo Jainkoaren lege batek gure asmenaren arabera bere poliziaren mekanismoarekin (zeina egiten denari jarraitzen zaion, hori egiteko bultzatzaileez arduratu gabe) lot zezakeen plazeraz gozatuz.

Ezin da ukatu ezen, gogamen oraindik prestatugabea edo gogamen basatia lehenik ongi moralaren bidean jartzeko, gida prestatzaile batzuk behar direla, hori bere abantaila propioaren bidez erakarri edo kalteen bidez beldurtzeko; baina mekanismo horrek, eskorga horrek eragin pixka bat izan bezain pronto, orduan bultzatzaile moral hutsa arimara ekarri behar da, zeinak gogamenari itxaroten ez zuen indarra ematen dion sentimenezko menpekotasun orotatik askatzeko, nagusi bihurtu nahi duen heinean, eta, bere burua horretarako determinatua ikusten duela, bere izaera adimenduzkoaren eta arimaren tamainaren beregaintasunean sortzen dituen biktimenzat konpentsazio handia bilatzen du, ez soilik izaera bat oinarritzen duen bakarra delako (pentsaera praktikoa kontsekuentea maximo aldaezinen arabera), baizik eta gainera gizakiei euren duintasuna sentitzen irakasten dielako. Beraz, gure gogamenaren ezaugarri hori, interes moral hutsaren hartze hori eta, beraz, bertutearen erre-presentazio hutsaren indar higitzailea frogatu nahi dugu edonork egin ditzakeen behaketen bidez, egokiro giza bihotzera ekartzen bada ongiaren bultzagai boteretsuen gisa, eta maxi-

ma morala betetzean dugun iraupen eta puntualtasunari dagokionez, bultzagai bakar gisa; baina aldi berean ohartarazi behar da ezen, behaketa horiek halako sentimendu baten errealitatea soilik frogatzen badute, baina ez horren bidez sortutako hobekuntza etikoa, horrek ez diola oztoporik jartzen arrazoimen hutsaren praktikoki objektiboa den legea betebeharraren errepresentazio huts soilaren bidez subjektiboki praktikoki bihurtzeko, hori asmakeria hutsala balitz ere. Izan ere, metodo hori inoiz abiarazi ez denez, orduan esperientziak ezin du haren arrakasta azaldu, baizik eta halako bultzagaien hartzearen frogapenak eskatu baino ezin du egin, nik hemen motzean aurkeztuko ditudanak, eta ondoren egiazko jaidura moralen oinarritzea eta jorratzea zirriborratuko dut hitz gutxitan.

Lagunarte nahastuan elkarriketan ari garela, beraz, ez jende ikasi eta arrazoitzaile soilen artean, baizik eta negozio-gizon eta emakumeen artean, arreta eskaintzen bada, orduan ohartzen dugu kontaketez eta bromez gain hor elkarriketa bat dagoela, hots, arrazoitze bat, zeren lehena, berriak eta horrekin batera interesa ekarri behar badu, berehala agortzen baita, eta bigarrenak azkar galtzen baitu gatza. Arrazoitze modu guztien artean, ordea, ez dago bestelakoan arrazoitze orotan aspertzen diren pertsonen parte hartzea gehiago pizten duenik eta lagunartean giro pixka bat sortzen duenik pertsonaren baten izaera azalaraziko lukeen ekintza horren edo haren *balio etiko* - *ari* buruzkoa baino. Arazo teoretikoen sotiltasuna eta iluntasuna lehor eta aspergarri zaien horiek berehala animatzen dira kontua aipatu den ekintza on edo txar baten eduki morala zehaztea denean, eta hain zehatzak, ilunak, sotilak dira asmoaren araztasuna eta, beraz, bertutearen maila gutxitu lezakeen edo soilik susmagarri bihurtu egin lezakeen oro hausnartzerakoan, espekulazioaren ezein objekturi dagokionez euren aldetik itxaron ezingo zena. Juzgaketari horietan sarri beste pertsonen gainean juzgatzen duten pertsonen izaera bera islatzen dela ikus daiteke, eta horietako batzuek itxuraz joera handia dute, epaile kargua bereziki hildakoen gainean aplikatzen dutenean, horien ekintza batez edo besteaz aipatzen den alde ona defendatzeko gezurteriarren egozpenen aurka eta, azkenik, pertsonaren balio etiko osoa iruzurraren eta ezkutuko gaiztotasunaren egozpenen aurka defendatzeko; beste batzuek, aitzitik, salaketa eta akusazioetan pentsatzen dute balio horren aurka egiteko. Hala ere, azken horiei ezin zaie beti egotzi ber-

tutea gizakien adibide guztietatik erabat arrazoibidez erauzi nahi izateko asmoa, horrela izen hutsala lortzearren, baizik eta sarri eduki etiko egiazkoaren determinazioan erabiltzen den jaidura oneko zorrotzasuna da lege ezinbesteko baten arabera, zeren horrekin alderatuta, eta ez adibideekin, moral gaietako hantustea asko hondoratzen baita, eta umiltasuna irakatsi besterik ez ezik, gainera, norberaren buruaren probaketa zorrotza egitean edonork sentitu ere egiten baitu. Hala ere, adibide jakin batzuetan asmoaren araztasuna defendatzen dutenengan ikusten da gehienetan, hark zuzentasunaren susmoa duenean ere berez orban txikiena ere gustura kenduko luketela, arrazoi honegatik hain zuzen, adibide guztiei euren egiazkotasuna eztabaidatu eta giza bertute orori zintzotasuna ukatuko balitzaio, hori azkenean asmakeria soiltzat har ez dezaten eta horrela hura lortzeko ahalegin guztiak gutxiets ez daitezen edergarri hutsal eta hantuste iruzurti gisa.

Ez dakit gazteriaren hezitzaileek zergatik ez duten erabili aspaldi arrazoimenaren aiher hau, hots, sortzen diren arazo praktikoetan proba sotilena ere plazerez jorratzea, eta, oinarrian morala baino ez den katixima ezarri ondoren, zergatik ez dituzten antzinako eta egungo biografiak bilatzen aurkeztutako betebeharren egiaztagarri gisa eskura izateko asmoz, horrela bereziki inguruabar ezberdinetan gertatzen diren antzeko ekintzen alderaketaren bidez euren apopiloen juzgaketa abiarazteko, horien eduki moral txikia edo handia ohartzeko, eta hor gaztetxoak, espekulazio orotarako umotugabeak direnak, berehala oso zorrotz bihurtzen dira, eta euren juzgamenaren aurrerapena sentitzen dutenez, interesa hartzen dute, eta garrantzitsuena dena, segurtasunez itxaron dezakete jokaera ona bere araztasun osoan ezagutzeko eta hori onesteko ariketa sarriak, horretatik baztertze txikiena penaz edo mespretxuz ohartarazten duenak, nahiz eta haurrek elkarrekin nor gehiago egin dezaketen juzgamen-joko gisa egiten den ariketa izan, hala ere, alde batetik estimazio handiaren inpresio iraunkorra utziko duela eta, bestetik, nazkarena, eta horrela halako ekintzak onespena edo gaitzespena jasotzeko duintzat hartzeko ohitura soilaren bidez oinarri on bat osatuko litzateke etorkizuneko jokaera zuzenerako. Baina nahiko nuke haiei gure idazki sentiberek gainezka dituzten ekintza *noble* (merezimenduz gaingarriko) deitzen zaien adibideak aurrezte, eta dena betebeharren eta gizaki batek hori hautsi ez izateaz duen kontzientziaren bidez bere begien aurrean bere buruari eman

diezaiokeen eta eman behar dion balioaren esku uztea, zeren desira hutsaletara eta betegintzarre gaindituezinen irriketara jotzeak eleberrietako heroiak baino ez ditu sortzen, zeintzuk, neurri oroz gaindi handia denarentzat duten sentimenduari pisu hain handia ematen dioten heinean, horren ordezt garrantzi gabeko iruditzen zaizkien obligazio arrunt eta egingarriak betetzetik askatzen diren³¹.

Baina galdetuko balitz, ordea, zer den bada benetan etikotasun *hutsa*, non proba-harri gisa ekintza ororen eduki morala probatu behar den, orduan aitortu behar dut filosofoek baino ezin dutela auzi horren erabakia zalantzarri bihurtu; izan ere, giza arrazoimen arruntan aspalditik erabaki baita, eskuin eta ezker eskuen arteko aldea bezala, ez noski formula orokor garaien bidez, baizik eta erabilera arruntaren bidez. Beraz, orain lehenik bertute hutsaren proba-ezaugarria adibide batean erakutsi nahi dugu eta ikusten dugu, hamar urte inguruko mutil bati aurkezten zaiola juzgatzeko errepresentatzen dugun heinean, ea horrek bere kabuz, irakasleak hori erakutsi gabe, halabeharrez horrela juzgatu behar ote zuen. Gizon zintzo baten istorioa kontatzen da, zeina bultzatu nahi den pertsona inozo eta gainera txiro baten iraintzaileekin bat egitera (Ana Boleyn adibidez Ingalaterrako Henrike VIII.aren akusaziopean). Irabaziak eskaintzen zaizkio, hau da, opari ederrak edo goi karguren bat, baina uko egiten die. Horrek onespene eta onarpen soila sortuko dute entzulearen ariman, kontua irabazia delako. Baina has gaitezen galeraren mehatxuarekin. Iraintzaile horien artean bere lagun onenak daude, orain laguntasun hori ukatzen diotenak, senitartekoak ere bai, edozein leku eta egoeratan jarraitu eta zirikatu diezaioketenak, baita lurraldeko printzea ere, askatasunaren galerarekin, are bizitzarenarekin ere mehatxatzen duena. Hari, ordea, jasapenaren neurriak lepo egiteko, bihotz etikoki onak soilik barnebarnean senti dezakeen mina sentiarazteko, irudika dezakegu bere familiak *amore emateko eskatzen* diola premia izugarriak eta beharrak mehatxatuta, eta hark zuzen izaten dirauen arren, sentimenduaren organo irmo, sentigaitzik izan gabe errukia eta norberaren premiei dagokienez, min adierazezina sortu zaion egun hori inoiz bizi ez zuela desiratzen zuen une batean, eta hala ere bere zintzotasun-jaidurei eusten diela, zabunkatu gabe eta zalantzarik ere egin gabe; orduan nire entzule gazteek pixkanaka onarpen soiletik miresmenera egingo dute gora eta hortik harridurara, eta azkenean ohoratze handienera eta desi-

ra bizi batera, norbera horrelako gizona izateko desirara (noski, haren egoeran egon gabe); eta, hala ere, hemen bertuteak hain balio handia du hori lortzeak lan handia ematen duelako, ez abantailarik ematen duelako. Miresmen osoa eta izaera horren antza izateko ahaleginak ere oinarritzko esakune etikoaren araztasunean oinarritzen dira osorik, zeina zuzenean begien aurrean errepresenta daitekeen gizakiak zorionari soilik egokitu ahal dion guztia ekintzaren bultzagaieetatik kentzen den heinean. Beraz, etikotasunak giza bihotzean hainbat indar gehiago izan du hura aratzago aurkezten den heinean. Eta hortik ondorioztatzen da ezen, ohituren legea eta santutasunaren eta bertutearen irudiak gure arimaren gain eraginen bat izan behar badu, hori egin dezaketela bihotzean ezartzen direnean bultzagai gisa aratzak, euren ongizatearen asmoekin nahastugabeak diren heinean, jasaten duenean azaltzen delako era bikainenean. Zerbaiten bazterketak indar higitzaile baten eragina indartzen badu, hark oztopo bat izan behar zuen. Ondorioz, norberaren zorionean jatorria duen bultzagaien nahasketa orok oztopo izan behar du lege moralari giza bihotzaren gaineko eragina emateko. Eta, gainera, baieztatzen dut ekintza miresgarri hartan ere, haren bultzatzailea bere betebeharrari zitzaion begirune handia zenean, legeari zaion begirune horrek duela indar handiena ikuslearen gogamenaren gain, ez bada handitasunaren eta pentsaera noble, merezimenduzkoaren barne iritziaren gaineko uzi bat, eta ondorioz, betebeharrak, eta ez merezimenduak, izan behar duela gogamenaren gainean eragin determinatuen, eta gainera, bere haustezintasunaren argi onean errepresentatzen denean, eragin sakonena.

Gure garai honetan metodo horren aurkezpena inoiz baino garrantzitsuagoa da, zeren sentimendu samurren, sentiberen bidez, edo hantuste hegalarri, puztu eta bihotza indartu beharren zaputzen dutenen bidez gogamenean eragin gehiago izatea itxaroten baita, giza betegintzarre ezari eta ongian egiten den aurrerabideari hobeto egokitzen zaion betebeharraren errepresentazio lehor eta serioaren bidez baino. Haurrei ekintzak noble, eskuzabal, merezimenduzko gisa erakusteak eredu gisa, pentsatuz gogo bizi baten bidez eskuratuz onartuko dituztela, inolaz ere ez du bere xedea lortzen. Izan ere, haiek betebeharrak arruntaren betetzean eta, gainera, horren juzgaketa zuzenean hain atzeratuta daudenez, horrek goizegi amesle bihurtzea adina esan nahi du. Baina gizakien zati ikasienen eta esperientzia handikoenen

artean ere ustezko bultzagai horrek eragin kaltegarria ez badu ere, ez du egiazko eragin moralik bihotzean, hori izaki lortu nahi zena.

Sentimendu guztiek, bereziki gehiegizko nekeak sortu ohi dituztenek, bizienean daudenean eta lasaitu aurretik eragin behar dute, bestela ez dute eraginik, bihotza berez bere berezko higadura lasaiera itzultzen den heinean eta, horrela, aurretik zuen lasaitasunarena itzultzen den heinean, hura kitzikatzen zuen zerbait bai baina hura indartzen zuen ezer ez zegoelako. *Oinarrizko esakuneak* adigaien gainean eraiki behar dira, beste edozein oinarriren gainean arinkeriak baino ez dira sortzen, pertsonari ezein balio moral eskuratu ezin diotenak, ezta bere buruan konfiantza gutxienik ere, hori gabe bere jaidura moralaren eta halako izaeraren kontzientziak, gizakian ongi gorenak denak, ezin duenean gertatu. Baina adigai horiek subjektiboki praktikoak bihurtu behar badute, ez dute etikotasunaren lege objektiboan geratu behar, hori mirestekoa eta gizatasunari lotuta goraiatzeko, baizik eta gizakiekin eta bere banakotasunarekin erlazioan ikusi behar dugu; bada, orduan lege hura begirune handiena merezi duen tankeran agertzen da, baina ez berez ohituta dagoen eremuan kokatuko balitz izango lukeen bezain atseginean; behartuta dago hori sarri norberaren ukazioa eginez uztera eta beste garaiago batera joatera, non erorketaren ardura etengabea izanik neke handiz mantendu ahal den. Hitz batean, lege moralak betetzea eskatzen du betebeharragatik, ez auresuposatu ezin den eta ezin beharko litzakeen hobespenagatik.

Ikus dezagun orain adibide batean ea ekintza baten errepresentazioan ekintza noble eta eskuzabal gisa bultzagai subjektibo baten indar higitzaile gehiago dagoen betebeharrak gisa errepresentatzen denean baino lege moral serioari lotuta. Norbaitek bizitza erabat arriskuan jarritz saiatzen badu jendea ontzi hondoratu batetik salbatzen, eta azkenean hor bizitza ere galtzen badu, ekintza hori alde batetik betebeharrari egozten zaio, baina bestetik eta nagusiki merezimenduzko ekintzat hartzen da, baina guk egiten dugun haren goraiapamena *norberarekiko betebeharraren* adigaiaren bidez ahuldu egiten da, horrek itxuraz oztopoa jasaten duelako. Erabakigarriagoa da norberaren bizitzaren sakrifizioa aberriaren defentsan, eta hala ere, betebeharrak hain betegina bada ere norberaren kabuz eta inoren agindupean egon gabe asmo horri ematea, horri buruzko eragozpen batzuk geratzen dira, eta ekintzan ez du bere baitan eredu baten indar osoa eta imita-

ziorako bultzada. Baina betebeharrak utziezina bagenuke, zeinaren haus-turak lege moralak bere baitan eta gizakien ongizateari begiratu gabe urratzen duen eta horren santutasuna zapaltzen duen (halako betebeharrak ohiz Jainkoaren aldera ditugun betebeharrak deitzen dira, zeren horretan santutasunaren ideala substantzian pentsatzen baitugu), orduan hori betetzeari ematen gatzazkio gure joera guztien barneko-arentzat betiere balio izan dezakeen guztia sakrifikatuz, begirune beteginena, eta gure arima halako adibidearen bidez indartu eta goratu egiten da, horretan konbentzitu ahal bagara giza izaera gai dela naturak betiere aurkako bultzagai gisa azal dezakeen guztiaren gainetik hainbeste goratzeko. *Juvenal*-ek aurkezten du halako adibidea goranzko mailaketa batean, irakurleari betebeharraren lege hutsean betebeharrak gisa dagoen bultzagaiaren indarra biziki sentiarazten dion adibidea:

*Izan zaitez soldadu on, tutore on, baita epaile
Zuzena ere; autu anbiguo eta zalantza garri batean
Lekuko bezala deitzen bazaituzte, Phalarisek
Agintzen badizu ere faltsu izateko eta zina
Hausteko zezena zuregana ekarri, sinets ezazu
Kalte handiena dela bizitza ohoreari lehenestea,
eta bizitzagatik bizitzeko arrazoiak galtzea*³².

Merezimenduzkoaren limurgarria den zerbait sartzen badugu gure ekintzan, orduan bultzagaia dagoeneko norberaren maitasunarekin nahasten da zertxobait, eta beraz, laguntza pixka bat du sentimenaren aldetik. Baina betebeharrean dena santutasunaren atzera bidaltzea eta ohartzea hori egin *daitekeela* gure arrazoimenak hori bere agindu gisa berrezagutzen duelako eta esaten duelako hori egin *behar* - *ko* litzatekeela, bada, horrek esan nahi du sentsuen mundutik gain goratzea erabat, eta hori legearen kontzientzian *sentimenari nagusi* - *tzen zaion* ahalmen baten bultzagai gisa era bereiztezinean lotuta dago, eta beti ondorioak ez baditu ere, hura sarri lantzeak eta hasieran haren erabileraren saio txikiak direnek ondorioa lortzeko itxaropena ematen dute, horrela gudan pixkanaka horretan hartzen dugun interes moral huts handiena sortzeko.

Metodoak honako bide hau hartzen du. *Lehen* ardura da lege moralen arabera juzgaketa berezko eginkizun bihurtzea, gure ekintza guztiekin eta besteen ekintza askeen behaketarekin batera doan eginkizuna, eta era berean ohitura bihurtzea eta hura zorroztea, lehenik galdetzen den heinean ea ekintza objektiboki *lege moralari egoki* - *tzen* zaion eta zeini; eta lotespenaren *oinarria* baino ematen ez duen legeari arreta egitatean *lotzaile* den legeari emandakotik ezberdintzen da (*leges obligandi a legibus obligantibus*), (esaterako, gizakiaren *pre-miak* nigandik eskatzen duenaren legea horren *eskubideak* eskatzen duenaren aldean, azkenak funtsezko betebeharrak, lehenak funtsezkoak ez direnak ezarri) eta horrela ekintza batean elkartzen diren hainbat betebeharrak ezberdintzen irakasten du. Arreta eskaini behar diogun beste puntua galdera hau da: ea ekintza (subjektiboki) *lege moralaga-tik* gertatu den, eta beraz, zuzentasun etikoa izateaz gain ekintza gisa ea gainera balio etikoa duen jaidura gisa, horren maximaren arabera. Zalantzarik gabe ariketa horrek eta hortik sortzen den praktikoari denari buruz baino juzgatzen ez duen arrazoimena lantzearen kontzientziak pixkanaka interes jakin bat sortu behar dute horren legeari eta, beraz, etikoki onak diren ekintzetan. Izan ere, guk azkenean gustua hartzen diogu aztertzean gure ezagumenen erabilera hedatua sentiarazten digunari, eta hori bereziki sustatzen du zuzentasun morala duen horrek, zeren arrazoimenak gauzen halako ordenan baino ezin baitu lortu asebetea gertatu behar duena a priori printzipioen arabera determinatzeko duen ahalmenarekin. Naturaren behatzaile batek bere sentsuei hasieran iraintzen dien objektuari gustua hartzen dio, hor haren antolamenduaren xedetasun handia aurkitzen duenean eta horrela bere arrazoimenak horren azterketan elikatzen denean, eta *Leibnizek* mikroskopioarekin arretatsu behatu zuen intsektua kontuz bere orrira itzuli zuen, haren ikuspegia irakasgarria zitzaiolako eta horren eskutik era berean ekintza on bat jaso zuelako.

Gure ezagumenek sentiarazten diguten juzgamenaren betekizun hori ez da oraindik ekintzetan eta euren moralitasunean dugun interesa. Juzgaketa horrekin gustura aritzea baino ez du eragiten, eta bertuteari edo lege moralaren arabera pentsaerari edertasun forma bat ematen dio, miresten duen forma, baina ez horregatik bilatzen dena (*laudatur et alget*); eta berdin sortzen du ongizatea aztertzean subjektiboki gure errepresentazio ahalmenen harmoniaren kontzien-

tzia eragiten duen orok, non guk gure ezagumen guztia indartua sentitzen dugun (adimena eta irudimena), besteei ere jakinarazi daitekeen ongizatea, objektuaren existentzia axolagabe zaigun arren, abagunetzat baino ez baita hartzen gugan aberetasunetik gaindi dagoen talentuen egitura ohartzeko. Orain, ordea, *bigarren* ariketa dator, hots, jaidura moralaren aurkezpen bizian adibideetan nahimenaren araztasuna azpimarratzea, hasiera batean haren betegintzarre negatibo gisa baino ez, betebeharragatik egiten den ekintza batean joeren ezein bultzagaik ezin duen heinean harengan eragin determinaziooinarri gisa; baina horren bidez ikasleak bere *askatasunaren* kontzientziari arreta eskainiko dio, eta, uko egite horrek hasieran minaren sentsazioa sortzen duen arren, hala ere, ikasle hari egiazko premien hertsapena kentzen dion heinean, aldi berean hari iragartzen dio premia horiek sortzen dioten poztasun eza askotariko horietatik askapena, eta gogamena poztasuna beste iturrietatik sentitzeko gai bihurtzen da. Ezkutuan beti hertsatzen dion zama batetik askatzen eta arintzen da horrela bihotza, aurkezten diren erabaki moral hutsen adibideek gizakiari erakusten diotenean hari ongi ezaguna ere ez zitzaien ahalmena, joeren jazarpen ozenetik hain urrun ihes egiteko *barne askatasuna*, non horietako ezeinek, ezta maitatuenak ere, ez baitu eraginik gure arrazoimena erabili beharko genukeen erabaki baten gain. Kasu batean, non *nik bakarrik* dakidan okerra nire aldeetik datorrela, eta, horren aitorten askeak eta asebetearen eskaintzak harrokerian, berekoikerian, eskubidea urratu zaionaren aurkako antipatian, bestelakoan legeztatugabea ez denean, hain aurkakotasun handia aurkitzen duen arren, hala ere eragozpen horietatik guztietatik aska banaiteke, hor joeretatik eta zorion egoeretatik eta norberaren burua asebetetzeko ahalgarritasunetik beregain izateko kontzientzia barnebiltzen da, niri osasungarri zaidana, baita beste asmatarako ere. Eta horrela betebeharraren legeak hori betetzeak sentiarazten digun balio positiboaren bidez sarrera errazagoa aurkitzen du *geure buruari diogun begirunearen* bidez gure askatasunaren kontzientzian. Hori ongi oinarrituta dagoenean, gizakiak ezeren beldur gehiago ez duenean bere barne probaketan bere begien aurrean ziztrin eta alferrikako aurkitzea baino, hor itsats daiteke jaidura etiko on oro, zeren hori baita gogamenean bultzatzaile ez noble eta alferrik galtzaileak sartzea galaraziko duen zaindari onena, baita bakarra ere.

Aurrekoaren bidez formazio eta praktika moralaren irakaspen-metodoaren maxima orokorrenak aipatu baino ez nuen nahi. Betebeharren aniztasunak horietako mota bakoitzarentzat determinazio bereziak behar dituen ez horrek, beraz, zeregin zabalago bat osatuko lukeenez, barkatuko zaidala pentsatuko dut, honelako idazki batean, ariketa baino ez denean, hori oinarritzko ezaugarri horiek emanez uzten badut.

Ebazpena

Bi gauzek betetzen dute gogoa beti berriagoa eta gehigarriagoa den harridura eta adeitasunaz, zenbat eta maizago eta ekinkorrago jardun berarekin gogoeta: *zeru izartua niregain eta lege morala niregan*. Biak ezin ditut iluntasunean gorde, edo guztiaz haratago dagoenean nire ikusmugatik at bilatu edo soilik suposatu behar; nire aurrean ikus-ten ditut eta bitartekorik gabe nire izatearen kontzientziarekin uztartzen ditut. Lehenengoa kanpoko sentimenezko munduan nik betetzen dudana tokian hasten da eta kokatzen naizen uztardura zabaltzen du munduz munduko eta sistemaz sistemako kopuru neurgaitzekin, bere higadura periodikoaren denbora mugagabean, bere hasieran eta jarraipenean. Bigarrena nire nia ikusezinean hasten da, nire nortasunean, eta benetako mugagabetasuna duen mundu batean aurkezten nau, nahiz eta adimenak bakarrik ulertzen duen, zeinarekin (eta gainera, beste mundu ikusgarri haiekin ere) uztardura orokor eta beharrezkoan berrezagutzen naizen, ez ausazkoan soilik beste haren modura. Munduen kopuru neurgaitzaren lehenengo ikuskizunak birrindu egiten du, nolabait esateko, nire garrantzia *animalia sorkari* gisa, zeinak (unibertsoko puntu soila) planetari itzuli behar dion bera osatzeko erabili den materia, denbora labur baterako (ez dakigu nola) bizi indarraz hornitua izan ondoren. Bigarrenak, berriz, nire balioa goratzen du *adimendu* gisa mugagabeki nire nortasunaren bitartez, non lege moralak animaliatasunetik eta baita sentimenezko mundu osotik ere beregaina den bizitza erakusten didan, behintzat lege horretatik nire izateak jaso duen determinazio xedegarritik egiazta daitekeenez, bizitza honen baldintza eta mugek murrizten ez duten, baizik eta mugagabera doan lege horretatik.

Mirespenak eta errespetuak, ordea, ikerketa bultza dezakete, baina ezin dute bere gabezia ordezkatu. Zer egin behar da, bada, iker-

keta modu erabilgarri batean eta objektuaren bikaintasunari dagokionean abiarazteko? Adibideak hemen ohar modura erabil daitezke, baina baita ere du gisa ere. Munduaren ikuspena giza sentsuei aurkez dakiokeen ikuskizun bikainenetik eta adimenak bere hedapen zabalean bildu ahal duenetik hasi zen, eta astrologian izan zuen helmuga. Morala giza naturaren ezaugarri nobleenetik hasi zen, bere bilakaera eta kultura mugagabeko erabilgarritasunera zuzenduz, eta gogo-berotasun eta sineskerietan izan zuen helmuga. Horrela gertatzen da gaia- ren zati nagusia arrazoimenaren erabileraren menpe dagoen saiakera oraindano zakar guztietan; erabilera hau ez baita lortzen ariketa sarriarekin, oinen erabilerarekin gertatzen den modura, batez ere esperientzia orokorrean hain bitartekorik gabe aurkezten uzten ez diren ezaugarriak daudenez. Baina berandu bada ere, arrazoimena ematera doan urrats guztien aurretiko hausnarketa egiteko maximak indarra lortu ondoren eta bere bidea aurretik pentsatutako metodoaren ibilbidetik bakarrik egiten utzirik, munduaren eraikuntzaren juzgaketan zuzenbide guztiz ezberdina ezarri zen eta horrekin batera emaitza paregabeki zoriontsuagoa lortu zen. Harri baten erorketak, habaila baten higidurak, bere osagaietan eta kanporatutako indarretan aztertutak eta matematikoki landuak, azkenean munduaren ikuspegi hori eragin zuten, garbia eta aldagaitza etorkizun osorako, zeina behaketa gehigarriekin zabalduko dela itxaron daitekeen inoiz atzerakadarik izateko beldur izan gabe.

Gure naturaren egitura moralari dagokionez bide berdinari ekittea, adibide horrek aholka dezake eta arrakasta zoriontsu berdinarean itxaropena eman. Moralki juzgatzen duen arrazoimenaren adibideak eskura ditugu. Bere oinarritzko osagaietan zatikatuz, *matematikaren* gabezia baina *kimikaren* antzerako prozeduraz, bertan aurki daitekeen alde enpirikoa eta arrazoizkoa *bereiziz*, giza adimen orokorraren gaineko saiakera errepikatuen bitartez, biak huts-hutsean eta bakoitzak bakarrik sor dezakeena ziurtasunez ezagugarri eginez eta horrela zera ekidinez, alde oraindik *zakarra* eta aritu gabeko juzgaketaren errakuntza, alde (eta hau askoz beharrezkoagoa da) *jeinuaren ateraldia*, zeinek, filosofiaren harriaren jarraitzaileen modura, ikerketa metodiko oro eta naturaren ezagutzarik izan gabe ametsetako altxor- rarak agintzen dituzten, benetakoak xahutuz. Hitz batean, jakintza (kritikoki bilatua eta metodikoki bideratua) *jakituriara* daraman ate estua

da, horrekin zera ulertzen bada, ez bakarrik egin behar dena, baizik eta *maisuek* eredutzat erabiltzen dutena denek bete behar duten jakintzaren bidea ongi eta ezagutzaz irekitzeko eta besteak bide txarretik babesteko; jakintza horren zaindaria beti filosofia izango da, eta jendeak ez du horren ikerketa finean interesa hartu behar, baina bai horrelako lanaldiaren ondoren berari argitasun osoan agertu behar zaion *irakaspenetan*.

Oharrak

¹ Hemen inork *ondoriogabetasunik* topatzen duela irudika ez dezan, nik orain askatasunari lege moralaren baldintza baderitzot eta saiakeran gero baieztatzen badut ezen, lege morala askatasunaz berehala jabetu ahal izateko baldintza dela, bada, gogora ekarri nahi dut, besterik gabe, askatasuna noski lege moralaren *ratio essendi* dela, baina lege morala askatasunaren *ratio cognoscendi* dela. Izan ere, lege morala gure arrazoime-nean *lehenago* argiki pentsatu ez balitz, ez genuke inoiz zilegitzat joko askatasuna bezalako zerbait onartzea (horrek bere burua kontraesaten ez badu ere). Baina askatasunik ez balego, orduan *ezingo litzateke* gugan inolaz ere lege moralik *aurkitu*.

² «Zertan ari zarete? Ez dute nahi. Eta, hala ere, zoriontsu izan daitezke», Horazio, *Satirak*, I, 1, 19. (Itzul. oh.)

³ Ezinezkoa da kausalitatea askatasun gisa eta naturaren mekanismo gisa, lehena ohituren legeak, bigarrena naturaren legeak ezarrita eta, gainera, subjektu bakar berebean, gizakiarengan, bateratzea gizakia lehenarekiko harremanean berbaitango zerizan gisa, bigarrenarekiko harremanean, ordea, agerpen gisa,

hura kontzientzia *hutsean*, azken hori *enpirikoan* errepresentatu gabe. Hori gabe arrazoimenak bere burua kontraesango du ezinbestean.

⁴ Idazki hau gaitzesteko zerbait esan nahi zuen kritikariak berak uste izan zezakeena baina hobeto asmatu du esanez bertan moralitasunaren printzipio berririk ez dela aurkezten, *formula berria* bakarrik baizik. Nork nahiko luke, ordea, etikotasun ororen oinarritzko esakune berria aukeztu, hori lehenengoz asmatu balu bezala? Horren aurretik mundua betebeharra denari buruz ezjakin balitz edo erru erabatekoan balego gisa. Baina arazo bat askatzeko egin beharrekoa guztiz zehazki eta errurik egin gabe determinatzen duen formulak matematikariarentzat zer esanahi duen dakienak ez du esanahigabekotzat eta baztergarritzat hartuko hori oro har betebeharrori dagokionez egiten duen formula.

⁵ Beste eragozpen hau ere egin dakidake: ea zergatik ez ditudan *desiramenaren* edo *atseginaren sentimenduaren* adigaiak ere aurretik azaldu; nahiz eta eragozpen hori bidegabea litzatekeen, zeren azalpen hori psikologian zuzenki jasotzat jo

baitaiteke. Hala ere, definizioa bera honela antola liteke, desiramenaren oinarrian atseginaren sentimendua ezarriz (benetan gertatzen ohi den modura orokorrean), baina horren bidez filosofia praktikoaren printzipio nagusia halaberrez *enpirikoa* gertatuko litzateke; hori, ordea, oraindik erabakitzeke dago, eta kritika honetan erabat errefusatu da. Horregatik, hemen azalpen hau eman nahi dut, izan behar duen modura puntu eztabaidagarri hori bidezko denez hasieran erabakigabe uztarren. - Zerizan batek desiramenaren legeen arabera ekiteko duen ahalmena da **bizitza**. *Desiramena zerizan horrek duen ahalmena da bere errepresentazioen bitartez errepresentazio horien objektuen errealtatearen kausa izateko. Atsegina objektua edo ekintza bizitzaren baldintza subjektiboei* bat etortzearen errepresentazioa da, hau da, errepresentazioak bere objektuaren errealtateari dagokionez duen kausalitatearen ahalmenarekin (edo subjektuaren indarren determinazioarekin, objektua ekoizteko ekintzarako). Ez dut gehiago behar psikologiatik hartutako adigaien kritikarako; gainerakoa kritika berak jartzen du. Erraz ohartzen da azalpen horren bidez auzi hau erabaki gabe geratzen dela, hots, ea atsegina beti desiramenaren oinarri modura jarri behar den, edo baldintza jakin batzuetan ere haren determinazioari jarraitu baino ez ote zaion; izan ere, hori adimen hutsaren ezaugarriez, hau da, enpirikoa den ezer barnebiltzen ez duten kategoriez osatzen da. Zuhurtasun hau oso gomendagarria da filosofia osoan, eta, hala ere,

askotan izkina egiten zaio, alegia, judizioak egiterakoan definizio ausartaren bitartez ez aitzinatzea askotan oso berandu lortzen den adigaiaren analisi osoa egin aurretik. Kritika osoaren ibilbidean zehar (arrazoimen teoretikoaren nahiz praktikoaren kritikarenean) ohartarazten da bertan aukera anitz aurkitzen dela filosofiaren bide zahar dogmatikoaren zenbait gabezia osatzeko eta adigaien *osotasunera zabaltzen den* arrazoimenaren erabilera egin artean ohartarazi ez ziren errakuntzak aldatzeko.

⁶ (Ulergaiztasun hark baino) gehiago arduratzen nau hemen noizbehinka arreta handienarekin aukeratu nituen zenbait adierazpenen gaizkiulertzeak, zegozkien adigaiek huts egin ez zezaten aukeratu ere. Horrela, arrazoimen praktikoaaren kategorien taulan, modalitatearen izenburuan, baimenduak eta baimenduga-beak (praktiko-objektiboki ahalgarria eta ezinezkoa) hizkuntzaren erabilera orokorrean ondoren datozen *betebeharra eta betebeharraren aurkakoaren* ia zentzu berbera dute; hemen, ordea, *lehenengoak* esanahi hau izan behar du, hots, agindu praktikoa ahalgarri soilarekin ados edo horren aurka dagoena (geometria eta mekanikako arazo guztien konponketa, adibidez), eta *bigarrenak*, hala-ko harremanean arrazoimenean oro har *benetan* datzan legeari dagokiona; eta esanahi bereizketa hori hizkuntzaren erabilera arruntari ere ez zaio guztiz arrotza, pixka bat bitxia bazaio ere. Horrela, adibidez, hizlariari, hizlari den heinean, *baimendugabea* zaio hitz edo egitura berriak ekoiztea; olerkariari *baimendua* zaio

neurri jakin batean; bietako inorengan ez da betebeharrean pentsatzen. Izan ere, hizlari onaren izena galdu nahi duenari inork ezin dio hori debekatu. Hemen *aginduen* arteko bereizketaz baino ez gara arduratzen, determinazio-oinarri *problematiko*, *asertoriko* eta *apodiktikoaren* araberrako bereizketaz. Era berean, *ideia* moralen betegintzarre praktikoa eskola filosofiko ezberdinak aurrez aurre jarritz jorratu nuen oharrean, jakituriaren *ideia* santutasunetik bereizi nuen, nahiz eta berehala funtsean eta objektiboki berdintzat jo nituen. Baina horrekin hemen gizakiak (estoikoak) bereganatzen duen jakituria bakarrik ulertzen dut, gizakiari *subjektiboki* ezaugarri gisa egozten zaiona (Agian *bertute* adierazpenak, estoikoak hainbeste erabiltzen zuenak, hobeto izenda lezake bere eskolaren berezitasuna). Baina arrazoimen huts praktikoa *postulatuaren* adierazpenak sor litzake gaizkiulertu gehienak, matematika hutseko postulatuek duten esanahiarekin nahastuko balitz, azken horiek ziurtasun apodiktikoa baitakarte. Baina azken horiek *ekintza baten ahalgarritasuna* postulatuaren dute, zeinaren objektua teoretikoki a priori ziurtasun osoz *ahalgarri* gisa aurretik ezagutua izan den. Hark, ordea, objektu baten ahalgarritasuna postulatu du (Jainkoarena eta arimaren hilezkortasunarena) lege apodiktiko *praktikoetatik* abiatuz, eta beraz, arrazoimen praktikoa batentzat bakarrik; izan ere, postulatuaren ahalgarritasunaren ziurtasuna ez da inolaz ere teoretikoa, ezta apodiktikoa ere, beraz, hau da, ezagututako beharrezkotasuna objektuari dagokionez, bai-

zik eta subjektuari dagokionez da beharrezko onarpena bere lege objektibo baina praktikoa betetzeko, eta beraz, beharrezko hipotesia besterik ez da. Ez nintzen gai izan arrazoimenaren beharrezkotasun subjektibo baina egiazko eta baldintzagabeko horrentzat adierazpen hobe aurkitzeko.

⁷ «Apar-harritik ura», Plauto, *Persa* I, 1, 41

⁸ Sekta batetik atxikimendua izendatzen duten izenek bidegabekeria ugari sortu dituzte beti, gutxi gorabehera norbaitek zera esango balu bezala: N. *idealista* da. Izan ere, horrek onartu ez ezik eskatu ere egiten duen arren, noski, kanpoko gauzen gure errepresentazioei egiazko kanpoko objektuak egokitzea, hala ere objektu horien begiespenaren forma giza gogamenaren menpe egotea nahi du, ez objektuen menpe.

⁹ Esaldiak zentzua izan dezan egiten den gaineraketa (Itzul. oh.).

¹⁰ Matematikan edo fisikan *praktiko* deitzen zaien esakuneak egiatan *teknikoak* izena izan beharko lukete. Izan ere, irakaspen horiek ez dute zer ikusirik nahimenaren determinazioarekin; ekintza ahalgarriaren aniztasuna baino ez dute eraskusten, eragin jakin bat lortzeko nahikoa dena, eta kausa bat eta haren eraginaren arteko elkarlotura adierazten duten esakune guztiak bezain teoretikoak dira. Azken hori maite duenak, bada, lehenengo hura ere onartu beharko du.

¹¹ Nahi dut eta agintzen dut (Itzul. oh.).

¹² Jatorrizkoak «praktiko» esaten du, baina zentzuaren arabera «espekulatibo» izan behar du (Itzul. oh.).

¹³ Ez dugu ezer desiratzen, ona dela pentsatzen ez badudu; ez dugu ezer gorrotatzen, gaitza dela pentsatzen ez badugu (Itzul. oh.).

¹⁴ Gainera, *sub ratione boni* adierazpenak ere bi zentzu ditu. Izan ere, bi gauza hauek esan nahi ditzake: zerbait on gisa errepresentatzen dugu, *desiratzen* (nahi) dugunean eta dugulako; edo zerbait desiratzen dugu, hori *on* gisa errepresentatzen dugulako, halako moldeaz non desira baita objektuaren adigaiaren determinazio-oinarria hori ona den alde-tik, edo ongiaren adigaia baita desiratzearen (nahi izatearen) determinazio-oinarria; izan ere, *sub ratione boni* adierazpenak lehen kasuan esan nahiko luke zerbait nahi dugula ongiaren *ideiaren barne*, eta bigarreanean *ideia horren ondorioz* nahi dugula, zeinak nahi izatearen aurretik etorri behar duen horren determinazio-oinarri gisa.

¹⁵ Jatorrizkoan «lege» esaten du, baina zentzuaren arabera «sentimendu» izan behar du (Itzul. oh.).

¹⁶ «Arimaren gidatzailea» (Itzul. oh.).

¹⁷ Legeagatik gertatu ez den legezko ekintza orori buruz esan daiteke: *hizkien* arabera bai, baina *espiritua-
ren* (jaiduraren) arabera ez da moral-ki ona.

¹⁸ «Etikotasuna» esaten du jatorrizkoan (*Sittlichkeit*), baina argi dago «sentimena» (*Sinnlichkeit*) izan behar duela (Itzul. oh.).

¹⁹ Pertsonen zaien begirunearen adigaia, lehenago aurkeztu den moduan, zehazki aztertzen bada, ohartzen da beti betebeharen baten kontzientzia oinarritzen dela, zeinak adibide bat erakusten digun, eta

beraz, begiruneak ezin duela izan oinarri moralak ez den beste oinarri-rik, eta oso ona dela eta gainera oso baliagarria, gizakiak asmo psikologikoan ezagutzeko, adierazpen hori behar dugunero gizakiak bere juzgaketetan lege moralari ematen dion arreta sekretu eta mirezgarria baina sarri hor dagoena kontuan hartzea.

²⁰ Norberaren zorionaren printzipioak, norbaitzuek etikotasunaren oinarritzko esakune goren bihurtu nahi dutenak, alde handia du lege horrekin; hark horrela esango luke: *zeure burua maita ezazu beste guz-tiaren gainetik, baina jainkoa eta lagun hurkoa zeure buruaren mese-detan*.

²¹ Jacques de Vaucanson (1709-1782). Aipatzen den automata 400 osagai zituen ahate mekanikoa zen (Itzul. oh.).

²² Itxuraz sorkari bati berez zaio ezinezkoa bere jaiduraren aldaezintasunaren *konbentzimendua* ongi-rantz egiten duen aurrerabidean. Horregatik, erlijio-irakaspen kris-tauak santutzea eragiten duen espiri-tu berberean ezartzen du horren jatorria, hau da, asmo irmo hori eta horrekin batera aurrerapen moralean iraunkotasunaren kontzientzia eragi-ten duen espirituan. Baina bere bizi-tzako zati handi bat haren azkenerai-no hoberanzko aurrerapenean eman duela eta, gainera, bultzatzaile moral egiazkoengatik egin duela ohartzen duenak izan dezake honen itxaropen kontsolagarria, ziurtasuna izango ez badu ere, hots, bizitza honen ondoren jarraituko duen exist-entzia batean oinarritzko esakune horiei eutsiko diela, eta noizbait

etorkizun santutu bat itxaron ahal izango duela, nahiz eta bere begien aurrean hori hemen inoiz legezkatuta ez egon, ezta etorkizunean espero ahal izango duen bere natur betegintzarrearen eta horrekin batera haren betebeharren hazkuntzan ere, aurre-rabide horretan, amaigaberantz atzeratzen den helburu bati badagokio ere, dena den, jainkoarentzat jabego gisa balio duen arren. Izan ere, hori baita arrazoimenak erabiltzen duen adierazpena munduko kausa ausazko guztietatik beregaina den ongizate bete hori izendatzeko, *santutasu* -*na* bezala aurrerapen amaigabe batean eta horren osotasunean soilik barnebil daitekeen ideia dena, eta beraz, sorkariak inoiz guztiz lortu ezin duena.

²³ Arrunki uste da ohituren arau kristauak bere araztasunari dagokionez ez duela abantailarik estoikoen adigai moralaren aldean; baina bien arteko bereizkuntza nabarmena da. Sistema estoikoak arimaren indarraren kontzientzia hartu zuen jaidura etiko osoen ardatz gisa, eta estoikoek betebeharrei buruz hitz egiten bazuten ere, horiek oso ongi determinatzen bazituzten ere, nahimenaren bultzagaiak eta benetako determinazio-oinarria ezartzen zuten pentsaera sentsuen bultzagai baxuen gainetik, arimaren ahulkeriagatik indartzen diren bultzagaien gainetik goratzean. Bertutea haientzat heroismo jakin bat zen, gizakiaren animalia-izaeraren gainetik goratzen zen *jakintsuaren* heroismoa, buruasakia dena, besteei betebeharrak erakusten diena, baina haietatik gorago dagoena eta lege etikoa hausteko ezin tentaldiren menpe ez dagoena.

Hori guztia, ordea, ezin izango luke te egin, lege hori araztasunean eta zorrozki errepresentatu ez balute, Berri Onen arauak egiten duten moduan. *Idea* batez esperientzian horri dagokion ezer egon ezin den betegintzarre bat ulertzen badut, orduan lege moralak ez dira horregatik transzendenteak, hau da, hala-koak non horien adigaia ere ezin baitugu nahikoa determinatu, edo horietaz ez da ziurra ea horiei edonon objektu bat dagokien, arrazoi-men espekulatiboaren ideien kasuan bezala, baina bestalde betegintzarre praktikoaeren eredu gisa joera etikoaeren ezinbesteko eredutzat eta aldi berean *alderaketarako neurritzat* balio dute. Nik orain *moral kristaua* bere alderdi filosofikotik begiratzen badut, itxura hau izango luke eskola grekoen ideiekin alderatuz gero: *zinikoen*, *epikuroarren*, *estoikoen* eta *kristauen* ideiak hauexek dira: *naturaren bakuntasuna*, *zuhurtasuna*, *jakiturgia* eta *santutasuna*. Hori lortzeko bideari dagokionez, filosofo grekoak honela bereizten dira euren artean: zinikoeak horretarako *giza adimen arrunta* dute eta besteek *jakintzaren bidea* besterik ez, baina guztiek uste zuten *berezko indarren erabilera* soila nahikoa zela horretarako. Moral kristauak, bere araua hain aratza (behar duen bezala) eta ezinbestekoa bezala ezarri, gutxienez hemen bizitzan hari egokitzeak konfiantza kentzen die gizakiei, baina bestalde honela ezartzen du berriro ezen, *gure esku* dagoen bezain ongi jokatzeko badugu, itxaron baitezakegu gure esku ez dagoena beste nonbaitetik etorriko zaigula, guk hori nola gertatuko den

jakin ala ez jakin. Gure adigai etikoen *jatorriari* dagokionez baino ez ziren ezberdintzen *Aristoteles* eta *Platon*.

²⁴ Honi buruz eta adigai horren bereizgarria argitzeko, ohar hau baino ez dut egingo, ezen jainkoari zenbait ezaugarri egozten zaizkionez, zeinen nolakotasuna sorkarientzat ere egokia dela uste baita, salbu jainkoan maila gorenera iritsi direla, adibidez, boterea, jakintza, presentzia, ongia, eta abar, oroahalmen, orojakintza, oropresentzia, ontasun osoaren izenpean, eta abar, bada, hala ere, badaude hiru ezaugarri jainkoari soilik egozten zaizkionak mailarik aipatu gabe, eta denak ezaugarri moralak dira. Hura da *santu den bakarra*, *dohatsu den bakarra* eta *jakintsu den bakarra*; zeren adigai horiek dagoeneko euren baitan murriztapen eza baitaramate. Horien ordenaren arabera, beraz, hura gainera *lege-emaile* (eta sortzaile) *santua* da, *gobernari* (eta mantentzaile) *ona* eta *epaile zuzena*; hiru ezaugarri horiek barnebiltzen dute euren baitan jainkoa erlijioaren objektu bihurtzen duen guztia, eta horien arabera betegintzarre metafisikoak berez gaineratzen dira arrazoimenean.

²⁵ «Ez» hori ez da agertzen jatorrizkoan, baina behar du (Itzul. oh.).

²⁶ Jatorrizkoan «teologiko» (*theologisch*) esaten du, baina «teoretiko» (*theoretisch*) irakurketa hobesten dut (Itzul. oh.).

²⁷ Jatorrizkoan *oder* esaten du, «edo», baina *ohne* irakurketa egin dut, zentzuari jarraiki (Itzul. oh.).

²⁸ *Ikaskuntza* jakintza *historikoen*

bilkura baino ez da benetan. Ondorioz, agerkundearen teologiaren irakasleari soilik dei dakioke *teologian ikasia*. Arrazoimen-jakintzen (matematika eta filosofiaren) jabe denari ikasi deitu nahiko balitzaioke, hori hitzaren esanahiaren (izan ere, ikaskuntzaren zati da betiere *irakatsi* egin behar dena eta, beraz, ez arrazoimenaren bidez berez asma daitekeena) aurka balego ere, orduan filosofoak itxura txarregia izango luke, jainkoaz duen ezagutza horrekin jakintza positibo gisa, *ikasia* izena merezi ahal izateko.

²⁹ Baina hemen ere ezingo genuke *arrazoimenaren* premia baten aitzakia aipatu, begien aurrean arrazoimenaren adigai problematiko baina ezinbesteko bat ez bagenu, hots, erabat beharrezkoa den zerizanarena. Adigai hori determinatu behar da orain, eta hori, hedapenerako bultzada gaineratzen denean, arrazoimen espekulatiboaren premia baten oinarri objektiboa da, hots, zerizan beharrezko baten adigaia, besteen jatorrizko oinarri gisa balioko duena horiek zehazkiago determinatzeko eta azken hori horren bidez ezagutarazteko. Aurretik sortzen diren halako beharrezko arazorik gabe ez dago *premiarik*, gutxienez ez dago *arrazoimen hutsaren* premiarik; gainerakoak

³⁰ *Deutsches Museum* aldizkarian, 1787ko otsailekoan, buru oso fin eta argi baten idazkia dator, *Wizenmann* zenarena, zeinaren heriotza goiztarra deitoratu behar den, eta idazkian ukatu egiten du premia batetik horren objektuaren errealitate objektiboa arrazoitzeko eskumena, eta kontu hori *maitemindu* baten adibidea era-

biliz argitzen du, zeinak bere ameskeria baino ez zen edertasunaren ideia batekin erotuz, arrazoitu nahi baitzuen halako objektua benetan nonbait existitzen zela. Arrazoi guztia ematen diot premia *joeran* oinarritzen den kasu guztietan, horrek ezin baitu eragiten dionari bere objektuaren existentzia halabeharrez postulatu, are gutxiago barnebilduko du edonorentzat balio duen eskakizuna, eta horregatik desiren oinarri *subjektiboa* baino ez da. Baina orain *arrazoiaren* *premia* dugu, nahimenaren determinazio-oinarri *objektibo* batek sortzen dena, hots, lege moraletik, zeinak zerizan arrazoidun oro lotzen duen halabeharrez, eta beraz, naturan berari dagozkion baldintzen aurreuposizioa a priori egiteko eskubidea du, eta azken hori arrazoimenaren erabilera praktikoa osatutik bereiztezin bihurtzen du. Betebeharra da ongi gorena gure ahalmen handienaren arabera egikaritzea; horregatik, ahalgarri ere izan behar du; eta beraz, ezinbestekoa zaio munduko zerizan arrazoidun orori horren ahalgarritasun objektiborako beharrezkoa dena auresuposatzea. Auresuposizioa lege morala bezain beharrezkoa da, horrekin loturan baino ez izaki balioduna.

³¹ Jaidura eta gizatasun handi, interresgabeko eta errukarria adierazten

duten ekintzak goraipatzea aholkagarria da. Baina hori egitean ez zaio hainbeste arreta eskaini behar *arima-goratzeari*, oso iheskorra eta behin-behinekoa denari, baizik eta *bihotza betebeharrari menpekotzeari*, horretatik eragin luzeagoa espero daitekeenez, horrek oinarritzko eskakuneak dakartzalako berarekin (hark, orde, puztuketak besterik ez). Pixka bat hausnartu besterik ez dugu egin behar, beti aurkitzen da gizateriaren aurrean nolabait jaso dugun hoben bat (agian bakar hau da, gizakiek gizartearen eraketaren arabera duten ezberdintasunaren bidez abantailak izatea, horientatik besteek are gabezia gehiago jasoz), horrela *mereximenduzkoaren* irudikazio subjektiboaren bidez *betebeharrean* pentsatzea ez baztertzeko.

³² *Esto bonus miles, tutor bonus, arbiter idem*

Integer; ambiguae si quando citabere testis

Incertaeque rei, Phalaris licet impet, ut sis

Falsus, et admoto dictet periuria tauro:

Summum credo nefas animam praeferre pudori,

Et propter vitam vivendi perdere causas,

Juvenal, *Satirak* (Itzul. oh.).

Aurkibidea

HITZAURREA	7
BIBLIOGRAFIA	31
EGILEAREN HITZAURREA	33
SARRERA. Arrazoimen praktikoaren kritika baten ideiaz	43
LEHEN ZATIA. Arrazoimen praktiko hutsaren osagaien irakaspena . . .	47
LEHEN LIBURUA. Arrazoimen praktiko hutsaren analitika	49
LEHEN ATALA. Arrazoimen praktiko hutsaren oinarritzko esakuneez	51
I. Arrazoimen praktiko hutsaren oinarritzko esakuneen dedukzioaz	75
II. Arrazoimen hutsak erabilera praktikoan hedatzeko duen eskumenaz, erabilera espekulatiboan ezinezkoa zaiona . . .	84
BIGARREN ATALA. Arrazoimen praktiko hutsaren objektu baten adigaiaz	91
Juzgamen praktiko hutsaren tipikaz	101
HIRUGARREN ATALA. Arrazoimen praktiko hutsaren bultzagaiez	107
Arrazoimen praktiko hutsaren analitikaren argipen kritikoa . . .	124
BIGARREN LIBURUA. Arrazoimen praktiko hutsaren dialektika .	141
LEHEN ATALA. Arrazoimen praktikoaren dialektikaz oro har	143
BIGARREN ATALA. Arrazoimen praktikoaren dialektikaz ongi gorenaren adigaiaren determinazioan	147
I. Arrazoimen praktikoaren antinomia	150

II. Arrazoimen praktikoaren antinomiaren gaingipen kritikoa . .	151
III. Arrazoimen praktiko hutsaren lehentasunaz espekulatiboarekin duen loturan	156
IV. Arimaren hilezkortasuna, arrazoimen praktiko hutsaren postulatu gisa	158
V. Jainkoaren izatea, arrazoimen praktiko hutsaren postulatu gisa	159
VI. Arrazoimen praktiko hutsaren postulatuez oro har	166
VII. Nola pentsa daitekeen arrazoimen hutsaren hedapen bat asmo praktikoan aldi berean hark espekulatiboa den aldetik duen ezagutza hedatu gabe?	168
VIII. Arrazoimen hutsaren premiak eskatutako egiestea	175
IX. Gizakiaren ezagumenen proportzioaz, bere determinazio praktikoari zuhurki egokitzen zaion heinean	179
BIGARREN ZATIA. Arrazoimen praktiko hutsaren	
metodoaren irakaspena	181
METODOAREN IRAKASPENA	183
Ebazpena	193